Irisgarritasunari eta, oro har, mugikortasunari dagokienez, arreta berezia jarri behar da oinezkoentzako loturretan eta, batez ere, ibilgailuek oinezkoen ibilbideekin bat egiten duten tokietan, hala nola: garaje-irteerak, aparkalekuetarako sarbideak, bidegurutzeak, bideak gurutzatzeko pasabideak eta autobus-geltokiak. Oinezkoentzako ibilbideak seguruak izan daitezten, gomendagarria da honakoak kontuan izatea: errepideetan dauden oinezkoen pasabideak, zoladura mota, oinezkoentzako sarbideak... Irisgarritasun unibertsalaren, segurtasunaren eta garraio publikoaren garapenaren baldintzak hobetzeko jarduerak emakumeen mugikortasuna sustatzen dute, emakumeak baitira garraio publikoaren erabiltzaile nagusiak mugikortasun jasangarriaren esparruan. Halaber, gomendatzen da azterlan zehatzagoa egitea autobusgeltokien irisgarritasunari eta espazio publikoarekiko loturari buruz, bai eta iristeko zailtasun handienak dituzten eremuekiko konexioa aztertzea ere, hala nola industrialdeekiko konexioa; izan ere, garraio publikoaren erabilera sustatzearekin batera, erabilera unibertsal bihurtzen lagunduko duten neurriak hartu behar dira-eta.

Azkenik, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoa, aipatu behar da ezinbesteko praktika dela generoaren ikuspegitik parte-hartzea, horixe baita bizi-esperientzia hirigintza-metodora hurbiltzea ahalbideratzen duena eta, era berean, emakumezko askok egunerokoetan duten zeregina bistaratu dezakeena. Erronka handia da partaidetza-prozesu inklusiboak, integratuak eta lotesleak egitea, ahots ugariak eta anitzek pisua izan dezaten. Komeni da parte hartzeko kanal eraginkorrak irekitzea espazio publikoaren, zuzkidura-ekipamenduaren eta abarren esparruko elementu edo espazioen definizioan eta diseinuan.

4.5.2. PARTE-HARTZE DATUAK.

Guztira, bost lagunek hartu dute parte bi saioetan, guztiak bigarren saioan. HAPOa moduko dokumentu estrategiko bati begira, Zumarragako herritarren kopurua kontuan izanda, kuantitatiboki partaidetza-maila txikia egon da. Parte hartze baxuaren onodorioz proposatutako metodologia egokitu behar izan da, eta gai guztiak saio bakar batean landu dira, mahai bakar baten bueltan. Aipatu behar da web orriaren bidez online parte hartzeko aukera dagoela, eta bide horrek aurrez aurreko prozesuarekin bat egiten duela, beraz, bertaraterik izan ez duenak ere parte hartzeko bestelako aukerak zabalik ditu.

1. saioa:

Eguna: irailak 27, asteartea


Parte-hartzaile kopurua: 0

2. saioa:

Eguna: urriak 6, osteguna

Parte-hartzaile kopurua: 5

Generoari dagokionez, gizonen parte-hartzea emakumeena baino handiagoa izan zen, % 60koa % 40arekiko. Adin-tartearen inguruko ordezkaritzari dagokionez, parte-hartzaileen % 60a, 46-60 urte artekoak izan dira, eta ondoren 31-45 urte bitarteko biztanleek jarraitzen diete, % 40ko parte-hartzearekin. 18 eta 30 urte bitartekoen eta 61-75 urte bitartekoen parte-hartze maila nulua izan da. Beraz, udalerriko gazteenak erakartzeko kanal hurbilagoak erabili behar direla ondorioztatzen da, baita adinekoentzako kanal irisgarriagoak ere. Oro har, parte-hartze kuantitatiboa nahiko txikia izan da, eta, beraz, parte-hartzea sustatu beharko da aurrerapenfaseari begira.



4.5.3. ONDORIOAK

Ondoren, gaiaren arabera ezagutuko ditugu herritarren ekarpenak eta hausnarketak, eta horiei buruzko ondorio orokorrak jasoko ditugu. Hor batutako guztiak estrategia orokor batzuku emango dizkigu Zumarraga bizigarriagoa eraikitzen lagunduko digun Aurrerapena idazten hasteko.

MUGIKORTASUNA ETA AZPIEGITURAK:

Mugikortasuna da gure herri, hiri eta lurraldeen oinarria. Zumarragan mugikortasun iraunkorra lortzeko, piramidea alderantzikatu eta oinezkoei lehentasuna eman behar zaie.

Pertsonentzako espazioek lehentasuna izan behar dute. Horregatik, Zumarragako herritarrek uste dute oso garrantzitsua dela oinezkoentzako guneak egotea, eta Legazpi kalea oinezkoentzat jartzea indargune gisa definitzen dute. Oinezkoentzako ibilbideei dagokionez, adierazten da Ibaiondo pasealekua ez dagoela ondo egokituta, atzealde bezala funtzionatzen duela, ibaiaren ondoan ibilbide atsegina sortzeko egokitu beharko litzatekeela uste da. Herritar guztientzako oinezkoentzako ibilbideak bermatzeko beste alderdi garrantzitsu bat irisgarritasuna da. Alderdi horri dagokionez, irisgarritasuna hobetzeko egindako jarduketak indargune gisa baloratzen dira, hala nola kiroldegiaren ondoko igogailua. Ildo horretan intrebentzioak egiten jarraitu behar dela adierazi da.

Herritarrei kezka eragiten dien beste gai bat Zumarragako goialdearen eta behealdearen arteko lotura da, gaur egun errepide nazionalak banatzen duena. Adierazten da, neurriak hartu behar direla lurpeko pasabidearen irteeran pertsonen segurtasuna bermatzeko, eta errepide nazionala oinezkoentzako hesia izan ez dadin, errepidearen izaera aldatzeko pausuak eman behar direla.

Bizikleta, ez da jadanik aisialdirako edo kirolerako elementu soila, eta garraiobide gisa erabiltzen da. Egun dagoen bidegorri-sarea modu positiboan baloratzen da, Legazpirekin eta Zestoarekin konexio ona dagoela adierazten da, jende asko ibiltzen baita Bidegorrian. Bestalde, ikastetxeen ondoan bizikletak aparkatzeko leku nahikorik ez dagoela adierazi da, arazo hori azaltzen dute ikasleek ikastetxeetan.

Garraio publikoari dagokionez, trenak da Zumarragako ardatz nagusia, eta positiboki baloratzen dira, bai honen maiztasuna, zein zerbitzua. Zumarragako herritarrek trenak modu naturalean erabiltzen dute Gasteizera, Donostiara eta Bergarara joateko. Autobus-zerbitzua ere positiboki baloratzen da, intermodaletik zentrorako nahiz ospitalerako konexioa ona dela aipatzen da.



Ibilgailu pribatua erabiltzerari dagokionez, herritarrek hainbat arazo antzematen dituzte: segurtasunik gabeko puntuak, aparkaleku falta, TAOren arazoak. Hainbat puntu gatazkatsu aipatzen dira: Ibaiondo kaleko aldapa, parkearen eta igogailuaren arteko eremua... Aparkaleku publikoei dagokionez, Zelai Aristiko udal-aparkalekua modu positiboan baloratzen da, baina baldintza egokietan mantendu eta prezioak arautu behar direla adierazi da.

Ondorioztatzen denez, oinezko ibilbideen konektibitatea eta ibilgailu pribatuaren aparkalekuaren gaia Aurrerapenari begira landu beharreko bi gai dira. Udalerriaren barruan, funtsezkoa da ekipamendu eta zerbitzu guztiek sarbide erraza izatea, bai eta auzo guztiek ere, oso periferikoak edo isolatuak izan arren; espresuki aipatzen da goiko eta beheko aldea lotzeko beharra. Kanpoko konexioari dagokionez, oso modu positiboan baloratzen da, nahiz eta zenbait alderditan Urretxurekin koordinazio handiagoa bilatu beharko litzatekeela aipatzen den.

ESPAZIO PUBLIKOA ETA EKIPAMENDUAK

Zerbitzuei dagokienez, badirudi hauek direla Zumarragak dituen indarguneak: ospitalea, lanbide heziketako eskola, zinema, kultur etxea, hirugarren adinekoen egoitza, futbol zelai berria eta atletismo pista, komun publikoak, frontoia...

Hala ere, alderdi horretan ahulezia batzuk daude, adierazten denez: kirol-instalazioak ez dira nahikoak, dagoen eskaerari erantzuteko aterpetxe bat falta da, gazteentzako espazio bat falta da eta musika eta dantza eskola txiki geratu da... Erabilera gutxi duten edo aukerak dituzten eraikinei dagokienez, mojen komentuak erabilera gutxi duela planteatzen da, eta mojak birkokatzea planteatzea litekeela proposatzen da, eraikinari erabilera publiko bat eman ahal izateko, bertan hirugarren adinekoen egoitza bata jartzeko aukera aztertuz.

Espazio publikoei dagokienez, hiri-ingurunean berdegunerik eta zuhaitzik ez dagoela aipatu da, eta adierazi da jarduketa berrietan ez dela gai hori kontuan hartu, adibidez, Zelai Arizti plaza berritzean, plaza berritu zenetik udan ez baitago itzalik.

Estalitako espazioei dagokienez, positiboki baloratzen da plazako arkupeak estaltzea, eta balio anitzeko espazio estalirik ez dagoela adierazi da. Parke eta aisialdirako guneei dagokienez, parke guztiek ezaugarri berberak dituztela aipatzen da, eta adin desberdinetako pertsonen behar zehatzei erantzun egokiak emateko espazioak egokitu beharko liratekeela uste da.

PAISAIA ETA LANDA EREMUAK

Zumarraga landa-azalera handiko udalerrria da. Natura berehalakoa da, eta erreferentziarako udalerrria da historikoki, hiri- zein landa-izaera duelako.

Landa-auzoei dagokienez, hirigunearekin lotzen dituzten errepideak eta bidexkak hobetu behar dira, San Kristobalgo bidea segurua ez dela eta Bidaurretako eremuak garbitasunik eta mantentze-lanik ez duela adierazten da. Oinezko naturbideei dagokienez, Beloki azpiko bidea positiboki baloratzen da, eta zaindu beharreko elementutzat aipatzen da. Landa-inguruneari lotutako beste elementuetako bat auzo horien kultura- eta historia-ondarea da, eta indargune gisa baloratzen dira: Antioko baseliza eta Aginako auzoa.

Ibaia elementu garrantzitsua da udalerrientzat, eta Urola ibaia eta haren erriberak mantentzea, zaintzea eta garbitzea funtsezkoa da ibaia hobeto aprobetxatzeko, nahiz eta aurreko hamarkadekin alderatuta egoerak hobera egin duen, oraindik asko dago hobetzeko.

Ibaiaren inguruetan eta uraren ibilguan aisialdirako espazioak sor daitezkeela aipatzen da, ibaia eta herriaren arteko lotura handiagoa sortuz.

Ibaiaz gain, badira beste ur-baliabide batzuk, indarhune gisa aipatzen direnak, Urzabaleta, Urzabaleta goikoa eta Antioko ur-biltegiak, besteak beste. Gaur egun Zumarragako udalerrria urez hornitzeko erabiltzen ez badira ere, babestu, zaindu eta balioetsi beharreko puntu bezala aipatzen dira.

Basoei dagokienez, Haiza Baso eta San Kristobal eremuak indargune gisa baloratzen dituzte herritarrek. Mendien kontserbazioari dagokionez, Izazpi eta Samiño babestu beharreko gune bezala aipatzen dira. Gai horri lotuta, Buruzaiko parke eolikoaren proiektuaren Gaia mahaigaineratzen da, eta berau, natur ingurunearen mehatxutzat hartzen da.

Hiri-paisaia ere paisaia da, eta horregatik, honek ere arreta behar du. Alde horretatik, eta eremua bera, HAPOn antolamendu esparrutik kanpo badago ere, Arcelor Mittalen presentziak

eragin handia du Zumarragako hiri-paisaian, eta nabarmendu beharreko gaia da. Berdeguneei eta hiri-espazioei dagokienez, ospitalearen atzean dagoen parkea gunea atsegina eta paisaia balio handikoa dela adierazi da. Espazio publikoaren eta ekipamenduen atalean aipatzen den moduan, herriguneari, landaredia, zuhaitz eta berdegune gehiago behar direla aipatzen da, presentzia urria baitute gaur egun.

ETXEBIZITZA

Etxebizitzaren gaia egungo erronketako bat da, Zumarragan, eta gainerako udalerrri eta hirietan. Ez dago zenbakietan sartu beharrik, etxebizitzaren egungo diagnostikoa agerikoa baita: etxebizitza-parkea zaharra da, irisgarritasun-falta nabarmena da, hiri-konfigurazioa ez da orekatua, etxe hutsen kopurua altua da, eta etxebizitzaren prezioa oso altua da. Gai horiek guztiak modu batera edo bestera eragiten diete herritar guztiei. Irisgarritasunaren gaiak, mugikortasun arazoak dituzten pertsonen, adinekoei eta gurdildun aulkian dabilen pertsonen eragiten die gehien bat. Etxebizitzaren prezioak eta merkatuak, ordea, arazo kolektiboa izan arren, eragin zuzenagoa dute gazte eta pertsona zahargarrienengan.

Lehenik eta behin, eta aurreko gaiari dagokionez, indargune gisa azpimarratzen da, Zumarraga “ciudad dormitorio” ez den ideia, udalerrian dauden etxebizitza ia guztiak lehen bizileku dira, eta hori balioan jartzen dute herritarrek.

Zumarragak industriarekiko izan duen lotura dela eta, langile-tipologiako etxebizitza ugari daude, eraikin zaharrak dira eta, kasu askotan, ez dira irisgarriak. Etxebizitza batzuetan irisgarritasuna bermatzeko lanak egiten ari badira ere, guztiak ez dute igogailurik, eta hori da udalerririk duen ahulezietako bat. Honako auzoak izendatzen dira: Leturias, Esteban Orbegozo, Kalebarren, Ezkio bidea...

Titulartasunari eta jabetzari dagokienez, herritarrek etxebizitzaren alokairua sustatzea eskatzen dute, alokairuko etxebizitzaren eskaintza txikia baita. Alokairu sozialeko etxebizitzak sortzea funtsezkoa da, baita kolektibo zahargarrienentzako alokairu eskuragarriak ere, hala nola, gazteentzat. Gai honi lotuta, Eusko Jaurlaritzak 180 etxebizitza eraikitzen ari dela adierazten da, batzuk babes ofizialeko etxebizitza izatera izango dute, eta beste batzuk alokairu sozialerako bideratuko dira. Gainera, Forjas-eko lursail zaharrenean babes ofizialeko etxebizitza gehiago eraikitzea aurreikusten da, baita Antio aldean 20 zuzkidura-etxebizitza eraikitzea ere. Neurriak norabide egokian hartzen ari diren arren, etxebizitzaren gaia Aurrerapenean garatu beharreko puntu bat izaten jarraitzen du.

JARDUERA EKONOMIKOAK

Duela hamarkada batzuk arte Zumarragako jarduera ekonomiko nagusia industria metalurgikoa izan da, gaur egun, enpresen itxierak errealitate berri bat dakarkio udalerrirari. Gaur egun, zerbitzuen sektorea da udalerririk duen ardatz ekonomikoa. Lehen sektoreari lotutako jarduera ekonomikoa oso baxua da.

Lehen sektoreaz hitz egiterakoan, indar gutxiko jarduera izan arren, larunbatetako merkatuak duen indarra azpimarratzen da eta indargune moduan definitzen da, beraz, lehen sektoreari lotutako zerbitzu berriak sortzea ahalbidetuko lukeen elementu bat izan daitekeela aipatzen da, eta beraz indartu beharrekoa.



Lehen sektoreaz hitz egiterakoan, indar gutxiko jarduera izan arren, larunbatetako merkatuak duen indarra azpimarratzen da eta indargune moduan definitzen da, berau, lehen sektoreari lotutako zerbitzu berriak sortzea ahalbidetuko lukeen elementu bat izan daitekeela aipatzen da, eta beraz indartu beharrekoa.

Industria-guneei dagokienez, Zumarragan industriak utzitako aztarna nabarmena da, eremu kutsatuak berroneratzea beharrezkoa ikusten da, eremuak deskontaminatu eta erabilera berriak ezartzeko. Gai honi lotuta, eskoria zabortegiaren gaia mahai gainean jarri da, udalerrriaren beste ahulezietako bat bezala identifikatzen dena.

Tren konexioa abantaila eta aukera gisa ikusten da zerbitzu berriak sortzeko orduan, trenak bisitari asko hartzeko aukera ematen baitu. Gauza bera gertatzen da ospitalearekin, trakzio-elementu gisa baloratu da, bai sortzen dituen enpleguengatik, bai eskualdeko jendea udalerrira gerturatzeak dakarren inpaktuagatik. Adierazten da herriaren behe-aldearen eta ospitalearen arteko lotura hobetuz (goi-zonaldea) gero, ospitalearen eragin ekonomikoa oraindik eta nabariagoa izango dela, bertaritzen direnek zerbitzuak eskuragarri izan ditzaketelako.

Balizko zerbitzu berriei dagokienez, aipatu da ostalaritzarekin eta turismoarekin lotutako zerbitzu berriak ezar daitezkeela, zehazki taldeei bideratutakoak aipatu dira, talde handiei arreta emateko zerbitzuen falta nabari baita: ostatua, restaurazioa... Sortzen diren zerbitzu berriak turismo naturalarekin, San Inazioko ibilbidearekin, turismo industrialarekin edo lehen sektorearekin erlazioa daitezkeela adierazi da.

Tokiko merkataritzari dagokionez, merkataritza sakabanatuta dagoela aipatzen da, eta merkataritza-eremu trinkoagoa sortuz gero, sektore hori gehiago bultzatzeko aukerak zabalduko liratekeela, ekintza zehatzekin, kanpainekin... Edonola, beste herrietan bezala Zumarragan ere saltoki txikiak mehatxupearan daude, batetik, merkataritza-gune handiengatik, gaur egun aisialdirako gune gisa erabiltzen baitira; eta, bestetik, online erosketengatik eta banatzaile handiengatik.

HIRIGINTZA GARAPENAK

Hirigintza-garapenak aztertuz gero, zuzkidura berriak ezartzeko lur premia argia dagoela adierazi da, espazio publikoaren eta ekipamenduen eremuan aipatu dira beharrezko hainbat zuzkidura. Kirolerako eremuak handitzeko premia ere jaso da, espazio publiko eta ekipamenduen atalean.

Industrialdeak eta jarduera ekonomikoko eremu berriak sortu aurretik, daudenak indartu, sendotu eta bete egin behar direla aipatzen da. Industria-lurzoruen deskontaminazioa, Aurrerapenari begira landu beharreko gaietako bat da, eremu horiek biziberritzeko eta erabilera berriak garatzeko beharra nabaria baita.

Bizitegi-garapenak bestalde, etxebizitza eta hiri eredua birpentsatzeko aukera gisa ikusten dira: etxebizitza irisgarriak, alokairu sozialekoak, adineko pertsonentzako etxebizitza komunitarioak, beraz horietan ere fokua jarri beharra ikusten da.

Hirigintza-garapen guztietan, konektibitateak, mugikortasunak eta irisgarritasunak funtsezko faktoreak izan behar dute. Hirigintza-garapen berri orok oinezkoentzako zein bizikletentzako konexioa eta garraio publikorako sarbidea izan beharko ditu. Horretaz gain, erabileren mixtura beharrezko jotzen da.

AA.5/

ESKERRAK

Eskerrak eman nahi dizkiegu jendaurreko tailerrak garatu eta parte hartu zuten pertsoneri: Mainer Sodupe, Nerea Mendizábal eta Mikel García. Eskertu ondorengoei, halaber, euren pertzepzioak, arazoak, proposamenak eta iruzkinak eskaintzeagatik, plataforma digitalaren bidez eta lantokietan egindako jardueren koordinazioaren bidez: Itziar Santano, Mónica Moro Pastor, Iñaki Etxaniz Arregi, Manuel Garralda Zubimendi, Mikel García Iriarte, Itziar Agirre Iturrotz, José Luis Hingo Saldaña, José Carlos Ibanzabal, Markel Garralda Zubimendi, Amaia Igarzabal Deba. Bereziki aipatzekoa da ikasleen Guraso Elkaratek eta hezkuntza-zentroek diagnostikoaren eraikuntzan izan duten garrantzia. Halaber, eskerrak eman nahi dizkiogu Nagusien Kontseiluari eta Beatriz Santamaría koordinatzaileari.



- URRETxu ←
- udaltxano ayuntamiento ←
- Ezkerri auzoa ←
- horabide guzian todas direcciones →
- guzian buleguak oficina de turismo →
- Antzina Antzina plaza La Antzina →

KREDITUAK

IDAZKETA-TALDE TEKNIKOA:

Zumarragako Udalak aginduta, lan hau Zumarraga Garatuz aldi baterako enpresa-elkarteak egin du, idazketa-talde honen ardurapean:

Zuzendariak:

Manuel Ángel González Fustegueras.
Arkitektoa eta Hirigilea.

Sebastián Olmedo Pérez
Lurralde Antolamenduaren Zuzenbide espezializatuan lizentziaduna, Hirigintza Zuzenbidea, Administrazio Zuzenbidea eta Ingurumena

Jon Ander Azpiazu Juaristi.
Arkitektoa.

Unai Gómez Arriaran.
Arkitektoa.

Koordinatzaileak:

Reyes Pata Vila.
Arkitektoa. Lurraldearen Antolamenduan eta GIS Teknologian aditua.

Arkaitz Quincoces Biguri
Arkitektoa.

Gizarte Zientzietan aditua. Herritarren parte-hartzea. Generoa:

Miguel González Márquez.
Hiri Antropologian doktorea eta Historian lizentziaduna.

Ingurumen-teknikaria:

Damián Macías Rodríguez.
Geografian lizentziaduna. Sevillako Unibertsitateko doktorea.

Azpiegiturak, Hiri-zerbitzuak eta Mugikortasuna:

Indalecio de la Lastra Valdor
Bide, ubide eta portuetako ingeniaria.

Informazio Geografikoko Sistemen Teknikaria:

Juan Carlos Puerto Andares

Higiezinaren arkitekto analista. Katastroaren kudeaketan, balorazioetan eta SIG teknologian aditua.

Talde Teknikoa:

Juan Antonio Lobato Becerra.

Arkitektoa eta soziologoa. Hirigintza-zuzenbidean aditua.

María de la Luz Frías Piñero.

Arkitektoa. Hiri ingurunea. Informazio geografikoko sistemak.

Andrea Goikoetxea Galán.

Arkitektoa.

Garazi Robredo Manero,

Arkitektoa.

Victoria Ruiz Pomar.

Ekonomialaria

Oscar Medina Márquez

Geografoa.

Juan Manuel Benítez Domínguez.

Geografoa.

Juan de Dios Olmedo Pérez

Infografiako eta diseinu grafikoko teknikaria.

Francisco Javier Pedro Jiménez

Eraikuntzako eta delineazioko goi mailako teknikaria.

Cristóbal Muñoz García.

Eraikuntzako goi mailako teknikaria.

Martzel Arriaga Irazabal.

Arkitekto Hirigilea.

Talde Kolaboratzaileak

Hiritik-at

Herritarren parte-hartzea. Generoa.

Biok Comunicación

Komunikazioa

Anartz Ormaza Ugalde

Euskara aholkularia

Zumarragako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra

2. INFORMAZIO-MEMORIA

- IM.1. HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREKO INFORMAZIOAREN XEDEA ETA EGITURA.
- IM.2. LURRALDE-EREMUA.
- IM.3. UDALERRIAN ERAGINA DUTEN LURRALDE- ETA SEKTORE-PLANGINTZAREN ONDORIOZKO BALDINTZAK.
- IM.4. LURRALDEKO GEOGRAFIA-BALDINTZAK. NATURA-PATROIAK ETA INGURUMEN-LOTURAK.
- IM.5. LURRALDEAREN BALDINTZA SOZIOEKONOMIKOAK. BIZTANLERIA, ETXEBIZITZA ETA JARDUERA EKONOMIKOAK.
- IM.6. HIRIBILDUAREN ERAKETA-PROZESUA.
- IM.7. BERRIKUSTEN DEN PLANGINTZA OROKORRA. HORREN GARAPENAREN ETA GAUZATZEAREN AZTERKETA.
- IM.8. BESTE UDAL-PLAN ETA –AZTERLAN BATZUK
- IM.9. AZPIEGITURA-SAREEN ETA OINARRIZKO HIRI-ZERBITZUEN EGUNGO EGOERA
- IM.10. UDALERRI MUGAKIDEAK. PLANGINTZA ETA INGURUABARRAK





HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREKO INFORMAZIOAREN XEDEA ETA EGITURA

Edozein antolamendu-proposamen egin aurretik, arazoak identifikatu eta hasierako egoera argi eta garbi mugatuko duen diagnostiko koherentea egin behar da. Lehen fase hori hirigintza-legerian Hirigintza Informazioari dagokio.

Legeak ikuskera orokorra eta estentsiboa ematen die plangintza orokorreko figurei, lurraldean eragiten duten prozesu guztiak arautzeko borondatean islatzen dena. Bada, asmo hori bera gertatzen da hirigintza-informazioarekin, lurraldearen erabilera zehaztu edo baldintzatu dezaketen alderdi guztiak kontuan hartuta asmo zehatzarekin diseinatzen delako. Beraz, plangintza orokor orok gutxieneko azterlan zerrenda izan behar du bere formulazio-prozesuan zehar, honako alderdi hauetan laburbiltzen dena:

- Lurraldearen natura-ezaugarriak.
- Lurzoru-erabilerak eta tokiko esanahi sozioekonomikoa.
- Zaindutako espazioak eta paisaia.
- Natura- eta teknologia-arriskuak eta -zalantzak.
- Hirian erabiltzeko lurzoruak egokiak izatea.
- Lurraldearen baldintza sozialak eta ekonomikoak.
- Biztanleriaren ezaugarriak.
- Azpiegitura-sareen eta oinarritzko hiri-zerbitzuen egungo egoera.
- Indarreko plangintza orokorraren eta horren garapenaren azterketa.
- Lurralde-plangintzaren eragina.

Aipatutako azterlan guztiak egiteko, lan teknikoa egin eta baliabide garrantzitsuak aktibatuz behar dira. Baliabide horiek ez dira beti justifikatzen plangintzako erabaki zehatzetan. Bestalde, maiz, bulkada puntualak izaten dira, plangintza formulatzean sortutakoak, ondoren, informazioa eguneratzean jarraipenik izan gabe. Horrek hasierako esfortzua aldizka errepikatzea behartzen du, gainera, Planaren egikaritzearen monitorizazio-prozesua jarraia izatea eragozten dute.

Beraz, hirigintza-informazioa ez da datu-banku deskribatzailea eratzeko fase autonomoa, gero noizean behin, ondorengo diagnostikoa egiteko balio duena. Aitzitik, hiri- eta lurralde-errealitatearen interpretazio objektiboa sortzeko unean eratzen da, eta arazoak euren garrantzi erlatiboaren arabera identifikatzeko eta prozesu alternatiboak formulatzera bultzatzen dituen lurralde-ahalmenak deskribatzeko gai da.

Hiria eta lurraldea aldaketa-prozesuan daudela ulertzeak, sistema dinamikoak direla eta ez objektu hutsak, esan nahi du hirigintzako esku-hartzeak lurraldearen benetako eraldaketa-prozesuei lehentasuna eman behar diela. Horrek, halaber, korrespondentzia kontzeptuala eta metodologikoa ezartzea eskatzen du honakoen artean: analisi-planoa, diagnostikoa, irizpideak zein helburuak eta hirigintzako esku-hartzea. Hau da, informazio garrantzitsuena aukeratu beharra dago, nahi den antolamendua eta aldaketa-estrategia ezarri ahal izateko.

Hiriaren eta lurraldearen pieza bereizgarriak eta eraldaketa dinamikak irakurtzeak aukera ematen du hirigintzako esku-hartzearen eremu espazialak ezartzeko, eta, hala badagokio, prozesu alternatiboak diseinatzeko. Hala, bere garaian proposatu zen Plan Berria egiteko metodologia-sekuentzia aberastu egin da, hiri- eta lurralde-gertaeren ikuspegi asko konplexuagoa eta dialektikoagoa izanda. Horrek parte-hartze publikoaren prozesua du oinarri, herritarrei plangintzak ezarritako helburuetarako informazio-prozesu egokia eskainita, erabakiak kontrolatzeko mekanismoak emanda, beste era batera eskurazekinak izango liratekeenak.

Gaiaren planteamendu horrekin, Hirigintza Informazioko prozesuak guretzat dituen funtsezko bi ezaugarriak nabarmendu ditzakegu:

a) Informazioa: prozesu irekia

Plan Orokorren Informazioa lantzeko beharrezko lan teknikoa oso handia da, baita hiria etengabe garatzeko esku hartzen duten faktoreen konplexutasuna ere, horregatik ez dira behin betiko emaitzat hartu behar ateratako ondorioak. Aitzitik, hiriaren ezagutza hori, bere izaeragatik, behin-behinekoa da; beraz, prozesua zabalik utzi behar da gutxienez Plan Orokorren idazketak irauten duen bitartean (izan ere, edozein fasetan, hiri- eta lurralde-alderdiren baten gainean jaso ez den informazioa zabaltzea eska daiteke), eta, kasu askotan, plana onartu ondoren, hura garatzeko eta kudeatzeko beharrezkoa den denboran.

b) Informazioa: berrelikatzen den prozesua

Horrekin esan nahi da ondoren deskribatutako eduki guztiak beharrezkoak direla, baina ez nahikoak. Planaren idazketa-prozesuak berak hasiera batean kontuan hartu ez diren azterketa-bide eta -eremuak ireki ditzake, eta beharrian zehatzak sortzean horiek jaso beharko dira.

Hirigintza-informazioari dagokionez, ez da etapa bukatua eta itxia, hori Planaren etengabeko tresna lagungarria izango da. Beraz, behin eta berriz esan bezala, diagnostikoa ez dago erabat amaituta eta horrekin jarraituko da hasierako onespina eskuratu arte.

Egun, hirien hirigintza-historian gaude, eta nekez egiten da ex novo plangintza-prozesua, aurrekoren bat osatu, garatu, onartu, berrikusi edo ordeztu egiten da. Horregatik, hiriaren hasierako egoeraren alderdi orokorrak baloratzeko modurik onena, euren esku hartzeko eskalatik eta zehaztapen-mailatik, aldeztu aurretik hiri- eta lurralde-arazoaren konponbideak eman dituzten (edo ez) plangintza-dokumentuen edukiaren eta garapen- zein betetze-mailaren azterketa egitea da.

Informazio-memoria honen edukiaren egitura ondoren garatu diren ataletan oinarrituta dago. Atal horiek aurrerakin-fase honen aurretik egindako Informazio- eta Diagnostiko-dokumentu zabalean laburbilduta daude.

IM.2/

LURRALDE-EREMUA

Zumarraga, 2022an 9.636 biztanle zituena, **Urola ibaiaren arroaren goialdean dago**. Arro hori, ekialdetik hasita, Gipuzkoako sare hidrografiko nagusia osatzen duten laugarren arro estua da: Urumea, Oria, Urola eta Deba. Horrek honako udalerriekin muga egiten du: Antzuola, Azkoitia, Azpeitia, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Legazpi eta Urretxu. Azken horrekin bere hirigunean konurbatuta dago.

Zumarragako (eta Urretxuko) lurraldearen berezitasuna da, haranaren puntua dela, beheranzko irekiera handia duena, eta hurrengo arroaren, Oria ibaiaren, eraketa-besoetako baten hasiera da. Beraz, Urola eta Oria ibaien goiko arroen arteko lotura da.

Udalerriak 18,49 km² ditu, eta **bere orografia malkartsua da, haran ahokatuak eta malda handiko hegialak** (% 20tik gorakoak) ditu, ia ez du lurzoru laurik. **Hirigunea haranean dago**, itsasoaren mailatik batez beste 357 metrora, eta **ondorengo mendiek inguratzen dute: Argixao, Beloki, Irumugarrieta, Izazpi eta Oleta.**

Udalerriko hirigunea Euskal Herria hiribideak (GI-632) bereizitako bi eremutan banatuta dago: Hirigunea, bizitegi- eta merkataritza-eremuak behealdean daude, eta ibarraren hego-ekialdeko hegalerantz garatu dira; goialdean, aldiz, industria-sektorearen gorakadarekin batera (Leturiarren plaza, Antonino Oraá, Argixao, etab.) sortutako eremu isolatuak daude. Gainera,



Gurrutxagagoikoa, Eraikuntza aitzindaria XVI. mendekoa da.

geroago sortutako beste batzuk ere badaude: Elgarrestamendi, Ipar Haizea, Izazpi Taldea edo Busca Isusi, eta horiez gain, Argixao kirol-eremua, Eskualdeko Ospitalea eta Urola Garaiko Industrialdea. **Goialdea izan da udalerraren hedapen nabarmenena, hazkunde handia izan baitu, batez ere babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenekin.**



IM.3/

UDALERRIAN ERAGINA DUTEN LURRALDE- ETA SEKTORE-PLANGINTZAREN ONDORIOZKO BALDINTZAK

Hainbat dira Zumarragako lurraldeari eragiten dioten lurralde- eta sektore-planak, baina denak ez izaera, ezta intentsitate berarekin ere. Honako hauek dira lurraldearen ikuspegitik garrantzitsuenak: Zumarraga dagoen (Goierri) Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala eta 2019an onartutako Lurralde Antolamenduaren Gidalerro berriak. Bestalde, ikuspegi sektorialetik: Nekazaritza eta Basozaintza Plana, ibai eta erreken ertzak antolatzea isurialde kantauriarreko Plana, Euskadiko zein Gipuzkoako bizikleta-ibilbideen planak eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana.

Horrez gain, adierazi behar da Zumarraga EAEko Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektorialak adierazitako kokalekueetatik kanpo geratu arren, lau aerosorgailu eta instalatutako 18 Mw-eko potentzia gordinarekin, **Eusko Jaurlaritzak informazio publikoko izapideei ekin die, Azkoiti, Urretxu eta Zumarraga (2 aerosorgailu) artean kokatuko litzatekeen Buruzai parke eolikoa eraikitzeko.** Green Capital Development 65, S.L.U. (Capital Energy) parke eoliko horren proiektuaren administrazio-eskaeraren barne lehiakortasun-izapidearen adjudikaziodunak izan dira. Hortikurrera, izapidetze administratiboarekin jarraitzeko, Aurretiko Baimen Administratiboa eskatu behar dute, EAEn energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioak baimentzeko prozedura arautzen duen maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuaren arabera. **Aipatu beharra dago, aurreikusi den kokalekua, zehaztasun gehiagorik ezean, bat datorrela Oletako, Pagobakarreko eta Aantzetako Gañako tumuluen eremuarekin, baita Iruarrieta, Iruarrieta I eta Iruarrieta II trikuharriekin ere. Hau da, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak babestutako arkeologia-ondarea dira,** baita Zumarragako hirigintza-araudiak babestutakoa ere.

3.1. GOIERRIKO EREMU FUNTZIONALAREN LURRALDE PLAN PARTZIALA.

2009koa da, beraz, 1997ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroei erantzuten die. Plan honen xedea da, 16 urteko eperako, Eremu Funtzionalaren lurralde-antolamendu jasagarria ezartzea, eta haren lurralde-egitura eta -eredua zehaztea. Egitura eta eredu hori jarraitu beharko dute udal-plangintzek, Lurralde Plan Sektorialek eta Eremu Funtzionalan eragina duten gainerako jarduketek. LPPk proposatutako lurralde-ereduak helburu hauek ditu:

- a) Eskualdeko natura-baliabideak eta haien paisaia- eta ingurumen-kalitatea babestea, hobetzea eta horiei balioa ematea.
- b) Kokagune-sistema koherentea, orekatua eta EAEko hiri-sisteman barneratua lortzea.
- c) Eremu Funtzionala kanpoko garapen-ardatzetan barneratuko eta haren egitura indartuko duen azpiegitura-sistema garatzea.

Lurralde Eredua LPPren antolamenduko oinarritzko zehaztapen guztiek osatzen dute, eta eduki multzo hauetan banatzen da:

INGURUNE FISIKOA

Proposamena egiteko, lurraldea eremu homogeenetan kategorizatu behar da ondorengo araberan: ezaugarriak; arriskuak; ingurumen-balioak; zientzia-, kultura- edo ekoizpen-balioak; eta bilakaera-ahalmena. Hori guztia, azken horiek zaintzeko, hobetzeko eta berreskuratzeko, eta haien erabilera arrazionala erraztea euren jasagarritasuna lortzeko. Zumarragako lurraldeari bereziki eragiten dio Murumendi Iazpi mendiaren eremuaren zati bati. Eremu hori EAeko ornodunen atlean katalogatutako Fauna Intereseko Eremua da, eta zientzia- eta kultura-intereseko zenbait area eta gune identifikatzen ditu, hala nola: **Oletako, Pagobakarreko eta Aantzetako Gañako tumuluak eta Iruarrieta, Iruarrieta I e Iruarrieta II trikuharriak** (Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean babestutako arkeologia-ondarea).

Kategorizazio orokorraren ikuspegitik, LPPn antolamendu-kategoria orokor hauek daude:

- Babes berezia.
- Ingurugiroaren hobekuntza.
- Basoa
- Nekazaritza-abelzaintzakoa eta landazabala
- Mendiko larreak
- Lurrazaleko uren babesa

Kategoria horiei gainjarrita, zenbait baldintza ezartzen dira, horietan jardura jakin batzuk nola garatu daitezkeen mugatzeko, kasu bakoitzean agertzen den arriskuaren edo egoera partikularraren arabera. Baldintza horiek honako hauek dira:


- Akuiferoen urrakortasuna.
- Gune higagarriak.
- Gune uholdegarriak.
- Naturagune babestuak eta Natura 2000 Sarea

LPPk udal-plangintza orokorrari ezartzen dio kategorizazio proposamenak errespetatzea. Halaber, definitutako antolamendu-kategoria bakoitzerako erabileren zein jardueren esku hartzeko araubideari dagokienez, horrek modu xehatuagoan garatu ahal izan.

HARREMAN-SISTEMAREN ETA ZERBITZUEN AZPIEGITURAK

a. **Bide-sarea**

- **Kanpo Irisgarritasunaren Sare Orokorra.** Eremu Funtzionala EAeko Hiriburuen Sistemarekin, inguruko Erkidegoekin eta aldameneko Eremu Funtzionalen hiriburuekin lotzen duten korridoreak. LPPk honakoa proposatzen du:
 - Durango-Bergara-Beasain zeharkako ardatza bikoiztea edo “autobia motako” trazadura egitea ibilbide osoan, eta **Beasain-Zumarraga korridoreak GI-632 errepidearekin duen bide-lotura berria egitea**, Ezkio-Itsasoko tren-geltoki berriaren parean.
 - Azkoitia-Zumarraga errepidearen trazadura eta diseinua hobetzea.



<p>BIDE SAREA</p> <p>KANPOKO SARBIDE SARE NAGUSIA (Autobideak, autobide eta errepide nagusiak)</p> <p>TOKIKO SARBIDE-SARE NAGUSIA</p> <p>LURRALDEKO SARBIDE-SARE OSAGARRIA (Ezuzakide-sareak)</p> <p>TOKIKO SARBIDE-SARE SEKUNDARIOA</p> <p>LANDA-HERRIGUNEETAKO TOKIKO SARBIDE-SAREA</p> <p>GIPUZKOAKO BIKIULETA-BIDEN ONARRITZKO SARBIDAREN ZATIAK</p> <p>TRENBIDE-SAREA</p> <p>TRENBIDE-SARE BERRIA ETA EZKIO-ITSASO GELTOKIA</p> <p>MERKANTZIAK TRUKATZETIKO ZENTROA</p>	<p>RED VIARIA</p> <p>RED GENERAL DE ACCESIBILIDAD EXTERIOR (Red de Autovías, autopistas y carreteras generales)</p> <p>RED PRINCIPAL DE ACCESIBILIDAD LOCAL</p> <p>RED COMPLEMENTARIA DE ACCESIBILIDAD TERRITORIAL (Red comarcal)</p> <p>RED SECUNDARIA DE ACCESIBILIDAD LOCAL</p> <p>RED LOCAL DE ACCESO A NUCLEOS RURALES</p> <p>TRAMOS DE LA RED BASICA DE VAS CICLISTAS DE GIPUZKUA</p> <p>RED FERROVIARIA</p> <p>NUOVA RED FERROVIARIA Y ESTACION EZKIO-ITSASO</p> <p>INTERCAMBIADOR MERCANCIAS</p>	<p>GAUR EGUINDO TRENBIDE SAREA</p> <p>RENFE</p> <p>GELTOKI NAGUSIA</p> <p>GAUR EGUINDO EDDI PROPOSATUTAKO ALDIRIKO TRENNEN GELTOKIA</p> <p>SISTEMAKO BESTE ELEMENTU BATZUK</p> <p>ERREPIDEAN ZIYARRIKO GARRAIOERAKO INSTALAZIO OSAGARRIAK</p> <p>AUTOBUSEN GELTOKI NAGUSIA</p> <p>ESKU-HARTZE ESPARRUAK EDDI PROPOSAMENA</p> <p>KANPOKO SARE NAGUSIARAKO ALTERNATIBAK BEASAINEN</p> <p>LEHENTASUNA DUEN ALTERNATIBA ①</p> <p>EGUNDO ALTERNATIBA ②</p>	<p>RED FERROVIARIA EXISTENTE</p> <p>RENFE</p> <p>ESTACION PRINCIPAL</p> <p>ESTACION CERKANIAS EXISTENTE O PROPLESTA</p> <p>OTROS ELEMENTOS DEL SISTEMA</p> <p>INSTALACIONES AUXILIARES TRANSPORTES POR CARRETERA</p> <p>ESTACION PRINCIPAL DE AUTOBUSES</p> <p>AMBITOS DE INTERVENCION O PROBLEMA</p> <p>ALTERNATIVAS DE LA RED GENERAL DE ACCESIBILIDAD EXTERIOR A SU PASO POR BEASAIN</p> <p>① ALTERNATIVA PREFERENTE</p> <p>② ALTERNATIVA ACTUAL</p>
--	--	--	--

Garraio-sarea eta bide-komunikazioak. Iturria: Beasain-Zumarraga (Goierri) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren Antolamendu Planoa.

- N-1etik Ordiziako, Lazkaoko eta Beasaingo hiriguneetarako sarbideak hobetzea.

- Tokiko Irisgarritasunaren Sare Nagusia. Ibilbide luzeko eta edukiera handiko bideen eta tokikoen arteko maila ertaineko ardatzak dira, eta horiek funtsezkoak dira eskualde-egiturarako. Horretarako, motorrik gabeko ibilbide-sare eraginkorra sortzea/indartzea proposatzen da, barne-loturak eta inguruko hiriguneak artikulatzeko lehentasunezko elementua, eta, kasuaren arabera, esku-hartze hauek planteatzen dira:

“Hiri-zentralitateko ardatzak”: hirigune jarraien arteko loturak, hiribide, zumarkale edo pasealeku ardatzen bidez.

- Zumarraga barnekoak (**hiribide nagusia eraldatzea**), **Urretxu-Zumarraga**, Ormaiztegi, Beasain - Ordizia, Itsasondo, Legorreta eta Idiazabal.

“Hiriarteko artikulazio-ardatzak”. Hiriburuen eta inguruko hiriguneak elkarrekin lotzea; honako ardatz hauek sortuta: zumarkale edo pasealeku zuhaitzuak, bizikletekin eta oinezkoekin bizikidetzan, espaloiekin, bizikletentzako gurpil-zerrenda dutenak eta lorategi-zinta berdearen gaineko zuhaitz-ilara. Honako hauek:

- **Legazpi-Zumarraga** (GI-2630 errepideari dagokion zatiaren eraldaketa, Urretxurekin lotzen dena)
- **Zumarraga-Ormaiztegi** eta Ormaiztegi-Beasain (korridore estrategikoaren ardatza). Ordizia-Itsasondo, Itsasondo-Legorreta, Legorreta-Ikaztegieta.

b. Trenbide-sarea

Ereduko Komunikazio- eta Garraio-sistemaren definizioko bigarren elementua da. Gaur egungo Aldiriko Sareak (Renfe) eta Trenbide Sarearen LPSn jasotako Sare Berriak osatzen dute. Zumarragari buruzko proposamenak honakoak dira:

- **Zerbitzuak eta maiztasunak handitzea Irun-Legazpi aldiriko lerroan.**
- **Zumarragako trenbide-zabaltzaren eta horren inguruaren antolamendua aldatzea, garraioa antolatzeko eta trukatzeko zentroa sortzeko**, autobus-geltokiarekin; Urretxurako garraioaren esku-hartzeari lotuta, Bateragarritasun Planaren bidez garatuko dena.


ZERBITZU-AZPIEGITUREN EREDUA

LPPk bere gain hartuko eta jasoko ditu Administrazio Sailer planak eta proiektuak, hala nola: ur-hornidura, saneamendua, hondakin solidoen tratamendua, uholdeen prebentzioa eta energia- eta telekomunikazio-azpiegiturak. **Hiriarteko Zentral Automatikoaren establezimendua jartzea proposatzen da Zumarraga-Urretxun.**

KOKAGUNE-SISTEMA

Zumarragari dagokionez, kokagune-sistemari buruzko irizpide eta helburu hauek planteatzen dira:

1. **Egungo bi hiri-sistemen eredu integrala indartzea**, honela antolatutakoak: alde batetik, **Zumarraga**, Urretxu eta Legazpi, eta, beste aldetik, Beasain - Ordizia eta Lazkao.



SANEAMENDUKO DINARRIZKO SAREA, E.D.A.R.		RED BÁSICA DE SANEAMIENTO, E.D.A.R.		RED PRIMARIA DE TELECOMUNICACIONES
UR HORNIDURAKO DINARRIZKO SAREA, E.T.A.P.		RED BÁSICA DE ABASTECIMIENTO, E.T.A.P.		RED PREVISTA DE TELECOMUNICACIONES
EGINDAKO BILKETAK ETA BURUTZEKE DAUDEN LOTUNEAK		CAPTACIONES REALIZADAS Y EMPALMES DE PROXIMA EJECUCION		ANTENA DE TELECOMUNICACIONES
T.B.A. ETA 380 ETA 220 KV.-KO ENERGIA ELEKTRIKOAREN GARRAIO SAREA		RED DE TRANSPORTE DE ENERGIA ELECTRICA 380 Y LINEAS 380 Y 220 KV.		TRATAMIENTO DE RESIDUOS SOLIDOS URBANOS; VERTEDERO COMARCAL
132/138 KV.-KO LINEA		LINEA 132/138 KV.		OTROS VERTEDEROS DE CARACTER INDUSTRIAL
GASA BANATZEKO DINARRIZKO SAREA		RED BÁSICA DE DISTRIBUCION DE GAS		OBRAS HIDRAULICAS; PREVENCIÓN DE INUNDACIONES; ÁMBITOS CON PROBLEMATICA RELEVANTE
TELEKOMUNIKAZIOETARAKO SARE NAGUSA		RED PRIMARIA DE TELECOMUNICACIONES		
TELEKOMUNIKAZIOETARAKO AURREIKUSITAKO SAREA		RED PREVISTA DE TELECOMUNICACIONES		
TELEKOMUNIKAZIO ANTENA		ANTENA DE TELECOMUNICACIONES		
HIRI-HONDAKIN SOLIDUEN TRATAMENDUA ESKUALDEKO ZABORTEGIA		TRATAMIENTO DE RESIDUOS SOLIDOS URBANOS; VERTEDERO COMARCAL		
INDUSTRIA IZAERAKO BESTE ZABORTEGIAK		OTROS VERTEDEROS DE CARACTER INDUSTRIAL		
OBRA HIDRAULIKAK; UHOLDEEN PREBENTZIOA; UHOLDE ARAZO GARRANTZITSUKO		OBRAS HIDRAULICAS; PREVENCIÓN DE INUNDACIONES; ÁMBITOS CON PROBLEMATICA RELEVANTE		

Zerbitzuko oinarritzko azpiegiturak. Iturria: Beasain-Zumarraga (Goierri) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren antolamendu-planoa.

2. **Aipatutako hiri-sistemen barneratze funtzionala**, horien osagarritasuna sustatuta eta Oria Garaia -Urola Garaia dikotomia gaindituta.
3. **Hiriburuak indartzea.**
4. **Hiri-kalitatea hobetzea, honako eragiketen bidez: eremu degradatuak edo zaharkituak eraldatzea edo berroneratzea, hiri-multzoak eta hirigune historikoak babestea zein eraberritzea eta berrekipatzea.**
5. **Egungo lurraldearen desorekak zuzentzea.**

Kokaguneen eredia udalerrien kategorizazioaren arabera antolatzen da eta, horren arabera, jarduketa-estrategiak ezartzen dira. Honako hauek:

- **Hiriburu-sistemaren hiriguneak:** Beasain, Ordizia, Lazkao, **Zumarraga**, Urretxu eta Legazpi.
- **Tamaina ertaineko hiriguneak:** Legorreta, Itsasondo, Zaldibia, Ataun-San Martin, Idiazabal, Segura, Zegama eta Ormaiztegi.
- **Landa-eremuko guneak:** Arama, Alzaga, Gaintza, Ataun-San Gregorio, Olaberria (hirigunea), Zerain, Mutiloa, Gabiria, Ezkio-Itsaso eta beste landa-auzo batzuk.


BIZITEGI- ETA ZUZKIDURA-LURZORUAREN POLITIKA

Zumarragan hurrengo urteetako bizitegi-hazkundera, funtsean, gaur egungo plangintzan jasotako lurzoruaren egitearen alde apustu egiten da, hirigune finkatua edo lurzoru urbanizagarria (Eizaga Berri 1 eta 2) txertatutako jarduketekin bat eginda. Hala, **“Hiri-eraldaketa eta -berrikuntza Eragiketatzat” Rojo eta Zaldúa eta Zumarragako Forjas enpresei dagozkien eremuak bizitegi-erabilerara aldatzea proposatzen da** (hobeto esanda onartzen da), izan ere, proposatutako erabilerarekin daude jasota plangintzan.

LPPn, 8 eta 16 urterako Zumarragako etxebizitza-beharrak honela kuantifikatu ziren: 8 urtera, gehienez 981 etxebizitza, eta gutxienez 674; eta 16 urtera, gehienez 1.305 etxebizitza eta gutxienez, 896. **Bizitegi publikoari dagokionez, LPPn uste da Zumarraga-Urretxu-Legazpi eremuaren dentsitate-maila handia dela, beraz, garapen berriak**, funtsean, egungo kalifikazioetara **mugatzea komeni dela**. Hala ere, bizitegi publikorako birkalifikatze txikiak egin ahal izango dira, xede dutenak industria-eremu zaharkituak barneratzea edo hiri-sarea osatzea, horrela, piezen artean barneratze morfologikoa eta funtzionala handitzeko.

Ekipamenduen eta espazio libreen garapen berriko lehentasunezko jarduketei dagokienez, LPPn, Zumarragari dagokionez, honako hau proposatzen da:

- Antiguako eta Argixao-Zugarramurdiko hiri-periferiako parkeak.
- Zamiño-Izazpi jolasgunea eta atsedenekua, Ezkio/Zumarragan.
- Udalerrinari dagokion Ingurumen Ibilbideen Sarea.
- Urretxu-Zumarragako merkataritza suspertzeko planak egitea.
- Udalez gaindiko ekipamendu zehaztugabea, Deskargarako bidegurutzearen ondoan, Legazpi-Zumarraga-Urretxuren lotura kualifikatzea laguntzeko.



ZONTSAILEREN BARRIOA	DEFINICION DE CONTORNOS	LURRALDE FUNTZIOAL	POLITIKAS DE SUELO	ZUZENDAKIA LURRALDEAN	SABIDUEN DOTACIONES
ASPECTUBARRIOA	INFRAESTRUCTURAS	HIRI BIRGAIPLAZKADU ERAGITZAK	OPERACIONES DE RECALIFICACION URBANA	LURRALDEAN DARRERAGAILAK	NATI
BARRIOA SARRAZTE SARE HAZIETAN JARDUNETA PUNTUALAK	RED VARRIA	HIRI BARRUTZEN HERRIKOAK NAUTZEN BIRGAIPLAZKADU NAUTZEN ERAGITZAK	OPERACIONES ESTRATEGICAS DE RECALIFICACION URBANA EN NUCLEO URBANO, CUANDO SOBREGUA OPERACIONES DE TRANSFORMACION Y RECALIFICACION URBANA	HIRI-DISEÑO DISEÑO DISEÑO DISEÑO	NUEVOS EQUIPAMIENTOS DE CARÁCTER URBANO
TOKUAK SARRAZTE SARE HAZIETAN FUNTZO ETA DISEÑO SARRAZTE DITUTZEN BIDE-TREKATZAK (Berregaitasunarekin eta hiri-eremuak erabiltzeko)	ACTIVACIONES PUNTUALES EN RED GENERAL DE ACCESIBILIDAD EXTERIOR	HIRI-BIRGAIPLAZKADU ERAGITZAK	OPERACIONES DE TRANSFORMACION Y RECALIFICACION URBANA	BIRGAIPLAZKADU NAUTZEN ERAGITZAK	NUEVOS EQUIPAMIENTOS DE CARÁCTER CAMPESTRE EN NUCLEO CENTRAL DE CIUDADES (CENTRO Y CENTRO SECUNDARIO)
OPINIONARIO DISEÑO-ERREKONSTRUKTIO SARRAZTE SARRAZTE SARRAZTE	TRAMOS DE LA RED PRIMARIA DE ACCESIBILIDAD LOCAL CON NUEVOS FUNCIONES Y DISEÑO (Zona de intersección urbana y exterior-urbana)	HERRIKOAK HIRI-BARRUTZEN HAZIETAN ERAGITZAK	OTRAS OPERACIONES DE PROTECCION Y RECALIFICACION URBANA	HERKADIAN ERAGITZAK DISEÑO, HERRIKOAK ERAGITZAK	AREAS TERCIARIAS, CENTROS COMERCIALES, ETC.
TREKATZAK-SARRAZTE	TRAMOS DE LA RED SECUNDA DE VIALS CERRADOS DE OBLIGACION	ERAGITZAK-LURRALDEAN	SUELOS RESERVADOS	HERKADIAN ERAGITZAK DISEÑO, HERRIKOAK ERAGITZAK	CENTROS DE TRANSPORTE (ESTACIONES Y PLAZAS DE HERRIKOAK)
TREKATZAK-SARRAZTE SARRAZTE	TRAMOS DE LA RED SECUNDA DE VIALS CERRADOS DE OBLIGACION	HAUTAZTE SELEKTIBOAK	DESARROLLO SELEKTIBO	MERKADUAK ERAGITZAK DISEÑO	INTERCAMBIOS DE MERCADOS
OSATUTZAK SARRAZTE SARRAZTE SARRAZTE	RED FERROVIARIA	ETXEBARRUTZEN BARRUTZEN LEHENDAKARIOAK	MANIPULOS DE INTERES PREFERENTE VITANDAS PROTEGIDAS	SARRAZTE SARRAZTE SARRAZTE SARRAZTE	EQUIPAMIENTOS AUXILIARES AL TRANSPORTE
OSATUTZAK SARRAZTE SARRAZTE SARRAZTE	NUEVA RED FERROVIARIA	ETXEBARRUTZEN BARRUTZEN LEHENDAKARIOAK	ACTIVACIONES COMPLEMENTARIAS VITANDAS PROTEGIDAS	LURRALDEAN DARRERAGAILAK	EQUIPAMIENTOS ESPECIALES EN NUCLEOS DE ACCESO AL TERRITORIO
ZONTSAILEREN ASPEKTUBARRIOA	INFRAESTRUCTURAS DE SERVICIOS	ERAGITZAK SARRAZTE SARRAZTE SARRAZTE	OPERACIONES DE NUEVO DESARROLLO DE CARÁCTER ESTRATEGICO	HERRIKOAK ERAGITZAK DISEÑO	PARQUES PERIURBANOS
UR-EREMUAK ERAGITZAK	ESTACIONES DE SERVICIOS DE AGUAS RESERVALES	EKONOMIA JURISDIKSIONA LURRALDEAN	SUELOS PARA ACTIVIDADES ECONOMICAS	SARRAZTE SARRAZTE SARRAZTE SARRAZTE	AVANZAS RECREATIVAS
		UR-EREMUAK ERAGITZAK DISEÑO	DESARROLLO DE NUEVOS TIPOS DE ACTIVIDADES ECONOMICAS DE CARÁCTER ESTRATEGICO	OSATUTZAK SARRAZTE SARRAZTE SARRAZTE	EQUIPAMIENTOS EN EL MEDIO NATURAL
		UR-EREMUAK ERAGITZAK DISEÑO	OTRAS AREAS DE ALIJE, EN EL CORREDOR	OSATUTZAK SARRAZTE SARRAZTE SARRAZTE	RED PRINCIPAL DE RECORRIDOS AMBIENTALES
		UR-EREMUAK ERAGITZAK DISEÑO	PERIODO ESCALA COMERCIAL DE PRODUCCION PUBLICA	OSATUTZAK SARRAZTE SARRAZTE SARRAZTE	INFRAESTRUCTURAS SARRAZTE EN PUNTO SARRAZTE DE ACCESO AL TERRITORIO O A LAS AREAS DE INTERES
		UR-EREMUAK ERAGITZAK DISEÑO		OSATUTZAK SARRAZTE SARRAZTE SARRAZTE	AREAS DE COORDINACION Y COMPENSACION DE PLANTAMIENTOS
		UR-EREMUAK ERAGITZAK DISEÑO		OSATUTZAK SARRAZTE SARRAZTE SARRAZTE	DESARROLLOS RESERVADOS, DOTACIONES Y DE AL. E. DE CARÁCTER URBANO
		UR-EREMUAK ERAGITZAK DISEÑO		OSATUTZAK SARRAZTE SARRAZTE SARRAZTE	DESARROLLOS DOTACIONALES Y DE ESPACIOS LIBRES

Funtzionala bere ingurunean barneratzea. Iturria: Beasain-Zumarraga (Goierri) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren Antolamendu Planoa.

JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUAK

Zumarraga, LPPk proposatutako sailkapenaren barruan, **lehentasunezko udalerrien kategorian dago**. Gaur egun **okupatutako lurzorua hobetzeko eta hutsik daudenak garatzeko eta kudeatzeko oinarrizko politika proposatzen da**.

Hala, **tren-geltokiaren inguruan, hirugarren sektoreko eremuaren antolamendua ezartzeko proposamena egin da, trenbide-zabaltzaren birkalifikatze-eragiketarekin eta Urretxurekin batera egingo den autobus-geltokia jartzearekin lotuta**, azken hori Bateragarritasun Planaren bidez definitu beharrekoa.

ERAGIKETA ESTRATEGIKOAK

Bat ere ez dago Zumarragan. Ezkio-Itsason, Gabirian eta Ormaiztegin daude.

PLANGINTZA-BATERAGARRITASUNA

Zumarragari dagokionez, Eremu Funtzionaleko LPPren aurreikuspenak garatzeko, **plangintzak modu koordinatuan egin behar dira, honetarako:**

- Zumarraga-Urretxuko eta Legazpiko hirigintza-plangintza, plangintzan jaso beharreko etxebizitza-kopurua kuantifikatzeko.
- Zumarragako, Ezkio-Itsasoko, Gabiriako eta Ormaiztegiko hiri-plangintza, Beasain-Zumarraga korridorean proposatutako eragiketa estrategikoaren antolamendua garatzeko.
- Beasain-Zumarraga Korridoreak garatzen duen plangintza partzialaren koordinazioa, gutxienez antolamendu-aurrerakinean.

3.2. 2019 LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROAK

1997ko Gidalerroen berrikuspena da. LAGek hiru funtzio dituzte: politika sektorialetarako edo udalerrien hirigintza-jarduerarako erreferentzia-esparrua eraikitzea; jarduerak lurraldean finkatzeko prozesuak bideratuko eta arautuko dituzten irizpideak eta arauak formulatzea, lurralde-oreka bermatzeko; eta Estatuarekin edo beste autonomia-erkidego batzuekin batera jardutea eskatzen duten lurralde-ekintzak aurreikustea.

Hona hemen, zuzenean edo zeharka, Zumarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean espazioaren antolamenduari eta erabilerari buruzko Zuzentarauen artikuluen eraginkortasun loteslea:

Artikulua	Zuzeneko eraginkortasun loteslea	Zeharkako eraginkortasun loteslea
3	1, 2, 3, 4a (3 eta 4) eta 4b Atalak	4a (1 eta 2) Atala
4	2, 3, 4, 5 eta 7 Atalak	1 eta 6 Atalak
5		Artikulu osoa
6		Artikulu osoa
7	3, 4, 5 eta 6 Atalak	1, 2 eta 7 Atalak
8	1, 3, 4 eta 5 Atalak	2 Atala
9		Artikulu osoa
10	2 Atala	1 eta 3 Atalak
11		Artikulu osoa
12	1, 2, 3 eta 4 Atalak	5, 6 eta 7 Atalak
13	1 eta 2 Atalak	3 Atala


14	2 Atala	1, 3, 4 eta 5 Atalak
15	1, 2 ,3 eta 8 Atalak	4, 5, 6, 7 Atalak
16	2 eta 4 Atalak	1, 3, 5, 6 eta 7 Atalak
17	4 Atala	1, 2, 3, 5 eta 6 Atalak
18	Artikulu osoa	
19	Artikulu osoa	

Funtsean, honako hauek dira:

Ingurune fisikoaren antolamenduari buruzko gidalerroak. HAPOk derrigorrez erabili behar ditu LAGetako lurzoru urbanizaezinaren antolamendu-kategoriak eta baldintzatzaile-gainjarriak, baita horietako bakoitzerako proposatutako erabilerak ere. Hori guztia 2019ko LAGek jasotzen duen ingurune fisikoaren antolamendu-matrizearen arabera. Horrez gain, kontuan izan behar du ingurune fisikoaren erabilera-araubidea, honako hauen arabera: Nekazaritza eta Basozaintzaren LPS eta Ibai eta Erreken LPS.

Azpiegitura Berdearen eta Ekosistemen Zerbitzuen arloko gidalerroak. Funtsean, tokiko azpiegitura berdea jasotzea behartzen du, Eremu Funtzionalekoarekin eta EAEkoarekin lotuta. Tokiko azpiegitura berdearen parte hartzen ditu sistema orokor kalifikatutako espazioak, eta, aukeran, tokiko sistemak, espazio libreak eta berdeguneak.

Lurralde-mailako hiri-sistemaren arloko gidalerroak. Goierriko Eremu Funtzionalean “Eraldaketa Ardatz” proiektatu da honakoa: Urolako eta Oriako Eraldaketa Ardatzen arteko lotura. Proposatutako eraldaketa-ardatza bi korridoreek definitutako egituran oinarritzen da, haietan dago biztanleria gehiena. Horietako lehenengoa Ipar-Hego ardatza da, Oria bailaran zehar. Hori eskala handiagoko korridorean barneratzen da eta N-I errepidearen bidez, hiri jarraian hedatzen da, Tolosaldea eta Donostialdearaino. Bigarrena Ekialde-Mendebalde zeharkako ardatza da, eta, aurrekoarekin Beasain-Ordizia-Lazkao errotulan lotzen da, Urolaren Eraldaketa Ardatzarekin bat egin eta bigarren burura (Zumarraga-Urretxu) iritsi arte, gero Durangorantz luzatzeko. Bertan ardatzeko garapenak finkatzea eta kontzentratzea planteatzen da, Beasain-Ordizia-Lazkao nodoari dagozkionak (Olaberria eta Idiazabal funtzionalki barneratuko liratekeenak) eta Zumarraga-Urretxukoak eta Legazpikoak artikulatuta; maila handiagoko hiri-eremuko buru sendoa osatuta.



UROLAKO ERALDAKETA ARDATZA. Zumarraga-Legazpi tartea.

Hiri-berroneratze arloko gidalerroak. Hirigintza-plangintzak honakoak garatu behar ditu: espazio urbanizatuak dentsifikatzea eta espazio zaharkituak, degradatuak edo gutxiegi erabiltzen direnak birziklatzea, lurzoru berriak okupatu beharrean; etxebizitzaren, jarduera ekonomikoaren eta zuzkiduren beharrezko asetzeko edo dauden desorekak konpontzeko.

Hiri-hazkundeko perimetroaren arloko gidalerroak, hirigintza-ekimen berriak egungo hiri-bilbean txertatzeko, hura osatzeko, lurzoruaren erabilera-intentsitate txikiko eremuak dentsifikatzeko eta hutsik dauden edo erabilera berriak jaso ditzaketen espazioak berritzeko. Horrez gain, bizitegirako edo jarduera ekonomikoetarako hiri-dinamiken ondorioz, zaharkituta geratu diren lurzoru urbanizagarriak, balio handiko nekazaritza eta abeltzaintzarako lurzoru urbanizaezin sailkatzea ere berrikusteko.

Jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzoruaren arloko gidalerroak, industria-eremu tradizionalak berroneratzeko, birgaitzeko, berritzeko eta balio emateko estrategiak sustatzeko. Hiri-merkataritzari lehentasuna emango zaio periferiako merkataritzari baino, merkataritza-ekipamendu handien gehieneko azalera mugatuta.

Bizitegi-kuantifikaziorako gidalerroak. Gehieneko bizitegi-kuantifikaziorako prozedura ezarri da. Hori Zumarragan aplikatu ondoren, hurrengo 8 urteetarako HAPOn 470 etxebizitza berri aurreikusi beharko dira.

Urari, energiari eta ekonomia zirkularrari buruzko gidalerroak, ingurumenean eragindako inpaktuak murrizteko.

Zeharkako gaien eta hiri-ereduaren arloko gidalerroak. Lurraldean eragina duten zeharkako gaiak kontuan hartzeko beharra adierazten du: irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, klima-aldaketa, osasuna, euskara eta lurralde-harremana. Era berean, zeharkako gai horiek kontuan hartuta, beharrezkoa da honakoak sustatzea: hiri-eredu dentsoa, erabilera-nahasketari dagokionez konplexua eta sozialki kohesionatua.

3.3. NEKAZARITZA ETA BASOZAINZAKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA.

Irailaren 16ko 177/2014 DEKRETUAREN bidez behin betiko onartu zen, eta bere helburu nagusiak honako hauek dira: lurra defendatzea eta babestea, oro har, nekazaritza-sektorea eta bere baliabideak; gaur egungo landa-egoera zehaztea; eta plangintza landa-irizpideetatik planteatuko duen lurralde-antolamendua bultzatzea. **Hirigintza-inplikazioen artean, hierarkian gorago dagoen tresna denez, Lurraldearen Antolamenduari buruzko Legean xedatutakoaren arabera, bere terminoetan aplikatu beharreko hirigintza-legerian ezarritako hirigintza-plangintzako tresnak lotzen ditu; ondorioz, Zumarragako udal-plangintzak LPS bete behar du, eta horren edukia plan sektorialera egokitu beharko da.** Lurzoru urbanizaezina arautzeko oinarritzat, LPSk elementu arauemaileen eta ingurune fisikoaren alderdien arteko definizioa eta kontrastea egiten du, honela egituratuta:

ANTOLAMENDU-KATEGORIAK

Zumarragan, lurzoru urbanizaezinean, kategoria hauek daude gehienbat:


- **Nekazaritza eta abeltzaintza, Balio estrategiko handia:** gaitasun agrologiko handiagoko lurzoruak eta modernotasunagatik, errentagarritasunagatik edo jasangarritasunagatik sektorearentzat estrategikotzat jotzen diren nekazaritza-ustiaguneetako lurrak hemen sartzen dira. Beraz, hura mantentzea eta gordetzea lehentasuna da, bestelako erabileren aurrean.
- **Nekazaritza eta abeltzaintza, Trantsizioko Landa Paisaia:** aurreko azpikategoriakoek baino gaitasun produktibo txikiagoa duten eremu landuak daude. Balio estrategiko handiko nekazaritza eta abeltzaintzako eremuekin edo baso-eremu zabalekin kontaktuan daude. Bokazioz, haien erabilera bi horietako bat izaten da. **Udalerrian Urolako haranera iritsi arte, hegal lauenetan banatuta daude.**
- **Basoa:** Kategoria honetan gaur egun zuhaitzez estalita dauden eremu guztiak jasotzen dira.
- **Mendi Barbana:** Gaur egun sastrakaz estalitako eremuak jasotzen dira, abeltzaintzarako erabilera garrantzitsurik gabekoak, eremu maldatsuetan daude, baso-unadaz inguratuta eta higadura-fenomenorik gabe. **Kategoria honetako eremuak batez ere hegalen gailurrean daude: Oleta, Pagobakarra eta Antzetako Gana mendien inguruetan.**
- **Azalerak eta ubideak.** EAeko Ibaiak eta Errekak Antolatzen LPSn ezarritako EAeko ibaiak zein errekek eta dagokien babes-eremuek osatzen dute.

BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK

Antolamendu-kategorietan jarduera jakin batzuk garatzeko modua mugatzen dute, kasu bakoitzeko arrisku-motaren arabera, eta LAGetan ezarritako eremuetan ingurune fisikoko elementuak tratatzeko eta jarduerak arautzeko irizpideekin eta jarraibideekin bat eginda.

- Goierriko Lurralde Plan Partzialaren arabera:

- Natura-ekosistemak hobetzeko areak
 - Basoa zaindu behar duten areak
 - Inguruneak hobetzeko elementu garrantzitsuak
 - Geoarkeologia intereseko testuinguruak ezagutzea.
- Nekazaritza eta Basozaintzaren Lurralde Plan Sektorialari dagozkionak
 - Higadura arriskuko eremuak
 - Moteltze-kategoriako korridore ekologikoak



3.4. IBAIAK ETA ERREKAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA (ISURIALDE KANTAURIARRA ETA MEDITERRANEOA)

Eusko Jaurlaritzako Kontseiluaren, abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuaren bidez behin betiko onartu zen, eta 1997ko LAGen 8. kapituluaren horri buruz egindako zehaztapenak garatzeko idatzi zen. Azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuaren bidez, Lurralde Plan Sektorialaren aldaketa onartu zen, besteak beste, LPSren dokumentuan lurzorua uholde-arriskuaren arabera erabilera-irizpide eta azterketa berrien ondoren egindako uholde-arriskuaren mapa berriak jasotzeko. **Zumarraga ia osoa Urola ibaiaren arroaren barruan dago, hirigunetik igarotzen baita, eta landa-lurzorua zati bat Oria ibaiaren arroan dago, udalaren ekialdean.**

LPS honen funtsezko proposamenetako bat ur-ibilgu guztiak arazo homogeneoko tartean arabera banatzea da, eta hiru osagaien azterketan oinarrituta zonifikatzea: **Ingurumena, Hidraulika eta Hirigintza.**

Plan Sektorialaren Ingurumen-osagaia Urola ibaiaren eta Ollauntzikiren, azken hori Oria ibaiaren arrokoaren, tarterik naturalenei atxikitzen zaie.

Hidraulika-osagaiaren arabera, planak mailatan adarkatzen ditu ibaiak eta errekek: 1 eta 10 km² bitarteko azalera duten erreketatik hasita eta 600 km² baino gehiagoko azalera duten ibai tarteetaraino. **Urola ibaiari honako hauek dagozkie:**

- **IV. Kategoriako ibaitarteak (200<A<400 Km²):** Urola, 0 (N-634ko zubi zaharraren azpian dagoen itsasadarraren puntua) - 26,6 Km (Ibaiederrekiko elkargunea)
- **III. Kategoriako ibaitarteak (100<A<200 Km²):** Urola, 26,6 - 34,5 km (Ormaola errekekarekiko elkargunea)
- **II. Kategoriako ibaitarteak (50<A<100 Km²):** Urola, 34,5 - 47,6 km (Altzolako errekekarekiko elkargunea)
- **I. Kategoriako ibaitarteak (10<A<50 Km²):** Urola, 47,6 - 59,0 (Barrendiola erretenarekiko elkargunea)

Azkenik, **hirigintza-osagaiaren** arabera, planak lau eremu bereizten ditu: Landa-eremuko ertzak, Hiriarteko komunikazioetarako azpiegiturek betetzen dituzten ertzak, Garatutako eremuetako ertzak eta Hirigintza-garapen berriak egiteko potentziala duten eremuak. **Urola ibaiak, Zumarragatik igarotzean, Garatutako eremuetako Ertzak ditu batez ere, baina baita Landa-eremuko zenbait ertz ere, beste gutxi batzuk Hirigintza-garapen Berriak egiteko Potentziala dutenak dira.** Udal-plangintzak lurzoru urbanizaezineko ubideen ertzetan "Lurrazaleko Urak Babesteko Lurzoru Urbanizaezina" kategoria ezarri behar du, LPStik eratorritako eremuekin, eta, gainera, ubidearen bi aldeetako 100 metroko zabalerako banda batean jasotako irizpideekin. **Garatutako eremuetako ertzetan,** nagusi den irizpidea ibaia da, eta hori hiri-paisaiaren konfigurazioan garrantzi handia duen elementutzat eta ingurune naturala hirien barruan integratzeko bitarteko pribilegiatutzat hartzea da


LPS indarrean sartu eta ia hamarkada bat geroago, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamenduaren Sailak beharrezkotzat jo zuen **LPSren aldaketa egitea dokumentuari honako hauek gehitzeko: uholde-arriskuaren araberako lurzoru-erabilerearen irizpide berriak eta Uren Zuzendaritzak egindako uholde-arriskuko mapa berriak;** Natura 2000 Sarearen barnean Ibaien BIL izendatutako espazioen arau espezifikoak eta gune horien identifikazioa zein kokapen planimetrikoa egitea, Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetzako Zuzendaritzaren jarraibideen arabera. Horiez gain, LPSren edukiak homologatuak izan daitezzen LPS indarrean sartu ondoren

onartutako honakoekin lotuta: Europako Batasunaren 2000/60/EE Uraren Esparru Zuzentarra eta Eusko Legebiltzarraren, 1/2006 Legea, Urena.

Zumarragan, Urola ibaiaren gainean Uholde Arrisku Handiko Eremua (UAHE) identifikatzen da, honako kodearekin: ES017-GIP-URO-05. UAHE hori III. Taldeari atxikita dago. Talde horren egiturazko babesa beranduagokoa da (honakoen ondorengoa, I. Taldea - arrisku oso handia edo kalte katastrofikoak- eta II. Taldea - arrisku handia, horren egitura-babesa azkar egin behar da).

3.5. EAE-KO BIZIKLETENTZAKO IBILBIDEEN PLAN ZUZENTZAILEA

Euskal Autonomia Erkidegoan bizikletaz mugitzeko azpiegituren planifikazio- eta koordinazio-estrategikorako tresna dinamikoa da, bizikleta garraiobidetzat erabiltzea baloratzeko, errazteko eta sustatzeko.




Sarearen konfigurazioa epe luzera ezarrita dago, denbora-mugarik gabe (foru-lurraldeko LPS bakoitzari horren zehaztapena eta lehenespena utzita). Era berean, Planak aplikazio-irizpideen lehenespena ezartzen du, ibilbideen jarraipena eta funtzionaltasuna bermatzeko, baita Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien arteko lankidetzarako eta balizko finantzaketarako esparru-irizpideak ezarri ere (erakundeen arteko lankidetzeta).

Sarea hiru mailatan (1, 2 eta 3) egituratuta dago, baina osagarriak dira. **Zumarraga 2. mailako sareko bi ibilbidetan jasota dago.** Ibilbide horiek 10.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrien aurreko sarearekin lotzeko diseinatu dira, baita jarduera ekonomikoko eta horietan funtzionalki integratutako lan-kontzentrazioko eremu nagusiekin ere. Gainera, eremu funtzional guztiak elkarrekin lotzeko eta haien oinarritzko artikulazioan aurrera egiteko aukera ematen du.

- **7. ibilbidea, Gipuzkoa barnekoa**
- **10. ibilbidea, Urola izenekoa.**

3.6. GIPUZKOAKO BIZIKLETA BIDEEN LURRALDE ARLOKO PLANA

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarea 439 km luze da, eta elkarrekin lotzen ditu Lurralde Historikoko hirigune nagusiak. Eskualde guztietatik igarotzen da eta inguruko lurraldeekin lotuta dago bederatzita ibilbideen bidez. **Zumarraga “Urolako bailara” izeneko I-5 ibilbidean jasota dago.** Ibilbide hori Arroabea auzotik (Zestoa) Brinkola auzoraino (Legazpi) doa. **Horrek Urola ibaiaren ibilguan gora egiten du, ardatza eta adarrak barne, eta 48 km inguruko luzera du.** Ardatz nagusia 3,1 km luze den I-5.1 Azpeitia-Azpeitia (Urrestilla) adarrarekin osatu da. Luzera horren % 80, gutxi gorabehera, Oinarrizko Foru Sareari (OFS) esleitutako hiriarteko zatiei dagokie. **Ibilbide hori zuzenean lotzen da kostaldekoarekin (I-2 ibilbidea), eta, I-6 Bergara-Beasain ibilbidearen bidez, Debako (I-4 ibilbidea) eta Oriako (I-3 ibilbidea) bailaretatik igarotzen direnekin konexioak egin daitezke.** Hori zati handi batean gauzatuta dago.



3.7. EAE-KO ERREPIDEEN HIRUGARREN PLAN OROKORRA, 2017-2028

Maiatzaren 19ko 63/2020 Dekretuaren bidez, 2017-2028 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra onartu zen. Gipuzkoan, Errepideen Bigarren Plan Orokorrean berrikusitako plangintzatik, Obra Nagusiko Programaren barruan, ez dago Goierriko Eremu Funtzionalean egiteke geratu den esku-hartzerik Hirugarren Planean jaso beharrekoa, Ezkio-Itsason N-636 errepidearen lotunea izan ezik, Euskal Herriko Trenbide Sare Berrirako aurreikusitako geltokia ezartzearekin lotuta baitago, nahiz eta tren-geltoki hori zalantzan jarri gaur egun. Egokitzapen Programatik, honako jarduera hau soilik da beharrezkoa, Trazadura Hobetzea eta Plataforma Handitzea azpiprogramari dagokiona: **Azkoitia-Zumarraga GI-631n zabaltzea eta hobetzea** (oinarrizko sarerako lehentasunezko proiektua).

3.8. KANTAUURIKO EKIALDEKO DEMARKAZIO HIDROGRAFIKOAREN ALDE ESPAINIARRAREN UHOLDE-ARRISKUA KUDEATZEKO PLANA. 2015-2021

Planaren helburu nagusia da uholdeek osasunean, ingurumenean, kultura-ondarean, jarduera ekonomikoan eta azpiegituretan izan ditzaketen ondorio kaltegarriak murrizteko ekintza antolatutak eta lehenetsiak definitzea eta justifikatzea, uholde arrisku handiko eremuetan. Arrisku-eremu bakoitzerako (UAHE), Plana aplikatzeko (6 urte) irtenbiderik onena ebaluatzen da, aurrekontuetan dauden mugak kontuan hartuta. **Zumarraga-Urretxun UAHE ES017-GIP-URO-05 dago, arriskuen III. TALDEKOA, hau da: arrisku adierazgarrikoa da, I. eta II. Taldeekin lotutako arazoak konpondu ondoren, haren egiturazko babesari ekin behar zaio.**


Datos de localización			
Demarcación	Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental		
Código de masa de agua	ES111R030020		
Cauce	Urola		
Núcleos afectados	Zumarraga, Urretxu		
Municipios	Zumarraga, Urretxu		
Provincia / Territorio Histórico	Gipuzkoa		
Comunidad Autónoma	País Vasco		
Mapas de riesgo			
Número de habitantes que pueden verse afectados dentro de la zona inundable	Alta Probabilidad	Media Probabilidad (T100)	Baja Probabilidad
	1	12	678
Vías de comunicación afectadas	Alta Probabilidad	-	
	Media Probabilidad (T100)	-	
	Baja Probabilidad	-	
Riesgos de zona inundable	<input type="checkbox"/> EDAR	<input type="checkbox"/> Instalaciones industriales (PRTR)	
	<input checked="" type="checkbox"/> Patrimonio Cultural	<input checked="" type="checkbox"/> Protección Civil	
	<input type="checkbox"/> Captación agua	<input type="checkbox"/> Uso recreativo	
	<input type="checkbox"/> ZEC	<input type="checkbox"/> ZEPA	
Otros elementos	---		

3.9. GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO AZPIEGITURA BERDEAREN SAREA

Gipuzkoako Foru Aldundiak azterketa egin du 2019an, Gipuzkoako Azpiegitura Berdearen Sarea eratzeko oinarriak ezartzeko. Sare horrek kapilaritatea emango dio LAGetan zehaztutako Azpiegitura Berdearen Euskal Sareari, eta lurraldeko ingurumen-unitate edo lurraldean dauden paisaiak (itsasertza, ibaia, landa-, mendi- eta hiri-eremuak) jasoko ditu; eta, bestetik, dauden etenuneak, oztopo ekologikoak eta eremu degradatuak identifikatuko ditu, horiek hobetuta hura sendotu eta indartu ahal izateko.

Jakina, Gipuzkoako Azpiegitura Berdearen Sarearen (GABS) helburuak 2019 LAGetik eta 2050 Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Gipuzkoako Estrategiaren 3. Helburutik eratorritakoak dira, lurraldearen eraginkortasuna eta erresilientzia areagotzeko azpiegitura berdea sustatzea aldarrikatzen baitute. Hala, Gipuzkoako Azpiegitura Berdearen Sarearekin lortu nahi diren helburu orokorrak hauek dira:

1. EAEko Azpiegitura Berdearen Sarea sendotzea, hori azpieskualde-mailako garrantzia duten funtzio anitzeko espazioekin barneratzea.
2. Eskualde-mailako eta tokiko garrantzia duten eremu multifuntzionalak zehazteko oinarriak finkatzea.



Iturria: Kantauriko ekialdeko demarkazio hidrografikoaren alde espainiarraren uholde-arriskua kudeatzeko plana. 2015-2021.

3. Ekosistemak lehengoratzea, paisaiaren kalitatea hobetzea eta Gipuzkoako natura ondarea aberastea, naturagune babestuetatik edo katalogatuetatik kanpo.
4. Gipuzkoan eta inguruko lurraldeetako naturagune babestuen eta katalogatuen kontserbazioa bultzatzea eta indartzea.
5. Gipuzkoako lurraldeko konektibitate ekologikoa mantentzea, indartzea eta lehengoratzea, jarraipena hiri-eremuetara ere zabaldua.
6. Ekosistemek lurraldearen kudeaketa-jasangarrirako tresnatzat eskaintzen dituzten zerbitzuak balioan jartzea.
7. Zerbitzu ekosistemikoek lurraldearen erresilientziari egiten dioten ekarpena indartzea, natura-hondamendien edo jatorri antropikokoan arriskuak edo kalteak murriztuta, klima-aldaketa barne.
8. Ekosistemek eskaintzen dituzten zerbitzuak aprobetxatzea herritarren osasuna eta ongizatea hobetzeko, aire- eta zarata-kutsadura eta beroarekin zerikusia duten gaixotasunak murriztuta, jarduera fisikoa erraztuta eta pertsonen egoera emozionala hobetzen lagunduta.
9. Kokaguneek, giza-jarduerak eta azpiegitura “grisek” eragindako lurralde-zatiketaren ondorioak saihestea edo mugatzea.
10. Azpiegitura berdearen eta “grisen” arteko elkarrekintza-puntuak identifikatzea eta elkarreragin horiek kudeatzeko neurriak ezartzea.
11. Naturan oinarritutako irtenbideak sustatzea, klima-aldaketara egokitzeko neurritzat, hiri-ingurunea eta azpiegituren garapena barne.
12. Azpiegitura berdearen ezagutza sustatzea eta herritarrak azpiegitura horren kontserbazioan eta errespetuzko erabileran inplikatzeko.

GIPUZKOAKO AZPIEGITURA BERDEKO SAREAREN EREMUA

Proposatutako Gipuzkoako Azpiegitura Berdearen Sareak (edo GABSk) Azpiegitura Berdearen Euskal Sarean jasotako espazioak hartzen ditu abiapuntutzat eta hura zabaldu egiten du, probintzia-mailan garrantzidun lurralde-elementuak bertan integratuta. Aurreko atalean azaldutako helburuekin jarraituta, jarraian zerrendatzen dira GABS osatu behar duten elementuak, horien justifikazioa barne.

Naturagune babestuak eta katalogatuak

Elementu hori Azpiegitura Berdearen Euskal Sarearen gune diren eremuek osatzen dute, eta, laburbilduz, ingurumen-balio handiko gune guztiek osatzen dituzte, baldin eta babes-figura bat badute (hala nola parke naturalak, biotopo babestuak, Txingudiko eremua eta Natura 2000 Sareko Kontserbazio Berezikotako Eremuak), edo EAeko ekosistema adierazgarrienen zatiak dituztelako bereizten dira (hala nola LAGetako interes naturalistikoko eremuak edo EAEn katalogatutako espazio natural adierazgarriak).

Korridore ekologikoak

Azpiegitura Berdearen Euskal Sarean identifikatutako korridoreak daude elementu honetan, lurralde-errealitatea eman ahal izateko, eta beste habitat mota batzuk, sistema naturalak edo paisaia-elementuak ere bai, hain zuzen ere, probintzian lurraldearen iragazkortasun ekologikoa handitzeko aukera ematen dutenak. Ondorioz, eskala honetan, ur-ibilgu txikiek, landazabal atlantikoko habitatek, zuhaiztiak eta abarrek ere hartzen dute protagonismoa.

Katalogatutako fauna eta florarentzako intereseko eremuak. Hemen sartzen dira EAEn katalogatutako fauna- eta flora-espezieen interes bereziko eremuak, hau da, kudeaketa-plan onartua dutenak.

Kostaldeko eta estuarioetako habitatak. Elementu honetan sartzen dira estuarioetako sistemei, kostaldeko dunei eta labarrei lotutako habitatak.

Ur geza masak. Elementu honetan sartzen dira ibai-sistemak (uholde-lautadak barne) eta aintzirak (naturalak eta artifizialak), iturburuak eta akuiferoak betetzeko eremuak.

Baso naturalak. Gipuzkoan dauden espezie autoktonoen baso nagusiak eremu babestuetan edo katalogatuetan daude, eta Azpiegitura Berdearen Euskal Sarean eta EAeko Korridore Ekologikoen Sarean daude. Horregatik, probintzian tamaina txikiagoko baso naturalek balioa hartzen dute, baso-landaketekin eta sega-belardiekin mosaikoan agertzen diren zuhaiztiak barne. Elementu honetan sartzen dira galeria basoak ere, egitura erabat garatua ez dutenak.

Oihaneztatzeak. Kasu honetan herri onurako mendietan dauden basoak eta gainerakoak bereizten dira, azkenengoen zerbitzu ekosistemikoak eskaintzeko bokazio handiagoa dutelako.

Balio natural handiko nekazaritza-guneak. Elementu honetan sartzen dira landazabal atlantikoari lotutako habitatak.

Polinizatorako habitat garrantzitsuak. Elementu horren parte dira intsektu polinizatzaileen iraupenerako eremu garrantzitsuak.

Biodibertsitatea kontserbatzeko beste habitat garrantzitsu batzuk. Elementu honetan sartzen dira Habitategi buruzko Zuzendarauko lehentasunezko interes komunitarioko habitatak eta Gipuzkoako ezohiko beste habitat natural batzuk, lurraldean biodibertsitatea sartzen dutenak.

Espazio berdeak edo libreak hiri inguruetan eta hirietan. Elementu honetan sartzen dira landa-parkeak, eraztun berdeak, ibai-ibilguak, hondartzak, parkeak, lorategiak eta hiri inguruetan edo aldirietan dauden baratzeak, bai eta hiri-eremuan azpiegitura berdea garatzeko garrantzitsua izan daitekeen beste edozein elementu ere.

Eremu degradatuak. Eremu degradatuak dira, arrazoi batez ere antropikoengatik, beren ingurumen- eta natura-elementuen kalitatea nabarmen galdu duten zonak, berezko dituzten edo haien espero diren erabilerei eta funtzioei dagokienez; eta, beraz, leheneratzeko, berreskuratzeko edo lehengoratzeko jarduerak behar dituztenak. Kontzeptu honetan sartzen dira eremu mota hauek:

- Utzitako eremuak, esaterako, erauzketekin zerikusia duten instalazioak, nekazaritza-koak, abeltzaintza-koak edo basogintza-koak eta ekipamenduekin zerikusia dutenak (komunikazio-koak, hornitzaile-koak, saneamendukoak, etab.)
- Ezkutuko hondakin solidoak isurtzen diren eremuak (hondakin-degiak, betelanak, etab.);

- Kutsatutako lurak dituzten eremuak;
- Landare exotiko inbaditzaileak dituzten eremuak;
- Degradatutako landaredia dutenak;
- Higadura edo irristatze arriskua duten eremuak;
- Ibai-ibilguak, aintzira-sistemak eta kostaldeko eremuak, integrazio morfologiko eta ekologiko txikia eta/edo uraren kalitate txikia dutenak;
- Integrazio paisajistiko txikiko eremuak;
- Zatikaturako eremuak edo iragazkortasun ekologiko txikikoak (komunikazio-azpiegiturengatik, lurzorua erabilerengatik, etab.).

UDAL-PLANGINTZAKO PROPOSAMENAK

Dokumentuaren beste atal batean, udal-plangintzako proposamenak definitzen dira. Proposamen horiek Gipuzkoako Azpiegitura Berdearen Sarea osatzen laguntzeko bete beharreko irizpidearen arabera egituratuta daude. Honako hauek dira:

HIRI BARNEKO ETA HIRI INGURUKO AZPIEGITURA BERDEA PLANIFIKATU, FUNTZIO ANIZTASUNA KONTUAN IZANDA

- Ardatz berde egituratzaileak diseinatzea eta definitzea, hiri-kokalekuak eta haien ingurune naturala lotzeko, hiri-parkeak, ekipamenduak, hiri-inguruko parkeak, garraio publikoko estazioak eta lurralde-intereseko parke natural nagusietara sartzeko ateak lotuko dituzten sekuentzia berdeak sortzeko, GABSeko elementuen bidez.
- Udal-tresnek urbanizazioko jarraibideak kalifikatu eta finkatu ahal izango dituzte, ardatz berdeen iragazkortasunari, estaldurari eta kalitateari eta mugikortasun aktibo eta integratzaileko irisgarritasunari dagokienez, hurrengo ataletan azaltzen den moduan.

AZPIEGITURA BERDE IRISGARRI ETA INKLUSIBOA GARATU

- Azpiegitura berdeko espazioak aurreikustea proposatzen da, gutxienez 2 ha-koak eta hiriguneetatik 300 m baino gutxiagora eta/edo gutxienez 2 hektareako azpiegitura berde irisgarria dutenak 1.000 biztanleko. Eremu horiek behar bezala konektatuta egon daitezen eta motorrik gabe (oinezkoentzako bideak, bidegorriak, etab.) erabilgarriak izan daitezen zaindu behar da eta, ahal den neurrian, garraio publikoarekin lotuta egotea ere bai.
- Gomendatzen da GABSen bertan edo hurbil gizarte eta ingurumen arloko ekipamenduak aurreikustea, eta ekipamendu horiek erabilera anitzeko funtzioekin uztartu ahal izatea, esaterako: espazio publiko osasungarriak eta integratzaileak, hiriguneetara konektatutako eta haietatik hurbil dauden ekipamenduak. Zuzkidura hauek naturan oinarritutako irtenbideen bidez iragazkortuko dira
- Biztanleriaren eta bere ingurune naturalaren arteko lotura tradizionalak bermatzeko, biodibertsitatea hartzeko gaitasuna duten bide sareei balioa emango zaie. Eta honek hiritartutako eremuetan natura sartzeko aukera eskainiko du. Hau gertatzeko, bide hauek babesten dituzten ertzetan ez da eraikinik eta gurpildun trafikorik izango.

IBAI-ESPAZIO EGITURATZAILEAK, FUNTZIONALAK ETA SOZIALAK INDARTU

- Ur masekin (ibaiak, errekek, kanalak, lakuak, urmaelak, estuarioak eta abar) mugakide diren lurzoru urbanizagarriko edo finkatugabeko hiri-lurzoruko sektoreak antolatzeak elementu horien presentzia kontuan hartu behar du, eta aurrealde eraikiaren eta elementuen arteko paisaia-trantsizioko eremuak aurreikusi. Trantsizioko eremu horretan,

lehenasuna eman behar zaie espazio libreetarako lagatako lurzoruei, eta kontu handiz tratatu behar da aurrealde eraikien hiri osaera, agerikotasun berezia dutelako.

- Jarduera ekonomikorako eremuak ibai-espazioan eta/edo urpean gera daitekeen eremuan badaude, jardueraren eraginen arabera, komenigarria da jarduera horiek birkokatzeko mekanismoak bilatzea eta neurriak ezartzea, horrela, ibaien ingurunea eremu urbanizatuetatik pasatzean aske geratzeko eta lehengoratzeko-ekintzen bidez haien funtzionalitatea berreskura dezaten.
- Hazkunde berriak egonez gero, ibaiaren lurraldea espazio libre bezala aurreikusi beharko da, ibaiaren funtzionamendu hidrológicoa ahalbidetu eta uholdeek biztanleriari kaltetzea saihestu beharko da, klima-aldaketak uholde-urien eta uholdeen hazkunderan izan ditzakeen ondorioak kontuan hartuta.
- Halaber, kontuan hartu behar dira ibaietako espazioak, hiriko eta hiriarteko azpiegitura berdearen ardatz egituratzaile gisa, eta ibaibideek hirian natura sartzeko eta biztanleak beren ingurune naturalarekin lotzeko duten gaitasuna ere bai.
- Oro har, Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak eta gai honetan indarrean den planifikazioak xedatuaren arabera jokatu behar da.

BERE FUNTZIOA BETETZEN DUEN ESPAZIO LIBREEN SISTEMA IDENTIFIKATU

- Hiriko azpiegitura berdea hazi eta indartzeko aukera eskaintzen duten guneak bilatu behar dira.
- Plangintzan “espazio libre” gisa aitortutako guneak aztertu behar dira espazio berdeen portzentajea eta iragazkortasuna hazteko aukera eskaintzen duten gune gisa. Indarrean dagoen udal-plangintzak eta haren berrikuspenek aukerako espazio horiek hartu ahal izango dituzte, eta hainbat jarduera egin ahal izateko zaindu, hala nola baltsa apaingarriak naturalizatzea eta hiri-bilbean dauden ur naturaletan (meatzeak, iturriak, ur freatikoa, etab.) inpaktuak saihestea; bide publikoan parte hartzea, berdegunea handitzeko; berdeguneen kudeaketa publikoa bultzatzea eta indartzea.
- Definitu gabe dauden espazio hutsak eta eraldatu edo birmoldatu ahal diren espazio zaharkituak edo marjinalak aprobetxatu behar dira, baita espazio degradatuak ere, azpiegitura berdea handitzeko eta hiriguneetarako kapilarizazioa handitzeko.
- UDALPLANen 6. kategoriarekin (“Erabiltzeko bokazio zehatzik gabe”) definitu eta GABSen barruan dauden lurzoru urbanizaezinetan, arauzko jarraibideak ezartzea gomendatzen da zerbitzu ekosistemikoak sustatzeko beharrezkoak babesa eta kudeaketa izan ditzaten

NATURAN OINARRITUTAKO IRTENBIDEAK (NOI) SARTU HIRI-PANIFIKAZIOAN

- Hirigintza-plangintza orokorretik eratorritako planetan eta proiektuetan, naturan oinarritutako irtenbideak sartzeko lehenetsi beharko da, hiri eta herrien funtzio ekosistemikoa indartzeko eta herritarren ongizatea areagotzeko mekanismo gisa.
- Aurrekoarekin lotuta, udal-plangintzak hiri-berdegunea sustatuko du, gai izango dena “bero-uharte” efektuari aurre egiteko, erosotasun klimatikoa hobetzeko, kutsadura akustikoa eta atmosferikoa murrizteko eta osasunarekin eta ongizatearekin zerikusia duten beste zerbitzu batzuk emateko, hala nola: atsedena, aisia, ariketa fisikoa, ingurumen-ikaskuntza eta gizarte-kohesioa.

AZPIEGITURA BERDEA HIRIEN ETA HERRIEN HIRI-ESTRATEGIAN SARTU

- Gomendagarria da Gipuzkoako udalerrri bakoitzean Hiri Berdearen Plan Zuzentzailea egitea eta ezartzea, zerbitzu ekosistemikoak sustatzeko beharrezko kudeaketa-ildoak ezarriko dituen.
- Hiri-estrategia berrietan, ibilgailu pribatuak hiri-sarean duen garrantziaren goranzko joera aldatzen saiatuko da, eta espazio publikoak ingurune inklusibo bihurtuko dituzten berrurbanizazio-prozesuak sustatuko dira, non gizarte- eta ingurumen-harremanek eta mugikortasun aktiboko garraio-moduek leku handiagoa izango duten, mugikortasun iraunkorraren eta espazio publikoaren funtzio sozial eta ekologikoaren mesedetan. Ildo horretan, ehunen hirigintza-estandarrak ezartzerakoan, kontuan hartuko dira baketutako ibilbide, plaza eta kaleak, baita parketzat har ditzakegun berdeguneak ere, eta horietan berdegune gehiago egotea eta lurzoruaren iragazkortasuna handitzea ere kontuan izango dira, hiri-ehunak ingurumenaren aldetik arautzeko gai izan daitezzen eremu horiek.



IM.4/

LURRALDEKO GEOGRAFIA-BALDINTZAK. NATURA-PATROIAK ETA INGURUMEN-LOTURAK.

4.1. GEOGRAFIA-TESTUINGURUA

Zumarragak 18,5 km² inguruko azalera du Urola ibaiaren goiko tartean, eta altitude-gradiente izugarriko topografia dauka, udalerriko punturik altuenetik hasita, Oleta-Zamiño-lzazpeko gailur-lerroan 930 m-ak gaindituta, mendebaldean punturik baxueneraino (Urretxuren mugan), 300 m-ko batz besteko altitudearekin eta Santa Lutzi ibaiaren irteeran 275 m ¹.

Udalak Urola ibaiaren mendebaldeko muga osoa hartzen du, eta, urmael horretatik aurrera, inguruak anfiteatro eran okertzen dira ekialderantz eta iparralderantz, adierazitako gailur-lerroan punturik gorenera iritsi arte. Ekialdeko muga ere aipatu behar da, Igartza ibaiak bere urak Santa Lutziara isuri arte egiten duen ibilbideak markatzen duena. Bestalde, Ollauntxiki ibaia dago Santa Lutzi ibaiadarra dena eta azpimarragarria da Zumarragako hirigunean duelako burua.

4.2. KLIMA ETA DENBORA ATMOSFERIKOA


Cfd kategoriakoa da, Kopen sailkapenaren arabera, hau da, urtaro lehorrik gabeko epel hezea edo klima atlantikoa. Itsasoaren eragina ere nabari da udalerrian, hori dela-eta, tenperaturak, oro har, urte osoan arinagoak dira, hau da, udan lehorterik gabe eta negua moderatua. Klimaren joerei dagokienez, Gipuzkoako XXI. menderako eskualde-proiekzioek aurreikusten dute 1,4 - 2,4 °C egingo duela gora mendearen erdialdean, eta 2,7 - 3,9 °C mende amaieran (bi balioespenak emisio-egoerarik okerrenean). Halaber, bero-boladen maiztasuna eta intentsitatea handituko direla proiektatu da, udan gau tropikalak ugarituko edo neguan, aldiz, izozte-egunak murriztuko direla. Egun hezeetan prezipitazio totalerako proiektatutako aldaketa ez da hain argigarria. Prezipitazioak nabarmen murriztuko direla islatzen da, batez ere mendebaldean, 10 mm/egun inguru.

4.3. GEOLOGIA ETA LURRAREN FORMAK

Litologikoki, Zumarragaren eta Urretxuren substratua osatzen duten arroak bi motatakoak dira funtsean.

- Iparraldean, Bizkaiko Sinklinorioarekin, Goi Kretazeoko tupak eta kareharri tupatsuak daude. Horietan tartekatuta, Basaltoak daude, itsaspeko arroka bolkanikoak, almohadilla pillow-laven formakoak, lehen aipatutako materien artean hedatzen diren galdaketez osatutakoak.

¹ Informazio-iturriak: eskualde-eta estatu-administrazioen natura-ingurunearen karakterizazio-azterketa egiteko hainbat informazio-iturri erabili dira.



Zumarragako Lurralde-testuingurua

- Hegoaldean, multzo detritikoa dago, argilitaz, limolitzaz eta hareharriz osatua, lodiera aldakorreko estratuetan, Behe Kretazeoaren eta Goikoaren hasieraren artean.

Urola ibaiak osatzen duen alubioi-lurraren gainean dago hirigunea. Haren inguruak flyschoide hareharri-kareharri-buztintsu segidaz osatuta daude. Hirigunearen iparraldean kareharriz eta tupa hareatsuz osatutako eremu zabala dago.

4.4. UR-BALIABIDE NATURALAK

Hararen geografia-konfigurazioak, beren sakontasunarekin eta lurzoru-eskasiarekin batera, ibarren eta landazabalen azalera urriak zuzenean kolonizatzeko joera eragin du, ibaiertzak antolatzeko irizpideak gutxi eskuzabalak izanda ibaien behar funtzionalekin, naturalekin eta hiri-beharrekin.

LURRAZALEKO URAK. Zumarragako eta Urretxuko hiriguneak arrosario-forman daude, Urola ibaiak zeharkatzen dituen haran ahokatueto eremu lauenak aprobetxatuta. Urola ibaira garrantzi txikiagoko zenbait errekek arrain-hezur eran isurtzen dute, baina, horrez gain, aztarna sakona uzten dute topografian. Ibai nagusiaren, Urolaren, arroa alde batera utzita, Oria ibaiaren arroa kontrajarrita dago, Igartza, Ollauntxiki eta Argisao ibaien urak jasotzen dituena. Zumarragako isurialde txiki horrek udalerraren hego-ekialdeko sektorea okupatzen du, Oria ibaiaren goi-ibarraren zati dena.

LURRAZPIKO MASAK. Udal osoa bi eremu hidrogeologikotan dago: Hegoaldeko antiklinorioa eta Bizkaiko antiklinorioa. Lehenbizikoan, Aizkorriko Hidrogeologia-unitateko Arantzazu azpiunitatea dago, eta bigarrenean, Eremu Hidrogeologiko Konplexu Bolkanikoko Soraluez unitatea.

4.5. BIODIBERTSITATEA: FLORA, FAUNA Y HABITATAK.

Zumarragako klima-, edafologia- eta orografia-baldintzak Euskadiren ekialdeko azpisektore biogeografikokoak dira, eta eragin zuzena dute landaredian eta paisaian. Horren biogeografia-baldintzak honakoetan daude: Europako eskualde atlantikoan, Superprobintzia atlantikoan, Kantauri-atlantiko euskal probintzian, Kantauriko euskal sektorean eta Ekialdeko euskal azpisektorean.

LANDAREDI POTENTZIALA. Baso naturalen formazio gehienen ordez koniferoak landatu dira. Gaur egun Zumarragan gizakiaren eraginik gabeko landaredi naturalaren % 2,56 besterik ez da geratzen. Koniferoen landaketek udalerraren % 41,49 hartzen dute. Nabaria da, beraz, natura-inguruneak urteetan izan duen kudeaketa-mota. Gainera, Urola ibaiaren bi aldeetako Quercus robor haltzadien eta hariztien ordez hiriguneak, industrialdeak, eraiki dira eta hirigunetik kanpo, landa-elementuak daude; izan ere, ibaiertzetako lurak dira landa-ingurunerako emankorrenak eta egokienak.

GAUR EGUNGO LANDAREDIA. Gaur egungo landaredia natura-ingurunearen eta giza jardueren elkarrekintzaren isla da. Azterlan-eremuan 62 habitat mota daude, habitat naturalak, erdinaturalak eta artifizialak. Habitat naturalek eta erdinaturelek lurraldearen % 36,55 hartzen dute, eta habitat artifizialek eta antropikoek % 63,52.

Zumarragan dauden 62 habitat-motetatik 17 Habitaten Zuzentzarauengatik babestuta daude. Azken horiek 736,51 hektarea hartzen dituzte, hau da, udalerraren % 17,49.

FAUNA. Zumarragan 180 ornodun autoktono bizi dira. Inbentarioan talde garrantzitsuenak tamainarik handienekoak dira, hau da, hegaztiak eta ugaztunak. Gainerako taldeek garrantzi gutxi



Usos del Suelo SIOSE-2014

- Casco
- Instalación agrícola y/o ganadera
- Extracción minera
- Industrial
- Asentamiento agrícola y huerta
- Red viaria o ferroviaria

- Cultivo herbáceo
- Frutal cítrico
- Olivar
- Otros cultivos leñosos
- Combinación de cultivos leñosos
- Prado

- Combinación de cultivos con vegetación
- Bosque de frondosas
- Bosque de coníferas
- Bosque mixto
- Pastizal o herbazal
- Matorral

Lurzoru-erabilerak siose-2014aren arabera. Iturria: GIN

dute inbentarioan, beraz, ahulenak dira. Benetan kezkarria da arrain-espezieen urritasuna. Gipuzkoako Foru Aldundiak Telleriarten urtero egiten duen arrantza elektrikoaren laginketaren arabera, 2009an hiru arrain-espezie baino ez ziren aurkitu (EKOLUR, 2009). Gainera, udalerriko bi zingiretan 115 espezie aloktono sartu dira. Horrez gain, udalerrian hezegune gutxi dagoenez, anfibioek garrantzi eskasa dute.

4.6. LURZORU-ERABILERA ETA -ESTALDURAK

Natura- eta erdinatura-unitateen ondoriozko erabilera-estaldura ondorengo gune homogeneoetan zehaztuta dago:


1. **Baso autoktonoak.** Baso autoktonoen barruan, baso natural guztiak jasota daude, bilakaera naturalean garatu direnak. Honako hauek dira ugariak: pagadiak, mertxikak eta Quercus robur zein Quercus petraea espezieetako hariztiak. Guztira, udalerriko azaleraren % 27,1 hartzen dute.
2. **Eremu gizatiartuak.** Unitate honetan, giza-jarduera nabarmena den eremu guztiak hartzen dira kontuan: lorategiak, eraikinak, errepideak, trenbideak, zaborteak, etab. Guztira, udalerriko azaleraren % 8,22 hartzen dute.
3. **Hezeguneak.** Unitate honetan urarekin zerikusia duten habitatak jasota daude, adibidez: ibaiak, errekek, hezeguneak eta haltzak. Barrendiola eta Urtatzako urtegiak ere unitate horretakoak dira. Hezeguneak udal-lurraldearen % 0,8 okupatzen dute.
4. **Landa-eremuak.** Landa-lan tradizionalekin lotutako habitatak dira, adibidez: belardiak, baratzeak, fruta-arbolak, heskaiak eta baserriak. Landa-eremuak udalerraren % 12,44 okupatzen du.
5. **Belardiak eta sastrakak.** Oro har, hainbat zuhaixkaz osatutako sastrakadiak dira. Basoen ondorengotza-prozesuko unitateak dira, eta tokiko ezaugarrien arabera, espezie desberdinak dira nagusi: iratzeak, argomak, txilarrak, etab. Larreek eta sastrakadiak udalerriko azaleraren % 4,31 hartzen dute.
6. **Goi-mendia.** Unitate honetan jasota daude mendirik altuenetan sortzen diren belardiak eta harkaitzak. Adibiderik adierazgarrienak Oamendi eta Aizkorri mendietan daude. Guztira, udalerraren % 1,76 hartzen dute.
7. **Ustiapen-basoak.** Unitate horretakoak dira udalerriko landaketa artifizial guztiak. Zuhaitz hostogalkorren eta hostoerorkorren basoak daude. Guztira, udalerraren % 47,82 hartzen dute.

4.7. PAISAIA


EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoaren aurreproiektuak **ez dauka katalogatuta garrantziko elementurik Zumarragan, Antiguako Elizaren zedarri paisaijistikokulturala izan ezik.**

4.8. NATURAGUNE GARRANTZITSUAK

Zumarragan ez dago babesteko edo kontserbatzeko figurekin zaindu beharreko espaziorik, jabari publiko jabariak izan ezik. Hala ere, aipatu behar da Zumarraga Murumendi Izazpi mendiko eremuaren zati dela, EAEko ornodunen atlasean katalogatutako fauna intereseko eremuetako bat.



Inventario de Emplazamientos Contaminados

 Parcelas

Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua. Iturria: EAEko Ingurumena

4.9. ARRISKU ETA ZIURGABETASUN NATURALAK ETA TEKNOLOGIKOAK

UHOLDE-ARRISKUAK. Lehen esan bezala, azterketa-eremuan **uholde-arrisku nabarmena izan dezakeen eremua dago** (UAHE), Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren arriskugarritasun- eta uholdeen mapak (UAUM 2. zikloa) berrikusteko eta eguneratzeko dokumentuaren arabera.

ARRISKU GEOLOGIKOAK ETA SISMOAK. Euskal Herria **jarduera sismiko txikiko eremua da**. Bestalde, VII. intentsitateko (EMS eskalan) edo handiagoko fenomeno sismikoak, 500 urteko errepikatze-denboran, gertatzeko probabilitateari buruz egindako azterketen arabera, ez dago horrelakorik gerta daitekeen eremurik. Zumarraga Araba - Bilboko Antiklinorio Plataformari dagokio.

BASO-SUTEEN ARRISKUAK. Gaur egun, Baso-suteetarako Larrialdi Plan Berezia dago. **Zumarragan, arrisku ertain-handiko eta txikia-handiko udalerrien artean dago.**

HIGADURA. EAeko Lurzoru-higaduraren Mapak adierazten du **higadurak eragin nabarmena duela Zumarragan, batez ere Urola ibairako hegaletan**. Hala ere, **ibilguek eragindako higadura ere adierazi behar da**. Horrek, lur emankorren galerak eta ondorio ekologiko negatiboak eragiten ditu ibaiertzeko ekosistemetan, gainera, kalte material eta pertsonal handiak ere eragiten ditu, intentsitate handiko uholdeekin lotzen denean. **Zumarraga > 10 eta ≤ 25 tha/urte bitarteko lur-galerako eremuan dago.**

KUTSAGARRIA IZAN DAITEZKEEN JARDUERAK. LURZORU KUTSATUEN INBENTARIOA. Zumarragan, ondorengo irudian adierazita daude jarduera industrialarengatik kutsatutako lurzoruen partzelak.




IM.5/

LURRALDEAREN BALDINTZA SOZIOEKONOMIKOAK. BIZTANLERIA, ETXEBIZITZA ETA JARDUERA EKONOMIKOAK.

5.1. DEMOGRAFIA

Zumarragak 9.626 biztanle zituen 2021. urte amaieran (4.766 gizon eta 4.902 emakume, sexuen arteko oreka dago), beheranzko joeradun zikloa mantentzen da, Gipuzkoan Goierriko dinamika orokorrarekin kontrastean dagoena, bestalde, Urola Garaiko azpieskualdean antzeko joera dago. Eustatek eskaintzen dituen azken datuak aztertuta, nabari da hazkunde begetatiboa negatiboa izan dela azken hogeitaz urteetan, nahiz eta jaiotza-tasa positiboa izan.



Migratutako pertsonetatik, jatorriaren arabera, beste herrialde batzuetan jaiotako biztanleen artean mugimendu positiboa (+0,5) bakarrik hauteman da. Batez ere Afrikako iparraldean (Maroko % 28), Dominikar Errepublikan (% 5,8), Kuban (% 5) eta Portugalen (% 4) jaiotako pertsonak dira. Atzerritarrak biztanleria osoaren % 8,8 dira.


Zumarragan zahartzea nabarmena da, % 24,55, Urola Garaiko gainerako udalerrien antzerakoa. Zenbait eremutan (Kalebarren inguruan, Orbegozo pasealekuan edo Txurrukan gehienbat adineko pertsonak bizi dira) edo etxebizitza sakabanatuetan, biztanleriaren adinak zaugarritasuna eragin dezake, familiaren laguntzarik ez izateak eta pentsio baxuek eraginda.

2011ko erroldako datuen arabera, orduan 4.295 etxe daude, eta horietatik **gehienak bi pertsona edo gehiagoko etxeak dira (% 76)**. Bestalde, seme-alabadun bikoteak kopuru osoaren % 27,94 dira, seme-alabarik gabeko bikoteak % 29,7, eta horien atzetik daude **persona bakarreko etxeak % 27,4**. Arreta berezia jarri behar zaie sostengatzaile bakarreko etxeei (guraso bakarrekoak), etxe guztien % 19,32 baitira. Hala, bai pertsona bakarreko etxeek, bai guraso bakarreko familiakoek, euren barne-berezitasunak kontuan izanda, arreta berezia behar dute.

Deigarria da Legazpiko errealitatea ia bikoizten duen guraso bakarreko indizea izatea. Pertsona bakarrekoen artean, **65 urtetik gorako pertsonak** dira zaurgarritasun-arrisku handiena dutenak (etxe guztien % 16). Zaurgarritasun-arriskuko etxeak dira sostengatzaile bakarra dutenak, hau da, **25 urtetik beherako seme-alabak dituzten aitak edo amak (% 2,8)**. Etxe mota horretan, genero-baldintza errepikatzen da; izan ere, sostengatzaile bakarreko etxeen % 75,90 guraso bakarra ama da, eta beste % 24,10 aita.

5.2. UDALERRIAN EZARRITAKO JARDUERA EKONOMIKOA ETA KONTSUMITZEKO GAITASUNA

Sektore ekonomikoei dagokionez, Eustatek argitaratutako azken behin betiko datuen arabera (2018), Industriaren Balio Erantsi Gordinaren ehunekoa % 13,9 da, zerbitzuena % 77,6, eraikuntzarena % 5,6 eta lehen sektorearena (nekazaritzarena eta abeltzaintzarena) % 0,4. Balio Absolutu Gordinei buruzko datuek erakusten dute industriak eta lehen sektoreak pisu gutxi dutela. Zumarragan zerbitzuen garrantzia nabarmentzen da eskualdeko dinamikarekin alderatuta. Zerbitzuen barruan, sektore pribatuak (merkataritzaren, ostalaritzaren eta garraioaren ekarpena) pisu handiago du sektore publikoak baino (hezkuntza, administrazioa, osasuna eta beste gizarte-zerbitzu batzuk).



Eustatek eskaintzen dituen 2020ko behin betiko datuen arabera, Zumarragak 9,57ko langabezia-tasarekin itxi zuen urtea. Aurreko urtearekin alderatuta, jaitsiera txikia izan da: 20 kontratazio sortu dira. Guztira, 494 langabetu daude; horietatik 223 gizonak dira eta 271 emakumeak. Horietan, sexuen arteko tartea txikia da.

Sektoreek eta kontratazioak duten erlazioari dagokionez, Zumarragan ohiko maskulinizazioa ageri da industria-sektorean. Sektore horrek, zerbitzuen eta lehen sektorearen pisu txikiarekin batera, genero-alde handia du honakoak lortzeko orduan: enplegua, horren kalitatea eta errentak. Langabeziari dagokionez, emakumeak gizonak baino % 2 gehiago dira gutxi gorabehera, eta horrek eskualdeko dinamikari erantzuten dio, baina ia bikoiztu egiten du Euskadi osoko errealitatea.

Errentari dagokionez, oro har, Zumarraga gainerako erreferentzia-demarkazioen azpitik dago. Eustaten azken datuen (2018) arabera, **kontsumo-unitate bakoitzeko batez besteko errentak 22.827 euro** dira, gainerako erreferentzia-esparruetakoak baino zifra txikiagoa, errenten bilakaerari buruzko grafikoan antzeman bezala.

Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunari dagokionez, errenta mota guztietan, jatorriaren arabera, konstante bat dago: **gizonek emakumeek baino errenta gehiago jasotzen dute**. Errenta erabilgarriari dagokionez, aldea oso nabarmena da; izan ere, gizonena emakumeena baino ia bi aldiz handiagoa da (17.318 eta 11.992, 11.992 euroko aldea). Alde hori gutxi gorabehera 3.500 eurotan gaintzen du Euskadirena eta probintzia osoarena.

5.3. ERRENTAK ETA ETXEBIZITZA EGOKIA ESKURATZEA

Azalerari dagokionez, 100 m² baino gutxiagoko etxebizitzak 120.000 euro inguru balio dute, eta 100 m² baino gehiagokoak 253.000 euro inguru. Kontuan hartuta Eustatek eta Erroldak 2011rako eskaintzen zuen bizitegi-partzelaren batez bestekoa, 83 m², azken datu eskuragarria dena, **ohiko etxebizitzaren batez besteko prezioa 136.950 eurokoa da**. Hala, kontsumo-unitate bakoitzeko batez bestekoa 20.803 euroko errenta bada, kontsumo-unitate batek, kasurik onenean, bere diru-sarreraren % 21 bideratu beharko luke 137.000 euroko hipoteka ordaintzeko (401 euro/hilabete, 4815 euro urtean). Datu hori, sarbideari dagokionez, negatiboa ez izan arren, aldatu egiten da erreferentziatzat pertsonako batez besteko errentak hartzean, hau da, pertsona bakarrek eta guraso bakarrek familiek eskuragarri duten diru-sarreraren kasuan. Horrela, urtean pertsona bakoitzeko batez beste 14.783 euroekin, diru-sarreraren % 30 ohiko etxebizitza erosteko erabiliko litzateke, bakarrik bizi edo ardurapean adingabeak izanez gero.


Baieztaatu al da **etxebizitza egokia eskuratzeko ezintasun-arriskua bereziki femeninoa dela**; izan ere, zahartzaroak eragindako bakardadea, guraso bakarrek familiek (gehienbat emakumeak) eta batez besteko errentarik baxuenak areagotu egiten dira emakumeen artean. Erreferentziatzat emakumeen batez besteko errenta-erabilgarria kontuan hartuz gero (11.992), alokairuaren kasuan % 44ra gora egiten duela antzematen da.

5.4. BIZITEGI-PARKEA

Eustaten arabera, Zumarragak 2020an guztira 4.809 etxebizitza izan ditu. Datu horretatik, azken zentsuko zenbakiei dagokienez (2011), bizitegi-parkea 4.565 etxebizitzatan kuantifikatuta zegoen, beraz, 244 etxebizitza gehiago izan dira hamarkada batean. Erabileraren arabera, etxebizitza nagusia % 94 zen, eta % 5 beste mota batekoa (horien artean, bigarren etxebizitzak ia ez du pisurik, 35 zenbatu baitziren 2011ko zentsuan, eta 001. atalean kontzentratuta zeuden). Iturri horien arabera, bizitegi parkearen batez besteko antzintasuna 46,6 urtekoa da eta batez besteko azalera 83m²-koa. Bestalde, % 82k berogailua dute eta % 68k igogailua. Datu hori, batez ere parkearen adina, kontuan hartu behar da bizitzeko estrategiak diseinatzerakoan; izan ere, 50 urtetik gorako etxebizitzek esku-hartzea eskatzen dute, eta 70eko hamarkadaren aurreko etxebizitza-kopurua guztira 2.455 dira.

Etxebizitza-parkea udal-mailan egokitzeari dagokionez, antzematen da **etxebizitza eskuragarrien proportzioa txikia izan arren** (% 36, 2011ko erroldaren datuen arabera), udalerraren **datuak ingurukoena baino hobeak direla, eta bizitegi-parkearen egoera, oro har, positiboa dela**, etxebizitza guztien % 3 soilik dago baldintza desegokietan (txarrak, errolda bereko ezaugarrien arabera). Era berean, azken erroldako datuen arabera, **Zumarragako konfort-indizea (% 69,20) txikia da**, gainerako erreferentzia-eremuen -%7, hain zuzen.

Etxebizitza hutsak, erroldaren arabera, 235 izan ziren (% 5,14), laginketa-arazo larriak adierazi arren, hirigune nagusiko 001, 002 eta 008 sekzioetan eta landa-eremuetan (007) kontzentratuta daude. Bigarren mailako iturrien, behaketaren eta data-planoaren arabera, bi ardatz desberdin daude: lehena apalena eta tradizionalena zen, Eizagak -Elizkalek - Piedad kaleak - gaur egungo Kalebarrenek osatua; eta bigarrena modernoagoa, komertzialagoa eta anbizio sozial handiagokoa: Soraluze kaleak - gaur egungo Euskadiko Plazak - Legazpi kaleak -



Katastro planoan eraikinen adina adieraziz.

gaur egungo Sekundino Esnaola kaleak osatua. Eitza-Eizagaren kasua, harrezkero, ahultasunari buruzko aipamenetan errepikatzen da.

Edukitze-erregimenari dagokionez, 2011ko erroldako datuetan etxebizitza erosteko lehenetasuna nabari da, eta gaur egun ere hala jarraitzen du. Erroldaren urtean, 4.295 etxetatik, 195 ziren alokairukoak (% 4,5); beste 3.925 pertsona, berriz, euren etxebizitza erosi zuten (% 91,3), eta beste bide batzuetatik eskuratutako pertsonak, aldiz, % 4 (175) (lagapenak edo jaraunspenak).

5.5. ETXEBIZITZA-ESKARIAREN KALKULUA

Zumarragako etxebizitza-eskaria eta hazkunde-mugak Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek ematen dituzte, eta horien zenbatekoak beste elaborazio propio batzuen antzekoak dira. 2018-2026 epealdirako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen arabera egindako kalkuluaren oinarriak honako hauek dira: Eustaten arabera egungo etxebizitza-kopurua (4.704), biztanleria-aldaketa (-113 azken urtean, 500 baino gehiago kalkulurako erabili zen epealdian, 1996tik 2016ra arte), familia-tamaina aldatzeko beharrak (232 haustura, tamaina-murrizketa eta abar), etxebizitza nagusien aldaketa (5) eta biztanleria-aldaketa (-43). Udaleko errealitatearen datu zehatz horietatik 204 etxebizitza behar direla ondorioztatu da. Egungo parkean hutsik dauden etxebizitzak berreskuratzeagatik guztira 94 kendu behar dira; beraz, ez dira zuzenean etxebizitza berritza hartu behar.

LAGek doikuntza berria jaso dute, harrotze-faktorea, gutxieneko beharrianak handitzeko malgutasuna ematen duen baliabidea. Horrela, eskualdeen arabera, parametro desberdinak aplikatzen dituzte. Kasu honetan 2,40koa da. Harrotze-faktorea aplikatuta, **8 urteko epean 470 etxebizitza berri ateratzen dira.**

5.6. HIRIGINTZA ETA GENEROA. "UROLA GARAIAN HIRIGINTZA GENERO- IKUSPEGIAREKIN" (2013) INFORMEAREN ONDORIOAK.

Zumarragan bereziki aipatu behar da, udalerrria berezi egiten duen ezaugarria, batez ere feminizatutako zainketa-lanei dagokienez: desgaitasuna duten pertsonen kopurua nabarmen handitu da, bai probintzian, bai Urola Garaian. Urola Garaiaren kasuan, hazkundera 995 pertsonakoa izan da (biztanleria osoaren % 3,8), eta gehiengoa Zumarragan izan da, kopuru hori bikoiztu egin baita (424 pertsonatik 2005ean eta 894 pertsonara 2013an). Txosten horren datuak berriro aztertu dira Plan Orokor berriaren diagnostiko honetan.

Demografiari dagokionez, datu berrienak txosteneko datuekin alderatzean, honakoa ondorioztatu da: gizonen eta emakumeen pisua mantendu egiten da totalarekiko, hau da, emakumeen artean zahartzaro handiagoa izateak bakardadea adierazten du, eta mantendu egiten dira emakumeak buru dituzten sostengatzaile bakarreko familia-moten ehunekoak. Halaber, emakume migratzaileen, 25 eta 34 urte bitarteko adin-taldearen eta bereziki Magrebeko emakumeen, pisua handitzen dago.

Ekoi- eta ugaltze-lanaren arteko erlazioari dagokionez, oso baldintzatua dago hirigintza-errealitatearen zuzkidurengatik eta mugikortasunagatik, joerak berresten dira.

Ekoi- lanari dagokionez, azterketa sozioekonomikoaren atalean aztertu den bezala, joera hauek mantentzen dira: emakume eskatzaile gehiago, kontratuen hazkundera, urtarokotasuna, zerbitzuen sektorearekiko lotura handiagoa eta lanaldi txikiagoak. Beraz, genero-aldea nabaria da, Eustaten datuetan oinarrituta adierazi den bezala. Etxeko lanaren ezegonkortasuna nabarmentzen da.

Halaber, mantendu egiten dira denbora aldetik gizonen eta emakumeen arteko baldintza ezberdinak, baliabide instituzionalen oso menpekoak, non, beste behin ere, emakumeak gehiago arduratzen diren zaintzaz. Ugaltze-lana, txostenaren arabera, konstantea da, orain arte erabili diren baliabideak bezala, 2014az geroztik ez dago horren datu eguneraturik. Mendekotasunak handitu egin dira, zuzkidurak eta laguntzak gelditu egin baitira. Zaintzaileen diskurtsoa aztertuta, azterketa kualitatiboaren ekarpen handia dena, ondorioztatu da prestazioak ez direla nahikoak eta sare-laguntza beharrezkoa dela, zaintzaileei atseden hartzeko sistemak behar direla.

Txostenaren amaieran, genero-indarkeriari buruzko egoera aztertzen da, bertan honakoa laburbiltzen da: tokiko emakumeen artean salaketa-indizea handiagoa da, familiaren laguntza urria da eta indarkeria antzera gertatzen da bikotekideen eta bikotekide ohien artean.

IM.6/

HIRIBILDUAREN ERAKETA-PROZESUA

Jatorriz, Zumarraga, kolazio edo parrokia hutsa zen; eta haren izena hamalagarren mendean jadanik bazegoen. Hain zuzen ere, Zumarragari buruzko lehen albisteak 1366ko maiatzekoak dira, Enrique de Trastamarak, Gaztelako erregeak, “Zumarragako monasterioa” Francisco López de Lazcanori eman zionean, hura balio handiko eraikina zen eta monasterioko biztanleengandik jasotzen ziren errentak ere izugarriak ziren. Beraz, lehendik zegoen eraikina zen, beraz, kronikek, zeharka, urte batzuk lehenago, gutxienez, zegoen biztanleria egonkorra eramaten gaituzte.

“Monasterioa” edo Zumarragako Andra Mariaren tenplua (geroago, “la Antigua” izenez ezaguna) Beloki mendian zegoen, gaur egun hirigunea baino ehunka metro gorago, eta inguruan kilometro batzuetara baserri-multzoa zuen, horien oinarri espirituala zen eta, gainera, han egiten ziren biztanleen bilera zibilak. Orduan, landa-habitata zen, mendi-mazelaren erdian eta Urola ibaia ureztatutako haranetik urrun, uholdeak saihesteko.



Antiguako Baseliza.



Zumarragako Andra Mariaren azpian antolatutako lurraldea, 1383ko abenduaren 11n emandako konkordia-eskrituraren bidez, Vilarreal de Urrechun (Urretxun) sortzen zegoen hiribildu berriko bizilagunei gehitu zitzaion. Hala ere, eransketa hori 1405ean indargabetu zuen Segurako herriak, auzia jarri baitzuen. Gaztelako koroaren arbitraje-epaiak erabaki zuen Zumarragako lurraldea, herrixka, Segurako jurisdikziokoa zela, eta horri atxiki zitzaion, baina mendiak mantenduta eta epaimahaia izendatzeko ahalmena izanda. Segurarekin elkartzeak ere ez zuen luze iraun; izan ere, 1411ko martxoan, Urretxu eta Zumarraga herri horretatik banandu ziren, eta urte bereko urriaren 7ko lizentzia errearen bidez, euren udal-jurisdikzioa eta – gobernua berreskuratu zituzten

Ondoren, Zumarraga Areriako Alkatetza Nagusiari atxikitu behar izan zitzaion, eta 1660ko abuztuaren 30ean pribilegioz banandu zen. Hala, “Hiribildu” titulua, bi eskribau edukitzeko ahalmena eta ermandadeko alkate izendatzea lortu zituen. Ondoren, 1663an, Batzar Nagusietara joaten zen prokuradorearen gastuak ahalik eta txikiak izan zitezela, Arguisanoko Santa Kruz batasunean sartu zen, Ezkiorekin eta Gabiriarekin batera, 1790. urtera arte.

XV. mendearen amaieran eta XVI.aren hasieran, gero eta biztanle gehiago elikatzeko behar ziren baliabideak erazteko beharrezan kolonizazio-aurrerapena eragin zuen Urola ibaiaren haranerantz, eta biztanleria-leku tradizionaletik (zehazki, Eizagatik, lehen hiri-azotik) hurbilen zegoen eremu altuena hasi zen okupatzen.

XVI. mendearen erdialdera, iturriek egiaztatu zuten bazegoela herrigunea ibaiaren ondoan, egungo Kalebarrenen, eta Urretxutik hurbil biztanleria-taldea osatzen zuen. Oraindik gutxiengoa izan arren, ibarrean biztanleriaren zatia zegoen, ibaiaren inguruan eratua, eta parrokia izateko eskaera egin zuten. Eskaera horrek mendietako biztanleen eta Lazkaoko Jaunaren oposizioa izan zuen, ordura arte parrokia-tenplu bakarraren patroia izan zenarena. Monarkiako instantzia judizial gorenetaraino iritsi zen auzi luzearen ondoren, parrokiako tenplua haranera eramateko baimena eman zen. Horrela, parrokia bera izaten jarraitzen zuen, aldatzen zen gauza bakarra tenpluaren kokalekua zen, Lazkaoko Etxeak parrokiaren gainean zituen patronatu eskubideak errespetatuta.

1585ean, sutea gertatu zen herrian, eta gehiena erre egin zen; Eizaga auzoari 1682ko martxoan gertatu zitzaion bezala.

Garai hartan, beraz, Zumarragan bazegoen hiri-nukleoa, iturrietan “Kale” zeritzona, hiri-aztoa, lehena, Eizaga parrokia-tenplu zaharrerantz gora, eta lau baserri-azto, “sosqueras” edo “zozqueras”, Soraitzekoak zirenak, aurreko parrokia-tenplutik hurbilen zegoena, Aramburu, Elgarresta eta Leturia. Biztanleria, guztira, mila pertsona baino gehiagokoa zen, eta, batez ere, nekazaritza- eta abeltzaintza-lanetan jarduten ziren.

Orduetik aurrera, biztanle-kopurua etengabe handitzen hasten da bi habitatetan, mendian eta haranean, proportzioak errespetatuta, eta etxeak modu ez jarraian jartzen, Eizaga eta Kalebarren lotzen zituen bidea jarraituta. Hala ere, 1848an Zumarragak ez zuen ia industriarik, ezta merkataritzarik ere, batez ere nekazaritza eta abeltzaintzatik bizi zen. Biztanleria ez zen 2.000 pertsonara iristen. 1850. urtearen inguruan, Iparraldeko trenaren, Madril-Irunen, eraikuntzari buruz hitz egiten hasi ziren eta orduan desjabetzeak hasi ziren. Orduetik aurrera azpiegiturak (1861ean ura ekarri zen lehen aldiz) edo ekipamenduak (1861ean pilota joko berria) hobetzen hasi ziren.

Beasain eta Altsasu arteko trenbidea Gipuzkoan eraiki zen azkena izan zen, eta lanak oso azkar egin ziren. Trenbidea 1864ko abuztuaren 15ean inauguratu zen. Hori izan zen Zumarragako eraldaketaren hasiera-data. Handik hamar urtera, industria herrian finkatzen hasi zen, eta trenbideen ondoan jarri ziren fabrikak. Hain zuzen, Artiz izan zen enpresa ireki zuen lehenengoa, danborrak, orraziak eta ihiak egiten




Zumarragako tren-geltokia. XX. mende hasiera. Diario Vasco 2020.

zituen. Ondoren, beste batzuk ireki zuten, hala nola: Busca, Legorburu, Jaka eta Garin. Halaber, saski-denda txikiak ere ugaritu ziren, zumez eta gaztainondo-azalez egindako saski lurtarrak egiten zituztenak. Jardueraren gorakadak XX. mendeko 30eko hamarkadara arte iraun zuen, orduan sartu baitzen Zumarraga altzairuaren industrian.

Trenbidearekin, tren-geltokiarekin eta langileak zein jendea bizitzeko etxegunea eraikitzearekin batera, XIX. mendeko hirurogeiko hamarkadaren erdialdetik aurrera, beste bizileku bat sortu zen, ohiko hirigunetik kilometro batera gutxi gorabehera. Hala, urte gutxi batzuk igaro ondoren, udal-agintariek bi hirigune horiek elkartu nahi izan zituzten, eta, ondorioz, hirigunearen lehen zabalgunea modernoa sortu zen, kale batzuk eta egungo Euskadi plaza eraikita. Hala, 1864tik 1866ra, hiltegia eta harategia eraiki ziren; 1866an, udaletxea; 1875ean, hilerri berria; 1889an, Maltzaga-Zumarraga trenbidea (Euskal Trenbidearen trenbide estuko lerroa, Bergararekin lotzen zuena, eta handik Gasteizekin eta Eibarrekin, eta han Baskongadoen Bilbo-Donostia lerroarekin. Hala, herria trenbideen bidegurutze bihurtu zen, 1926an Zumaiako portuarekin lotzen zuen “Urolako Trenbidearekin” indartu zena); 1890ean eskola publikoak, etab.

Horrela, pixkanaka-pixkanaka, biztanleria hobetu egin zen, harik eta XX. mendearen erdialdean, immigrazio larriak eraginda, Esteban Orbegozo, S.A.-k (1930ean sortua) urte gutxiren buruan biztanleria ia boskoiztu eta urbanizatu zuen arte. Izan ere, hasiera batean ez zegoen bizitegi-azpiegitura nahikorik jende guztiarentzat (hasieran, hamabost familia baino gehiago bertan behera utzitako baserrietan bizitzen hasi ziren, garajeetan eta abar). Habitat-moten aldaketa kualitatiboa eman zen: landa-biztanleria tradizionalak aldatu egin ziren urte haietan, hiri-biztanleriaren mapa osatuta.



Orbegozo. XX. mendeko 50eko hamarkada.

Udalak berehala hartu behar izan zituen erabakiak biztanleria berria jasotzeko, kaleak, auzoak, bizitegi-taldeak eta abar eraikita, eta lehen aipatutako triangeluaren barrualdea beteta. Hala, 1977an 12.000 biztanletik gorako hirigunea eratu zen, orduan ekonomia-krisiak joera aldatu zuen eta emigrazioa hasi zen, hazkunde begetatiboa baino handiagoa izan zena, herria gaur egungo 10.000 biztanle baino gutxiagora murriztu zuena.



IM.7 /

BERRIKUSTEN DEN PLANGINTZA OROKORRA. HORREN GARAPENAREN ETA GAUZATZEAREN AZTERKETA

7.1. 2008KO PLANGINTZAREN ARAU SUBSIDIARIOAK

Udalerrian indarrean dagoen hirigintza-plangintza Zumarragako Plangintzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina da, b) motakoa, Diputatuen Kontseiluak 2008ko ekainaren 3an behin betiko onartu zuen eta ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (128 zk., 2008ko uztailaren 4an).

Hona hemen proposamen nagusiak:

Kokaguneei dagokienez:

- Hiri-kalitatea hobetzea, eraikin zaharkituak ordezkatuta eta berrituta, batez ere Artitzen, Eizagan eta Kalebarrenen.
- Jarduera ekonomikoko eremu berriak sortzea ezarpen eta instalazio berriak jartzeko: Oianguren eta Etxeberri.
- Bizitegirako hiri-hazkundearen espazio-eredua amaitzea eta sendotzea.

Komunikazio- eta garraio-azpiegituri dagokienez:

- Beasain-Durango GI-632 errepidearen zeharbidea hiri-ereduan barneratzea.
- Euskal Trenbide Sare Berrirako aurreikusitako trazadura udalaren hirigintza-garapenarekin barneratzea eta koordinatzea.
- Tren-geltoki intermodala sortzea, Renfeko egungo geltokiaren inguruan.
- Errepide bidezko garraiorako zerbitzu-azpiegitura ezartzea, kamioien aparkalekuarekin eta laguntza-instalazioekin.

Zuzkidurei, ekipamenduei eta espazio libreei dagokienez,

- Eskualdeko hiri-inguruko parkeen sistema indartzea, Argixaoko eta La Antiguako parkeak sortuta, eta Urolako trenbide zaharreko plataformaren ibilbidea berreskuratzea.
- Indarreko plangintzak planifikatutako ekipamendu- eta zuzkidura-maila gauzatzea eta finkatzea, gerontologia-zentroa eta kultur etxea sortuta.

- Egungo espazio librean eta plaza publikoen urbanizazio-maila etengabe mantentzea eta hobetzea.

Natura- eta landa-inguruneari dagokionez:

- Lurraldearen eta udalerriko ingurune fisikoaren eta landa-ingurunearen ezaugarri eta ahalmen espezifikoaren azterketan sakonduta antolatzea.
- Kontserbaziorako balio handiko lurzoruen berriazko identifikazioa, ingurumen-, paisaia-, nekazaritza- edo baso-arrazoiengatik.
- Formulatu diren babes-helburuetarako egokia den antolamendua eta araudia egitea, aldarrikatutako legeria berrira egokituta.

Oinarrizko proposamen horien gainean, eta zenbait alternatiba aintzat hartu ondoren (baina guztiak berrikusten ziren Arau Subsidiarioetan planteatzen zen okupazio espazialaren eredu finkatzeko, Eizagako mazelara bideratuta hazkundera), **indarrean dauden Arau Subsidiarioetan garatzen den tresneria, laburki, jarraian deskribatzen den moduan egin da.**

1. **Lurzoru urbanizaezina**

ASen dokumentuan adierazten da, lurzoru urbanizaezina antolatzeko erabilitako kategoriak, logikoki, 1997ko LAGenak eta orduan izapidetzen ari zen Goierriko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialean proposatzen zirenak izan arren, haien aplikazio zehatza ez zetorrela bat Lurralde Plan horrekin.

Proposatutako kategorizazioak, intereseko naturaguneak eta biodibertsitatearen galera saihestu nahi zuen eta udalerraren antolamenduan zenbait proposamen jasotzen zituen. Nabarmentzekoak:

- **“Igarobide ekologikoak”.** Ibai-ibilgu nagusiak dira, eta korridore ekologikotzat jarduten dute **Zumarragan:** Urola, Errekaundi (Berasako), Okorro edo Arkaiko Kandoitz (Maszelai eta Izukitza), Olarte, Lastaola edo San Kristobal (Etxeberri), Ollauntxiki (Argixao) eta Igartza (Izazpi).
- **Heskai biziak babestea**, ekologia- eta biologia-balio handia dutelako, baita bereziak direlako ere; izan ere, habitat hori etengabe ari da atzeraka, nekazaritza-jarduerak aldatu direlako. **Hori oso garrantzitsua da, batez ere landazabaleko eremuetan.**
- **Natura-aktiboak zaintzea eta hobetzea.** 5 eremu jasotzen dira: **Txarren, Aginagako Maldak, Lizartxo, Soraiz –Salsamendi eta Matxainbarreña.**
- **Azerizulo eremua, “Natura Intereseko Sastrakadiko” eremutzat jasotzea, txilardiek eta otadiak osatua. Komunitate horiek 97/62/EE “habitat” Europako Zuzentarauaren I. eranskinean ageri dira.** Zuzentarau horretan, batasunaren intereseko habitat naturalak jasotzen ziren, eta horiek kontserbatzeko, BIL kategoria lortuz gero, Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu behar ziren.

Lurzoru urbanizaezinean ere bi gai nagusi sortzen ziren: landaguneak mugatzea ala ez, eta ustiapen-etxebizitzaren tamaina. **Landaguneei dagokionez, bat bera ere ez jasotzea erabaki zen. Ustiapen-etxebizitzaren tamainari dagokionez**, tartekoa aukeratu zen: gehienezkoa (ustiapen-hektarea bakoitzeko bi etxebizitza) eta mugatuagoa (10 ustiapen-hektareako etxebizitza bat). **Hartutako erabakiaren arabera, bi etxebizitza egin daitezke 6 hektareatik**

goragoko ustiategietan, eta kopuru hori bat zetorren berrikusten zen plangintza orokorrean adierazitakoarekin.

2. **Lurzoru urbanizagarria**

Bost eremu mugatu dira, bi industriakoak, bat erabilera orokor tertziariokoa (hotela) eta beste bi bizitegirako, honako hauek:

- **Z1.1. Oianguren.** (jadanik sailkatuta zegoen)

Asmoa zen Santa Luzia areako instalazioen jarraian industria-erabileraren garapena ahalbidetzea, baina, betiere, honakoekin bateragarri eginda: errekaren eta haren ertzen ingurumena errespetatuta, noski, trenbidearen trazadura berriarekin, eta zeuden baserrietako eraikinei konponbiderik onena emanda.

- **Z1.2. Acería 2-.**

Berez, saihezbide zaharraren hegoaldeko Altzairutegiko lurzoruak dira. Lehen zatia hiri-lurzoru industrialak zen berrikusten ziren Arau Subsidiarioetan, eta, txatar-biltegiak gain, era askotako instalazio osagarriak zeuden, baita isurketak edo industria-biltegiak ere.

- **Z1.3 -Etxeberri Berri.**

Etxeberriko hirigunearen inguruko lurraldea da. Enklabea osatu nahi da eta, aldi berean, hiriguneari dagokionez, garrantzia eman nahi zaio: enklabeari balio handiagoa emateko zerbitzu-eremua antolatu da, lehengoa baino handiagoa den hotel-multzo zabalagoa osatuta, eta espazio publikoen antolamendua antolatuta, kontuan hartuta tokiko izaera (Etxeberri enklabea) eta orokorra (Oinezko Ibilbideko Sistema Orokorra – Bidegorria Zumarragako zein Urretxuko biztanleek erabiltzeko eta disfrutatzeko).

- **Z1.4. Eizagaberri 2**

Nahiz eta malda handiak izan, kokagune historikotik edo Eizaga erdigunetik iparraldera dagoen ibarbide zabala osatzen du. Eremuaren behealdea herriko auzo dentsoenetako batek osatzen du: Busca Sagastizabal.

Eremu honen hirigintza-garapena hasita dago, hirigintza-kudeaketari buruzko hitzarmena, hirigintzako jarduketaren programa eta urbanizazio-proiektua ditu.

- **Z1.5. Ipintza**

Kalebarrengo errebalaren atzealdean eta amaieran dagoen lurraldea da, Kalebarren eremuko hiri-bailararen iparraldea eta azken zatia. Eremua lurzoruak osatzen du triangul-forma emanda. Zati horren ezaugarri nagusia da lehen tunelean igarotzen zen ibaiaren agerpena.

Lurzoru urbanizagarrian, guztira, 381 etxebizitza berri daude. Horiek, funtsean, Eizagaberri 2 eremuan (345 etxebizitza) batzen dira, **baita babes publikoko etxebizitzak ere, 224 guztira** eremu horretan.

Erabilera orokorra industrialak duten eremuek ia 25 hektareako azalera dute. Aipatzekoa da Altzairutegiaren eremua (Acería 2) -gero, aldaketa puntualaren bidez handituko dena-, Altzairutegira (1) eta ibaiaren eskuinaldera beste sarbide bat sortzea aurreikusi da. Horrela,

aurreko instalazioak handitzeko aukera dago, eta hori guztia multzoaren ingurumen-baldintzak nolabait hobetzearekin lotuta; horretarako, "Ingurumena Hobetzeko Proiektua" eskatzen da.

Urbanizagarri sailkatutako lurzoruetatik, Eizagaberri 2 sektorea bakarrik hasi da bere hirigintza-izapidetzea. Gainerako eremuak ez dira garatu, ez dute antolamendu-plangintza partzialik ere.

3. Hiri-lurzorua

Horrela sailkatu dira, beren errealitate fisikoaren eta urbanistikoaren arabera, bai urbanizazio-baldintzei dagokienez, bai horien eraikuntzari dagokienez, legerian ezarritako baldintzak betetzen zituzten lurzorua, bi kategoria bereizita:

- **Jarduketa zuzeneko hiri-lurzorua**, hiri finkatua barne hartzen duena. ASetan, funtsean, hiri finkatuan partikularrek zuzenean edo banaka gauzatzeko beharrezkoak eta nahikoak diren zehaztapen guztiak jasota daude. Hala ere, lurzoru jakin batzuetan xehetasun-azterketa idatzi behar da edo aparteko jarduketa-unitate batzuk planteatu.

Jarduketa zuzeneko hiri-lurzoru finkatuan diseinatutako esku-hartzeetatik, honako hauek egikaritu dira:

Hiri Zaharreko antolamendu-eremuetan. (Z.4)

- **Z.4.1. Kalebarren.** Aurreikusitako 51 etxebizitzetatik 27 egiten daude (Piedad 1-Kalebarren 2-4)
- **Z.4.2. Eizaga.** 30 etxebizitza eta urbanizazioa egin dira (San Gregorio, 10-12-14)

Antolamendua mantentzeko eremuetan. (Z.5)

- **Z.5.4. U.G.L.E.** Handitzeak egin dira
- **Z.5.6. Faustino Orbegozo Fundazioa.** Hitzarmena Eusko Jaurlaritzarekin. Zuzkidura-bizitokien aurreikuspena (proiektuaren zain)
- **Z.5.7. Kanposantua.** Sarbidea hobetuta eta erabiltzaileentzako aparkalekua eginda
- **Z.5.9. Argixao Kirolekua.** Luis Urgangarin eranskinean handitze-lanak egin dira; harmailak, atletismoko pista, aldagelak, ekitaldietarako eta eskola kirolerako egokituta.
- **Z 5.10 (ELSO).** Urtubi Baratza parkea, txakurrentzako parkea, hiri-baratzeak eta aisiaguneak eginda.
- **Z 5.11 Urtubi lorategia.** Aurreikusitako 30 etxebizitzetatik 18 egin dira.
- **Z.5.15. Legazpi Kalea.** 5.12.2 HJU, 12 etxebizitza eginda, eta HJU. 5.15.3, 15 etxebizitza eginda.
- **Z.5.16. Zelai Arizti.** HJU Z.16.2, 13 etxebizitza eginda.
- **Z.5.19. Plaza Zaharra.** Z5.19.3 HJU, 30 etxebizitza eginda.

- **Z.5.23. Kalebarren 11-13.** Z-3.5 Kalebarren 15eko jarduketari gehitu zaio.
- **Z.5.25. Legazpi Auzoa.** Lurzoru-lagapena gauzatu da erabilera eta jabari publikorako.
- **Z.5.28. Busca Sagastizabal Ingurunea.** Urbanizazioa egin da, lotura hobetzeko.
- **Z.5.29. San Isidro.** Lurrazaleko aparkalekua eginda.
- **Z.5.37.** Bidaurreta Lorategi Hiria. Xehetasun-azterketa izapidetu da.
- **Hiri-lurzoruko jarduketa-unitatea.** Antolamendu-eremuko hiri-lurzorua da, Arau Subsidiarioek kudeatutakoa. Hala ASek araututako prozeduraren bidez, ekimen publikokoa edo pribatukoa izan daiteke. Eremua ondorengo garapen-tresna idaztean (Plan Berezia, Xehetasun-azterketa, etab.) sortzen da edo atzemandako arazoa konpontzeko kudeaketa egokia eginda. Urbanizatuta badago edo ez honakoetan bereiztuta dago:

Hiri-lurzoru finkatua (Z.3):

- **Z.3.1. Piedad Kalea.** Piedad kaleko 4, 6, 8, 10 eta 12. zenbakiei dagozkien partzelak dira. Berezko erabilera: bizitegia, etxebizitza kolektiboa. Xehetasun-azterketa izapidetu eta onetsi behar da garapenerako, eta antolamendu berrian eraiki ezin diren eremu pribatuak laga behar dira, erabilera eta jabari publikorako, kalea zabaltzeko. Altuerak: S+BS+4+5 atzeraemanda + EA. **Guztira 49 etxebizitza egin dira.**
- **Z.3.2. Elgarresta.** Funtsean, babes ofizialeko 20 etxebizitzako bizitegi-ezarpenaren bidez, udal-biltegirako lokala lortu nahi da, baita Tanatorio zerbitzua bertara lekualdatzea eta hegoaldean erabilera publikoko espazio txikia egitea ere. Xehetasun-azterketa izapidetu eta onetsi behar da garapenerako. **20 etxebizitza babestu, tanatorioa eta udal-biltegia eginda daude.**
- **Z.3.3. Antiguarako errepidea.** Bi partzelak ez dira jarraiak. Bizitegia, Lorategi Hiria. Xehetasun-azterketa izapidetu eta onetsi behar da garapenerako, eta erabilera eta jabari publikorako laga behar dira beheko partzelaren bi zatiak, baita goiko partzelaren espaloia ere, espazio librean tokiko sistematzat, gutxienez 1.000 m². Altuerak: erdisotoa+BS+I. Ez dago garatuta.
- **Z.3.4. Bidaurreta gain.** Argixao mendiko magalaren hasiera da. Landa-parke sailkatzen da eta hemen hiri-kalifikazioa modu koherentean bukatu behar da, egungo bidea lagatuta, urbanizatuta eta errematatuta. Bi jarduketa-unitate mugatu dira helburu horiek lortzeko: HJU 3.4.1 (8.000 m²) eta HJU 3.4.2 (4.000 m²). Familia bakarreko edo bi familiako etxebizitzak bakarrik. Antolamendu hau garatzeko eta zehazteko jarduketa-unitate guztien xehetasun-azterketa izapidetu eta onetsi behar da. Altuerak: erdisotoa+BS+I. Xehetasun-azterketa bakarrik izapidetu da.
- **Z.3.5. Kalebarren 15.** Eremu hori hirigunearen iparraldeko muturrean dago; beraz, ez du hirigunearekin jarraipen eraikirik. Hiri-erremate txikia lortu nahi da toki horretarako. Berezko erabilera: bizitegia, etxebizitza kolektiboa. Xehetasun-azterketa izapidetu eta onetsi behar da garapenerako. Gehieneko etxebizitza-kopurua: 7. Altuera: S+BS+4. Jarduketa-unitate horri aurreikusitako Z.5.3 Kalebarren 11-13 unitatea gehitu zaio. **7 etxebizitza egin dira.**

- **Z.3.6. Zelai Arizti Parkea.** Egungo Ekipamendu komunitarioko eta espazio libreen sistema orokorra (6.300 m²). Antolamendu berriaren helburua da egungo parkearen eta frontoiaren espazio- eta ingurumen-balioak mantentzea, behar diren hirigintza-eraberrikuntzekin eta -hobekuntzekin. Horrez gain, lur azpian aparkalekua sortzea planteatzen da, bi aparkaleku-arazoak, publikoa eta kaleena, arintzeko, horren zentralitatea eta auzoarena direla-eta. **Lur azpiko aparkalekua egin eta Zelai arizti parkea birmoldatu da.**

Hiri-lurzoru finkatuko jarduera-unitateetan (Z.3), 211 etxebizitza berri inguru kalkulaten ziren, eta horietatik 59 lehendik zeudenak ordeztzen zituzten etxebizitzak ziren, batez ere Geltoki Aldean (50). Guztira 76 etxebizitza egin dira (% 36), eta horietatik 20 etxebizitza babestuak dira (aurreikusitakoen % 34).

Hiri-lurzoru finkatugabea (Z.2):

- **Z.2.1. Artiz.** Eremua erabat berritzea, hirigunean bizitegirako pieza berria sartuta, anbizio handikoa eta espazioan formalizatua, hiriaren erdigunea konfiguratzeko eginkizun estrategikoa baitu. Horretarako, Sekundino Esnaola kaleko ganbilei, eta alderantziz, konkaboa den erdiko plaza eta Loiolako Iñigo kaletik begiratutako bi albo ganbil eratuko ditu. **144 etxebizitza egin dira eta 75 egiten ari dira.**
- **Z.2.2. Eizagaberri 1.** Eraikuntza ibarbidearen iparraldeko ertz horretan egin da; izan ere, ezin da eraiki ibarbidearen ahoan, hori itxi gabe, ezta Busca Sagastizabal auzoa arintzeko alde zaharretik gertu ere. Hirira ikuspegia barneratuko eta Alde Zaharraren morfologia errespetatuko da, eta antolamendu hori erdiko parke handiaren inguruan egingo da, iparraldea eta ekialdea osatuta; hegoaldea Eizagako hirigunea bera izango da. **Antigua Etorbidea 21ean, babes publikoko araubideko 20 etxebizitza egin dira.**
- **Z.2.3. Forjas.** Kalebarrengo errebalaren atzealdean eta amaieran dago. Benetan, hiru partzela dira: batean Zumarragako Forjas industria dago eta bestean familia bakarreko etxebizitza bat zegoen, baita haranarekiko perpendikularrean dagoen eraikina ere. Industria desagertzearekin batera, ordezeko antolamenduak hiri-inguruneari aurrealdeko espazio publiko batekin erantzun beharko dio. Sortzen den eremu publikoa hiri-aurrealde horretan eta ibaian barneratuko da, eta eraikina atzeko aldean jarriko da. **Barne-eraberritzeko Plan Berezia bakarrik onartu da, hura gauzatu gabe.**
- **Z.2.4. Tren-geltoki intermodala.** Urretxurekin bat egiten duen lurraldea da, Tren-geltokia (bere garaian, Trenbideen Geltokiak) ezarri zenetik. Trenbideak osatzen duen hesia dela-eta udalerrria bitan banatuta dago, hala, bi zatien barneratzea eta komunikazioa hobetu nahi da, eta trenbidearen ondoko pasealekua Legazpi etxearen azpian amaitzeko aukera ematea. Lekuaren ezaugarri guztiek, trenbide-sare berriak eta Ezkioko geltokiak, eta horrek ahalbidetzen dituen garraio-aldaketek, baldintza egokiak ematen dizkiote lekuari Zerbitzu eta Komunikazio eremu garrantzitsua eratzeke, trukeen, trenaren, autobusaren, autoaren, bizikletaren eta oinezkoen inguruan. **Jarduketa hori, dagokion Antolamendu Plan Berezia onetsi ondoren, lur azpiko aparkalekuarekin, geltoki intermodalarekin eta espazio publikoekin egin da.**



- **Z.2.5. Osasun- eta gerontologia-zentroa.** Eskualdeko Ospitalean sostengaturik, leku horretan eraginkortasun eta kalitate goreneko gerontologia-osasun egoera hobetzea. Eskualdeko Ospitalearen aldetik, erabilerak osasun arlokoak eta zerbitzu erantsiak dira; Gerontologia-zentroak, berriz, nagusien egoitza handitzea proposatzen du, edozein modalitatetan: xede horretarako apartamentuak, eguneko eta gaueko zentroak, beste laguntza unitate batzuk, erantsitako zerbitzuak, etab. **Jarduketa eginda. Gaur egun, Arau Subsidiarioen aldaketa aztertzen ari dira, eraikin berria eta heliportua eraiki ahal izateko.**
- **Z.2.6. Egibide sarbidea.** Bideak Egibide baserrira eta behealde osora lur horietatik ateratzen dira. Egibideko eremuaren etorkizuneko helburu posibleari dagokionez, leku hori eremu osorako funtsezko sarbidea da; beraz, bide egokiak aurrekusi behar dira, bai edukiera eta antolaketa kuantitatiboari dagokionez, bai hiri-irakurketari dagokionez. Hori, batez ere Eskualdeko Ospitaleari laguntzeko aparkaleku-zuzkidurarekin bateragarri izaten eta Argixao auzorako bidean eta Bidaurreta zein Bidaurreta-Gain aldean hobekuntza nabarmena lortzen saiatu beharko da. **Jarduketa eginda.**

Hiri-lurzoru finkatugabeen (Z.2) 379 etxebizitza berri proposatzen dira: Artizen (209), Eizagaberri I-en (50) eta Forjasen (120). 239 etxebizitza egin dira edo egiten ari dira, hau da, aurreikusitako % 63.

Hiri-lurzoruan ez zen industria-jarduketarik proposatzen, aurreko plangintzan aurreikusitakoak mantenduta: Altzairutegia (9,94 hektarea) eta Industrialdea (6,80 hektarea).

4. **Sistema Orokorrak**


Proposatutako espazio librean sistema orokorrak 349.273 m² ditu guztira. Hala ere, lurzoru horren zati handia lurzoru urbanizaezinari dagokio, 230.377,77 m² guztira. **Beraz, “hiri-eremuko” sistema orokorrak 118,895,23 m²-ra murrizten dira, 17 eremutan banatuta,** horiek 900 m²tik 24.000 m²ra tartekoak dira. Arau Subsidiarioek 33,91 m²/biztanleko estandarra iragartzen dute (10.300 biztanle aurreikusiarekin kalkulaturik), baina **errealitatea da “hurbileko” espazio librean benetako estandarra 11,54 m²/biztanlekoa dela,** eta ez da, inondik inora ere, datu txarra. (2012ko urtarrilaren 1ean, Zumarragan 9.668 biztanle zeuden).

Ekipamenduko sistema orokorreari dagokienez, datuek adierazten dute herriak Eremu Funtzionalan duen buru posizioa. Ekipamenduak 151.185,61 m² dira: soziokulturalak, administratiboak, asistentzialak, osasunekoak, hezkuntzakoak, kirolekoak eta aisialdikoak. Horien artean euren azaleragatik honakoak nabarmentzen dira: Argixao Kirol-zentroa (34.352 m²), Eskualdeko Ospitalea (32.490 m²), Lamorous-Argixao Gerontologia-zentroa (37.800 m²) eta Adingabeen Zentroa (29.753 m²). **Ekipamenduen estandarra, beraz, oso handia da,** espazio librean sistemarena baino handiago, alegia, **Zumarragan udalez gaindiko izaeradun ekipamenduak bilduta daudelako.**


7.2. 2008KO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETAK

1. **Aldaketa puntuala Z.1.2 “Aceria 2” sektorean eta Z.0.3 eremua “Baso mendia”.** “Z.1.2 Aceria 2” sektorearen (Zumarragako fabrikaren) mugaketa berria du xede nagusia. Horrek esan nahi zuen jatorrizko sektorea 40.760 m²ko azalerara handitu behar zela, industria-lurzoru urbanizagarritzat, eta ASetan “Z.0.3.- Baso mendia” (lurzoru urbanizaezina) eremuaren barruan zeuden.
2. **Matxaingo eremuari dagokion aldaketa puntuala (Z.1.6 sektore berria).** Helburua da **Matxaingo eremua** (lurzoru urbanizaezina) **udalerriko jarduera ekonomikoak ezartzeko egokiak diren lurzoruetan** (urbanizagarriak) **sartzea.** Aukera hori sortu zen Legazpiko HAPOn izapidetzearen inguruko egoera berrien, eta Legazpiko Lekuona-Azkuenea eremutik, Arraitzerreka erreka hegoaldetik hurbil dagoen lurraldetik, eremura iristeko zentzuzko irisgarritasun-baldintzen ondorioz. **Egin gabeko jarduketa.**
3. **“Bidaurreta Lorategi Hiria” Z5.37 eremuko egungo HJU 5.37.1 unitateko “EC” partzelaren aldaketa puntuala.** Aldatu beharreko partzelaren lurzoru, indarreko ASetan, hiri-lurzoru finkatu sailkatuta dago eta merkataritzako erabilera orokor kalifikatuta. Ekimen horren bidez, aipatutako partzelaren eta eraikitako egitura-eraikuntzaren ezohiko hirigintza-egoera konpondu nahi da, **etxebizitza babestuen parkea eta garajeak handitzeko aukera sortzeko** eta udalerraren eskari handiari erantzuteko. Era berean, 9. sektore zaharraren egikaritzea bukatutzat eman daiteke, horren antolamendua eta beharrezko apaindura publikoa ordezkatzeko, egungo eraikuntza-irila kenduta, haren gainean bi solairuko hormigoizko eskeletoa baitzegoen. **Egindako jarduketa da, erabilera-aldaketa ere eginda dago babes publikoko 8 etxebizitzarako.**

4. **Aldaketa puntuala, laguntza-ekipamenduaren sistema orokorreko Z0.8 eremua (adingabeen zentroa) handitzeko. Ekipamendu hori 19.500 m²tik 35.400 m²ra handituko da**, eraikigarritasuna bera izanda. Izan ere, egungo eraikina mantenduko da, eta lursail berriak erabiliko dira (lurzoru urbanizaezin kategoriakoak: “Nekazaritzako eta abeltzaintzako eremuak, landazabala, trantsizioko landa-paisaia”). Lurzoru horiek azalera-aholuetarako bakarrik erabiliko dira, Adingabeen Tratamendurako Zentroaren zerbitzurako lur-berdinketa eta egokitze-obra txikiak eginda, esleitutako Laguntza-ekipamenduaren kalifikazioaren arabera. **Aurreikusitako handitzea eginda dago.**
5. **“Eizaga” Z4.2 eremuko mugaketaren aldaketa puntuala.** Xedea da **modu egokian mugatzea “Eizaga Z4.2” eremua**, saihebidetaren sistema orokorretik hurbil, baita **partzela batzuen lerroak eta eraikuntza-sakonera aldatzea** ere, ASetan aurreikusitako eraikuntza-profila mantenduta.
6. **5.15.1 HJUren aldaketa puntuala eta jarduketa-unitate horren Legazpi Z.5.15 eremuaren eta Urola ibaiaren arteko ibaiertzeko pasealekuaren antolamendua.** Ekimen horren bidez, **jarduketa-unitate horretako eremuaren eta Urola ibaiaren arteko ibaiertzeko pasealekua antolatu nahi da**, eremuaren mugak araututa, eta Legazpi kaleko 4. eta 6. zenbakietako zenbait eraikinen atzeko terrazak eremu horren barne jasota, ibaiertzeko pasealekuaren jarraipena eta antolamendua ahalbidetzeko espazio libreak lortu ahal izateko. **Egindako jarduketa.**




Zumarragako Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala, ZO.8 Adingabeen Zentroa eremua handitzeko. Ingurumen Inpaktuaren Baterako Bilakaera Aztertze Planoa.



Zumarragako Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala Z1.2 Aceria2 eremuan eta ZO.3 Baso Mendia eremuan. Antolamendu berriaren plano.



Zumarragako Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala, Matxain eremuari dagokiona (Z.1.6 sektorea). Zonakatze xehatuaren plano



Zumarragako Arau Subsidiarioen 5.15.1 HUaren aldaketa puntuala eta Erribera pasealekuaren antolamendua, Jarduketa Unitate horretako Legazpi kalea Z.5.15 eremuaren eta Urola ibaiaren artean. Hiri-lurzoru finkatuaren antolamendua mantentzeko eremuen plano.



Zumarragako Arau Subsidiarioak aldaketa, Z.5.37 Hirigintzako Jarduketa Unitatearen goiko muga (hegoaldekoa) doitzeko.

IM.8/

BESTE UDAL-PLAN ETA -AZTERLAN BATZUK

8.1. UROLA GARAIKO ESKUALDEKO ENERGIA-PLANA

2016. urtean egindako Eskualdeko Energia-plana Energia Jasangarrirako Ekintza Planaren (EJEP) estrategiaren barruan dago. Ekimen hori 2008. urtean sortu zuen Europako Batzordeko Energiaren Zuzendaritza Nagusiak (EBEZN) eta horren oinarria Europako Batzordearen “20/20/20” estrategia da. Ekimen horretan, Europar Batasunak protagonismo osoa ematen die adalderiei klima-aldaketaren aurkako gobernu-ekintzen eragile nagusiztat.

Egindako emisio-inbentarioko datuen arabera, **Urola Garaiko EEPak eskualdeko emisioen % 28ri eragiten dio**. Ildo horretatik, 2011. urtea hartuko da erreferentziatzat, eta **2025ean gutxienez 28.026 t CO2 murriztu beharko dira 3E2030 arauan ezarritako % 25eko murrizketa lortzeko, urte hartako emisioak 84.078 t CO2 baino txikiagoak izanda**.

Eskualdeko EPn proposatutako ekintza-tipologiaren laburpena

EREMUA	GAIA	EKINTZA-KOPURUA	EKINTZEN %, TOTALAREKIKO	CO2 TONEN MURRIZKETA	BEG-EN MURRIZKETA, TOTALAREKIKO	MURRIZTUTAKO ENERGIA (MWh)	AURREZPEN EKONOMIKOA (€)	KOSTU ZENBATETSIA (€)
ENERGIA-ERAGINKORTASUNA	UDAL-BULEGOAK	10	% 33	760,52	3,15%	2637,79	235.630	1.011.842
	ARGIZTAPEN PUBLIKOA	3	% 10	616,87	2,56%	1580,62	200.490	2.705.000
	ETXEKO/ZERBITZUETAKO SEKTOREA	7	% 23	6.353,51	26,33%	39.311	2.650.710	21.182.500 ⁽¹⁾
MUGIKORTASUNA	OROKORRA	1	% 3	-	-	-	-	-
	UDAL-FLOTA	2	% 7	2,15	0,01%	8,92	-	408.000
	ETXEKO SEKTOREA	2	% 7	16.357,11	67,78	61.262,81	4.901.025	8.000
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK	SEKTORE GUZTIAK	4	% 14	42,33	0,18	-105,74	23.218	246.661
HONDAKINAK	ETXEKO ETA ZERBITZUETAKO SEKTOREA	1	3 %	-	-	-	-	-
GUZTIRA		30	% 100	24.133	100%	104.695	8.011.073	25.570.003

Eskualdeko Planaren Eranskinean, energia berriztagarrietan (EB) oinarritutako sorkuntza-oinarridun hainbat energia-sistema ezartzeko bideragarritasuna aztertu da. Sistema horiek gai dira autokontsumorako energia emateko planteatzen diren eraikinen beharretarako, eta horien energia-kontsumoa murrizteko eta, aldi berean, dirua aurrezteko. Zehazki, **Zumarragarako hiru eremu proposatzen dira eguzki-sistema fotovoltaikoak ezartzeko:**

- 1. EREMUA. Kultur etxea
- 2. EREMUA. La Antigua interpretazio-zentroa
- 3. EREMUA. Ispilla Kiroldegia

8.2. 2015EKO HIRI-MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN PLANA

2015. urtean Zumarragarako Hiri Mugikortasun Jasangarriko Plana idatzi zen, 2007. urteko Urretxu-Zumarragako Mugikortasun eta Trafiko Plan Integrala ordeztzeko. Honako helburu hauek ditu:

1. Mugikortasun aktiboa (oinezkoena eta bizikletena) areagotzea udalerrriaren barruan eta inguruko poligonoekiko eta udalekiko loturan.
2. Eremu publikoan ibilgailu motordunen kopurua murriztea eta haien erabilera arrazionalizatzea.
3. Zirkulazioa arintzea hiriko bide guztietan. Zumarraga hiria 30.
4. Era guztietako hezkuntza-zentroetara eta jardueretan haurren autonomia areagotzea.
5. Garraio kolektiboa erakargarriago egitea

PROPOSAMENAK:

A. OINEZKO-MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA SUSTATZEA

Neurriak:

1. Maldaren eragina murrizteko hobekuntzak, **mugikortasun-bertikaleko sistema mekanikoak ezarrita.**

- San Gregorioko igogailua aprobetxatzea proposatzen da, San Isidro eta Elgarrestamendi kaleekin lotzeko, Euskal Herria etorbidearen beste aldean.
- Urdaneta-Esteban Orbegozoren arteko lotura bertikala.
- Mugikortasun-bertikal mekanikoa ezartzea San Isidro auzo osoaren birgaitzean.

2. **Oinezko-iragazkortasuna hobetzea**, batez ere, **Euskal Herria etorbidean** (trenbide-pasaguneen edota pasabide goratuen bidez) eta **trenbide-lerroan** (azpiko pasabideen edota pasabide goratuen bidez).

3. **Bidegurutzeetan eta tarteetan diseinua hobetzea**, bereziki hurrengoetan.

Elkarguneak:

- Elizkale
- Ospitalera sarbidea
- San Gregorio-kiroldegia
- Secundino Esnaola-Legazpi
- Bidezar-Piedad
- Euskal Herria Etorb. biribilgunea-ARCELOR
- Secundino Esnaola-Iparragirre

Tarteak:

- Islas Filipinas
- Artiz auzoa-ARCELOR
- Plaza de los Leturia- ARGIXAO kiroldegia
- La Salle-Legazpi sarbidea
- Urola kalea
- Euskal Herria Etorbidea

4. Oinezko egitea. Proposamen nagusia da **Legazpi kalea – Euskadi plaza - Soraluze kalea ardatza oinezkoa egitea**, eta horrekin lotutako neurritzat: Hiriguneko oinezkoentzako hobekuntza-plana.

B. BIZIKLETA-MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA SUSTATZEA

Neurriak:

1. **Gipuzkoako Bidegorrien Planeko IT06 bizikleta-ibilbidea** Foru Aldundiak garatzea, gutxienez Ezkio-Itsasorekiko lotura.
2. IT05 eta IT06 osatzeko **oinarrizko hiri-ardatzak garatzea:**
 - Artiz auzoa ardatza.
 - Secundino Esnaola ardatza.
 - Euskal Herria Etorbide ardatza.

C. ZIRKULAZIO-ESKEMA

Neurriak:

1. Zenbait aukera planteatzen dira, kaleen zirkulazioaren noranzkoari dagokionez. Horietako **asko zirkulazioko noranzko bakarrean jartzea erabaki da**, eta horrela:
2. **Zamalanetako ibilgailu astunen zirkulazioa eragozteko Euskal Herria Etorbidean**
3. **Urretxurako zirkulazioa murriztea** Zumarragatik, eta, horretarako, sarbide alternatiboa eta zuzenagoa eskaintzea Okendo biribilgunetik trafikoa igarota.
4. **Lurrazaleko aparkalekua murriztea Secundino Esnaola kalean eta Iparragirre kalean**, galtzada 6,50-7,00 metrora handituta.
5. **Ardatz nagusien trafikoa baretzeko neurriak eta oinezkoentzako hobekuntzak.**

D. APARKALEKUA

Neurriak:

1. **Aparkaleku eskaintza murriztea zentroan.**
2. **Aparkalekua arautzeko sistema ezartzea.**
3. **Aldirietako aparkalekuak garatzea eta hobetzea.**

E. GARRAIO PUBLIKOA

Neurriak:

1. Gipuzkoan Garraio Publikoaren Plan berria abian jartzea.
2. Tokiko hiri-lerro berria (gutxienez proiektu pilotua), Etxeberrira, Argixaora, Gerontologia-zentrora eta Ipar Haizera lotura hobetzeko. Halaber, taxi kolektiboaren sistema abian jartzea, udalerraren aldirietako eremuetara heltzeko eskaria, tokiko garraio publiko ohikoaren orde.
3. Garraio publikoaren geltokiak hobetzeko plana.

F. ESKARIAREN KUDEAKETA

Neurriak

1. Laneko mugikortasun-planak, jarduera egiten den lantokira joan-etorriak arrazionalizatzeko neurriak ezarrita, bai enplegatuenak, bai bezeroenak, hornitzaileenak eta bisitarienak.
2. Eskola-bide seguruak, haurrak eskolara bakarrik joan ahal izateko mugikortasun-jasangarriko ekimenak.


G. MUGIKORTASUNA ARAUTZEA

Neurriak:

1. Mugikortasunari buruzko ordenantza berrikustea
2. 30 km/ordu abiadurako udalerrria (gaur egun, derrigorrezkoa da zirkulazio-noranzko bateko errei bakarreko bideetan, Zirkulazio Erregelamenduaren aldaketaren arabera).
3. 20ko eremuak mugatzea (derrigorrezkoa da, halaber, galtzada- eta espaloi-plataforma bakarreko bideetan).

8.3. TOKIKO AGENDA 21EN EKINTZA-PLANA 2013-2020

Zumarragako Tokiko Agenda 21en Ekintza Plana 2013-2020 honela egituratuta dago: **10 Lerro estrategiko, 36 Programa eta 88 Ekintza.**



Zumarragako HAPO berriaren eraketa-prozesuarekin zuzenean lotuta, **5. lerro** estrategikoari erreparatuko zaio: **GARAPEN JASANGARRIAREN HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUAN AURRERA EGITEA. 3 programa eta 10 ekintza ditu.**

5.1. PROGRAMA: Jasangarritasun-irizpideak hiri-garapenean jasotzea.

EKINTZAK:

- 5.1.1: Gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-aldagaiak kontuan hartuko dituen HAPO berria diseinatzea eta onartzea.
- 5.1.2: Hondatutako eta erabiltzen ez diren areak eta espazioak berroneratzea.
- 5.1.3: Hirigunearen eta goiko eremuaren hirigintza-barneraketan aurrera egitea.
- 5.1.4: Eraikuntza- eta birgaitze-jasangarria sustatzea, udal-neurrien eta -mekanismoen bidez.

5.2. PROGRAMA Irisgarritasuna hobetzea udal-eraikinetan eta hiri-ingurunean.

EKINTZAK:

- 5.2.1: Irisgarritasun Plan berria onartzea eta abian jartzea.
- 5.2.2: "irisingarritasun unibertsalaren" irizpidea udal-eraikin eta - ekipamenduetan jasotzea

5.3. PROGRAMA. Hiri-espazioen kudeaketa jasangarria hobetzea.


- 5.3.1: Hirigunean estalitako espazioa egokitzea.
- 5.3.2: Espazio publiko atseginoen hirigintza-diseinua.
- 5.3.3: Hirigunean erabilera anitzeko espazioaren bideragarritasuna aztertzea, gazteek aisialdirako erabil dezaten, honakoetarako erraztasunak emanda: skate, saskiak etab.
- 5.3.4: Udalerraren natura ingurune garrantzitsua baloratzea eta ezagutaraztea.

8.4. ZUMARRAGAKO ZARATA-ERAGINA EBALUATZEKO PLANA

Plan hori 2008an egin zen, eta udalerrari eragiten dioten azpiegituren (kaleen, errepideen eta trenbideen) eragin-akustikoak aztertzen ditu. Informazio-iturritzat, honakoen zarata-mapetan lortutako emaitzak hartzen ditu: foku bakoitzarena bereizita eta garraio-azpiegitura guztiena.

Aztertutako zarata-eraginetik honako hau atera zen:

- Izagako eremuak $L_n = 50-55$ dB(A) maila du trenbidetik eta GI-2632 errepidetik hurbilen dagoen eremuan (okre-kolorekoa). Sektorearen gainerako eremuek $L_n = 50$ dB(A)-ko KAHak betetzen dituzte.
- Forjas-Ipinza eremuko ia area guztia KAHen gainetik dago, egun ez dagoen bizitegi-erabilera nagusiko eremu urbanizaturako.



Gainera, ezin da ahaztu osasun-erabilera nagusiak definitutako area akustikoa, $L_n=50$ dB(A)-rako maila akustikoak behar dituela, bizitegirako garapen berriak bezala. Eremu horretan, fatxada nagusia eta ospitale-esparruko sarbideetatik hurbil dauden eremuak baino ez dituzte 1 eta 5 dB(A) arteko mailatan gainditzen KAHak, lurretik 4 metrora. Eremuaren gainerako guneek KAHak betetzen dituzte


Kalitate Akustikoaren Helburuen (KAH) betetze-mapa.

Ingurumen-zarata totalaren mapan KAHak gainditzen diren eremuak zuriz markatuta daude eta zaratari buruzko araudiaren eskakizunekin bat datorren kalitate akustikoko eremuak lortzen dira. Beraz, aurreko maparen eremu koloreztatu guztiek (okreak, horiak eta berdeak) $L_n=55$ dB(A) kalitate akustikoaren helburua betetzen dute, hau da, bizitegi-erabilera nagusiko eremu urbanizatuertarako ezarritako helburua.

KAHak betetzen diren etxe-uharte handiak daude, batez ere udalerraren hegoaldeko auzoetan. Trenbide-trafikoak (Secundino Esnaola), GI-632 errepideak (Euskal Herria Hiribidea) eta hiriguneko zenbait kalek dute eraginik handiena, besteak beste, GI-632 errepidetik udalerrira sartzeko bideek, baita Legazpi, I. Loyola eta Izazpi auzoek ere.

Interesgarria da zonakatzeko-akustikoan eremu lasaiak sartzea (aurreko mapan horiz eta berdez koloreztatuak, industria-zarata sartu ezean), bertan maila akustikoak $L_n \leq 50$ dB(A) baitira. Arreta jarri beharko da, halaber, L_n 50 eta 55 dB(A) arteko mailak dituzten guneetan, izan ere, maila akustikoak handitzen badira, etorkizunean KAHak gainditzea suposatzen baitezake. Prebentzio-lerro berean, Forjas-Ipinzako bizitegi-garapeneko maila akustikoak murrizteko neurriak edo konponbideak ezarri beharko dira, gaur egun bertan KAHak gainditzen direlako.

Gainera, komeni da osasun-eremuaren azterketa zehatzagoa egitea, erabilera nagusi horrekin jarraitu nahi bada. Izan ere, aurreko kasuan bezala, sarbideetatik eta fatxada nagusitik hurbil dauden eremuak eragin akustikoa dute. Hori azterketa xeheagoarekin (sarrera-datuak hobetzea, altuera baloratzea, etab.) zehaztu eta ebatzi ere egin liteke.





monasterio guaitak
Urretxu
Euzko Leizola



IM.9/

AZPIEGITURA-SAREEN ETA OINARRIZKO HIRI-ZERBITZUEN EGUNGO EGOERA

9.1. URAREN ZIKLO OSOA

Ur-hornidura.

Zumarragan edateko ur-hornidurarako ur-baliabideek bi jatorri dituzte:

- Barrendiolako urtegia. Aizkorri mendilerroaren magalean dago Barrendiolako urtegia, eta Artzaluburu errekaen uraz betetzen da. Gaur egun ezagutzen dugun urtegia 1982an amaitu zen, nahiz eta 1960tik aurrera akuiferoa zen eta presa txikia zuen. Gaur egun, 1.482.000 m³-ko ur-edukiera du. Ur hori Barrendiolako Ur Edangarren Araztegian tratatzen da eta 135 litro/segundoko ahalmena du, ondoren Zumarragako udal-biltegiara eramaten da (Urzabaleta eta Urzabaleta Goikoa), bertatik 1.365 m³/egun kontsumitzen dituen biztanleriari ematen dio zerbitzua. Araztegi horretatik Urretxu, Legazpi eta Ezkio-Itxaso ere hornitzen dira, guztira 30.000 biztanle inguru. Estazioan uren tratamenduak prozesu hauek ditu: aurreozonizazioa, erreaktiboekin nahasteko ganbera, dekantazioa, bitarteko ozonizazioa, iragazketa eta desinfekzioa.
- Izaspiko bilketa. Barrendiolatik aparte beste ur-hornidura eremu bat dago. Antiguako, Sagazpeko eta Adingabeen Zentroko eremuak Izaspiko bilketako emariekin hornitzen dira. Emari horiek Elorriagako eta Antiguako biltegiatan gordetzen dira.

Azpimarratu behar da, garrantzitsua delako, Urola Garaiko hornidura-sistema Urola Erdialdeko eta Urola Beheko sistemekin konektatuta dagoela, lehorteei edo bestelakoei aurre egin ahal izateko.

Zumarragan etxeko ur-hornidura Aquarbe SAU enpresak kudeatzen du. Enpresa hori Udalaren enpresa kontzesioduna da, eta sare zabal eta osoa kudeatzen du, sei sektoretan banatua eta horiek bere aldetik bereizteko gaitasuna duena.

Hasierako hornidura-sarea ia erabat berritu da azken hamarkadetan. Bestalde, kontrol gabeko ur-bolumena murrizteko egiten den esfortzu etengabea aipatu behar da, eta bolumen horren zati bat sareko ihesetan dago; beraz, funtsezkoa da jario horiek lehenbailehen aurkitzea eta konpontzea. Aipagarria da, halaber, azken urteetan kontagailu-parkea berritu izana, gaur egun ez baitago 10 urte baino gehiagoko kontagailurik.

2001etik gaur egun arte nabarmen hobetu da sarearen errendimendua, % 73tik % 90,2ra pasa baita, Udalak emandako datuen arabera.

Saneamendua eta arazketa.

Saneamenduari eta arazketari dagokienez, esan behar da sarea, funtsean, bakarra dela, eta euri-urak nahiz ur beltzak garraiatzen dituela.

Zerbitzatutako urak Zuringoingo araztegiaren tratatzen dira, ondoren, Urola ibaira itzultzen dira, goiko alderaino ponpatuta, agorraldian gutxieneko emaria ziurtatzeko. Araztegiak Urretxuko eta Legazpiko ur zikinak ere jasotzen ditu. Tratamendu primarioa eta sekundarioa eskaintzen ditu, baita nitrogenoa eta oxigenoa kentzea ere.

Gaur egun, 34.000 biztanleko sarrera-emaria du, eta diseinuko biztanleria 45.333 biztanleren baliokide da; beraz, edukiera soberan du agindutako zerbitzua emateko.

9.2. ENERGIA ELEKTRIKOA, GAS NATURALA ETA ARGIZTAPEN PUBLIKOA

Eremu Funtzionala korridore elektrikoak zeharkatzen du, Elgetatik sartu eta Irundik ateratzen da, Frantziako sarearekin lotzeko. Hego-mendebaldetik sartzen diren lerro guztiak (Elgeta, Idiazabal, Zegama, Ataun eta Oñati) Ezkio-Itsason kontzentratzen dira, eta elkarrekin jarraitzen dute Hernaniraino. Hala, Banaketa Transformazio Azpiestazioaren fluido elektrikoak dira. Zumarragan, zehazki, lerro nagusia 400 kV-koa da, zirkuitu bikoitzekoa, Red Eléctrica de España, S.A.U.ren Güeñes-Itxaso izenekoak.

Zumarraga Ormaiztegi-Bergara goi-tentsioko lerrotik hornitzen da. Lerro nagusi horretatik, 30 kV-eko lerroen bidez, Mundo Mejor auzoko eta Ezkio-Itsasoko (Igartza) igerilekuen ondoko Banaketa Transformazio Azpiestazioetara iristen da. Azpiestazio horietan, tentsioa 13 kV-era murrizten da, eta, hortik, udalerrietako transformadoreetara eramaten da; transformadoreek 380 edo 220 voltioetara murrizten dute tentsioa, ondoren, etxebizitzetara iristeko.

Mundo Mejor auzoko azpiestazioak ia Zumarraga osoa hornitzen du, gainerakoa Igartzako azpiestaziotik egiten da.

Nabarmenezkoa da Zumarragan Tokiko Energia Komunitatea dagoela (autokontsumo partekatua 350 panel fotovoltaikotatik abiatuta, bost udal-erakinetako estalkietan), Edinor-ek diseinatutako TEK (Tokiko Energia Komunitatea) ereduaren arabera eratua. Hori Euskadin errendimendu betean funtzionatzen duen lehena da. TEK Zumarraga, ofizialki 2022ko apirillean sortu zen, hilabete batzuk daramatza lanean eta dirua aurreztu du, TEKek berak kudeatzen duen erosketaren mankomunatuari esker. TEK Zumarragak 160 kWp sortzen ditu dagoeneko, eta inguruko 180 etxe eta denda txiki energia berriztagarri hornitzen ditu.

Gas naturalari dagokionez, Bergara-Irun gasbideak egungo gas naturala banatzeko sarera jotzen du. Gasbide horretatik, presio ertaineko industria-erabilerarako banaketa-sarea sortzen da. Sare hori zuzenean zerbitzu ematen dio industria-erabiltzaileari, eta handik abiatzen dira etxe- eta merkataritza-erabileretarako banaketa-sareak.

Argiztapen publikoari dagokionez, Udala berritze-programa eta energia aurrezteko plana garatzen ari da. Plan horren helburu nagusia argiztapen-sistema osoa modernizatzea da, eta horrek eragina du herritarren segurtasunean eta hiriaren irudian. Hala ere, berrikuntza horren bidez, Udalak ingurumena eta dirua hobetzea ere lortu nahi du. Plan horien neurri nagusien artean, nabarmenezkoa da sodio-lurrunezko lanparak eta presio handiko sodio-lurrunezko lanparak LED argiztapenera aldatzea. Era berean, argi-kutsadura murrizteko lanean ari dira, luminariak aukeratzean ingurumen-adierazle hobeak dituzten ereduera aldatuta. Neurri horiek guztiak energia asko aurrezteko dakarte, eta horrek CO₂-aren emisioak gutxitzen laguntzen du, besteak beste, klima-aldaketaren aurkako borrokan zuzenean eraginda.

9.3. HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK

Sasieta Mankomunitateak Zumarragako hiri-hondakin solidoak biltzen ditu. Behar bezala berezitako hondakinak kaleko edukiontzian utziko dira, horiek bi motatakoak dira:

- Organikoa: zatiki organikoa ateratzeko, ontzia aireztatuta, poltsa konpostagarriak eta edukiontzia ireki ahal izateko giltza behar dira.
- Gainerakoen zatikia: horren edukiontzi grisa irekitzeko, Sasieta-ko identifikazio-txartela behar da.

Udalerrian honakoak birziklatzeko edukiontzia ere badaude: beira, papera eta kartoia, plastikoak, metala eta brikak, sukaldeko olio erabilia, arropa eta pilak.



Gipuzkoako Lurralde Historikoan hondakinak tratatzeko GHKren azpiegitura-mapa.

Tamaina handikoak (altzariak, hozkailuak, etab.) astero biltzen dira, aurretik abisatuta.

Landa-eremuan bizi diren bizilagunek behar bezala berezitako hondakinak utzi beharko dituzte birziklatze-eremu hauetako batean (*birziklagune*):

- San Kristobal
- Aginaga-Leturia bidegurutzea.

Identifikazio-txartela behar da *birziklaguneetara* sartzeko.

Mankomunitateak industria-hondakinak biltzeko zerbitzua du Sasieta Mankomunitatearen eremuko industrialdeetako enpresa guztientzat. Hiri-hondakinen parekoak diren eta arriskutsutzat jotzen ez diren hondakinak jasotzen dira. Zehazki, honakoak batzen dira: papera eta kartoia, zura, birziklatu ezin den gainerakoa, plastiko filma eta tamaina handiko hondakinak.

Sasietako Mankomunitatea Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoan sartu zen, eta 2008an merkataritza-sozietatea eratu zuen Gipuzkoako “goi”-hondakinen kudeaketa-zerbitzua emateko jarduera ekonomikorako. Hori partzuergoari esleitu zitzaion, bere estatutuen arabera. Hala, eman beharreko zerbitzuaren garrantzia dela-eta, Partzuergoaren zerbitzua zuzenean kudeatzeko tresna izatea komenigarria zelakoan bere kapital sozialaren %100 Partzuergoaren titulartasun publikokoa izango da (Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa S.A.U.).

GHKren funtzio nagusia da hiriko “goi”-hondakinen kudeaketa egitea da bere lurralde-eremuan, hau da, mankomunitateentzako zerbitzu-multzoa eta beharrezko azpiegiturak sortzea eta ustiatzea.

9.4. TELEKOMUNIKAZIOAK

Zumarragako etxebizitzek eta enpresek zuntz optikoko sare berria eskuragarri dute Euskaltelerraino (FTTH). Hedapen horri esker, 10 giga arteko Interneten sarbide simetrikoak eta estaldura handiagokoak eskura daitezke, WiFi 6 teknologiarik eta Android 4K deco duen telebistari esker.

Epe ertainera, “smart city” aplikazioetarako 5G teknologia adimenduna garatzea aurreikusten da, eta horrek bide publikoan antenak gehitzea ekarriko du, horren eskaera nagusia argiztapen publikoaren euskarriek izango dituzte. Horri dagokionez, beharrezkoa da argiztapen publikoaren elikadura elektrikoko koadroetan instalatutako potentzia 5G estrategian jasotzea, eta instalazio berrietara konexio elektrikoa izatea, aginte-koadroetatik, erraz. Horretarako, beharrezkoa da udal-ordenantza moldatzea egoera eta eskumen berri horiek arautzeko, aginte zentro bateratuen aldeko apustua eginda eta koadro independenteak integratuta.

Bestalde, abiadura handiko Internet zerbitzurik ez duten herritarrei banda zabaleko zerbitzua eskaintzen die Euskaltelek Wima (Worldwide Interoperability for Microwave) teknologiaren bidez. Geografiako errepikagailu eta leku estrategiko nagusietan jarritako irrati-loturen bidez irrati-uhinak igorrita eta jasota funtzionatzen duen haririk gabeko teknologia da. Landa-inguruneetarako teknologiarik onena da.

IM. 10,

UDALERRI MUGAKIDEAK. PLANGINTZA ETA INGURUABARRAK

Zumarragak iparraldean Azkoitia eta Azpeitia ditu mugakide; ekialdean Ezkio-Itsaso; hegoaldean, Gabiria; hego-mendebaldean, Legazpi; eta mendebaldean, Urretxu eta Antzuola. Zumarragaren udalerrri mugakideen artean, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Legazpi, Antzuola eta Urretxu, Goierrikoak dira; eta Azkoitia eta Azpeitia, aldiz, Urola Kostakoak.

Zumarraga eta Urretxu fisikoki bereziak daude Urola ibaiaren ibilguagatik, horrek, gainera, bien udal-muga zehazten du, hala ere, izaera bateratua dute. Bestalde, Azkoitik eta Azpeitik eragin txikiagoa dute Zumarragako plangintzan, beste eskualde batekoak direlako, bai ikuspuntu geografikotik, bai sozialetik. Azkenik, Gabiria eta Ezkio-Itsaso (horien barruan landa-garapen txikiak daude, hala nola, Ezkio, Itsaso, Anduaga Ezkio-Itsason, eta Gabiria eta Aztiria Gabirian), funtsean landa-izaera eta bizitegi-hazkunde txikia dute; hala ere, bi udalerrien arteko mugan ekonomia jardueren hazkunde aurreikusten da.

Horietako bakoitzaren plangintzatik, Zumarragan duen hirigintza-eraginagatik, alderdi hauek nabarmendu behar dira:

- AZKOITIA

Behin betiko onartutako Azkoitiko Plangintzako Arau Subsidiarioen Testu Bategina (2007/06/19)

Azkoitiak eta Zumarragak ez dute hazkunde-eremu estrategikorik partekatzen. Bestalde, Azkoitiko plangintzak ez du eragin handirik Zumarragakoan, beste eskualde batekoa delako.



- AZPEITIA

Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, behin betiko onartua (2013/09/17)

Zumarragaren eta Azpeitiaren arteko muga lurzoru urbanizaezinen artean soilik dago, eta lurzoru horiek babes bereziko kategoria dute eremu osoan.



- EZKIO-ITSASO

Ezkio-Itsasoko Plangintzako Arau Subsidiarioak, behin betiko onartuak (2006/05/05)

Udalerrian badaude, hiri-lurzoruan kalifikatutako jarduera ekonomikoko eta erabilera horretarako aurreikusitako garapen berrietarako eremu batzuk, horiek Goierriko LPPk zentralitate estrategikoko eremu jasotzen ditu. Horietan industria-lurzorua garatzeko jarduera bateratuak proposa daitezke, haren ondoko udalerrien, Zumarragaren eta Ormaiztegiaren, arteko egoera dela-eta.



- GABIRIA.

Gabiriako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen Testu Bategina, behin betiko onartutakoak 2005/03/23an

Zumarragaren eta Gabiriaren arteko muga lurzoru urbanizaezinen zerrenda dago luzera osoan, eta gehienak baso-kategoriako lurzoruak dira.



- LEGAZPI

Hiri Antolamenduko Plangintza Orokorra, 2008/06/20an behin betiko onartua.

Legazpi Zumarragarekiko duen hiri-muga Urola ibaiaren ibilguak definitutakoa da batez ere, eta neurri handi batean, aldiriko trenbide-sarearen (Renfe) trazadurak ere. Muga horretan, Legazpin, jarduera ekonomiko industrialeko erabilerako hiri-lurzoru finkatuak daude, batez ere, eta Zumarragan, berriz, nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala kategoriako lurzoru urbanizaezinak. Jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarri sektorizatuko eremua izan ezik; hori trenbidearen trazaduraren mendebaldeko ertzean dago (Legazpin trenbidearen trazadurarekiko), eta Zumarragari dagokio, baina Legazpiko industria-hazkunderari erantzuten dio. Egun Legazpiko plangintza orokorra berrikusten ari dira.



- URRETXU.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2021eko irailaren 14ko bilkuran behin betiko onetsi zuen (GAO 205. zk, 2021eko urriaren 26)

Zumarragak eta Urretxuk izaera bateratua dute. Hiri-eremu bateratua osatzen dute, eta lotura zuzena dute tokiko sareko bide-azpiegituren, hiri-espazioen eta abarren bidez, horrez gain, tokiko ekipamenduen eskaintza elkarrekin koordinatuta daukate. Gainera, Urretxuk, Zumarragarekin eta Legazpirekin batera, ekipamendu komunitarioak ditu, hiru udalerriei erantzun egokia emateko. Udal-mugaren hegoaldean, jarduera ekonomikoak daude, batez ere industrialak, hiri-lurzoru finkatuan, trenbidearen ekialdean Zumarragako industriarekin jarraian. Industria-lurzoruaren hazkundea Zumarragan aurreikusi da, GI-2632 errepedearen ekialdean.



- ANTZUOLA

Antzuolako Hirigintza Plangintzako Arau Subsidiarioak, 2003/09/29an behin betiko onartuak.

Antzuolaren eta Zumarragaren arteko muga ez da oso zabala eta Urola ibaiaren ibilguak mugatzen du. Ibaiaren inguruan, bi udalerrietan, lurzoru urbanizaezinak daude, batez ere baso-kategoriakoak.



Zumarragako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra

3. ANTOLAMENDU MEMORIA.

- AM.1. ZUMARRAGAK BEHAR DUEN HAPO MOTA.
- AM.2. HIRI-JASANGARRIAREN PROIEKTUA SUSTATUKO DUEN HIRI-POLITIKA BIDERATZEKO ANTOLAMENDU-HELBURUEN DEKALOGOA.
- AM.3. HAPOREN AURRERAKINEAN AUKERATUTAKO LURRALDE-EREDUAREN EGITURA OROKORRA ETA ORGANIKOA.
- AM.4. ONDAREAREN BABESA ARAUTZEKO BALDINTZAK ETA IRIZPIDEAK.
- AM.5. HIRIGINTZA-ARAUAK. KARAKTERIZAZIOAREN AURRERAPENA.
- AM.6. BIDERAGARRITASUN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOAREN AZTERKETAREN ETA JASANGARRITASUN EKONOMIKOARI BURUZKO TXOSTENAREN EDUKIAREN ETA EGITURAREN AURRERAPENA.
- AM.7. ZUMARRAGAKO HAPOREN AURRERAKINA ETA HIRI-AGENDAK EBALUATZEN: ESPAINIAKOA (EHA) ETA EUSKADIKOA (BULTZATU).



INTELLIGENT PRACTICES
FOR DEBATE

DIGITAL



AM. 1 /

ZUMARRAGAK BEHAR DUEN HAPO MOTA

Plan Orokorra lurraldearen gaineko jarduketa-multzoa hiri-proiektuari lotzeko tresna da. Horretarako, aldez aurretik finkatu behar ditu proiektu horretarako aproposak diren oinarritzko elementuen kokapena, dimentsioak edo forma, eta horiek gauzatzea erraztuko duten tresna egokiak diseinatu. Plana, bere izaeragatik udalerriko politika orokorraren tresna da, Udalbatzak bere gain hartutako proiektuaren zerbitzuan, baina ez du ez bata ez bestea ordezkatzen. Erreferentzia sozial eta ekonomiko komuneko esparru esplizitua da, eta hiri-proiektuaren eraikuntzan jarduera publikoaren eta pribatuaren arrazionaltasuna jasotzen saiatzen da.

Planak, legea garatuta eta aplikatuta, lurzoru-jabeen eskubideen eta betebeharren estatutua ezarri behar du, baina erregulazio hori ez da berez helburua, baizik eta, aipatutako hiri-proiektuaren zerbitzura dago. Hala ere, askotan, plana partikularrek lurzoruaren eta eraikuntzaren gain dituzten ahalmenak mugatzeko arautzat hartzen da, edo, beste muturrean, landa-lurzorua eraikigarri bihurtzeko hiri-garapena kudeatzera bideratutako tresnatzat. Horregatik, plana aldatzerakoan partikularren helburua baldintza horiek euren onerako aldatzea da.

Planteamendu hori, zalantzarik gabe, okerra da, eta hirigintza-legerian zein, 1978tik, Konstituzioan bertan jasotako plangintzaren definizioaren aurkakoa da. Izan ere, hirigintza-eskubideak antolatzeke ez ezik, horiek sortzeko ahalmena ere esleitzen diote kolektibitateari, udalek ordezkatuta; horiek ez baitira lurzoruaren jabetza-eskubidetzat hartzen. Hortik dator, Plan Orokorragatik ez balitz, existituko ez lirartekeen eskubideak mugatzen direla pentsatzea.

Plan Orokorren antolamendu-estrategia ezartzeko zailtasuna zera da: plangintzaren erabakietan eragiten duten faktore konplexuak, babes politiko eta sozialeko desberdintasunak, hiria eraikitzeko alderdi edo ekintza desberdinak eta horiek gauzatzeko konpromisoak modu jasangarrian mantentzea. Hori dela-eta, Planak babestu egin behar du hirigintza-antolamendua, lurraldearen baldintza konplexuen balorazio zehatzean eta xehatuan oinarritzen delako. Gainera, hirigintza-antolamenduaren zentzu mugatuan bada ere, Planak ezin du hiri-antolamendua zehazteko politika bateratuen multzoa jaso, ezta lurralde osoan antolamendu hori zehaztuko duten erabaki guztiak agortu ere.

1956ko Lurzoruaren Legeak hirigintza-planei lurralde-antolamenduko eskumen zabalak esleitzen zizkien, horri esker, plan orokorrak antolamendu “osorako” tresnak ziren. Hurrengo urteetan —garapenarekin lotutako urteetan— egindako ondorengo legediak berriz, plangintza kontzeptualizatzea zaildu egin zuen honakoengatik: garapen-planifikazioa, etxebizitza, nekazaritza-garapena, lurralde-azpiegitura, turismo-zentroak edo industria eta aurrerago eman zen natura babesteko arauen garapen handia.

1975eko lurzoruaren legearen erreformak eta ondorengo berrikuspen zein legeria autonomikoek bertan behera utzi zuten oraindik gauzatu ez zen asmo hori, eta hirigintzaz kanpoko zehaztapenak Plan Orokorren edukitik kendu zituzten, hala nola, laborantzako gutxieneko unitateak definitzea. Horrez gain, lurzoru-moten izendapena aldatu zen, lurraldearen zati bakoitzaren berezko izaerari lotutako irizpide positibo bidez definitzeari utzi zitzaion

(hiri-lurzorua, hiri-erreserba eta landa), eta lurraldearen urbanizazio-gaitasuna (hiri-lurzoru, urbanizagarria eta urbanizaezina) soilik aipatzera pasa zen.

Horrek ez zuen esan nahi hirigintzaz kanpoko elementuak lurralde-antolamenduan begirunerik ez zutenik, baizik eta enpresaren konplexutasuna onartu eta zenbait eskumen-eremutan zatitzen ziren. Egia da, ordea, horietako zenbait eskumen egoki koordinatzeko gai ziren tresnak eta eragileak zehaztea faltan bota zela, ondoriozko antolamendua arrazionalizatua izateko.

Gaur egun, hirigintza-antolamenduaren sektoretasuna zuzendu ez den arren, asko handitu dira plangintzaren hirigintzaz gaindiko baldintzapenak, antolatutako lurzoru-kategorien mugaketari dagokionez. Hori dela-eta, Planak babestu egin behar du hirigintza-antolamendua, lurraldearen baldintza konplexuen balorazio zehatzean eta xehatuan oinarritzen delako. Lurralde-antolamenduak hirigintza-antolamenduaren kontzeptu soilaz gain, eskubide eta betebeharrak zehatzak ezarri behar ditu lurzoruaren hirigintza-aprobetxamenduaren arabera, planak udal guztiko zatietan esleitzen duena. Hori dela-eta, urbanizazioaz gaindiko baldintzatzaileek ezarritako loturen azterketa eta translazioa bereziki sakona egin behar da, batez ere lurzoru urbanizaezin sailkatutako eremuan.

Hirigintza-antolamenduaren zentzu mugatuan bada ere, Planak ezin du hiri-antolamendua zehazteko politika bateratzaileen multzoa jaso, ezta lurralde osoan antolamendu hori zehaztuko duten erabaki guztiak zehatz-mehatz agortu ere. Planak hiri-proiektuak eskatzen dituen ekintzetara hobekien egokitzen diren elementuak identifikatu eta aukeratu beharko ditu, egiturazko erabakietan zentratuta. Lehentasunak ezartzeko ahalegina bere izaeragatik dagokiona da.

Bestalde, proposamenek egokitzeko gaitasun nahikoa izan behar dute, nahiz eta antolamendu-erabakiek ziurgabetasunak izan, etorkizuneko erabakiak baitira, hau da, etengabe aldatzen dagoen errealitatearen gainekoak. Plana, beraz, lurralde-eredua eta horren egitura orokorraren eta organikoaren funtsezko elementuak definitzeko tresna da. Elementu horiek denboran iraungo dute, baina irekiak dira eta funtsezkoak ez diren alderdiak aldatu daitezke. Hala, egiturazkoak ez diren gai horietan proiektu bukatugabea da, hura indarrean jartzean hasten den etengabeko plangintza-prozesuaren abiapuntua, alegia. Prozesu horretan hainbat inguruabarrek esku hartu beharko dute -batzuk aurreikusi daitezkeenak, beste batzuk, ordea, ez; batzuk Plana betetzeko beharrezkoak dira, eta besteak, berriz, arbitrarioak. Hori dela-eta, Planak bere betekizunerako beharrezkoak ez diren inguruabarrak gertatzeko probabilitatea murriztu beharko du, hala nola: garapen-tresnak, udal- edo lurralde-mailako irudi osagarriak, baita aldaketa puntualak ere, horietarako zenbait kasu tipifikatu ezarriko dira.

Hiri Antolamenduko Plan Orokor osoa, itxia, zehatz-mehatz planteatutako helburuekin eta zehaztapenekin, epe laburrerako eta ertainerako programazio zorrotzaren menpe dagoena, badirudi askotan gizartearen eskaera gero eta aldakorragoei behar bezala erantzuteko gai ez dela izan. Beraz, hirigintza-eztabaidetan, hausnarketa komuna da plangintza-mota berria behar dela, planteatzen diren hiri-eskaera berrietara erraz eta arin egokitzeko, urte gutxiren buruan berrikuspen orokorren beharrik gabe.

Hiria erakunde aldakorra da, eta azken garaietako hirigintza-plangintzak, funtsean, defentsa-jarrera izan du edozein bilakaeraren aurrean. Hala, orain arte hirigintzaren jarrera nagusiak honakoak izan dira: galaraztea, mugatzea, saihestea eta debekatzea. Plangintza berriak jarrera aldatu beharko du, eta gizarte modernoaren dinamismoak eragindako eskaera berriak bultzatu eta ahalbidetu beharko ditu, honako ezaugarri hauek dituztenak:

- Hiri-arazoen ziurgabetasunaz eta arazo horiei erantzuteko joeraz, lehentasunaz eta moduez jabetzea.
- Errealitatea eta esperientzia historikoak interpretatzea, esperientzia aurrerabidearen bermea dela kontuan hartuta.
- Bulkada teoriko sortzailea eta planifikatzeko borondatea izateaz arduratuta egotea.
- Elkartasun-printzipioa islatzea, gizartearen, ekonomiaren eta lurraldearen oreka lortzeko, norbanakoaren edo egoeraren arabera interesen ginetik.
- Modu argian eta erraz adieraztea.
- Praktikan jarri ahal izatea eta, ondorioz, aurreikusi daitezkeen inguruabarretan kudeatzeko prestatzea.
- Azkar garatzeko eta gauzatzeko prestatuta egotea, eta planteatutako helburuak lortzeko funtsezkoak diren estrategia-jarduerak gauzatzeko pentsatuta egotea.



AM.2/

HIRI-JASANGARRIAREN PROIEKTUA SUSTATUKO DUEN HIRI-POLITIKA BIDERATZEKO ANTOLAMENDU-HELBURUEN DEKALOGOA.

Plan Orokorra, «hiri-proiektu» aldetik, hiri-lurralde eredu jakin bat aukeratzean ziurtatutako etorkizuneko aukera handiak adierazten dituen tresna da. Hori dela eta, herritarren parte-hartzea ezinbestekoa da hiriaren lurralde-gobernantzaren oinarritzko piezaren eraketan eragiteko. Pieza hori udalbatzari dagokio (lurralde-planaren eta lurraldean eragina duten gainerako tresnen esparruan).

Lurralde-eredu jakin bat aukeratzeko, arketipo hori definitzen duten printzipio orokor, helburu eta estrategia batzuk hartu behar dira oinarri, eta horiek, gainera, antolamenduaren erabaki guztiak gidatu behar dituzte. Axioma horiek argi eta garbi adierazteak botere publikoek gardentasunez jokatu dutela, eta arbitrariotasunak ezabatzeko erreferentzia-esparrua dela erakusten du; horrez gain, berme- edo eraginkortasun-sistema ere osatzen du: irizpide orokor horiek Plan Orokorrari, oro har, osagarritasuna eta bideragarritasuna ematea ahalbidetzen dute, eta loturarik gabeko banakako erabakiek dakartzaten arriskuak ezabatzen dituzte. Azkenik, printzipio, helburu eta irizpide horien definizioari esker, hartutako erabaki espezifikoaren eta lortu nahi den lurralde-ereduaren arteko kongruentzia ebalua daiteke. Azken batean, koherente izateko eta erabaki publikoak kontrolatzeko testa da.

Gogoeta horietan oinarrituta, Zumarragan Plan Orokorrean adierazitako hiri- eta lurralde-politikak hainbat irizpide eta helburu izan behar ditu, proposatutako hiri-proiektuaren interes kolektiboa ziurtatzeko. Horrekin, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen II. Kapituluan araututakoa betetzen da. Bertan, hirigintzaren printzipio orokorrak azaltzen dira:

1. Garapen eramangarriaren printzipioa, hirigintza-antolamenduak hiri-garapenerako printzipio hauek hartu behar ditu irizpide eta jarraibide:
 - a) Ingurumenaren kudeaketak eramangarria izan behar du. Beraz, kontsumitzen ditugun ur- eta energia-baliabide berriztagarriek ez dute inoiz gainditu behar ekosistemek baliabide horiek berriz sortzeko duten gaitasuna; era berean, berriztagarriak ez diren baliabideak kontsumitzeko erritmoak ere ez du inoiz gainditu behar baliabide berriztagarri iraunkorrak birsortzeko denbora; eta, azkenik, igortzen diren gai kutsatzaileen kopuruak ez du inola ere gainditu behar aireak, urak eta lurrak gai horiek xurgatzeko eta berdintzeko duten gaitasuna. Ondorioz, hirigintza-antolamenduak sustapen-lana egin behar du, hiri-sistemetan energia berriztagarriak erabili eta aprobetxatzeko, energia-efizientzia lortzeko, hondakinen sorrera gutxitzeko eta baliabide naturalak aurrezteko.

- b) Babestu egin behar dira lurzorua dituen baliabide naturalak, bai beren balio produktiboengatik, bai erreferentzia izateagatik hirigintza-garapen eramangarrirako tokiko estrategiarentzat.
- c) Lurzoruaren okupazioak ere eramangarria izan behar du. Beraz, hazkundera ekin aurretik, lehentasuna izango du beti lurra birgaitzeko eta leheneratzeko lanak, berriz erabiltzeko moduan egon daitezten; lehentasuna, orobat, hutsik dauden etxebizitzak erabilerak ere. Horrela, batetik, gune urbanoak barreiatu eta sakabanatzeko joera baztertuko da; bestetik, lurraldeak bere oinarriko funtzioari eutsiko dio, ingurumenaren balioak babesteko zimentu izateari, hala hiriguneetan nola landaguneetan eta naturaguneetan; eta bestetik, erabilerak eta jardunak era askotakoak izanik, horiek guztiak espazioan egokiro uztartu eta ezkondu behar dira, jendea ahalik eta gutxien mugiarazita
- d) Eraikitze eramangarria bultzatu behar da birgaitzearen bidez. Horretarako, lehentasuna eman behar zaio herrietako jatorrizko guneetan eraikita eta urbanizatuta dagoen ondarea berroneratzeari eta hutsik dauden etxebizitzak erabiltzeari
- e) Mugitzeko moduak ere eramangarria izan behar du. Batetik, behar-beharrezko ez den guztietan, murriztu egin behar da motordun ibilgailuen erabilera, eta bestetik, lehentasuna eman behar zaie ingurumena errespetatzen duten garraioei, garraio horiek elkarrekin ondo lotu eta konbinatuta.

2. Interes publikoaren nagusitasunaren printzipioa, interes publikoak bakarrik egiten du bidezko lurzuaren erabilera, lege honen ondorioz, hirigintzako plangintzaren bitartez antolatzea. Interes publikoa aintzat hartuko bada, honako eskubide hauek bermatu beharko ditu bereziki:

- a) Pertsona orok duina eta bere beharretarako egokia den etxebizitza bat eskuratzeko duen eskubidea. Horretarako, herri-administrazioek lurzoru planifikatu, sailkatu, programatu eta izendatu beharko dute babes ofizialeko araubide bati atxikitako etxebizitzak egiteko eta gizartearen beharrezko erantzuteko bitokiak eraikitzeko.
- b) Pertsona guztiek garapen ekonomiko orekatu baterako duten eskubidea. Horretarako, herri-administrazioek lurzoru jakin batzuk izendatu ahal izango dituzte, bertan sustapen edo interes publikoko jardura ekonomikoak ezartzeko.
- c) Erkidegoak hirigintzako ekintzak sortutako gainbalioetan parte hartzeko duen eskubidea.
- d) Pertsona guztiek beren beharrezko erantzuteko hiri- eta natura-ingurumen batez gozatzeko duten eskubidea.
- e) Herritar guztiek kultura-ondarea osatzen duten ondasunez gozatzeko duten eskubidea.
- f) Herri-administrazio eskudunek hirigintza-planetan kalitateaz, kopuruez eta egikaritze-epeez ezarrita dauden aurreikuspenak betetzen direla ikuskatzeko duten eginbeharra eta erantzukizuna
- g) Herri-administrazioek, beren eskumenen barruan, lurzuaren eta etxebizitzaren espekulazioa saihesteko duten eginbeharra. Horretarako, lurzuaren merkaturatzea

eta ondasun higiezinaren merkatuan esku hartzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte.

3. Hirigintzako plangintzarako eskumenaren printzipioa. Hirigintzaren antolamenduak bakarrik lotu dezake lurzorua erabilera jakin batzuekin, eta hirigintzako plangintzak bakarrik esleitzen diezazkieke lurzoruei erabilera jakin batzuk, hirigintza-sailkapenaren eta -kalifikazioaren bitartez. Horrek ez dio ezertan eragiten lurralde-antolamenduko tresnei buruz legez xedatutakoari.
4. Hitzartzearen printzipioa. Arlo jakin batean, lurralde-antolamenduan edo hirigintzan eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek elkarlana eta laguntza eskainiko diote beste edozein administrazioari, hark bere eskumenak behar bezala erabiltzeko, gizarte-esparruari dagokionez, horren helburua da hirigintza antolatzeke lege-eginkizuna bete dadin laguntzea eta hirigintzako plangintzak lurzoruari esleitutako erabilerak egoera guztietan errespetatzen direla ziurtatzea.
5. Hirigintza-antolamenduaren koherentziaren printzipioa, hirigintza-antolamenduak berezkoa duen eraginkortasuna bakarra da, eta halaxe hedatuko da arlo guztietara eta hirigintza-antolamendua interpretatzeko eta aplikatzeko egintza oro plangintza horren koherentziarekin eta eraginkortasunarekin gehien bat datorren eran egin behar da, plangintzak berezkoa duen legezko eginkizunarekin bat etorritu.
6. Herritarren parte-hartzearen printzipioa, hirigintza-antolamendua egin, izapidetu, onartu eta egikaritzeko, ahal den laguntza eta erraztasun guztia eskainiko da pertsona fisikoek eta juridikoek, era guztien bidez, pertsonen parte-hartzea bermatzeko.
7. Jendaurreko informazioaren printzipioa, indarrean dagoen plangintza osatzen duten agiri guztiak publikoak izango dira. Jendartean ezagutaraziak direla bermatzeko, eskumena duten herri-administrazioek, iragarpen eta argitalpen ofizialak egiteaz gain, beharrezko ekintza guztiak egin beharko dituzte informazio horren egiazkotasunean eta zuzentasunean konfiantza ziurtatzeko.

Zumarragako HAPOren Aurrerakinaren helburuak azaltzeko erabili den metodologiak zeharkako irakurketa, bateratua eta erlazionala egin du, garrantzi handiko hiru erreferentzia-dokumentutan azaldutakoak:

- 1º. Lehenik eta behin, **EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerro** berriak. Horiek, hirigintza-plangintzarako, espazioaren antolamenduari eta erabilerari dagokionez, zuzenean eta zeharka aplikatu beharreko gidalerro ugari zehazten dituzte. Gidalerro horiek berariaz aipatu dira Aurrerakin honen Informazio Memorian, eta, funtsean, honako hauei dagokienez:
 1. Ingurune fisikoaren antolamendua.
 2. Azpiegitura berdea eta ekosistemen zerbitzuak.
 3. Hiri-berroneratzeko arloan.
 4. Hiri-hazkundearen gehieneko perimetroaren mugaketari dagokionez.
 5. Jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzorua.
 6. Gehieneko bizitegi-kuantifikazioari dagokionez.
 7. Udalerri mugakideen plangintza-bateragarriari dagokienez.
 8. Uraren eta energiaren arloan.
 9. Ekonomia zirkularraren arloan: hondakinen kudeaketa eta lurzorua baliabide gisa.
 10. Lurraldean eragina duten zeharkako gaien arloan: irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, klima-aldaketa, osasuna, euskara eta lurraldeen arteko harremana.

29. **Espainiako Hiri Agenda 2019** (EHA/2019), 2030eko Agendaren Ekintza Planean identifikatua -Espainiako Gobernuak 2018ko ekainean onartua-, ekintza bultzatzailea, Garapen Jasangarriko Helburuen (GJH) ezarpen eta aurrerapen bateratuko azeleragailua. Horren planteamendua bat dator proposatutako erronkekin eta 2016. urtean sinatutako nazioarteko bi Hiri Agendek duten ikuspegi estrategikoarekin. Gainera, 11. GJHn ere jasota dago; hiri jasangarriak, integratzaileak, seguruak eta erresilienteak bilatzen dira, eta, horretarako, lortu nahi diren funtsezko alderdidun hiri-eredua edo -ikuspegia definitzen du.

	1. Estrategia-helburua Lurraldea antolatzea eta lurzorua zentzuz erabiltzea, zaintzea eta babestea.		6. Estrategia-helburua Gizarte-kohesio sustatzea eta ekitatea bilatzea.
	2. Estrategia-helburua Hiri-sakabanaketa saihestea eta hiri suspertzea.		7. Estrategia-helburua Hiri-ekonomia bultzatzea eta sustatzea.
	3. Estrategia-helburua Klima-aldaketaren eraginei aurrea hartzea eta murriztea, eta erresilientzia hobetzea.		8. Estrategia-helburua Etxebizitza eskuragarritasuna bermatzea.
	4. Estrategia-helburua Baliabideen kudeaketa jasangarria egitea eta ekonomia zirkularra bultzatzea.		9. Estrategia-helburua Berrikuntza digitala gidatzea eta sustatzea.
	5. Estrategia-helburua Hurbiltasuna eta mugikortasun jasangarria bultzatzea.		10. Estrategia-helburua Esku hartzeko tresnak eta gobernantza hobetzea.

30. Azkenik, **Euskal Herriko Hiri Agenda - Bultzatu 2050**, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuaren Aginduaren bidez onetsia. Agindu horren helburu orokorra da hirirako eskubidea gauzatzeko baldintzak bermatzea, trantsizio ekonomikoko, sozialeko, ingurumeneko eta teknologikoko testuinguruan. Hirirako eskubideak hiri-espazioaren kalitatearen aldeko apustua egiten du, hori osotasunean ulertuta, hala nola, bizitzeko, lan egiteko, gozatzeko eta bizikidetzat bermatzeko. Horretarako, 8 lehentasun estrategiko definitzen ditu,

1. Etxebizitzarako eskubidea eta oinarrizko ekipamenduak sustatzea. Gizarte-kohesiorako zuzkiduren beharrezana.
2. Mugitzen ari diren hiriak: mugikortasun berriaren alde. Garraio publiko intermodalaren alde.
3. Hiri-plangintzako eredu jasangarri berria. Hiri trinkoak.
4. Hiri berritzaile eta jakintsuak. Berrikuntza, pertsonen ikuspegitik, horiekin eta horientzat.
5. Hiri dinamikoko eta lehiakorak. Jarduera ekonomikodun hiriguneak.
6. Hiri jasangarriak eta erresilienteak. Hiriak klima-aldaketaren aurka.
7. Bizi-kalitatea ardatz duten hiriak. Bizi-kalitatearen aldeko apustua.
8. Aniztasuna eta inklusioa nortasun-ikurra. Zentroko pertsonak eta komunitateak.

8 lehentasun estrategiko horiek 31 esku-hartze ardatzetan eta 105 jarduketa-lerrotan egituratuta daude. Horrez gain, zeharkako 5 dimentsio erantsi ditu honakoekin lotuta: agendaren

maila anitzeko gobernantza, genero-ikuspegia, jarduketan integritasuna, lurraldetik ikuspegia, eta jarraipenaren eta ebaluazioaren aldeko apustua.

Metodologia hori garatzeko, atal honetan **HAPOk hiri-jasangarriaren proiektua bultzatzeko proposatzen dituen HELBURUEN DEKALOGOA azaltzen da.**

1. TRINKOTASUNAREN ETA ANIZTASUNAREN ALDEKO APUSTUA, jarraipen formala, funtzio anitzekoa eta heterogeneoko hiria bere azalera osoan bilatuta. Hiri-plangintzaren izaerari eta helburuari buruzko azken belaunaldiko joerek apustu garbia egiten dute eraldaketa-eta berroneratze-prozesuak bultzatzearen alde, hiri finkatuaren ekipamendu-, ingurumen-eta paisaia-hobekuntza lortzeko, behin eta berriz hiri-antolamenduaren paradigma hiri-hazkundea izan ez dadin. Horrekin ulertu behar da lurzorua baliabide urria eta berriztaezina dela, eta, hiriaren kapital fisikoa mugiezina eta luzea denez, hiri-hazkunderi buruzko erabakien itzulezintasunaren eta ondorio metagarrien arazoa oso kontuan hartu behar dela.

Hedatzearen mitoari amaiera eman behar zaio, hiriaren ohiko historia delako, eta haren orde berreraikitze-ahalegina egin behar da: eraikitakoa zaharberritu, trinkotu, hiri-funtzio berrietarako berrerabili. Eskakizun soziala da, baina baita ekonomikoa ere, batez ere, "hiritartasun-galera" gainditzeko eremu egokia da. Hau da, azken belaunaldiko hiri-plangintzak hirigintza-eztanda ordeztearen alde egin behar du, hau da, eraikuntza-dentsitate txikiko (hirigintza-anorexia) lurralde berriak azkar okupatzea albo batera utzi eta (lurralde-bulimia), hirigintza-inplosioaren, hau da, hiri-espazio degradatuak edo marjinalak berritzearen eta berreskuratzearen alde.

2. ZUMARRAGA, HURBILEKO HIRIA: MUGIKORTASUN ARINA ETA JASANGARRIA BERMATZEA. Hau da, garraio kolektiboa eta motorrik gabekoa sustatzea eta hobetzea, eta horri lotutako hiri-jarduera berriak egoki kokatzea. Hiri-politika horren oinarritzko helburua hiri nagusiaren eredu aldatzea da, Agustín Hernández Ajaren hitzetan (2000: 91-92), hiria bere osotasunean erabiltzen duen herritar motarentzat pentsatua, bere etxebizitzatik urrun eta hainbat lekutan eskaintzen diren zerbitzu sofistikatuak kontsumitu ditzakeena... Hala ere, gizarte erreala, teoriarik hiriko zerbitzuetara soilik jo dezaketen gizarte-taldeen osatuta dago eta oinarritzko ekipamenduak behar dituzte, eta, aldi berean, bizi diren tokian, jabetze-espazioak eta gizarte zaharberritzea behar dute.

Mugikortasun jasangarriko estrategiatik abiatuta garatu beharreko antolamendu-helburuak honela laburbiltzen dira:

- a. Autoarekiko mendekotasuna murriztea.
- b. Garraiobide alternatiboen aukerak handitzea.
- c. Motordunen joan-etorrien eragina murriztea. Jasangarritasun-irizpidearen arabera, bideek motordun joan-etorri batzuk saihesten laguntzen dute, adibidez, auzoetan pasoko zirkulazioa.
- d. Automobilaren mendeko espazioak zabal daitezela saihestea.
- e. Hurbiltasuna hiri-printzipiotzat berreraikitzea: hiria oinezkoaren eta bizikletaren neurriera eraiki behar da, urbanizazio berriaren hiri-trinkotasuna bilatuta eta sakabanatzea saihestuta.
- f. Espazio publikoaren bizikidetasuna berreskuratzea, funtzio aniztasuna diseinurako argudiotzat jasota. Hala, egun automobil pribatuak dauden espazio batzuk (lurrazaleko aparkalekua, trafiko-pilaketa eremu batzuetan, etab.) berreskuratzeaz gain, ingurumen-gaitasunaren kontzeptua zirkulazio-ahalmenaren plano berean jaso behar da. Horrek aldaketa nabarmena dakar bide-sareak sortzeko moduan.

- g. Mugikortasun urriko gizarte taldeen autonomia handitzea.
3. LURRALDEKO ERABILERA-POLARIZAZIOAREN LOGIKEN AURREAN, ELKARREKIN BATERAGARRIAK DIREN ERABILEREN NAHASTEAREN ETA ANIZTASUNAREN ALDEKO APUSTUA. Hirigintza ekosistemikoaren helburu nagusiak, neurri handi batean, hiri-sistemak dituen pertsona juridikoen kopuruaren eta aniztasunaren araberakoak dira, hau da, antolamendu-komplexutasunaren araberakoak.

Horretarako, beharrezkoa da printzipio hori hiri finkatuaren zatirik handienara hedatzea, batez ere aldirietako eremuetan. Erreferentziatzeko bi Hiri Agendek, Espainiakoak eta Euskadikoak, berariazko helburu batzuk dituzte, eta horiek eragin erabakigarria dute hiriaren konplexutasun funtzionalaren maila hobetzeko. Horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: erabilera-aniztasuna bermatzea, jardueren nahasketa sustatuta, hiriko erdiguneak hirugarren sektorez sailkatzea saihestuta, eraikuntzan erabilera-bizikidetzak bultzatuta; eta hiri-lurraldea berritzera bideratutako berroneratze-estrategia eratzea.

4. BIZI-HIRIA. HERRITARREK LURRALDEA ERABILTZEKO DUTEN ESKUBIDEA DEFENDATZEA. Defentsa hori etxebizitza- eta ekipamendu-politika integratuen bidez zehaztu beharko da. Horrekin, hiri orekatua, zentzuduna eta kohesioduna eraikitzeko ezinbesteko materialak berreskuratu nahi dira.

Ezin da ahaztu etxebizitzaren arazoa herritarren bizitzari eragiten dion arazo nagusietakoa dela, eta merkatuaren funtzionamendua ez dela hori konpontzeko gai izan, hirian gizarte-segregazio prozesuak indartuta. Oro har, etxebizitzaren arazoak oinarritzeko hiru osagai ditu, ikuspegi integratutik landu beharrekoak: (a) alde batetik, etxebizitza jarduera ekonomikoaren elementua da; izan ere, etxebizitza sortzea eta balioa ematea higiezinaren sektorearen funtsezko parte da, eta eragin handia du ekonomian; (b) funtsezko beste osagaia gizarte-alderdia da, Espainiako Konstituzioan jasoa, eta horrek zehazten du pertsonen etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea dutela; (c), azkenik, hirugarren alderdia, garrantzi handikoa, hirigintza-ikuspuntua da, bizitegi-erabilerak lehentasuna baitu, hiri-egituraren oinarri delako eta haren irudia sortzen duelako.

Etxebizitzaren gaineko ekintza lurraldearen kohesio soziala ziurtatzeko esku hartu behar den estrategia-puntua da. Horretarako, etxebizitza eskuragarria izatea ezinbesteko baldintza da bazterketa soziala saihesteko. Hori dela eta, HAPOk bizitegi-eskaintza berria garatu eta babes-araubideko etxebizitzak rol protagonista hartu beharko du.

Gizarte-kohesioa bermatzeko eragin nabarmeneko beste faktorea zuzkidura-eskaintza da. Ekipamenduek hiri-bizigarritasuna osatzeko beharrezko zerbitzuak ematen dituzte. Arlo horretan, HAPOk, hiriko ekipamenduen (sistema orokorrak) maila egokia bermatzeaz gain, "hurbileko ekipamenduarena" ere bermatu behar du.

5. LURRALDEARI FORMA, IRAKURGARRITASUNA ETA ULERGARRITASUNA EMATEN DION ELEMENTUA DEN INGURUMEN-SISTEMARI PROTAGONISMOA EMATEA. Eremu irekia hondakintzat hartzeari utzi behar zaio, hau da, etorkizuneko hazkundearen erreserbatzat, lurraldearen funtsezko elementutzat hartzeko. Lurralde-antolamenduaren ikuspegi orokorrak, baita udal-mailan ere, esan nahi du espazio libreen sistema egitura-proiektuaren osagaia ere badela, eta egungo edo oinplano berriko ehunak egituratu eta artikulatu behar direla. Hiri-lorategitik metropoli-parkera, oinezkoentzako tokiko ibilbidetik lurralde-korridorera, intereseko nekazaritza-gunetik naturagune babestuetara, espazio libreen sistema eraiki behar da, lurraldeko ingurumen-sarearen funtsezko pieza izan behar duena.

Beharrezkoa da honakoen artean konektatutako mosaiko berdea eratzea: parkeak, espazio interstizialak, etxe-uharte barrualdeak, estalki berdeak eta trafikotik libre dauden kaleak. Hau da, hiriko matrizeen artean sartzen den sare berdea, oinezkoentzako lotura-ibilbideen sarearekin. Era berean, ohartarazi beharra dago ingurumen-arazoak sortzen direla hiri-ingurunearen eta landa- edo natura-ingurunearen arteko mugetan. Horregatik, arreta berezia jarri behar zaie mugako eremu horiei, iragazkortasunaren bidez haien arteko biodibertsitatea alferrik suntsi ez dadin.

Antolamendu-helburu horiek Plan Orokorrean zehazteko, funtsean, Azpiegitura Berdea definitu behar da, Zumarragako etimologia-sustraiara osatzen duten lurralde-iraunkorrez osatua. Haren onarpenari esker, hiri- eta lurralde-eredua proiektatu ahal izango da, hiriaren eraldaketa eta hazkundera bere gain hartuta, lurralde-euskarriaren matrize biofisikoaren funtsa mantentzea bermatuko duena. Azpiegitura Berdea definitzearen garrantzia lurzorua baliabide ez-berriztagarritzat hartzean datza, ingurumen- eta kultura-balioen eramaile dena. Antolamendu-helburua da ekologia-matrizea eratzea, honakoak gainjarrita: ekologiaren bidez sustatutako ingurumen-matrizeak, paisajismoak definitzen dituen parke-sistemak eta hirigintza tradizionaletik abiatuta eraikitzen diren gizarte-espazioen egiturak.

6. HIRIAREN EKONOMIA-GAITASUNA INDARTZEA, garapen ekonomikoa bultzatuta, ez helburutzat, baizik eta gizarte-kohesioaren eta ingurumen-babesaren bermetzat eta betekizuntzat. Hiriaren lehiakortasuna handitzeko, apustu sendoa egin behar da hiri-ingurunearen kalitatearen alde, erakarpen-faktore izateko honakoak sustatzeko: sortzen ari diren jardueren ezarpena; enpleguaren sorrera eta tokiko jarduera ekonomikoaren dinamizazioa eta dibertsifikazioa, orain deskarbonaziora bideratuta dagoena; turismo adimentsua, jasangarria eta kalitatekoa; eta ezagutzaren gizartea eta hiri adimendunen garapenean aurrera egitea.
7. ENERGIA- ETA AZPIEGITURA-ERAGINKORTASUNA LORTZEA, lurralde-eremuaren kargagaitasunari egokituia, eta, horretarako, baliabide eskuragarriak eta teknologia-aurrerapen berriek eskaintzen dituzten aukerak kontuan hartuta.

Hori, funtsean, hiri-metabolismoari dagozkion gaietan eta printzipio hauetan oinarrituta bereizi behar da:

- a) Autosufizientzia vs mendekotasuna: autosufizientzia energetikorantz.
 - b) Hurbileko baliabideekin eta berriztagarriekin autosufizientzia hidrikoa: ur-zikloa zaintzea.
 - c) Murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea vs Xahutzea: materialen autosufizientziarantz.
 - d) Berotegi-efektua eragiten duten gas-emisioak murriztea.
 - e) Etxebizitza eskuratzeko aukera unibertsala, eraikin jasangarriagoetan.
8. KLIMA-ALDAKETA EGOKITZEKO ETA ARINTZEKO NEURRIAK EZARTZEA. Hirietan klima-aldaketa arintzeko borroka irabaziko edo galduko delaren iritzia gero eta hedatuago dago. Berotze globala moteltzeko giltza honakoetan oinarritzen da: hiria sortzeko modua, erabilitako bizimoduak eta fluxu metabolikoen kudeaketa.

Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak egindako Gida Metodologikoa, "Hiri-plangintzan klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko neurriak" izenekoa, hirigintza-antolamenduko tresnek kontuan hartu beharreko gaiak garatzen ditu; besteak beste, hauek:

- a) Hiriaren inguruko ekosistemak babestea eta zaintzea, berariazko babes-neurriak hartuta.
- b) Lurzoruaren antropizazioa minimizatzea, biztanleen beharrianetara egokitutako hiri-hazkundera sustatuta.
- c) Funtzio aniztasuna, dibertsitatea eta erabilera-nahasketa sustatzea.
- d) Dentsitatea eta trinkotasuna sustatzea, hiri-sakabanaketa saihesteko.
- e) Hiri-metabolismoa hirigintza-plangintzaren lehentasunezko gai barneratzea, eta horrekin, besteak beste, “bero-uharte” efektua arintzea,
- f) Mugikortasun-beharrak murriztea, erabileren zein jardueren eta motorrik gabeko garraio bideen zein garraio publikoen arteko hurbiltasun-estrategiak sustatuta.
- g) Egungo hiri-sarearen berroneratzea sustatzea, hiri-bizitasuna eta biztanleen bizi-kalitatea mantenduta eta hobetuta, (h) Eraikuntza bioklimatika- eta bizigarritasun-irizpideetara egokitzea,
- h) Espazio publikoa hiriaren garapen-ardatz ezartzea.
- i) Hiri-berdearen biodibertsitatea eta klimaren erregulaziorako eta karbono-hustubiderako gaitasuna handitzea.

9. GENERO, ADIN, EZGAITASUN ETA KULTURA-ANIZTASUNAREN IKUSPEGIA TXERTATZEA, gizarte-kohesioa, aukera-berdintasuna eta ekitatea bilatuko dituen hiri- eta lurralde-eredua sustatuta. Helburu hori lortzeko, zenbait jarduketa-lerro sustatu behar dira, hala nola:

- a) Tratu eta aukera berdintasuna bermatzea, baita lan merkatuan sartzea ere.
- b) Mendekotasuna eta ezgaitasuna duten pertsonentzako gizarte-prestazio egokiak sustatzea.
- c) Hiriguneetako segurtasuna areagotzea (argiztapena, altzariak, etab.).
- d) Espazio publikoan irisgarritasun unibertsala bultzatzea, arreta berezia eskainita “zainketaren mugikortasunari”, hala, beste pertsona batzuk zaintzarekin eta etxea mantentzearekin lotutako joan-etorriak ahalik eta denbora gutxien egin daitezkeela ziurtatzea, beharrezkoak diren ordutegietan eta kostu onargarriekin.

Hori betetzeko eta garatzeko ekintzen artean, aipatzekoak dira hiri-trinkotasuna indartzea, auto pribatuarekiko mendekotasuna murriztea eta “distantzia laburreko” hiria sortzea, etxebizitzatik hurbil ekipamendu- eta zerbitzu-bolumen egokia dagoela azpimarratuta.

10. PROZESU DEMOKRATIKOAREN ETA PARTE-HARTZAILEAREN BIDEZ BERRASMATZEN DEN GOBERNANTZA. Hiri-plangintzaren dimentsioa, gizarte eraldatzeko tresna, jakintzaren eta boterearen, zientziaren eta politikaren arteko identifikazioan oinarritzen zen etapa gainditu behar da.

Gaur egun, indibidualismoaren gehiegikeriak eta zientziaren hutsarekiko mesfidantzak “zilegitasun politikoaren” krisia eragin dute hirian erabakiak hartzeari dagokionez. Esku hartzen duten eragile guztiekin negoziatzea funtsezkoa da, hain zuzen ere, hiri-politikak definitzeko zilegitasuna emateko. Adostasuna bilatuta soilik mugatu daitezke hirigintza-arazoak, horiek formulatu eta ekintza publikoko lehentasunak ezarri. Hau da, interes orokor desiratua gizarte-gatazkak egoki kudeatzen dakien prozesuaren bidez aurkitu behar da, eta, horretarako, funtsezkoa da parte hartzeko prozesu aktiboak eta egiazkoak bideratzea.

Parte hartzeko prozesu eraginkorra, hartu beharreko erabakien gidari eta orientabide izan dadin: horretarako, lehenik eta behin, lehen mailako metodologia-irizpide bihurtzeko legezko errekerimendutzat konnotatzea; eta (b), bigarrenik, Planaren indarraldian, jarduketan egikaritzea kontrolatzeko eta horien helburuen, irizpideen eta oinarrien leialtasuna fiskalizatzeko mekanismotzat eratzeke denbora-irismena.

Hau da, herritarren parte-hartzea, gaur egungo plangintzaren metodologia-multzoaren funtsezko osagaia da, eskaerak lehenesteko argudioa eta hiri-proiektua baliozkotzeko tresna. Horrek, lege-esparruan ondorioztatzen dena baino prozesu askoz zabalagoa eta konprometituagoa bideratzea dakar, eta helburu hauek bete behar ditu:

- a. Ikaskuntza sozialaren tresna; hau da, ezagutza adituaren (tekniko-zientifikoa) eta ez-adituaren (herritarren esperientziaren ondoriozkoa) arteko atzeraelikadura-prozesua.
- b. Joerak identifikatzeko tresna, zientzia aldetik objektiboak eta kuantifikagarriak diren beharren interes orokorra eta hiriko eragileek egindako eskaeren interesa (gabezien pertzepzio subjektiboen emaitza) ondorioztatzea ahalbidetuko duena.
- c. Planak eskaera horietarako duen egokitasuna ebaluatzeko tresna.
- d. Plan Orokorreko aurreikuspenak, jarduketak eta proposamenak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko tresna.



AM.3/

HAPOREN AURRERAKINEAN AUKERATUTAKO LURRALDE-EREDUAREN EGITURA OROKORRA ETA ORGANIKOA

3.1. UDALEKO LURZORU-KATEGORIZAZIOAREN ETA –SAILKAPENAREN PROPOSAMENA

Lurzoru-sailkapenari eta -kategorizazioari dagokionez, Zumarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aurrerakinak bere proposamena egin du, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen (EAELHL) 10. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako hirigintza-araubidea kontuan hartuta. Era berean, lurzoru- eta kategoria-mota bakoitzari dagozkion jarduerak ondorengo legearen oinarritzko egoeren araubidea jarraituta egin du: 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen Testu Bategina (LHBLTB) onartzen duena, eta lurzoruari buruzko maiatzaren 28ko 8/2007 Legearen (LL07) erreformak jasotzen ditu, hasiera batean, ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuan eta Hiri Birgaitzeko, Eraberritzeko eta Berritzeko ekainaren 26ko 8/2013 Legearen batekin zena.

Sailkapenari eta eraldaketa-jarduketei dagokienez, LL07 legeak Espainiako hirigintza-tradizioaren gaineko aldaketak ekarri zituen, lurzorua sailkatzeko irizpideak ezartzei buruzko legeriari uko egin baitzion. LLren 2007ko Zioen Azalpenean, Estatuko legegilearen jarrera berri hori nabarmendu zen: “... lurzorua sailkatzeko eta kategorizatze teknika (...) ez da beharrezkoa lurzorua baloratzeko legezko irizpideak finkatzeko”. Are gehiago, kaltegarritzat jotzen du hori balorazioari lotzen zaionean, izan ere, *“sailkapenak eragin handia izan du historian lurzorbalioren inflazioan, hala, botere publikoen hirigintza-zehaztapenak gauzatzeko beharrezko eragiketak egin baino askoz lehenago errealizazio-itxaropenak sortu ditu. Beraz, espekulazio-praktikak ere sustatu ditu, eta horiei aurre egin behar zaie konstituzioak hala aginduta”*.

Jarduketei lotutako eskubideen eta betebeharren estatutua ezartzerakoan, hirigintza-sailkapenaren kontzeptua osatzeko, 2007ko estatu-erreformak lurzoruen errealitateari lotutako kontzeptua hartu zuen (une bakoitzean zer diren eta ez zer izan daitezkeen lur horiek eraldatuz gero), zehazki, **lurzoruaren oinarritzko egoeren arabera** banatzen du.

Horrela, LHBLTBk, bere 21. artikuluan, eskubideen eta betebeharren (eta balorazioen) araubide juridikoa ezartzeko, OINARRIZKO EGOERA hauek bereizten ditu, modu sistematikoan eta finalistan deskribatzen direnak.

1. Landa-lurzoruaren oinarrizko egoera

Honako hauek bereizten dira:

- a. Gordetako landa-lurzoruaren oinarrizko egoera (iraunkorra): lurralde- eta hirigintza-antolamenduak eraldatzetik babesturiko lurzoruak. Egoera horretan sartuko dira:
 - Jabari publikoa, izadia zein kultura-ondarea babesteko edo zaintzeko legeriak eraldatze horretatik at utzitako lurrak.
 - Lurralde- eta hirigintza-antolamenduak euren balioengatik —are ekologia, nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta paisaiari dagozkionengatik—babestu beharreko lurzoruak; baita arrisku naturalak edo teknologikoak dituztenak ere.
- b. Landa-lurzoruaren oinarrizko egoera (babestu gabea). Bi lursail-multzok osatzen dituzte, eta ezaugarri desberdinak dituzte:
 - Oinarrizko landa-egoera (aldi baterakoa): Lurzoru horretan, planek lurzoru urbanizatuko egoerara pasatzea ahalbidetzen dute, dagokion urbanizazio-jarduketara bukatu arte.
 - Babestu gabeko landa-lurzoruaren oinarrizko egoera, eraldatzeko bideraezina: oinarrizko landa-egoerako gainerako lurzoria (nahiz eta babes-baliorik ez izan) urbanizazio berriko jarduketetan barneratzeko ezaugarririk ez duena.

2. Lurzoru urbanizatuaren oinarrizko egoera:

Lurzoru urbanizatuaren egoeran egongo dira baldin eta hirigunearen hiri-sare batean legez txertatuta badaude (hirigunearen berezko diren bide-, zuzkidura- eta partzela-sare batek osatutakoa), honako baldintza hauetakoren bat betetzen badute:

- Dagokion antolamendu-tresnaren egikaritzean urbanizatuta egotea
- Azpiegiturak eta zerbitzuak instalatuta eta operatibo izatea
- Eraikinak okupatuta egotea lurralde- edo hirigintza-antolamenduko legerian mota horretarako zehaztutako espazio baliagarrien ehunekoan, dagokion plangintza-tresnak proposatutako antolamenduaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko legediaren arabera, sailkapenak honakoak bereizteko aukera hauek ditu: batetik, landa-egoerako lurzoria (lurzoru urbanizaezina), bestetik, eraldatu beharreko landa-lurzoria (lurzoru urbanizagarria); eta, azkenik, dagoeneko eraldatu den lurzoria, azken batean, hiri den lurzoria edo bertan barneratzeko modukoa (hiri-lurzoria). Sailkapenetik abiatuta, Planak gainerako erabakiak ezartzen ditu: lurzoru-kalifikazioa (erabileren eta horien intentsitateen erregulazioa), onuren eta kargen banaketa-mekanismoak, eta, azkenik, planteatutako antolamendua gauzatzeko ekintza publikoen eta pribatuen programazioa. Hori dela eta, lurrak lurzoru-mota desberdinetara atxikitzean ere planifikatzen da, eta kontuan hartu behar da hiri-proiektuaren legezko adierazpena edo edukiontzia.

Sailkapena, beraz, hartutako hiri- eta lurralde-ereduaren adierazpen dinamikoan eratzen da, nahiz eta mota batzuk legez zehaztuta egon (hala nola, hiri-lurzorua eta, neurri txikiagoan, babes bereziko lurzoru urbanizaezina). Hala, sailkapena lortu nahi den hiri-ereduaren atzeko hiri-politikaren helburuen eta estrategien isla da.

Lurzoru-sailkapena ez da aldaezina, plangitzaren berrikuntza-prozeduren bidez alda baitaiteke; eta, are gehiago, hirigintza-sistemaren logikan, lurzoru urbanizagarriak kokapen dinamikoan jartzen dira hiri-lurzoru bihurtzeko. Horregatik, helburu hori lortzeko alde aurretiko erabakia horiek lurzoru urbanizagarri sailkatzea da.

Bada, aurrerakin-dokumentu honek udaleko lurzoru guztietarako proposatzen den hirigintza-sailkapenaren esleipena jasotzen du, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean agindutakora eta Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuan aurreikusitakora egokitzen da.

Horrenbestez, Zumarragako Plan Orokorren Aurrerakinak udal-lurraldea zatitzen du, egoera eta mota hauetan sailkatzeko:

Landa-lurzoruaren oinarrizko egoeran, lurzoru mota hauek bereitzen dira:

- **Lurzoru urbanizaezina:** hirigintza-prozesutik baztertutako lurzoruak dira, hiri-garapenerako desegokiak egiten dituzten balioak edo inguruabarrak dituztelako, edo hirigintza-barneratzea eta -eraldaketa desegoki egiten duten lekuetan daudelako. Hori guztia, plan honetan mugatutako landaguneen berezitasunak ukatu gabe.
- **Lurzoru urbanizagarria: urbanizazio berriko eraldaketa-jarduketak garatzeko eremuak dira.** Aurrerakin-fase honetan, transformatu gabeko lurzoruak proposatzen dira, Plan Orokorreko hirigintza-prozesuan jasotzeko hasierako gaitasuna dituztenak, lortu nahi den hiri-ereduaren arabera.

Lurzoru urbanizatuaren oinarrizko egoeran:

- **Hiri-lurzorua.** Hiri-eraldaketa edota -garapena izan duten udal-lurzoru guztiak horrela sailkatzea proposatzen da, nahiz eta horiek eraberritze zein berronertze puntuala edo orokorra izan, egungo hiri-bilbean barneratuta edo barneragarriak izan eta Plan honek bere gain hartu. Hori dela eta, lurzoru mota horretan jasotzeko beharrezkoak diren urbanizazio-baldintzak edo eraikuntzaren finkatze-maila betetzen dituzte, 2/2006 Legearen 11. artikuluko 1. atalaren arabera (EAELHL).

2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak hau ezartzen du (1. artikuluan), 2/2006 Legearen 11.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, hiri-lurzorutzat hartuko direla honakoak dituztenak: ibilgailuentzako sarbidea –bide zolatuz egina eta herritarrek benetan erabilgarria–; ur-hornidura; euri-ura eta ur beltza husteko sarea; behe-tentsioko energia elektrikoko hornidura etab. Hornidura horien tamaina, emaria, ahalmena eta tentsioa, legez aurreikusitakoa izateaz gain, egungo tokiko sistemetatik heltzen eta hornitzen direnak izango dira

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 11. artikuluko 3. puntuan ezarritakoaren arabera, hiri-lurzoru sailkatutako lurzoruek, betiere, honako kategoria hauetako baten pean egon behar dute sartuta:

- a) **Hiri-lurzoru finkatua.** Kategoria honetan sartzen dira urbanizazio finkatuko guneetan egon arren, Planak euren egungo egoera baliozkotzea proposatzen duten hiri-lurzoruak, egoera horretan mantentzen direla ziurtatzeko edota eraikigarritasun haztatua gehitzea suposatzen duten jarduketan (erabilera-aldaketak...) xede ez direla.
- b) **Hiri-lurzorua finkatugabea:** kategoria horretan sartuko dira hirigintza-antolamenduak lurzoru-mota horri atxikitako lursailak, ezaugarri hauek edukitzearren

b.1. Urbanizazio finkaturik ez izatea, honako arrazoi hauengatik:

- Eginda dagoen urbanizazioak hirigintza-antolamenduan agindutako beharrezko zuzkidura, zerbitzu eta azpiegiturak ez edukitzea, edo hornigai horiek gainean duten edo izan beharko duten eraikuntzari zerbitzu egokia emateko hirigintza-antolamenduan agindutako proportzio, neurri edo ezaugarriak ez edukitzea.
- Eginda dagoen urbanizazioak eraberritu, hobetu edo birgaitu beharra edukitzea, eta lan horiek hiri-berrantolaketa eta -berrikuntzaren ondoriozko hirigintza-eraldaketaren bidez egin behar izatea, eraldaketa horren barruan sartuta zuzkidurak ezartzekoa ere.

b.2. Lehendik zegoena baino hirigintza-eraikigarritasun haztatu handiagoa esleitzea antolamenduak

3.1.1. LURZORU URBANIZAEZINA

Neurri handi batean, EAELHLk bidezkoak ez diren eta desegokiak diren irizpideak definitu ditu, hirigintza-arrazoiengatik desegokitasun-irizpidea jasotzeko ahaleginaren ondorioz, hau da, hiri-garapen jasangarriko eredu babestu nahi da, argi eta garbi azaldu gabe. Hala, hirigintza-arrazoiengatik desegokitasun-irizpidea sartzearen ondorio diren zenbait kontzeptu aipatzen dira, hala nola: ereduaren jasangarritasuna edo horren ezaugarriak mantentzeko beharra, honako osotasuna eta funtzionaltasuna babesteko, azpiegitura, zerbitzu, zuzkidura edo ekipamendu publikoena edo interes publikoena; edo hiri-garapeneko ereduaren jasangarritasunaren tokiko estrategia errespetatzen dela bermatzeko desegokitasuna. Ikuspuntu horretatik, EAELHL bat dator erabat, EAeko Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren jasangarritasunaren eta lurzoruaren natura-baliabideari balioan jartzeko jarraibidearekin.

Horrela, EAELHLren 13. artikulua arabera, lurzoru urbanizaezinak dira HAPOk lurzoru mota horri atxikitzen dizkion lurrak, arrazoi hauengatik:

1. **Lursailen hirigintza-eraldaketa honako kasu hauetan ez da bidezkoa:**

- a) Lursailok berriazko babes-erregimen baten menpe daudenean honako arrazoi hauetako batengatik: lurralde-antolamenduko tresna batek hala ezarri izana; erregimen hori arlokako legeriaren aplikazioaren ondorio zuzena izatea; edo hirigintza-antolamenduak kalifikazio hori eman izana, nekazaritza, basogintza edo abelazkuntzarako duten balioagatik, beren baliabide naturalak ustiatzeko eskaintzen

dituzten aukerengatik, edo beren paisaia-, historia- eta kultura-balioengatik, fauna, flora edo oreka ekologikoa babesteko.

- b) Arloko legediaren aginduz hirigintza-eraldaketa debekatuta dutenean, herri-jabariko elementuak babesteko edo zaintzeko.
- c) Hirigintza-eraldaketak higadura, erorketa, luizi, sute edo uholdeetarako arriskua edo beste arrisku natural edo teknologiko garrantzitsu batzuk, bereziki hondamendi-arriskua, sortzen dituztenean edo halakoen arriskua saihesten ez duenean.
- d) Beharrezkoa denean lursailen ezaugarriak gordetzea, herri-izaerako edo interes publikoko azpiegiturak, zerbitzuak, zuzkidurak edo ekipamenduak bere osotasunean babesteko.

2. Lursailak ez dira egokiak hiri-garapenerako kasu hauetan:

- a) Hiri-garapeneko ereduaren eramangarritasunaren aldeko tokiko estrategia errespetatze aldera, landa-izaerari eustea komenigarri edo beharrezko egiten duten ezaugarriak dituztenean.
- b) Bertako lehen ekonomia-sektorea sustatzearren eskakizun bereziak dituztenean ezarrita, batez ere geografiaren ezaugarriak edo jatorrizko deiturak direla-eta lehen sektorearekin duten lotura arrazoizkoa den udaletan.

Zumarragako lurzoru urbanizaezinen azalera, guztira, 1.719,37 hektareakoa da.

A. PROPOSATUTAKO LURZORU URBANIZAEZINAREN ANTOLAMENDU-KATEGORIAK

EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG 2019) 3. artikuluan (Ingurune fisikoaren antolamendu arloko gidalerroak) honakoa ezartzen da, antolamendu-kategorien arabera, lurraldea eremu homogeneotan zonifikatzen da, eremuen lurralde-bokazioaren arabera, eta bakoitzaren erabilerak berariaz arautzen dira, haren ezaugarrien arabera.

Funtzio bikoitza dute: lurzoru urbanizaezinean hiri-plangintzak erabiltzen dituen izendapenak homogeneizatzea batetik, eta haiek lurralde-plangintzan eta hirigintza-plangintzan antolatzeke irizpide orokorrak ezartzea bestetik, lurzoru urbanizaezinean erabilera eta jarduerak arautzeko modua gidatuz.

2019ko LAGetan sei antolamendu-kategoria ezarri dira EAEko lurzoru urbanizaezina sailkatzeko:

A.1. BABES BEREZIKO LURZORU URBANIZAEZINA: aplikatzen zaie ongi kontserbatutako baso autoktonoei, itsasadar eta estuarioei, egoera onean dauden ibaguneei, hondartzei, barrualdeko hezeguneei, itsasbazterreko amildegiei, gorenako inguruei edo landaretza berezikoei eta, oro har, ekologiaren, kulturaren, paisaiaren edo horien guztien ikuspegitik baliotsuak diren elementu guztiei. Zehazki, honako hauek sartuko dira maila honetan:

- a. Funtsezko prozesu ekologikoen mantentzean zeregin garrantzitsua duten eremuak, hala nola lurzoruen babesa, edo akuiferoen birkargatzea, adibidez.
- b. Galtzeko mehatxupean dauden edo nazioarteko hitzarmen edo xedapen espezifiko bidez babes berezia eman zaien habitat naturalen laginak, egoera onean kontserbatuta.

- c. Espezie mehatxatutzat zerrendatutako animalia- edo landare-populazioak, elementu endemikoen kontzentrazio handiak nahiz nazioarteko hitzarmenen edo xedapen espezifikoaren arabera babes berezia behar duten eremuak.
- d. Landa-paisaia edo paisaia malkar harmoniatsuak, edertasun paregabekoak edo kultura-balioa dutenak.
- e. Geologia Intereseko Lekuak (GIL).
- f. Bakanak edo bereziak direlako nabarmentzen diren elementu naturalak, edo interes zientifikoa dutenak.

Zumarragan, kategoria horretan atxikita dago honakoa: **GIL 40 EAeko Urretxuko harrobiko gabroak. Babes bereziko lurzoru urbanizaezinaren azalera, guztira, 8,26 ha-koa da.**

A.2. INGURUNE-HOBKUNTZAKO LURZORU URBANIZAEZINA: baso degradatuak, sastrakaguneak eta bazterretako lurrak, betiere barrualdean edo balio handiagoko inguruen aldamenean duten kokalekua dela-eta kalitate-maila handiagotara garatzea onuragarritzat jotzen bada. Kategoria honek funtsezko balioa hartu behar du lurzoru urbanizaezina eraldatzeko, naturan oinarritutako konponbideak edo lurralde- edo hirigintza-plan bakoitzaren helburuen arabera paisaia edo nekazaritza arloko hobekuntzak sortzeko euskarri gisa.

Zumarragan kategoria horretan atxikita dago honakoa: **Ekosistemen Ingurumen Hobekuntzako azpikategoria, Goierriko Lurralde Plan Partzialean identifikatua. Ingurune-hobekuntzako lurzoru urbanizaezinaren azalera, guztira, 70,51 Ha-koa da.**

A.3. BASOKO LURZORU URBANIZAEZINA: beren egungo erabileragatik edota izan duten erabileragatik (malda, arriskuak, arrozen babesak eta abar) basogintzan erabiltzeko joera garbia erakusten duten lurrak. Baso-erabilera barrutik diskriminatzeko zailtasuna dela-eta, baso-sistemetan ekoizpen- eta babes-funtzioak nahasten baitira, LAG hauek baso-eremu bakarra definitzen dute. Dena den, kategoria hori Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak garatu du, "Mendia" suprakategoriaren inguruan beste kategoria batzuk bilduta, hots, Basoa, Basoa mendi barbana, Mendi-larreak eta Mendi-larreak – harkaitzak. Ez dira barnean hartzen egungo baso-masak, zeinak beheko zonan eta landazabalean egonik landazabal horretako elementu integratzaileak diren, eta horrenbestez, nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerekin konbinatzeko eta txandakatzeko ere gai dira.

Zumarragan, kategoria horretan atxikita daude ondorengoak:

- **Basoa Mendi Barbana, Nekazaritza eta Basozaintzaren LPSkoa**
- **Kontserbaziorako basoa, Goierriko LPPk definitua.**
- **Nekazaritza eta Basozaintzako LPSren Baso Ustiategiak.**

Basozaintzako lurzoru urbanizaezinaren azalera, guztira, 1.268,57 Ha-koa da.

A.4. NEKAZARITZAKO, ABELTZAINZAKO ETA LANDAZABALEKO LURZORU URBANIZAEZINA: gaitasun agrologiko oso ezberdineko lurzoruak sartzen dira, hasi kantauriar landazabaleko mosaikoekin, ureztapeneko lurrekin edo ortu erabilerako lurrekin, mahastiekin eta nekazaritza estentsiboko eremuekin, eta nekazaritza eta abeltzaintzarako errendimendu txikia daukaten lurzoru luberrituak ere barne. Nekazaritza eta Basozaintzako LPSean Nekazaritza eta Abeltzaintza, eta Landazabala bi azpikategoriatan banatzen da, aldi berean:

- a. **Gaitasun agrologiko handia**
- b. **Trantsizioko Landa Paisaia**

Zumarragan nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta landazabalaren bi azpikategoriak daude.

Nekazaritzako, abeltzaintzako eta landazabaleko lurzoru urbanizaezinaren azalera, guztira, 372,02 Ha-koa da.

A.5. GAINAZALEKO UREN BABESEKO LURZORU URBANIZAEZINA: EAEko ibai eta errekek eta haien babes-eremuak, EAEko Ibai eta Erreken Bazterrak Antolatzen dituen LPSaren arabera, hierarkia goreneko mailara arte (5), Zumarragaren kasuan.


Zumarragako sare hidrografikoa honako elementu hauek osatzen dute:

- Akaitz
- Altzola
- Argisao
- Arraitz
- Arraitzerreka
- Basabaztan
- Beainerreka
- Beotegi
- Erbizuloerreka
- Errekaundi
- Etxeberri
- Iburguren
- Igartza
- Izazpi
- Kandoitz
- Korta
- Lastaola
- Matxain
- Mendaratz
- Mendizabal
- Mutxitegi
- Okorro
- Olarte
- Ollauntxiki
- Sakona
- San Kristobal
- Santa Lutzi
- Txakolinerreka
- Ugarte
- Umenerreka
- Urola

A.6. LANDAGUNEEN LURZORU URBANIZAEZINA. Ekainaren 30eko 2/2006 Legean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoan, landaguneen berariazko araubidea garatu da (29. artikulua). Lehenik eta behin, landagunea definitzen du, “6tik 25era arteko baserri-multzoa, izaera ematen dion eremu publiko baten inguruan bildua” eta “Foru-aldundiek beren lurralde historikoetan dauden landa-guneen zerrendak egingo dituzte, landaguneak dituzten udalei entzun ondoren” (29.7 artikulua). Bigarrenik, 2/2006 Legeak ez du lurzoru-kategoria jakin bat ezartzen landaguneetan. Lurzoru-mota plangintzaren arabera esleitu behar da

Lurzoru urbanizaezina. Kategoriak. / Suelo no urbanizable. Categorías.

- | | |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none"> LIG40: Harrobiko gabroak /
LIG40: Gabros de cantera Ekosistemak hobetzea /
Mejora de ecosistemas Basoa / Forestal Nekazaritza eta abeltzaintza / Agroganadero | <p>Zehaztapen grafikoak / Determinaciones gráficas</p> <ul style="list-style-type: none"> Hiri-lurzoria / Suelo urbano Lurzoru urbanizagarria / Suelo urbanizable Udalerria / Término Municipal |
|--|--|



Zumarragako lurzoru urbanizaezina. Kategoriak

eta hiri-lurzorua izan daiteke -horrela sailkatzeko inguruabar orokorrak ematen badira-, edo landaguneko lurzoru urbanizaezina.

Aurrerakin honetan Zumarragan lurzoru urbanizaezin kategoria zehatzeko landagunerik ez da proposatu.

B. BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK ETA BEREZIKI AZPIEGITURA BERDEA

Ingurune fisikoa antolatzearen kategoria bakoitzerako ezarritako erabileren erregimena mugatzen edo baldintzatzen duten baldintzatzaille gainjarriak bi motatakoak dira: arrisku naturalen baldintzatzaille gainjarriak eta azpiegitura berdeko baldintzatzaille gainjarriak, eta ondoren zehazten dira:

1º. Arrisku naturalei eta klima-aldaketari buruzkoak:

- Eremu uholdegarriak: Urola ibaiaren eta Zumarragako ibaiadarren T-500 aztarna identifikatzen da, plan hidrologikoetan eta Ibai eta Erreken Lurralde Plan Sektorialean ezarritakoarekin bat eginda.
- Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSk zehaztutako higadura-arriskuko aztarna.
- Lurzoru kutsatuak, EAEko inbentarioaren arabera.

2º. Azpiegitura berdeari buruzkoak:

- LAGek definitutako gunek, korridore eta indargetze-eremuak
- Ibai eta Erreken LPSko ibai eta errekei dagokien lerro urdina
- EAEko lehentasunezko intereseko habitatak.
- Goierriko LPPko interes geo-arkeologia guneak.
- LAGek definitutako oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbideak


Azpiegitura Berdeari buruzko baldintzatzaille gainjarriari dagokionez, beharrezkoa da zehaztapen batzuk egitea, bere identifikazioaren garrantzia ezagutzeko.

B1. AZPIEGITURA BERDEA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROETAN

Azpiegitura berdearen arloan jasota EBk duen estrategia eta “Azpiegitura berdearen eta konektibitate eta lehengoratzeko ekologikoaren Estatuko estrategia”, autonomia-erkidegoekin batera landutakoa, 2019ko uztailen behin betiko onartutako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroan (LAGen) berrikuspenak azpiegitura berdearen filosofia barneratzen du, eta hori proposatzen den lurralde-ereduan zehazten da, argumentu-lerro hauen arabera:

- a) Babestutako espazioak biodibertsitatea berreskuratzeko funtsezko elementu eta lurraldearen jasangarritasun orokorrerako oinarri finkatzeko, elkarren arteko lotura handiagoa behar da. Hala, biotopo desberdinen arteko lurralde-zatiketa eragiten duten elementuen inpaktua murriztu eta jarraipena emango dieten harreman-eremuak sortu behar dira. Interkonexio hori EAEko korridore ekologikoen sarearen bidez egiten da, baina baita funtzio anitzeko interes naturaleko beste gune batzuen bidez ere; horrela, kapital naturala kudeatzeko ikuspegi tradizionala gaintitzen da.
- b) EAEn giza-kokaguneak eta azpiegitura “grisa” deritzenak hedatzeak lurralde-zatiketa sakona eragin du, eta horri aurre egin behar zaio. Alde horretatik, 2019ko LAGek azpiegitura grisen eraginak eraginkortasun handiagoz arintzeko eta konektibitate globala hobetzeko azpiegitura berdea aukera gisa aurkezten dute.

- c) Azpiegitura berdearen bidez, funtzio anitzeko eremuak identifikatzen dira, lurzoru-erabilera bateragarriak bultzatzeko, eta, hala, ekosistemek eskaintzen dizkiguten zerbitzuak indartzeko. Aldi berean, lurzoru-erabileren ikuspegi osoagoa hartzeak onura handiagoak dakartza ekintza isolatu independenteak eskaintzen dituztenak baino, eta, azken batean, lurraldearen erresilientzia handitzen du.



EAeko Azpiegitura berdea.

Era berean, Europako Kontseiluak emandako azpiegitura berdearen definizioan oinarrituta, LAGek ezaugarri eta printzipio hauek zehazten dituzte, eta horien arabera garatu beharko dira:

1. Izaera estrategikoa, egungo ibilguak eta tresnak aprobetxatuta.
2. Hura osatu dezaketen elementuen zabaltasuna: lurrekoak, urtarrak, hirikoak eta landatarrak, eta eskala desberdinetan.
3. Ekosistema-zerbitzuen aukera zabala emateko gaitasuna; hau da, zuzenean edo zeharka ekosistemetatik jasotzen ditugun onurak, hornidurakoak, erregulaziokoak edo kulturalak.

Aurreko guztia kontuan hartuta, 2019ko LAGek EAerako azpiegitura berdearen sarea bi egitura-elementuren inguruan ezartzen dute: nukleo-eremuak (nodoa) eta korridoreak (konexioa). Horiek identifikatzeko eta irudikatzeko, biotarako funtsezko habitatak ematen dituzten lurralde-eremuak edo -elementuak eta horien arteko ekologia-jarraipenak eta konektibitatea aztertu dira, EAEn zein haien eragin-eremuan.

Hala, modu horretan, guneek ingurumen-balio handiko espazioak hartzen dituzte, babesen bat dutenak, hala nola, EAEko Naturagune Babestuen Sarea eta Urdaibaiko Biosferaren Erreserba osatzen duten espazioak, baita babesik ez dutenak ere, baina aurrekoen ekologia-jarraipena bermatzeko garrantzitsuak direnak, esaterako, 1997ko LAGetan definitutako Natura Intereseko Eremuak. Horrez gain, ibilguak eta horien eremuak ere jasotzen dira, hau da, lurrazaleko uren babeseakoak, RAMSAR hezeguneak eta Hezeguneen LPSk inbentariatutako ur-masa guztiak. Korridoreak, bestalde, EAEko guneen eta Europako sarearen jarraipena mantentzeko eremuek osatzen dituzte, betiere Autonomia Erkidegoaren barruan badaude. 2019ko LAGetan hautatutako korridoreekin lurralde-eragin handiko azpiegitura grisak gainditu nahi dira. Azpiegitura horien plangintza eskualde-mailatik egin behar da, zenbait eremu funtzionaltan edo lurralde historikotan eragina dutelako.

Bestalde, 2019ko LAGek identifikatzen dituzte korridoreen funtzionaltasuna eragozten edo arriskuan jartzen dituzten oztopo kritikoak eta gatazka-eremuak, eta gatazka horiek arintzeko edo ezabatzeko jarduketa- edo kudeaketa-neurriak proposatzen dituzte, baita konektibitatea sustatzen edo babesten duten beste neurri batzuk ere.

Eskala (tresna) / Escala (instrumento)	Nodoa / Nodo	Lotura / Conexión
EAE / CAPV (Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, Lurralde Plan Sektorialak) (Directrices de Ordenación Territorial, Planes Territoriales Sectoriales)	Beren ingurune-balioengatik babestutako guneak... Espacios protegidos por sus valores ambientales...	Korridore ekologikoa... Corredor ecológico...
Eremu Funtzionala (Lurralde Plan Partzialak) Área Funcional (Planes Territoriales Parciales)	Hirien inguruko parkea Parque periurbano Nekazaritza eta abeltzaintzako lurzoruak Suelos agroganaderos Aisiagune metropolitarrak Zonas de ocio metropolitanas Lurraldera sartzeko espazioak Espacios de acceso al territorio ...	Bide berdea Vía verde Lurralde-ibilbideak: landa-bideak, egungo bide bigunak Recorridos territoriales: caminos rurales, vías blandas existentes Bioingeniaritzako obrak Obras de bioingeniería Ekoduktuak Ecoductos ...
Tokikoa (Hiri Antolamenduko Plan Orokorra Local (Plan General de Ordenación Urbana)	Eraztun Berdea Anillo verde Hiri Parkea Parque Urbano Lorategia, euri-urezko lorategia Jardín, jardín de lluvia Hiri-baratzea Huerto urbano Estalkiak, fatxadak, terrazak Cubiertas, fachadas, terrazas ...	Hiribidea Avenida Bulebarra, ekobulebarra Bulevar, ecobulevar Zumardia Alameda Ibai-aurrealdea Frente fluvial Heskaiak Setos ...

Horrekin batera, **2019ko LAGek adierazten dute Lurralde Plan Partzial (LPP) bakoitzak eta hirigintza-planek ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren beste eremu batzuk jaso ahal izango dituztela eskualdean, baita LAGek proposatutako natura-intereseko eremuak zabaldu edo doitu ere.** Era berean, korridoreei dagokienez, adierazten dute lurralde-mugaketa lurralde konkretuaren konektore-ardatz bakoitzaren ezaugarrien eta oztopoen edo gatazka-eremuen mende dagoenez, Lurralde Plan Partzialetan garatu beharko direla nahitaez. **Zumarragan, Goierriko Lurralde Plan Partzialak ez ditu Azpiegitura Berdearen elementu definitzaileak aipatzen, 2019ko LAGen aurretik idatzi baitzen.** Halaber, azpiegitura berdea holistikoa denez, **LAGek baldintzatzaile gainjarritzat barneratzen dute lurralde-antolamenduan, eta erabileren erregulazioa ezartzen dute.** Babestutako guneei dagokienez, LAGek erabilera desberdinen

bateragarritasuna bere antolamendu-tresnetan ezarritakora bideratzen dute. Bestalde, korridore ekologikoei eta funtzio anitzeko gainerako guneei dagokienez, berriz, erabilerak azpiegitura berdearen helburuen mende daude. Hala, korridoreen kasuan, espazio babestuen arteko konektibitate ekologikoaren alde egingo dute batez ere.

Azken batean, LAGek ezartzen dute lurralde-plangintzak —zehazki, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSk, Ibai eta Erreken LPSk, Itsasertzeko LPSk, Hezeguneen LPSk eta LPPk— eta hirigintza-plangintzak garatu eta zehaztu behar dutela ingurune fisikokoaren erabilera-kategoriazioa eta -erregulazioa, bere eskumenen eta eskalen arabera. Hala, natura-ikuspegi sistemikoa jasotzen da lurralde-plangintzaren bidez, eta, hala, natura intereseko eremuen planifikazioan, irismenean eta lurralde-kudeaketan eta haien arteko erlazioan nabarmentzen da, ekosistemek ematen dituzten zerbitzuak balioesteko.


EAEko azpiegitura berdea honako elementu hauek osatzen dute:

1. **Euren ingurune-balioengatik babestutako guneak** eta euren babes-figurak dituzte.
2. **Korridore ekologikoak:** Eremu horiek eta inguruko lurraldeetako espazioak lotzen dituztenak, betiere korridoreak EAEn badaude.
3. **Funtzio anitzeko natura intereseko beste espazio batzuk**, EAEn ingurumen-balio aipagarriak izan arren, **ez dute onartutako babes-figurarik**.
4. **RAMSAR eta Hezeguneen LPSk inbentariatutako ur-masa guztiak**.
5. **Lurralde- eta hirigintza-plangintzek sarea zabalduko dute, eta, horretarako, espazio garrantzitsuak jasoko dituzte euren eskaletan**. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira EAEn azpiegitura berdean ez dauden beste espazio babestu batzuk (esaterako, GIL, Plan Hidrologikoetako Gune Babestuen Erregistroa, etab.).

B.2 GIPUZKOAKO AZPIEGITURA BERDEAREN SAREA

Informazio-memorian zehaztu den bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiak azterketa egin zuen 2019an, Gipuzkoako Azpiegitura Berdearen Sarearen oinarriak ezartzeko asmoz. Sare horrek, alde batetik, LAGetan definitutako Azpiegitura Berdearen Euskal Sareari kapilaritatea emango dio, eta lurraldeko ingurumen-unitate edo paisaia-mota gehienak (itsasertza, ibaia, landa, mendia, hiria) bilduko ditu. Bestetik, horren barnean jarraipen ezak, oztopo ekologikoak eta eremu degradatuak identifikatuko ditu, horiek hobetuta azpiegitura berdea sendotzea eta indartzea ahalbidetuko baita.

Jakina, Gipuzkoako Azpiegitura Berdeko Sarearen (GABS) helburuak 2019ko LAGetatik eta 2050 Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Gipuzkoako Estrategiaren 3. Helburutik eratorritakoak dira, lurralde-eraginkortasuna eta -erresilientzia areagotuko dituen azpiegitura berdea sustatzea aldarrikatzen baitute.




Gipuzkoako eta EAEko Azpiegitura Berdeen Sareak. Iturria: GABS

Proposatutako Gipuzkoako Azpiegitura Berdearen Sareak (edo GABSk) Azpiegitura Berdearen Euskal Sarean barneratutako espazioetatik abiatzen da eta hura zabaltzen du, probintzia-mailan garrantziadun lurralde-elementuak bertan barneratuta. Naturagune babestuez eta katalogatuez gain, hauek ere GABSren zati dira:

- a) Korridore ekologikoak
- b) Katalogatutako fauna eta florarentzako intereseko eremuak
- c) Ur geza masak.
- d) Baso naturalak.
- e) Oihaneztatzeak.
- f) Balio natural handiko nekazaritza-guneak.
- g) Polinizaziorako habitat garrantzitsua.
- h) Biodibertsitatea kontserbatzeko beste habitat garrantzitsu batzuk.
- i) Espazio berdeak edo libreak hiri inguruetan eta hirietan.
- j) Eremu degradatuak.

Gipuzkoako Azpiegitura Berdea planifikatzeko Diagnostikoaren dokumentuak funtzionaltasun ekologikorako intereseko guneak (FEIG) mugatzeko proposamena egiten du, eta horiek kontuan hartu beharko dituzte lurralde- eta hirigintza-planek. Zehazki, Zumarragatik

FEIG oso zabala igarotzen da (GAB-DGGOUK-01), Beasain eta Bergara artean, Antzuola eta Urola ibaiak eta Matxinbenta erreka lotzen dituena. Bertan nagusi da baso-paisaia, landazabaleko berezko espazioekin.



Azpiegitura berdearen proposamena Zumarragan. Iturria: GABSren bisoretik abiatuta idazketa-taldeak egindakoa.

B.3. AZPIEGITURA BERDEA ZUMARRAGAN

Zumarragako Azpiegitura Berdea osatzen duten elementuak identifikatzeko hurbilketa ez da soilik udal-mailako eredu sistemikoa adieraztean oinarritzen, baizik eta haien gaitasun funtzionala lurralde-dimentsioaren testuinguruan jartzean datza, lehendik dauden aktiboen arabera.

Lurreko habitaten konektibitate naturala sustatzen duten elementuek osatzen dute azpiegitura berde hori, eta lurralde-proiektzioa duen oinarritzko udal-egituretako bat da. Ingurumen-balio kualifikatua eta biodibertsitate handia duten sistema eta elementu garrantzitsuenek (baso autoktonoak eta baso-materia, paisaia adierazgarriak eta hezeguneak), baso handiek eta baso-komunitateek eta korridore ekologikoen funtzioa betetzen duten elementuek osatzen dute azpiegitura berdea, hala nola: ibilguetako ibaiertzeko landaredia, landa-bideak, nekazaritza-eremuetako konektibitate-elementuak (heskaiak, zuhaixkak, baso uharteak). Espazio libre eta berdegune publiko garrantzitsuenak ere sartzen dira, baita hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian daudenak ere, sistema honetako gainerako elementuekin lotzeko aukera ematen dutenak.

Hirigintza-antolamenduari dagokionez, funtzio hauek ditu:

- Ekosistemak kontserbatzea eta haien ekologia-funtzioak eta ekosistema-zerbitzuak indartzea.
- Natura ondareko eta espazio publikoko sarearen sistema eta elementu nagusiak mantentzea.
- Biodibertsitatea, ekosistemak eta paisaiaren kalitatea hobetzeko beharrezkoa den ekologia- eta lurralde-konektibitatea bermatzea.

- d. Eremu irekien lurralde-jarraipena zein bisuala eta paisaia-kalitatea bultzatzea.
- e. Natura-balioak edo -arriskuak zein eragindako arriskuak dituzten lurzoru garrantzitsuetan hiri-ezarpeneko prozesuak saihestea.
- f. Lurraldearen ingurumen, paisaia eta kultura aldetik balio handiena duten espazioak egituratzea, baita espazio publikoak eta hiri-irudia zein -nortasuna osatzen duten mugarriak ere, bizi-kalitatea hobetzeko eta lurraldearen kultura ezagutzeko eta gozatzeko ibilbideen bidez.
- g. Neurriak ezartzea klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko, hiriguneak berriz naturalizatuta, landaredia eta ur-masak erabilia, bero-uhartearen ondorioak murrizteko, korridoreek edozein lurzoru-motarekin jarraipena eta iragazkortasuna izan dezaten.

Goierriko Eremu Funtzionalaren LPPk ez du eremu garrantzitsurik ezartzen Zumarragako lurralde-eremuan, eta ez du jasotzen kanpo-konexioko estrategiarik ere. Hala ere, aurretik aipatu bezala, Gipuzkoako Azpiegitura Berdea planifikatzeko Diagnostikoaren dokumentuak, Zumarragan funtzionaltasun ekologikorako intereseko gunea (FEIG) mugatzeko proposamena egiten du, zehazki GAB-DGGOUK-01, Beasain eta Bergara artean, Antzuola eta Urola ibaiak eta Matxinbeta errekek lotzen dituen.

2019ko LAGetatik eta Gipuzkoako azpiegitura berdea planifikatzeko Diagnostikotik eratorritako udalerriko natura- eta ingurumen-balioko espazioak zein Azpiegitura Berdea definitzeko estrategiak oinarri hartuta, Zumarragako Azpiegitura Berdearen proposamena egin da.

Zumarragako HAPOn Aurrerakinako Azpiegitura Berdean sistema eta elementu hauek jasotzen dira, arautu eta garatu beharreko eremutzat:



- a) **Gune nagusiak:** ingurumen-balio handiko espazioak hartzen dituzte, babes-figuraren bat dutenak, biodibertsitatea mantentzeko lehentasuna emanda. Zumarragan, Planaren Aurrerakinak babestutako lurzoru urbanizaezinari atxikitzen zaizkio:
 - 1. Geologia Intereseko Lekuak:
 - Geo-arkeologia Intereseko guneak
 - GIL 40: harrobiko gabroak
 - 2. Ekosistemak hobetzeko eremua:
 - Ekosistemak hobetzea
 - Kontserbaziorako baso-masa
 - Lehentasunezko BIHak

Elementu horiek lurralde-elementu nagusia dira, eta, desberdintasun topografikoak eta kontrako posizioak direla-eta (mendebaldeko muturrean Urola ibaia mugatzen duenez, denak daude ekialdean), polarizazioa osatzen dute, eta azpiegitura berdeko elementu honen bidez lotu behar dira: konektore ekologikoak.




- b) **Konektore ekologikoak:** udalerriko guneen arteko lotura-elementu ezartzen dira. Lotura horiek korridore ekologikoen eta sarbide zibikoko bideen identifikazioan oinarritzen dira, eta honako elementuek osatzen dituzte:


A. GUNE EREMUAK / ÁREAS NÚCLEO

I.- Interes geologikoko lekua / Lugares de Interés Geológico

-  Interes geo-arkeologikoko guneak / Puntos de interés geo-arqueológico
-  LIG40: Harrobiko gabroak / LIG40: Gabros de cantera

II.- Ekosistemak hobetzeko arloa/ Área de mejora de ecosistemas

-  Lehentasunezko KBE / HIC prioritarios
-  Ekosistemak hobetzea / Mejora de ecosistemas
-  Kontserbaziorako baso-masa / Masa Forestal de Conservación



Zumarragako Azpiegitura Berdearen eskema.

1. Korridore naturalak
 - Ibaiak, errekek eta dagozkien trantsizio-eremuak
 - Lakuak, aintzirak eta urtegiak
 - Eremu uholdegarriak (T-500)
 - Indargetze-eremua (Goierriko LPP)

2. Bide zibikoa
 - Bizikleta-ibilbidea
 - Oinezkoentzako ibilbidea
 - Bide publikoen sarea (nagusia eta bigarren mailakoa)

Aurretik aipatutako elementuen azterketatik abiatuta, Zumarragan konektore ekologiko hauek identifikatu dira:

01. Errekaundi Korridore berdea
02. Kandoitz Korridore berdea
03. Altzola Korridore berdea
04. Olarte Korridore berdea
05. La Antigua Korridore berdea
06. Ollauntxiki Korridore berdea

Horien artean, Altzolako eta Olarteko konektoreak nabarmentzen dira. Horiek lurralde-korridore nagusi dira, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako Azpiegitura Berdearen Proposamenetik sortzen baitira.

Lotura horiei Urola ibaiak berak udalerrian sortzen duena gehitu behar zaie. Aipagarria da Zumarraga eta Urretxu arteko korridore mugakide izateaz gain, aurreko guztiak hartzen dituen elementua dela. Korridore horri lotutako eremua uholdegarria da (T-500).

Azpiegitura berde hori hiri-erabilerekin lotutako elementuekin osatzen da:

- Espazio libreen sistema orokorreko sarea eta espazio libre egituratzaileen tokiko sistemak hartzen ditu.


- Hiriko konektore berdeak, konektibitate ekologikoaren funtziodun eta motorrik gabeko mugikortasuna sustatzen duten bide-sareek osatzen dute, besteak beste: lorategiek, bide-arboladiak eta oinezkoentzako zein bizikletentzako lehentasunezko erabilera kaleek. Hiriko konektore berdeetan azpiegitura berdeari jarraipena ematen dioten ekipamendu publikoak sartzen dira.

Eremu eta elementu horiek, azpiegitura berdea osatzen dutenak, egiturazko antolamendukoak dira. Hala ere, hiri-lurzoruko eta lurzoru urbanizagarriko azpiegitura berdeko sistemen mugapena, garapen-plangintzako eremuetan, antolamendu xehatuaren tresnak zehaztuko du behin betiko, betiere, gainerako sistemekiko lotura ziurtatuta.

3.1.2. HIRI-LURZORUA

A. HIRI-LURZORU FINKATUGABEA

EAELHLREN 11.3. ARTIKULUAN XEDATUTAKOA APLIKATUTA, HAPOREN AURRERAKINERAKO HIRI-LURZORU FINKATUGABEAREN KATEGORIA DUTE PLANAK HIRI-



Hiri-lurzoru finkatugabea proposatutako jarduketak.

LURZORU MOTARI ATXIKITAKO LURZORUAK, HONAKO INGURUABAR HAUETAKOA EMATEN BADA:

- 1º Urbanizazio finkaturik ez izatea, eraldaketa-jarduketan kasu hauetakoren batean badago:
- a. Eginda dagoen urbanizazioak hirigintza-antolamenduan agindutako beharrezko zuzkidura, zerbitzu eta azpiegiturak ez edukitzea, edo hornigai horiek gainean duten edo izan beharko duten eraikuntzari zerbitzu egokia emateko hirigintza-antolamenduan agindutako proportzio, neurri edo ezaugarriak ez edukitzea. Egungo urbanizazioa osatzeko eraldaketa-jarduketak dira, hori osatu gabe, eskasa edo desegokia delako.
 - b. Egungo urbanizazioan funtsezko berritzea egitea, eraldaketa-jarduketa integralaren bidez, hiri-eremuaren zaharkitzea lehengoratzeko, eta antolamendu berria ezartzeko, zerbitzu, azpiegitura eta zuzkidura publikoak bermatuta, proposatutako erabilera eta intentsitate berrien proportzio egokiarekin. Hiri-berrikuntza jarduketak dira.
 - c. Egungo urbanizazioa, eraberritze-jarduketa integralaren bidez zehaztea, batez ere egungo eraikuntzari zerbitzu emateko zuzkidura-maila egokia ezartzera bideratuta, hiri-eremua hobetzeko eta suspertzeko. Hiri berritzeko jarduketak dira.
- 2º Hiri-lurzoruko eraikuntza-eremu, jarraien edo etenen, parte direnak eta Planak lehendik zegoena baino hirigintza-eraikigarritasun haztatu handiagoa esleitzen diena. Horiek LHBLTBren 7.1.b) artikuluan aurreikusitako zuzkidura-jarduketekin bat datoz, aprobetxamendua handitzeko proposamenei lotuta daude, urbanizazioa eraberritzeko edo berritzeko jarduketarik behar ez dutenak.

Zumarragako HAPOn Aurrerakinean hiri-lurzorua finkatugabe egin beharreko jarduketa-proposamenak helburu hauek ditu:

- 1º **Egikaritzen ari diren eremuak eta jarduketak onartzea.** Alde horretatik, jarduketa integratutzat hartuko dira indarreko Arau Subsidiarioetan aurreikusitako egikaritze-unitateak, prozesu hori burutzeke daudenak. Artitzen, Forjasen eta Eizaga Berri 1en kasua da.
- 2º **Indarreko plangintza-jarduketak, garatugabeak edo burutugabeak, hiri hobetzeko aukera-eremutzat hartzea.** Egungo jarduketa-eremuei buruzko ikuspegi berria proposatzen da, birplanteatu beharrekoak, bai eremuaren zuzkidurak hobetzeko eta horien urbanizazioa burutzea errazteko, bai antolamendu-eredua hobetu nahi delako.
- 3º **Hiri-ertzak eta jarduera ekonomikoen sektore berrirako trantsizio guneak osatzea,** zuzkidura-jarduketaren bidez, Acería 2rako sarbide berria ahalbidetuko duen partzela konponduko duena.

EAELHLren interpretazio sistematikotik hiri-lurzoru finkatugabe izan daitezkeen jarduketa-motak bereizten dira. Horren arabera, Aurrerakin honetan hauek bereiztu dira:

1. **Urbanizazioa eraberritzeko edota berritzeko jarduketa integratuak.**
2. **Zuzkidura-jarduketak**

Zumarragako hiri-lurzoruaren azalera, guztira, 105,6997 Ha-koa da. Horietatik 4,6079 ha hiri-lurzoru finkatugabearen jarduketei dagozkie.

A1. URBANIZAZIOA ERABERRITZEKO EDOTA BERRITZEKO JARDUKETA-INTEGRATUAK

Jarduketa-mota honetan, egungo urbanizazioaren lurzorua berritu eta hobetu behar dituzten eremuak onartzen dira, hirigintza-erlaldaketako jarduketaren bidez egin behar direnak.

Proposatutako jarduketa integratuen artean, hauek bereizten dira:

A.1.1 INDARREKO PLANGINTZAK BERE GAIN HARTUTAKO JARDUKETAK, EGIKARITZEN ARI DIRENAK.

Kategoria honetan jasota daude, indarreko Arau Subsidiarioen hirigintza-erlaldaketako eremuen edo jarduketa-unitateen hirigintza-erlaldaketako jarduketak. Horien izapidetzea eta garapena hasita dute, baina oraindik gauzatze-prozesua amaitu gabe daukate, ondorioz, indarreko legeriak hiri-lurzorua finkatuz hartzeko ezarritako baldintzak ez dituzte. Jarduketa horiek hiri-berrikuntzako jarduketa integratuz hartuko dira, plangintza orokorrean eta haren antolamendu xehatuko tresnetan ezarritako hirigintza-parametroekin.

Hauek dira gauzatzen ari diren hirigintza-erlaldaketa jarduketak:

Jl-HB-01 / Artiz
Jl-HB-02 / Forjas (Burdinolak)
Jl-HB-03 / Eizaga Berri 1
Jl-HB-04 / Kalebarren

Zumarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokor berriak bere gain hartuko ditu bere garapen-tresnek eremu horietarako ezarritako zehaztapenak. **Gauzatzen ari diren jarduketa integratuen azalera, guztira, 39.325 m²-koa da, indarreko plangintzaren jarduketa-unitateak eta antolamendu-eremuak direnak. Horiek guztiak bizitegi-erabilera orokorrekoak dira, eta guztira 650 etxebizitza eskaintzen dituzte. Horietatik, 212 etxebizitza eginda daude edo egungoak dira, eta beste 438 etxebizitza oraindik egiteke; horietatik 126 babes ofizialekoak dira (horietatik 44 eginda daude dagoeneko).**



KOKAPENA



Jarduketa-eremuaren kokapena



Proposatutako antolamendua.

ANTOLAMENDU-IRIZPIDEAK ETA -HELBURUAK

Indarreko AStako Z.2.1 Jarduketa-unitate zaharrak Zumarragako hiri-lurzoruaren erdiko eremua osorik berritzea planteatzen zuen, Iñigo de Loyola kalearen eta trenbide-sistema orokorraren artean.


Guztira 15.459 m² –ko azalerako eta bizitegi-erabilera orokorreko, hiriaren erdialdea osatzeko eragiketa estrategikoa zen, fatxada berria eratzeko, ganbila, Sekundino Esnaola kalearen ahurtasunari erantzuteko. Proposatutako antolamendua erdiko plazaren inguruan egituratzen da, Iñigo de Loyola kalera irteten dena eta egungo Telefonica eraikina barne hartzen duena, eta alboko bi plaza trenbide-sistema orokorrera irekitzen dira. Oinezkoentzako pasealekua proposatzen da trenbidearen ertz osoan.

Jarduketa honek Hiri Antolamenduko Plan Berezia du, 2009an behin betiko onetsia. Partzialki urbanizatuta eta eraikita dago, eta jarduketaren ekialdeko eremua bukatzeaz dago. Proposatu diren etxebizitza guztietatik 144 egin dira (babes ofizialeko etxebizitzak barne), eta 75 etxebizitza daude egiteke.

HIRIGINTZA-ZEHAZTAPENAK

HIRIGINTZA-PARAMETROAK			
IDENTIFIKAZIOA	JI-HB-01 ARTIZ		
EREMUAREN AZALERA (m2)	15.459	ETXEB. KOP. ORIENTAGARRIA	219
DENTSITATEA (etxeb/ha)	141	BABESTUTAKO ETXEBIZITAK	42
ERABILERA OROKORRA	BIZITEGIA	BIZITEGI-ERAIKIGARRITASUNA GUZTIRA (m ²)	21.770
BARNEKO SISTEMA OROKORRAK (m ²)	3.342	BIZITEGI-ERAIKIGARRITASUNA BE (m ²)	3.150
ERAIKIGARRITASUN OROKORRA (m ² /m ² l)	1,44	HIRUGARREN SEKTOREKO ERAIKIGARRITASUN (m ²)	500

ANTOLAMENDU ORIENTAGARRIA



Proposatutako hiri-ereduaren irudi orientagarria

JI-HB-02 / Forjas (Burdinolak)

KOKAPENA



Jarduketa-eremuaren kokapena



Proposatutako antolamendua

ANTOLAMENDU-IRIZPIDEAK ETA -HELBURUAK

Indarreko ASetako Z.2.3 jarduketa-unitate zaharra, Kalebarrengo errebaletako azken zatia berritzea planteatzen zuen, hiriaren iparraldean. Eremu horrek 8.000 m² ditu guztira, eta bat dator, besteak beste, Zumarragako Forja Industriaren kokapenarekin.

Jarduketa-eremuak honako muga hauek ditu: ekialdean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren GI-631 errepidea; mendebaldean, Urola ibaia, ondoko Urretxu ibaitik bereizten duena; iparraldean, Ipintza-eremuko lurrak; eta hegoaldean, Kalebarrengo errebala. Ekialdeko eta mendebaldeko mugen artean desnibela du, hala, Urola ibaia beheko sestran dago eta ekialdeko ertza 9 m gorago, gutxi gorabehera. Iparraldeko eta hegoaldeko mugak adierazitako desnibelera egokitzen dira, iparralderantz malda murriztuta eta hegoalderantz mailakatutako zenbait eraikuntzarekin gaindituta.

Antolamendu berria proposatzen da, bizitegi-erabilerak hartzeko, eremu horretako espazio publikoaren beharrak konpondu beharko dituen, eta harreman berriak antolatu beharko ditu ibaiaren aurrealderantz. Alde horretatik, eremua espazio zentralaren inguruan antolatu da, ibaira irekia. Eraikina atzealdean dago, bide-egiturarekin, GI-631 errepidearen paralelo, Piedad kalearekin bat egin arte.

Jarduketa honek Hiri Antolamenduko Plan Berezia du, 2021ean behin betiko onetsia, eta haren zehaztapenak Plan Orokor berriak bere gain hartzen ditu. Ez da hasi egikaritze-jarduerara.

HIRIGINTZA-ZEHAZTAPENAK

HIRIGINTZA-PARAMETROAK			
IDENTIFIKAZIOA	JI-HB-02 FORJAS		
EREMUAREN AZALERA (m ²)	7.645	ETXEB. KOP. ORIENTAGARRIA	120
DENTSITATEA (etxeb/ha)	156,96	BABESTUTAKO ETXEBIZIZTAK	44
ERABILERA OROKORRA	BIZITEGIA	BIZITEGI-ERAIKIGARRITASUNA GUZTIRA (m ²)	11.880
BARNEKO SISTEMA OROKORRAK (m ²)	380	BIZITEGI-ERAIKIGARRITASUNA BE (m ²)	3.520
ERAIKIGARRITASUN OROKORRA (m ² /m ² l)	1,68	HIRUGARREN SEKTOREKO ERAIKIGARRITASUN (m ²)	1.000

ANTOLAMENDU ORIENTAGARRIA



Proposatutako hiri-ereduaren irudi orientagarria

JI-HB-03 / Eizaga Berri 1

KOKAPENA



Jarduketa-eremuaren kokapena



Proposatutako antolamendua.

ANTOLAMENDU-IRIZPIDEAK ETA -HELBURUAK

Indarreko ASetako Z.2.2 Jarduketa-unitate zaharrak, Eizagako ibarbidean hilerriaren behealdea osatzea planteatzen zuen, egungo bizitegi-eraikuntza barneratuta.


Eremu honen antolamendua Eizaga Berri 2ko antolamendu mugakidean proposatutako ereduarekin lotuta zegoen. 4.000 m²ko eremuan, Eizagaberri urbanizazio berriaren kalerako bizitegi aurrealdea osatzea proposatzen da, ibarraren gainean parkera irekitzen den bloke linealarekin. Eremuak 1.360 m² eta 15 etxebizitzako aprobetxamendu finkatua duen egungo bizitegi-eraikuntza hartu behar du.

Jarduketa honek behin beti onetsitako honako tresnak ditu: Antolamendu Xehatuaren Aldaketa, Hiri Antolamenduko Plan Berezia, Birpartzelazio-proiektua eta Hirigintzako Jarduketa-programa. Urbanizatuta dago eta aurreikusitako eraikuntza egiteke dago, 50 etxebizitza.

HIRIGINTZA-ZEHAZTAPENAK


HIRIGINTZA-PARAMETROAK			
IDENTIFIKAZIOA	JI-HB-03 EIZAGA BERRI 1		
EREMUAREN AZALERA (m ²)	4.000	ETXEB. KOP. ORIENTAGARRIA	65
DENTSITATEA (etxeb/ha)	162,50	BABESTUTAKO ETXEBIZIZTAK	-
ERABILERA OROKORRA	BIZITEGIA	BIZITEGI-ERAIKIGARRITASUNA GUZTIRA (m ²)	6.360
BARNEKO SISTEMA OROKORRAK (m ²)	-	BIZITEGI-ERAIKIGARRITASUNA BE (m ²)	-
ERAIKIGARRITASUN OROKORRA (m ² /m ² l)	1,59	HIRUGARREN SEKTOREKO ERAIKIGARRITASUN (m ²)	-

ANTOLAMENDU ORIENTAGARRIA



Proposatutako hiri-ereduaren irudi orientagarria

KOKAPENA



Jarduketa-eremuaren kokapena



Proposatutako antolamendua.

ANTOLAMENDU-IRIZPIDEAK ETA -HELBURUAK

Indarreko ASetako Z.4.1 antolamendu-eremua da, 7.426 m²-ko azalerakoa. Kalebarren eta Okendo kaleek mugatzen dute, mendebaldean eta ekialdean, Piedad kalea hegoaldean eta Forjas de Zumarraga enpresa zaharraren jabetzako mugak iparraldean.

Plan Orokor berriak bere gain hartzen du Z 4-1 Kalebarren AREAREN Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren antolamendua, behin betiko onetsia 2018an. Plan Bereziaren xede nagusia inguruko etxebizitzak hobetzea da, bereziki bizigarritasun, irisgarritasun eta eraginkortasun energetikoari dagokienez. Beste alde batetik, salbuespen batzuekin bada ere, morfologia historikoa babesteko, jardueren oreka mantentzeko, kaltegarriak eta osasun arazoak sortzen ez dituzten guztiak mantentzeko, eta egungo zerbitzuak eta hiriguneak hobetzeko helburuak ditu.

Plan Bereziaren memorian ezarritakoaren arabera, hauek dira helburuak:

- Hiri-inguruko egitura mantentzea, ohiko partzelazioa eta eraikuntza-lerrokadurak zainduta, gutxienez irizpide orokor gisa, eta, kasu zehatzetan, egungo eraldaketa historikoa mantentzeko partzela-agregaziorako neurri espezifikoak aurreikusita.
- Hiri-inguruko izaera tradizionala indartzea plangintzan aurreikusitako eremu mugakideen garapenaren barruan.
- Eraikinak tipologiaren bidez ordeztzea, auzoaren eredu bereizgarriari jarraituta, haiek handituta, egungo beharrezko funtzionaleri eta ingurumenekoei egokitutako eredu tradizionalak eta eraikuntza soluzioak aplikatuta.
- Eraikin berriak arautzea, batez ere familia anitzeko eraikin historikoaren ereduarekin bat etor daitezkeen (partzelazioa eta profila eskala egokian).
- Eraikuntza gehigarri degradatzaileak kentzea eta atzeko fatxadak berreskuratzea.
- Merkataritza-erabilera sustatzea kategoria guztietan, betiere jardueren oreka mantenduta.
- Zuzkidura/kultura-laguntza-ekipamendua sortzea.

- Espaloia sortzea Okendo kalean eta "Z.2-3 Forjas" eremuarekin lotzeko bidean.

Eremuaren eraikuntza-proposamenak aurreikusitako eraikin berriak banan-banan egiteko aukera ezartzen du, egungo partzela-egituraren arabera, finka mugakideak biltzen dituzten bi jarduketak izan ezik (horietako hiru bi kasuetan).

Etxebizitza-kopurua asko handitu da (+134 etxeb.), batez ere ezarritako etxebizitza bakoitzeko azalera eraikiaren batez bestekoaren ondorioz (75 m²(t)/etxeb.) eta ez hainbeste bizitegi-eraikigarritasuna handitzeagatik.

Behe solairuko eraikuntza erabiltzeko baldintzak (3.559 m²(s)) honako hauek dira: sakonera eraikigarriaren lehenengo 15 m-tan (Kalebarrenetik) nahitaezkoa da hirugarren sektoreko erabilera jartzea eta etxebizitzei erantsitako beste erabilera batzuk (trastelekuak, zerbitzugelak...) eraikinaren gainerako zatian.

HIRIGINTZA-ZEHAZTAPENAK

HIRIGINTZA-PARAMETROAK			
IDENTIFIKAZIOA	JI-HB-04 KALEBARREN		
EREMUAREN AZALERA (m ²)	7.426	ETXEB. KOP. ORIENTAGARRIA	186
DENTSITATEA (etxeb/ha)	250	BABESTUTAKO ETXEBIZITZAK	-
ERABILERA OROKORRA	BIZITEGIA	BIZITEGI-ERAIKIGARRITASUNA GUZTIRA (m ²)	13.356
BARNEKO SISTEMA OROKORRAK (m ²)	-	BIZITEGI-ERAIKIGARRITASUNA BE (m ²)	-
ERAIKIGARRITASUN OROKORRA (m ² s/m ² l)	2,28	HIRUGARREN SEKTOREKO ERAIKIGARRITASUN (m ²)	3.559 ARTE

ANTOLAMENDU ORIENTAGARRIA



Proposatutako hiri-ereduaren irudi orientagarria.



A.1.2. EREDUA ALDATZEA PROPOSATZEN DEN INDARREKO PLANGINTZA-JARDUKETAK

Kategoria honetan sartzen dira berrikusten den plangintzan jadanik aurreikusita dauden jarduketak, garatu ez direnak eta aurreikusten zuten antolamendu-eredua aldatzen dutenak. Horien hirigintza-zehaztapenak eta antolamendu xehatua berrikusi dira, proposaturiko antolamendua hobetzeko eta bideragarriago egiteko.

Eredu-aldaketa proposatzen den ASetako hirigintza-eraldaketarako jarduketa JI-HB-04 / Ipintza identifikatutakoa da.

Ipintzaren jarduketa indarreko Arau Subsidiarioetako Z1.5 bizitegi-erabilera orokorreko lurzoru urbanizagarriaren sektorea da. Eremu hori oraindik ez da garatzen hasi, baina funtsezko eremuan dago hiriaren iparraldeko ertza osatzeko; dagoeneko egiten ari den Forjas eremuko jarduketaren mugakide da. Horregatik, lehentasuna du hirigintza-eraldaketarako jarduketa hori mantentzeak.

Hala ere, Plan Orokor berrian proposatu da eremu hori hiri-lurzoru finkatugabeko jarduketa integratua izatea. Bi partzela dira, hiri-lurzoruko bide publikora ematen dutenak (Kalebarren kalea), tamaina txikikoak. Horietako bat, azalera handienekoa, harrizko etxebizitza, ikuztegia eta iturria ditu, XX. mende hasierakoak, eta eraikin gabeko lurzoru atxikiak ditu. Bestea, aldiz, garai bereko hainbat solairutako bizitegi-eraikuntza da (katastroaren arabera).

Horren ondorioz, eremua berrantolatzea proposatzen da, hiri-lurzoru finkatugabeko jarduketa integratua izateko. Hau da, ASetako jatorrizko sektorean hirigintza-zehaztapen eta antolamendu-eredu berria ezarriko da, gainera, egungo baserria eta iturria hiriko zuzkidura-sisteman integratuko dira.



Ipintzako baserriaren eta iturriaren irudia

Arau Subsidiarioetan jatorria duten jarduketa integratuen azalera osoa, hiria berritzeko xedearekin, 4.795 m²-koa da, bizitegi-erabilera orokorrekoa, eta guztira 60 etxebizitza eskaintzen dira, horietatik 40 BOE dira.


Hona hemen proposatutako jarduketaren zehaztapen nagusiak:

JI-HB-05 / Ipintza

KOKAPENA ETA KOKALEKUA




Jarduketa-eremuaren kokapena



Proposatutako antolamendua

Kalebarrengo errebalaren amaieran dagoen jarduketa da. Eremu hori lurzoruak modu triangeluar samarrean osatzen du. Eremua birdentsifikatzea proposatzen da, berrikusiko den plangintzaren antolamenduarekin. Bizitegi-eraikigarritasuna egungo antolamenduan aurreikusitako 5.600 m²tik 6.283 m²ra handituko da, eta proposamen berri horrekin 60 etxebizitza eskainiko dira guztira.



Antolamendu orientagarria. 3D bista.

ANTOLAMENDU-IRIZPIDEAK ETA -HELBURUAK

Hona hemen jarduketa honen helburuak:

1. Antolamenduak hiri-inguruneari erantzun behar dio, bizitegi-eraikinen arteko espazio publikoen segidaren bidez, ibaiarekiko perpendikularrean jarriko direnak. Horrela, errepideak etxebizitzetan sortzen dituen eragozpenak murriztuko eta horietarako orientazio hobea lortuko da.
2. Bizitegi-erabilera orokorra etxebizitza kolektiboaren eskaintzarekin garatuko da, horietatik % 75 baino gehiago babes publikoko araubideren baten mende egongo da. Etxebizitzek BS+5,5 bizitegi-tipologia izango dute goiko solairu guztietan.
3. Behe solairuko Lokalak zuzkidura publikoetarako dira, eta sotoan etxebizitzan aparkalekuak eta trastelekuak egongo dira, bi etxebizitza-eraikin berrien arteko espazioa okupatuko dutenak.
4. Eraikuntza gabeko azalera edo inguruko lorategi txikiak erabilera publikokoak izango dira. Gainera, lurpean eraikina duena ere jabari eta erabilera publikokoa izango da.

HIRIGINTZA-ZEHAZTAPENAK

HIRIGINTZA-PARAMETROAK			
IDENTIFIKAZIOA	JI-HB-05 IPINTZA		
EREMUAREN AZALERA (m ²)	4.795	ETXEB. KOP. ORIENTAGARRIA	60
DENTSITATEA (etxeb/ha)	110,5	BABESTUTAKO ETXEBIZITZAK	40
ERABILERA OROKORRA	BIZITEGIA	BIZITEGI-ERAIKIGARRITASUNA GUZTIRA (m ²)	6.283
BARNEKO SISTEMA OROKORRAK (m ²)	0,00	BIZITEGI-ERAIKIGARRITASUNA BE (m ²)	5.094
ERAIKIGARRITASUN OROKORRA (m ² s/m ² l)	1,310	HIRUGARREN SEKTOREKO ERAIKIGARRITASUN (m ²)	0

ANTOLAMENDU ORIENTAGARRIA



A2. ZUZKIDURA-JARDUKETAK:

Kategoria honetan jasota daude eremuko egungo zuzkidurak gehitzea helburu duten jarduketak, irabazizko partzelaren hirigintza-eraikigarritasuna handitzearen ondoriozkoak.

Zumarragako Plan Orokor berriak proposatzen duen zuzkidura-jarduketa ZJ-01 / Industrialdea izenekoa da, industria-erabilera orokorrekoa, eta 6.754 m²-ko azalera du. Hona hemen proposatutako antolamendu-irizpideak eta -helburuak.

ZJ-01 / Industrialdea

KOKAPENA ETA KOKALEKUA



Jarduketa-eremuaren kokapena



Proposatutako antolamendua.

ANTOLAMENDU-IRIZPIDEAK ETA -HELBURUAK

Jarduketa hau Acería 2 sektorerako aurreikusitako jarduera ekonomioen garapen berriaren eta Urolako Industrialdean egungo hiri-sarearen arteko artikulazioa ahalbidetzeko proposamena da. Bide publikoa berriz urbanizatzea proposatzen da, sarbide berriak antolatuko dituen biribilgunea osatzeko, eta, aldi berean, egungo industrialdearen ertza osatzen duen zuhaitzia berdegune barneratzea. Horretarako, egungo industriako etxe-uhartea aldatuko da, hasieran aurreikusitako eraikigarritasuna baino handiagoa emango zaio, garapena trinkoagoa eta altuagoa izateko. Partzela bakoitzeko eraikigarritasun-garbiaren indizea 2,5 m²/m²-koa izatea proposatu da.


Proposatu den zuzkidura-jarduketak 2.787 m²ko azalerako espazio libre publikoa izango du, eta bide-espazioa handitu beharko du Acería 2 sektore berrira sartzeko biribilgunea jartzeko.

ANTOLAMENDU ORIENTAGARRIA.



Antolamendu orientagarria. 3D bista.





Hiri-lurzoru finkatuan porposatutako jarduketak.

B. HIRI-LURZORU FINKATUA

Hiri-lurzoru finkatua antolatzeko, HAPOn Aurrerakinak, bere antolamendu-helburuekin eta -irizpideekin bat eginda, hiri-sare bereizgarria eta bereizia duten lurzoru-eremuak bereiziko ditu. Horiek desberdinduko ditu erabilera orokor jakin bat edo erabilera xehatu nagusia dutelako, eta hiri-antolamenduaren beste eremu osagarri batzuekiko identifikatzeko moduko eraikuntza-tipologia homogeenak dituztelako. Horiek Hirigintza Antolamenduko Guneak dira, eta, printzipioz, Arau Subsidiarioetan ezarritako antolamendu- eta mantentze-eremuak onartzen dituzte. Honako hauek dira:

1. Kalebarren.
2. Eizaga.
3. Piedad Kalea.
4. Elgarresta.
5. Carretera La Antigua.
6. Bidaurreta Gain.
7. Kalebarren 15.
8. Zelai Aritzi Parkea.
9. Acería 1.
10. Industrialdea.
11. Jauregi.
12. U.G.L.E.
13. La Salle Legazpi Ikastetxea.
14. Faustino Orbegozo Fundazioa.
15. Kanposantua.
16. Mercedarias.
17. Argixao Kirolekua.
18. Urtubi.
19. Urtubi Parkea.
20. Geltoki aldea.
21. Joaquín Castañeda.
22. Ibaiondo.
23. Legazpi Kalea.
24. Zelai Arizti.
25. Euskadi Enparantza.
26. Soraluze.
27. Plaza Zaharra.
28. Bidezahar-Oquendo.
29. Elizkale.
30. Etxeberri.
31. Kalebarren 11-13.
32. Legazpi Etxe Aldea.
33. Legazpi Auzoa.
34. Urdaneta.
35. Paseo Esteban Orbegozo.
36. Busca Sagastizabal Ingurunea.
37. San Isidro.
38. Travesía.
39. Antonino Oraa-Leturia.
40. Mendizabal.
41. Argixao.
42. Bidaurreta.
43. Lorategi Hiria.

- 44. Beloki Hiribidea.
- 45. Bidaurreta Lorategi Hiria.

Zumarragako HAPOren Aurrerakinean hiri-lurzoru finkatuan egin beharreko jarduketan proposamenak helburu hauek ditu:

- 1º Zumarragako hiri-lurzoruko espazio publiko enblematikoak berrantolatzea, mugikortasun jasangarria sustatzeko;** besteak beste, Euskal Herria Hiribidea, Urolako Ibai Pasealekua eta Orbegozo, Ciudad Jardín eta Jauregi eremuek osatzen duten superetxe-irla. Jarduketa horiek eskala txikiagoko urbanizazio hobekuntzekin osatzen dira.
- 2º Gizarte-kohesioa eta hiri-paisaia hobetzea,** hiriko zuzkidurak garatzeko eremuak mugatuta, erreferentziako eremuko edo auzoko ekipamendu komunitarioaren maila handitzeko, aparkaleku berriak egiteko mugikortasun jasangarriagoa sustatzeko edo oinezkoen konektibitatea eta irisgarritasun unibertsala hobetzeko.

Zumarragako hiri-lurzoruaren azalera, guztira, 105,6997 Ha-koa da. Horietatik 8,7013 ha hiri-lurzoru finkatuaren jarduketei dagozkie.

Hirigintza-antolamenduaren egikaritzea ondorengo jarduketa modalitateetara egokituko da, hirigintza-legerian ezarritakoarekin bat eginda:

B1. ERAIKUNTZAKO JARDUKETA ISOLATUA

Hiri-lurzoru finkatuko Hirigintza Antolamenduko Gune (HAG) bakoitzaren baldintza partikularretara egokitutako eraikinen zuzeneko eta aparteko egikaritze-mota, hirigintza-betebeharrak edo kargak bete behar ez dutenak edota dagoeneko bete dutenak. Hori gauzatzeko, beharrezkoa izan daiteke partzelen berregokitze puntualak egitea, antolamendu xehatuta egokitzeko, edo urbanizazioko obra-osagarri puntualak egitea, indarreko hirigintza-legerian eta -plangintzan ezarritako moduan eta irismenarekin.

Plan Orokor berriak jarduketa isolatu hauek proposatzen ditu:

- Jl-01 / Ospitalea handitzea
- Jl-02 / Ipar-Haizea
- Jl-03 / Secundino Esnaloa Parkea
- Jl-04 / Mendizabal

Identifikatutako jarduketa isolatu guztiak jabari publikoko espazioen gainean proposatuta daude, eta hiriko zuzkidurak hobetzeko dira. Eraikuntzako jarduketa isolatuen azalera 10.360 m² da guztira. Horietatik 8.779 m² ekipamendu, aparkaleku eta hiri-konektore berriak eraikitzeko erabiliko dira eta 1.099 m² espazio libre berriak urbanizatzen dira.

Hona hemen proposatutako jarduketan zehaztapen nagusiak.

JI-01 / Ospitalea handitzea

KOKAPENA ETA KOKALEKUA



Jarduketa-eremuaren kokapena



Proposatutako antolamendua


Udal Zerbitzu Teknikoek helarazitako beharren ondorioz, Zumarragako Plan Orokor berriak Osasun eta Gerontologia Zentroa ekipamenduaren ipar-mendebaldeko lurzoruetara zabaltzea proposatzen du. Horren ordainetan, neurri berean, berdegune lineala espazio libreen sistema orokor kalifikatu da. Sistema horrek osasun instalazioak inguratzen ditu eta Mendizabalerantz sartzen da hegoaldean.

JI-02 / Ipar-Haizea

KOKAPENA ETA KOKALEKUA



Jarduketa-eremuaren kokapena



Irudi orientagarria

Mendizabal auzoko ekialdeari zerbitzu emateko ekipamendua eraikitzea proposatzen da, egun edukirik gabeko eremua okupatuta. Proposatutako esku-hartzearen xede da egungo plaza jardueraz hornitzea eta urbanizazio-baldintzak hobetzea, arboladiak eta lorategi handiagoak sartzeko irizpideak kontuan hartuta.

JI-03 / Secundino Esnaloa Parkea

KOKAPENA ETA KOKALEKUA



Jarduketa-eremuaren kokapena



Irudi orientagarria

Jarduketa hau Urola ibaiaren ertza berriz urbanizatzeko proposamenaren osagarri planteatu da, ibai pasealekua osatzeko. Proposatutako jarduketaren helburua da egoiliarrentzako aparkalekua eraikitzea, Urola kalea auto pribatutik askatzeko, oinezkoentzat eta motorrik gabeko beste moduentzako lekua handitzeko, eta eremuko ingurumen-kalitatea hobetzeko, lorategiak eta lerrokatutako zuhaitzak gehituta.

JI-04 / Mendizábal

KOKAPENA ETA KOKALEKUA



Jarduketa-eremuaren kokapena



Irudi orientagarria

Hiriaren eta Osasun eta Gerontologia Zentroaren arteko irisgarritasuna hobetzeko eragiketa estrategikoa da. Egungo plataformak eta eskailera-multzoak birkonfiguratzeko proposatu da, ekipamendu-pieza txikiei eta lorategi-eremuei lotutako hiri-konektore berriak (igogailuak) eraikitzeko eta hiriko ibilbide irisgarriak osatzeko.

B2. ZUZKIDURA PUBLIKOAK GAUZATZEKO JARDUKETA

Lurzorua eskuratzeko eta, ondorioz, espazio publikoak urbanizatzeko jarduketak dira, bide berriak irekitzera edo egungoak zabaltzera bideratutakoak, hiri-bilbearen konektibitatea eta iragazkortasuna hobetzeko, baita espazio libreetarako edota ekipamenduetarako lurzoru berriak lortzeko ere. Hiri-lurzoru finkatuan jarduketa isolatu horietarako lurzoruak nahitaezko desjabetzearen bidez eskuratuko dira. Aprobetxamendu-erreserbaren, erosketaren edo jabeekiko trukearen bidez ere lortu ahal dira, eta hirigintza-hitzarmenaren arabera doan lagako dira. Desjabetze ondorioetarako, zuzkiduretarako lurzoruak lortzeko jarduketa isolatu horiek guztiak onura publikokoak eta interes sozialekoak dira.

Zumarragako Plan Orokor berriak jarduketa-multzoa proposatzen du, hiriko zuzkidura-maila hobetzeko eta gizarte kohesioa zein mugikortasun jasangarria sustatzeko.

Hirirako zuzkidura berriak egiteko jarduketak honako hauek dira:

ZPGJ-01 / Hiri-konektorea Beloki

ZPGJ -02 / UGLE handitzea

ZPGJ -03 / Jauregi

Ekipamendu publikoak egiteko jarduketaren azalera, guztira, 6.728 m²-koa da. Horietatik 1.866 m² espazio libreetarako dira, eta 4.597 m² ekipamenduetarako zein hirirako aparkaleku berrietarako.

Hona hemen proposatutako jarduketaren zehaztapen nagusiak.

ZPGJ -01 / Hiri-konektorea Beloki.

KOKAPENA ETA KOKALEKUA



Jarduketa-eremuaren kokapena



Jarduketa-eremuaren kokapena aireko argazkiaren gainean

Hiri-hobekuntzako jarduketa horren esku-hartze eremua hirigunearen ekialdean dago, harengandik oso gertu hasi eta Beloki kaleko etxebizitzak, hilerria, Eizagaberi sektorearen garapena eta, zertxobait gorago, UGLE dagoen hegaletara iritsi arte. Esku-hartze eremuak 8.000 m² ditu. Horietatik 1.866 m² Espazio Libreen Sistema Orokorrerako izango dira eta beste 1.514 m² Hilerriarekin eta Eizaga Berrirekin bat egingo duten ekipamendurako, aparkalekurako eta hiri-konektore berrirako.

Esku-hartze estrategikoa da, Zumarragako erdigunearen eta bizitegi-eremuaren zein ekipamenduen arteko lotura hobetzeko. Proposamena “hiri-konektorea” da, mugikortasun bertikaleko sistema jasotzen duena, igogailua eta pasabidea, hiru solairuko aparkaleku-eraikina eta, horren gainean, jolas- eta aisialdi-eremuak dituen espazio libre berdea ditu.


ANTOLAMENDU-IRIZPIDEAK ETA -HELBURUAK

Hona hemen jarduketa honen helburuak:

1. Antiguako errepidearen (Beloki Etorb, Eizagaberri) inguruan ekialdeko hegaleko auzoen erdigunearekiko lotura hobetzea, irisgarritasun baldintza egokietan, igogailua eta pasabidea eraikita.
2. Era berean, bertako udal-ekipamenduen zentroaren lotura hobetzea. Lehenik, hilerriraino eta, bigarrenik, UGLEraino, Eizaga Berri eremuan hiri-igogailu osagarria eraikita.
3. Hirigunetik, ekialdeko hegaleko auzoetatik eta Antiguarekin lotzen duen errepidearen hasieratik gertu dagoen eremuko aparkaleku-eskaintza handitzeko beharrari erantzutea. Hiru solairutan banatutako 180 aparkaleku-plaza inguru hartuko dituen pieza planteatzen da.
4. Zentroaren eta ekialdeko hegaleko auzoen arteko lotura hobetzeko, berdegune librea sortuko da aparkaleku-piezaren estalkiaren gainean eta oinezkoentzako ibilbidean zehar, aisialdirako gunek izan ditzan; esaterako, kirol-kantxak edo haurrentzako jolasak. Hori guztia, auzoak zentroarekin "josteko".
5. Zumarragako auzoek zentroarekin duten irisgarritasuna hobetzen laguntzea, "bandera" jarduketa gisa, aurrerakin-dokumentu honetan konektibitatea hobetzeko aurreikusitako esku-hartzeen barruan.

ANTOLAMENDU ORIENTAGARRIA






Antolamendu orientagarria. 3D bista.

ZPGJ -02 / UGLE handitzea

KOKAPENA ETA KOKALEKUA



Jarduketa-eremuaren kokapena



Irudi orientagarria

Udal Zerbitzu Teknikoek helarazitako beharren ondorioz, hiriaren ipar-mendebaldeko ekipamenduak indartzea proposatu da, Urola Garaiko Lanbide Eskola (UGLE) handituta. Zumarragako Plan Orokor berriak 1.994 m² ekipamendu-sistema orokor kalifikatzea proposatzen du, UGLEekin jarraian dauden lurzorua, ekipamenduaren iparraldean daudenak, Beloki Hiribidearen eta Urtubiko bizitegi-eremuaren aurrean.

ZPGJ -03 / Jauregi

KOKAPENA ETA KOKALEKUA



Jarduketa-eremuaren kokapena



Irudi orientagarria

Jarduketa hau proposatzen da, 1.089 m²-koa, Lorategi Hiria, Orbegozo eta Jauregi auzoek osatutako etxe-uhartea berriro urbanizatzeko proposamenaren osagarri. Erabilera anitzeko ekipamendua da, bizilagunentzako intermodala eta aparkatzeko espazio berria, ondoko espazio publikoa automobil pribatutik libre uzteko.

B3. HIRI-HOBKUNTZAKO JARDUKETAK

Hiri finkatuaren eremuetan espazio publikoen sistema berriro urbanizatzeko eta birkalifikatzeko jarduketak dira, egungo urbanizazio-mailak hobetzeko eta azpiegitura- zein oinarritzko zerbitzu-sistemaren gabezia puntualak konpontzeko.

Plan Orokor berriak jarduketa-multzoa proposatzen du hirian hain bereziak diren espazio publikoak berrantolatzeke, hala nola: Urola ibaiaren ondoko pasabidea, Sekundino Esnaola kaleko pasabideen artean, Zumarragako sarbidea berriro urbanizatzea, Euskalerrria Hiribidea edo Orbegozo, Jauregi eta Lorategi Hiria auzoek osatutako eremuari “superetxe-uharte” kontzeptua aplikatzeko proposamena. Proposamen hori osatzeko, eskala txikiko bi esku-hartze egin dira Kalebarren – Ipintza inguruan, egungo bide-sistema eremuaren hirigintza-eraldaketarako proposamenen emaitzara egokitzeko.

Urbanizazioa hobetzeko jarduketak hauek dira:

HHJ-01 / Euskalerrria Hiribidea

HHJ-02 / Elgarresta Mendi

HHJ-03 / Urola ibai-pasealekua

HHJ-04 / Superetxadiak Orbegozo - Lorategi hiria – Jauregi

HHJ-05 / Biribilgune Piedad

HHJ-06 / Kalebarren (Ipintza)


Egungo urbanizazioa hobetzeko jarduketa integratuen azalera, guztira, 69.925 m²-koa da.

Hona hemen proposatutako jarduketaren zehaztapen nagusiak.

HHJ-01 / Euskalerría Hiribidea

Euskalerría Hiribideko lehen zatiaren eraldaketa, Udalak GI-2632 errepidearen erdiko zatia eraldatzeko aurreikusitako jardueraren osagarri planteatzen da. Proposatutako jarduketaren azalera 14.462 m²-koa da.


Euskalerría Hiribidearen diseinua berriz aztertzea proposatzen da, eremu publikoaren zabalera osoa hartuta, Antonino Oroaa-Leturía eremuari zerbitzu ematen dion bidea barne. Esku-hartzearen helburuak honako hauek dira: oinezkoentzako eremuak handitzea, bidegorrirako gordetako plataforma jartzea eta bidearen ingurumen-kalitatea hobetzea lerrokatutako zuhaitzekin. Garajeetarako sarbidea bermatzeko bizikidetzan bidea mantentzea proposatzen da.



Euskalerría Hiribideko lehen tarterako ebaketa-proposamena

HHJ-02 / Elgarresta Mendi

Jarduketa hau Zumarragako Udalak aurreikusitakoa da "GI-2632 errepidea Bulerizatzeko proiektua, 1. fasea, GI-631 errepidearekin eta Ospitalearekin gurutzatzen diren biribilguneen artean". Plan Orokor berriak Bulerizazio-proiektuaren erdiko tartean jasotako proposamenak onartu eta jaso ditu. Proposatutako jarduketaren gutxi gorabeherako azalera 9304 m²koa da.




GI-2632 errepidearen bulerizazio-proiektua, 1. fasea, GI-631 errepidearekin eta ospitalearekin gurutzatzen diren biribilguneen artean. Oinplano orokorra eta kokapena.



GI-2632 errepidearen bulerizazio-proiektua, 1. fasea, GI-631 errepidearekin eta ospitalearekin gurutzatzen diren biribilguneen artean. Proposatutako ebaketen adibidea.

HHJ-03 / Urola ibai-pasealekua

Urola ibaiaren ertza berriz urbanizatzeko jarduketa, Udalak hasitako eraldaketa osatzeko, Sekundino Esnaola kalearekin topo egin arte, eta oinezkoentzako lehenetako pasealeku publiko berria osatzeko. Jarduketa hau Sekundino Esnaola parkearen azpian aparkaleku publikoa jartzeko jarduketa isolatuaren osagarri planteatzen da, Urola kalea auto pribatutik askatzea ahalbidetuko duena. Oinezkoentzako plataforma gehiago jarriko duen eremu publikoa diseinatzea proposatzen da, hiriko zuhaitz gehiago egon daitezzen. Proposatutako jarduketaren azalera 4.334 m²-koa da. Garajetarako sarbidea bermatzeko, bizikidetzan bidea mantentzea proposatzen da.



HHJ-04 / Superetxiadiak Orbegozo - Lorategi hiria – Jauregi

Lorategi Hiriko, Orbegozoko eta Jauregiko auzoetako espazio publikoen multzoari buruzko hausnarketa orokorra egitea proposatzen da. Helburua eremu osoa berriz diseinatzea da, superetxe-uharte kontzeptua ezartzeko. Hor, eremu publikoa plataforma bateratutzat hartzen da, oinezkoentzako eta bizikletentzako bideak sustatzeko, ondare-balio handiko espazioaren ingurumen-kalitatea hobetzeko eta hirigunean auto pribatuaren presentzia minimizatzen. Eremu osoa (etxe-uharteak eta irabazizko erabilerako eraikinak kenduta) 37.578 m² da.

Jarduketa hori osatzeko, Beloki Pilotalekuaren ondoan, Esteban Orbegozo eta Urdaneta kaleen arteko kota-diferentzia konpontzeko, hiri-konektorea (igogailua) egiteko proposamena dago, eta Urdaneta kalearen hasieran, AcelorMittal enpresaren instalazioen aurrean, bizilagunentzako intermodala eta aparkalekurako espazio berria jarriko da. Jarduketa horretan Udalak Orbegozo auzoan jadanik aurreikusitakoak ere jasoko dira.



Superetxe-uharte eremuaren irudi orientagarria.

HHJ-05 / Biribilgune Piedad

KOKAPENA



Jarduketa-eremuaren kokapena

Piedad, Kalebarren, Okendo eta Elcano kaleen arteko elkargunea berriz urbanizatzea proposatzen da, gaur egun biribilgune txikiak artikulatzen duen elkargunea hobetzeko. Lotura berrian integratzeko gaitasuna duten aldameneko espazioei buruz gogoeta egitea proposatzen da, baita Okendo kalearekiko zerbitzu paraleloko kalean eta Elcano kalean oinezkoentzako espazioak hobetzea ere, gaur egun eremu publikoan automobil pribatua baita nagusi. Proposatutako jarduketaren azalera 2.311 m²-koa da.

HHJ-06 / Kalebarren (Ipintza)

KOKAPENA



Jarduketa-eremuaren kokapena

Kalebarren kaleko azken tartea berriz urbanizatzea proposatzen da, GI-631 errepidearekiko paraleloa den bide berriarekin bat egiteko, Forjaseko eta Ipintzako jarduketetan proposatzen dena. Proposatutako jarduketaren azalera 1.936 m² da.

3.1.3. LURZORU URBANIZAGARRIA

Aurrerakin honetan lurzoru urbanizagarria da aldatu gabeko eta Plan Orokorreko hirigintza-prozesuan jasotzeko hasierako gaitasuna duen lurzorua, lortu nahi den hiri/lurralde-ereduaren arabera eta indarreko arau xedapenetara egokituta. Planaren formulazioaren hurrengo faseetan, lurzoru urbanizagarriaren sailkapena ezar dezake kategorietako batzuetan, sektorizatua edo sektorizatu gabea, baldin eta honakoa ematen bada:


- Ingurumen Ebaluazio Estrategikoak egiaztatzea hasierako gaitasuna duela hirigintza-erlaketarako.
- Planak proposatutako egitura orokorra barneratzeko eta indartzeko gaitasuna berrestea. Bereziki, proposatutako sistema orokorren egitura orokorrekin ahalik eta koherentziarik handiena lortuta.
- Hirigintza-garapen berriak hiri finkatuan barneratzea, eraikuntza-jarraiaren ertzak osatuta, eremu mugakideekin ahalik eta artikulaziorik handiena lortzeko, eta, hartara, oraingo honetan modu positiboan, okupazio berriaren ondorioak bere onera itzultzeko. Horrela, hiri finkatuaren inguruan edo ondoko lurretan hazkunde-lurzoruko hirigintza-garapenak jartzea ezarritako gidalerroa jarraituko da, lurzoru horiek sakabanatzea saihestuta.
- Egungo eta aurreikusitako azpiegitura-sareen funtzionaltasuna eta inbertsioaren optimizazioa, honako hiri-zerbitzuak emateko: bideak, garraioa, ur-hornidura eta -hustuketa, energia elektrikoaren hornidura eta mota guztietako komunikazioak.
- Goierriko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialean aurreikusitako lurralde-antolamenduko estrategiarekiko koherentzia, betiere 2019ko LAGekin kontraesanean ez badago. Horrenbestez:
 - Lurzoru-kontsumoa optimizatzea, egungo guneei lotuta ez dauden garapen-eremu berriak sortzea saihestuta.
 - Lurzoru berrien beharrezan asetzea, ingurunean ahalik eta eragin txikiena izanda.
 - Lurzoru urbanizagarri berriaren proposamenak subsidiarioak dira, lehentasuna baitute plangintzaren ahalmen hutsa optimizatzeko aukerak.
- Lurzoru urbanizatuaren kontsumo- eta hazkunde-logika ezartzea, 2019ko LAGen irizpideen arabera.

Nolanahi ere, mugaketa horrek adierazten du, azken batean, gehienezko hedapen-hazkunderako proposatzen den ereduen aurrerakina, ez soilik alderdi fisikoan eta formalean, baizik eta hazteko aukerei ematen zaien eduki estrategikoan ere.



Hasierako onespenezko agiri osoan honako hauek bereiziko dira:

- a) Lurzoru urbanizagarri sektorizatua; plan orokorrak dagokion plan partziala egiteko mugatutako sektoreen lurzorua.
- b) Lurzoru urbanizagarri sektorizatu gabea: lurzoru urbanizagarri sailkatuta egon arren, plan orokorrean sektore baten ere jaso gabekoak dira. Horiek etorkizuneko urbanizazio berrien jarduketarako gorde dira, proposatutako eredu berriaren kokaleku egokiko lurzoruetan, nahiz eta Plan Orokorra egiteko unean benetan eraldatuak behar ez izan.

Lurzoru urbanizagarria / Suelo urbanizable

-  Sektoreak mugatzea /
Delimitación de sectores
- SUS-01 / Eizaga berri 2
- SUS-02 / Aceria 2

Zehaztapen grafikoak / Determinaciones gráficas

-  Hiri-lurzorua / Suelo urbano
-  Udalerria / Término Municipal



Lurzoru urbanizagarriko eremuak.

HAPOn Aurrerakinak (HDEn aukeratutako alternatibaren arabera) lurzoru urbanizagarritzat jotzen du 26,919 ha inguruko azalera, hau da, udalaren % 0,15; guztira, 4,13 ha sistema orokorretarako dira.

Zumarragako Plan Orokor berriko lurzoru urbanizagarriaren proposamena funtsezko bi printzipiotan oinarrituta dago: batetik, hirigune nagusiaren jarraia den hazkunde-eredua eratzea, eta, bestetik, egungo eredia berrikustea, oraindik garatu ez diren edo gauzatze-prozesua amaitu ez duten hazkunde-eremuak baititu. Alde horretatik, dagoeneko mugatuta dauden lurzoru urbanizagarriko eremuak berrikusi dira, eta hazkunde-eredua planteatu da, lurzoru urbanizaezineko eremu berriak ez sailkatzea proposatuko duena, baizik eta egungo lurzoruen proposamena berriz aztertzen duena, bi gidalerrotatik abiatuta:

- 1^a Landa-lurzoru sailkatzea garapen berrietarako beharrezkoak ez diren eremuak, hirigune nagusitik urrun eta ingurumenean eragin handia dutenak, Urola ibaiaren edo beste ibai-ibilgu batzuen mugakide direlako, hala nola: Etxeberri Berri eta Oiangurren sektoreak.
- 2^a Eizaga Berri 2n aurreikusitako bizitegi-garapenak berrantolatzea eta birdentsifikatzea, proposatutako eredia hobetzeko eta egungo antolamendua bideragarriago egiteko.
- 3^a Udalerriko jarduera ekonomikoak indartzea, Acería 2 sektorea mantenduta, eta egungo industrialdearekin artikulatutako proposamena osatuta, eremuko ingurumen-balioak zainduko dituen, hala nola: Urola ibaia eta gaur egun Industrialdea inguratzen duten baso-masak.

Lurzoru urbanizagarriko eremu hauek proposatu dira:

LUS 01 Eizaga Berri 2

LUS 02 Acería 2

Proposatutako lurzoru urbanizagarriko sektoreen azalera, guztira, 269.192 m² da. Horietatik 45.923 m² (% 17, 06) bizitegirako dira, 181.941 m² (% 67,59) industriarako eta 41.328 m² (% 15,35) sistema orokorretarako; azken horietatik 20.541 m² espazio librerako dira. Proposatzen den bizitegi-eskaintza 339 etxebizitzakoa da, eta horietatik 304 babes araubideren baten menpekoak dira.

Ondoren, aurrerakin-dokumentu honetan lurzoru urbanizagarri jasotako eremu bakoitzaren deskribapena egin da. Ondorio horietarako, berriro adierazi behar da antolamendu-eremuen identifikazioa ezin dela, eta ez dela parekatu behar lurzoru urbanizagarria eta horren sektorizatua zatitzeko hasierako onespren-agirian egin beharreko mugatze-lanarekin, ezta lurzoru urbanizagarri sektorizatugabeko eremuetan, ezta sistema orokorren eremuan ere, halakorik bada. **Izan ere, beharrezko mugaketa Ingurumen-azterketa Estrategikoarekin bat egingo da, Irismen Dokumentua igorri ondoren.**

LUS 01 / Eizaga berri 2

KOKAPENA ETA KOKALEKUA



Jarduketa-eremuaren kokapena



Proposatutako antolamendua.

Eizaga Berri 2-ren jarduketa bat dator indarreko Arau Subsidiarioetako Z1.4 bizitegi-erabilera orokorreko lurzoru urbanizagarriaren sektorearekin. Eremu hau garatzen hasi da, eta honakoak behin betiko onetsita ditu: antolamendu xehatuko aldaketa, berpartzelazio-proiektua eta urbanizatzeko jarduketa-programa. Gaur egun neurri handi batean urbanizatuta dago, eta eraikuntza-jarduerari ekin dio. Hala ere, urbanizazioa burutzeko zailtasunak ditu, eremuaren topografiaren eta proposatutako antolamendu-ereduaren ondorioz, eta Plan Orokor Berria idatzi zenetik, eremuko hirigintza-zehaztapenak eta antolamendu xehatua berrikustea planteatzen da, hiriaren bizitegi-garapen honen eta proposatutako antolamendu-ereduaren bideragarritasuna hobetzeko.

ANTOLAMENDU-IRIZPIDEAK ETA -HELBURUAK

Hona hemen jarduketa honen helburuak:


1. Egungo bide-sistema bi mailatan antolatzen da, goikoa eta behekoa, bi hegala osorik zeharkatuta. Horrela, urbanizazioa lurzorura hobeto egokitzea lortzen da, irisgarritasunari buruzko arau-baldintzak beteta. Proposamena erdiko parke handiaren inguruan egin da, Eizaga auzotik, izen bereko errekaaren goiko aldera. Horretarako, proposatzen den bidea (Eizagaberri kalea) ipar hegalaria atxikita igoko da, eta gero ekialdera, han Antigua Hiribidearekin bat egin ondoren, bere baitara goiko kotara itzultzeko, azkenik hilerriaren azpiko bidearekin lotzeko.
2. Funtsean, bi bide nagusi horietan bermatuko dira bi eraikuntza-lerroak. Funtsean, beheko ardatzean 15 m x 15 m-ko bloke-eskema eta blokeen artean 15 m-ko espazioak izango dituzte; goiko ardatzean, aldiz, 15 m x 22 m-ko beste bloke batzuk, 15 m-ko espazioekin tartean, hiruzuloka jarrita, interferentziak gutxitzeko.

3. Bizitegi-erabilera orokorra, etxebizitza kolektiboaren eskaintza garatuko dena; eta horren % 75 babes publikoko araubideren baten mende egongo da. Etxebizitzek BS+5,5 eta BS+5 tipologiak izango dituzte, solairu guztiak bizitegi-erabilerakoak. Egungo eraikinen ezaugarriak eta parametroak mantentzen dira.
4. Dentsitate txikiko etxebizitzak kenduko dira, eta goiko bideko etxebizitza-ardatza birdentsifikatuko da. Horretarako, ardatz horretan 22 m x 15 m-ko tipologia errepikatzea erabaki da.
5. Eremuaren iparraldeko hezkuntza-ekipamenduko partzela berrituko da, UGLE handitzea errazteko.
6. Etxebizitzen eta hilerriaren artean espazio librea dago. Bertan, ekipamendu pribatuko erabileradun eraikin txikia eta hiri-konektore berria (igogailua) jarriko dira, hilerriaren eta UGLEren arteko irisgarritasuna hobetzeko. Hiri-konektore hori Beloki Kalean proposatutakoarekin lotzen da, eta ibilbide irisgarria sortzen du, hiriko eremu honetarako, San Gregorioko behe kotatik UGLEren kotaraino.
7. Lehen hezkuntza-ekipamendurako zen espazioan beste espazio libre bat jarriko da, Eizaga errekarari lotua, eta aparkaleku txikia ere izango du.

HIRIGINTZA-ZEHAZTAPENAK

HIRIGINTZA-PARAMETROAK			
IDENTIFIKAZIOA	LUS 01 EIZAGA -BERRI 2		
EREMUAREN AZALERA (m ²)	45.922,50	ETXEB. KOP. ORIENTAGARRIA	399
DENTSITATEA (etxeb/ha)	86,9	BABESTUTAKO ETXEBIZITZAK	304
ERABILERA OROKORRA	BIZITEGIA	BIZITEGI-ERAIKIGARRITASUNA GUZTIRA (m ²)	35.858,00
BARNEKO SISTEMA OROKORRAK (m ²)	0,00	BIZITEGI-ERAIKIGARRITASUNA BE (m ²)	25.560,00
ERAIKIGARRITASUN OROKORRA (m ² /m ² l)	0,818	HIRUGARREN SEKTOREKO ERAIKIGARRITASUN (m ²)	1.719,00

ANTOLAMENDU ORIENTAGARRIA





NUEVO DESARROLLO
RESIDENCIAL

NUEVO ESPACIO LIBRE
PARQUE

Antolamendu orientagarria. 3D bista.

KOKAPENA ETA KOKALEKUA



Jarduketa-eremuaren kokapena



Proposatutako antolamendua..

Acería 2 enpresaren jarduketa bat dator indarreko Arau Subsidiarioetako Z1.2 industria-erabilera orokorreko lurzoru urbanizagarriaren sektorearekin. Eremu hori ez da garatu, hala ere, berrikusten den plangintzak, sektore hori egungo altzairutegiko lurzoruen gain mugatzen du; beraz, baditu lehendik dauden instalazio batzuk.

Plan Orokor Berria idatzi zenetik, eremuko jarduera ekonomikoak hartzeko bokazioa aitortzen da, Industrialdeko eta Acería 1. eremuko industria-lurzoruekin jarraian. Sektorea mantentzea proposatzen da, baina eremuko hirigintza-zehaztapenak eta antolamendu xehatua berrikustea planteatzen da honakoetarako: ondoko industria-sarearekin proposatutako garapena artikulatzeko; eremuaren ingurumen-kalitatea hobetzeko; egungo zuhaitziak babesteko eta Urola ibaiaren ingurua leheneratzeko; eta hiri-mailan azpiegitura berdea osatuko duten konektore berde berriak eratzeko.

ANTOLAMENDU-IRIZPIDEAK ETA -HELBURUAK

Hona hemen jarduketa honen helburuak:

1. Eremuaren irisgarritasuna hobetzea eta proposatutako garapena Industrialdeko industria-lurzoruekin artikulatzea. Ildo horretatik, GI-2632 errepideko sarbidea hobetzea eta Industrialdetik sektore berrirako sarbidea formalizatzea proposatzen da, azpiestazioaren atzetik artikulazio-bide berria sortuta.
2. Barne artikulaziorako bide-sarea garatzea, egungo bideak eta eremuaren topografiara ahalik eta gehien egokitzea aprobetxatuta.
3. Goiko kotetako zuhaitzia hiriko espazio libreen sistema orokor integratzea eta egungo sistema orokorrak ezagutzea: azpiestazio elektrikoa eta A-636 autobideko lurpeko pasabidea.

4. Sektorearen ingurumen-kalitatea hobetzea, Urola ibaiaren ingurunea eremu horretako espazio libreen sisteman barneratuta, eta konektore ekologikoaren funtzioa indartzea, gaur egungo hiriarekin bat egin arte. Konektore berde berriak eratzea, hirigunearen eta landa-eremuaren arteko harremanak egituratzeko eta sektorearen berezitasun topografikoa ezagutzeko.
5. Zuzkidura publikoak kokatzea, egungo instalazioak aprobetxatuta, industria-jarduera horren garapen historikoari lotutako etnologia-ondarea balioesteko.
6. Sektorearen antolamendu xehatuan sartzea hondakinak baloratzeko plantako eta araztegiko instalazioak, horiek mantentzea proposatzen da. Abiapuntuko aurrekari horiekin, industria-sarea proposatzen da, plataformen bidez eremuaren topografiara egokituta eta artikulazioko bide nagusiaren aurrean. Beheko kotetan dentsitate txikiagoko eta lurzoru gutxiago okupatzen duten industria-tipologia proposatzen da, eta barne-plataformetarako dentsitate ertainekoak, hirugarren sektoreko eskaintza osagarria garatzea ahalbidetuko duena. Goiko kotetan hondakinak baloratzeko planta mantendu beharko da eta errepedeei buruzko legeria sektoriala aplikatzearen ondoriozko afektazioak bete.

HIRIGINTZA-ZEHAZTAPENAK

HIRIGINTZA-PARAMETROAK			
IDENTIFIKAZIOA	LUS 02 ACERÍA 2		
EREMUAREN AZALERA (m ²)	45.922,50	ERAIKIGARRITASUN OROKORRA (m ² s/m ²)	0.19
ERABILERA OROKORRA	INDUSTRIA	INDUSTRIA-ERAIKIGARRITASUNA (m ²)	33.577,60
BARNEKO SISTEMA OROKORRAK (m ²)	41.328	GUTXIENKO HIRUGARREN SEKTOREKO ERAIKIGARRITASUNA (m ²)	8.394,40

ANTOLAMENDU ORIENTAGARRIA



Antolamendu orientagarria. Hiri-ereduaren planoak.

3.2. ERABILERAK ARAUTZEA

3.2.1 ERABILERAK LURZORU URBANIZAEZINEAN

Kategoria, azpikategoria eta baldintzatzaile-gainjarri bakoitzeko erabilerei dagokienez, Zumarragako HAPOk 2019ko LAGetan Ingurune Fisikoa Antolatzeko Matrizean ezarritakoa bete beharko du. Matrizeak irudikatzen duen araubidean antolamendu-kategoriak eta baldintzatzaile gainjarriak erabilera batzuekin eta besteekin gurutzatzen dira eta horiek arautzeko kodea ezartzen da:

- 1: Erabilera egokia. Oro har, lurzoru urbanizaezinaren berezko erabilerak dira, hau da: nekazaritza-, abeltzaintza-, basozaintza-, ehiza- edo antzeko erabilerak eta ustiapenak, lurrak beren izaeraren arabera erabilera baterako edo besterako izango dira. Hala ere, erabilera zehatz bakoitzerako araudi xehatuan ezar daitezkeen mugak eta bete beharreko gainerako araudia aplikatu ahal izango dira, eta, hala badagokio, horiek garatzeko beharrezkoak diren lizentziak edo baimenak lortu ahal izango dira.
- 2: Erabilera onargarria. Lurzoru urbanizaezinaren berezko erabilerak ez direnak dira, baina lurzoru mota honetan ezar daitezkeenak, landa-ingurunearen garapen jasagarriari laguntzen diotelako, edo lurzoru mota horretan kokatu behar direlako, jarduera horien ezaugarriengatik, betebeharrengatik edo xedeengatik. Proiektu bakoitza interes publikokoa dela deklaratu behar da Foru Aldundiaren ebazpenaren bidez, jarriko den Udalak alde zuzenetik eskatuta.

Erabilera onargarrien barnean:

- 2¹: Nekazaritza eta basozaintzako LPSean garatzen dena
 - 2*: Nekazaritza eta basozaintzako LPSa Trantsiziozko Landa Paisaian eta debekatua Balio Estrategiko Handian
 - 2²: Ibai eta Erreken LPSaren eta Plan Hidrologikoen bitartez garatua.
 - 2³: Babes-figura aplikagarriak dauzkate (NBAP, Urdaibaiko EKZP, KBE) edo Hezeguneen LPS
- 3: Erabilera debekatua. Bereziki debekatuta daudenak dira.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan identifikatutako erabilera orokorrak bost dira, Plan Orokorrean lurzoru urbanizaezinerako jaso behar direnak.

- Ingurumen-babesa.
- Aisia eta jolasa.
- Lehen sektoreko baliabideen ustiapena.
- Azpiegiturak.
- Eraikuntza-erabilerak.

Erabilera horien definizio zehatza eta baldintzak EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Aplikatzeko Arauen II. Eranskinean daude: Ingurune Fisikoaren Antolamendua.

EAEko INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDU -MATRIZEA 1- Egokia 2- Onargarria 3- Debekatua Garapen-plangintza ³ NBAP, EKGP Urdaibai, KBE, Hezeguneen LPS, Kostaldeko LPS	ERABILERAK					
	Ingurunearen babesa	Aisia eta astaldia	Lehen sektoreko ballabideen ustiapena		Azpiegiturak	Eraikuntza erabilerak
Kontserbazioa, Jarduera zientifiko-kulturalak						
Ehiza- eta arrantza-jarduerak Jolas-jarduera Estentsiboa						
Erauzketa-jarduerak Nekazaritza-industriak Abeltzaintza Nekazaritza						
Zakartegiak eta hondakin solidoak biltegitzeko espazioak A motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak B motako zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak Aireko linea elektrikoak Garraioideak						
Aurretik zeuden guneak oinarri dituzten hirigintza-hazkundera Aurretik zeuden guneak oinarri ez dituzten hirigintza- hazkunderak						
Onura publiko eta interes sozialeko eraikinak Instalaciones peligrosas						
						Bizitegi isolatua

BALDINTZATZAILE

GAINJARRIAK: Azpiegitura
Berdea

**Beren ingurune-balioengatik
babestutako guneak eta
Urdaibaiko Biosfera Erreserba**

1

2³

2³

2³

2³

3

**Korridore Ekologikoak eta
interes naturala duten beste
gune batzuk**

1

2

2

2

2

3

Azpiegitura Berdeari dagokien ingurune fisikoaren antolamendu-matrizearen erabilerak arautzea, 2019an onartutako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetatik aterata.

3.2.2. ERABILERAK HIRI-LURZORUAN ETA LURZORU URBANIZAGARRIAN

HAPOk hirigintza-erabileren esleipenen sailkapena ezarriko du, bertan garatu nahi den xedea zehazteko, baita horiek partzeletan ezartzeko baldintzak arautuko ere.

Planeamenduaren zehaztapen-mailaren arabera, hirigintza-kalifikazioari eta bateragarritasunari dagokienez, honako hauek bereiziko dira:

1º. Erabilera orokorra eta erabilera xehatua

- a. Erabilera orokorra edo berezkoa. Honakoen antolamendu orokorra definitzen duen hirigintza-xedea da: lurralde-eremua (hiri-lurzoruaren eraikuntza-eremu homogenea), hiri-lurzoru finkatugabearen barne-erreformako sektoreak zein areak, eta lurzoru urbanizagarri sektorizatuaren sektoreak. Eremuan nagusiki ezarritako erabilera orokorren multzo bakoitzaren barne dauden erabilera xehatuen multzoa adierazten du.

- b. Erabilera xehatua: plangintzak lurzoru jakin baterako aurreikusten duen xedea da, izaera nagusikoa (garapen-plangintzaren menpeko areen edo sektoreen azpieremuen kasuan), edo espezifikoa (partzelaren edo etxe-uhartearen kasuan), haren hirigintza-kalifikazioaren arabera.
- 2º. Erabilera xehatuaren intentsitatea. Horiek eskusiboak edo ez izan daitezke, garatzen diren partzelan edo eraikuntzan duten ezarpenaren intentsitatearen arabera:
- a. Erabilera eskusiboa: hura ezartzean partzela edo eraikin osoa okupatzen duena da, bai plangintzak baimendu duelako, bai plangintzak hala eskatzen duelako, berariazko kalifikazioa dela-eta edo eremuko baldintza partikularrak aplikatzearen ondorioz.
 - b. Erabilera ez-eskusiboa: hura ezartzean partzelaren edo eraikinaren zati bat okupatzen duena da, plangintzak hala eskatzen edo baimentzen duelako.
- 3º. Erabilera xehatuarekin bateragarriak diren erabilerak: partzelaren edo etxe-uhartearen berariazko kalifikazioaren erabilera xehatu nagusiarekin, batera edo modu osagarrian, ezartzeko baimena dutenak.

Erabilera bateragarriak honako izaera hau izan dezake, bateragarritasunaren mugapemilaren arabera:

- a. Osagarria: partzelan erabilera nagusiaren mende ezar daitekeen erabilera bateragarria da, hari lotuta eta mugatuta dagoelako.
 - b. Erabilera mugatua: erabilera nagusiarekin batera partzelan edo eraikinean bateragarria dena, harekin loturarik izan gabe. Hala ere, erabilera nagusia ez desnaturalizatzeko posizioan edo proportzio jakin batean mugatuta egongo da.
 - c. Alternatiboa: partzelan erabilera nagusiaren orde z ezar daitekeena, inolako murrizketarik gabe.
- 4º. Erabilera debekatua da, Plan Orokorrek edo hura garatzen duten tresnek ezartzen ez dutena, lurralde-eremuan antolamenduaren helburuak lortzea eragozten dutelako. Hauek dira erabilera debekatuak:
- a. Erabilera nagusiak edo eremuan bateragarriak ez diren erabilerak.
 - b. Erabilera bateragarriak, plangintzak horien ezarpenen intentsitate-mugak gainditzen dituztenean.
 - c. Plangintzak berak edo beste xedapen orokorrek eremuan horrela zehaztutakoak.
 - d. Lurralde- eta hiri-ereduarekin bateraezinak diren erabilerak.
- 5º. Erabilera publikoak eta pribatuak.
- a. Erabilera publikoak dira Administrazioak jabari publikoko ondasunean edo partikularrek zerbitzu publikoko erregimenean egiten dituzten jarduerak.
 - b. Erabilera pribatuak dira norbanakoek edo Administrazioak eskubide pribatuaren araubidean egiten dituzten jarduerak, irabazizkoak edo doakoak.

HAPOn jasotzea proposatzen diren erabilera orokorren definizioak honako hauek dira:

- 1º. BIZITEGI-ERABILERA OROKORRA. Xede nagusizat bizileku iraunkorra ematea duten eremuetan ezartzen den erabilera da, familien ohiko portaerekin gunea osatzen duten pertsonentzat, senideak izan ala ez.
- 2º. HIRUGARREN SEKTOREKO ZERBITZUEN ERABILERA OROKORRA. Zerbitzu Tertziarioen erabilera orokorrak edo berezkoak dira, zerbitzuak ematea helburu duten jarduerak, hala nola: merkataritza mota guztiak, informazioa, administrazioa, kudeaketa, bitartekotza finantzarioko jarduerak edo antzekoak, eta aisialdi eta harreman bizitzarekin lotutako jarduerak.
- 3º. INDUSTRIA-ERABILERA OROKORRA. Erabilera honen barne daude honako jarduerak: produktuak lortzea, lantzea, eraldatzea eta konpontzea; edota ondasunak, produktuak eta merkantziak gordetzea, zaintzea eta banatzea. Publikoarentzat hidro-erregaiak saltzen dituzten zerbitzuak ere jasotzen dira, baita ibilgailuetarako beste zerbitzu edo hornidura batzuk ere.
- 4º. ZUZKIDURA-ERABILERA OROKORRA. Erabilera horrek honakoetarako balio du: herritarrei gizarte-prestazioak emateko, garapen integrala eta ongizatea ahalbidetzeko, hiri-bizitzari dagozkion zerbitzuak emateko, eta, horrez gain, kirolguneen eta berdeguneen bidez, hiri-ingurumena eta -estetika berrerekatzeko eta herritarren aisia eta atsedena bermatzeko.
- 5º. OINARRIZKO KOMUNIKAZIO- ETA AZPIEGITURA-ERABILERA. Pertsonen, banakako zein taldekako garraio-ibilgailuen eta salgaien mugimenduak garatzen diren espazioei egiten die erreferentzia, baita horiek aparkatuta egotea ahalbidetzen dutenei ere, edo karga hausteko eragiketak eta bestelako lan osagarriak egiten diren guneei. Era berean, ondorengoak ere halakotzat hartzen dira: ur-hornidura, saneamendua eta arazketa, energia elektrikoaren eta gasaren hornidura, telefono zerbitzua, hondakin solidoen bilketa zein tratamendua, eta antzeko beste batzuk, zerbitzu horien hornidura-, kontrol- eta kudeaketa-jarduerak barne.

Erabilera orokorrak edo berezkoak erabilera xehatueta garatuko ditu Plan Orokorrak berak edo garapen-plangintzak.

3.3. SISTEMA OROKORREN SAREAK

EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 54. artikuluan ezarritakoaren arabera, plangintza orokorrek ezarritako egitura-antolamenduko zuzkidura-elementuen multzoak sistema orokorren sarea osatzen du, bereziki honakoek: espazio libreek, ekipamendu kolektibo publikoek zein pribatuek eta komunikazio-azpiegiturek eta -sareek, horien funtzionalitateak eta zerbitzuak plangintza-eremu bat baino gehiago hartzen baitituzte.

Sistema orokorren sareak HAPOk beharrezkotzat jotzen dituen elementu guztiak jaso beharko ditu, hiri-bilakaerarako eta lurzoria okupatzeko hartzen duen estrategiarekin bat eginda.

Aurrerakin honetan honako hauek hartzen dira kontuan:

3.3.1. KOMUNIKAZIO-SISTEMA ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIA

Komunikazio-sareak, beren egituratze-eraginagatik, espazioaren antolamenduko faktoreak bihurtzen dira. Zumarragaren kasuan, komunikazio-sistema orokorrek oinarritzko bi osagai ditu: bide publikoak, oinezkoen eta ibilgailuen zirkulaziorako sarea, zuzkidura-sareko elementu guztiak elkarrekin lotzen eta komunikatzen dituen eta sare bakarra balitz funtzionatzea bermatzen duena; egungo trenbide-sistema, eta motorrik gabeko garraiobideak ezartzeko oinarritzko sarea, proposatutako Azpiegitura Berdean aipatutako ekologia-konektorearen eta hiri-sarbidearen funtzioak betetzen dituzten elementuekin osatua, eta lurzoru urbanizaezinari buruzko atalean aipatutakoak.

A. BIDE PUBLIKOEN SAREA

Bide publikoen sareak, beren egituratze-eraginagatik, espazioaren antolamenduko faktoreak bihurtzen dira. Horretarako, sistema berriz diseinatu behar da, bai alderdi funtzionaletan, bai morfologikoetan, lurralde- eta funtzio-egiturak hobeto egokitzen lagunduta. Horren ondorioz sortzen diren bide publikoek sarea osatzen dute, eta sare horrek trafiko-fluxuak hobeto antolatzen laguntzen du, sistema morfologikoki ordenatua eta funtzionalki gai dena hiri-mugikortasuna nabarmen handitzeko.

Proposatutako sarea, jakina, egungoan du abiapuntua, hori hobetzeko eta osatzeko beharrezko berrikuntzak bakarrik jasota. Bigarren mailako bideak, sarerako proposatzen den hiri-ikuspegitik, protagonismo handia hartzen du, trafiko-kanal espezializatuagoen osagarri izango den funtzioaren ondorioz. Era berean, bide-sistema osoaren ulermenean funtsezkoa da bideen hierarkizazioa, bide-multzoa sistematzat ulertzeko modua.

Plan Orokor Berriaren Aurrerakin honek planteatzen duen hierarkizazioa sareko tarteei zenbait balorazio irizpide aplikatzearen ondorioa da, hala nola:

- Kontuan hartzea bide sareak oinarritzko bi eginkizun dituela: garraiobidea eta jardueren euskarria. Aldi berean, bide publikoen sareak lurraldeko zatiak komunikatzen ditu, eta horiek, gertutasunaren arabera, bideen eragin-eremua zehazten dute: hiriartekoa, hirikoa edo eskualdekoa.
- Bide publikoen sarea kualitatiboki bereizteko beste elementu batzuk horren diseinuan erabilitako parametroak dira, hala nola: zirkulazio-abiadura, distantziak eta korapilomotak, etab. Era berean, horien trafikoaren osaera eta ezaugarriak ezartzen dituzte.

- Bide ertzetan egiten diren erabilerek ere (etxebizitza, industria, merkataritza, bulegoak edo beste batzuk) izaera jakin bat ematen diote, eta horrek erabilera modu espezifikoa dakar berarekin.

Irizpide horiek kontuan hartuta, dokumentu honetan proposatzen den Zumarragako bide artikulatzailea oinarrizko bi maila hierarkikotan egituratu daiteke: lurralde- eta hiri-maila.

A.1. LURRALDE-MAILAKO BIDE PUBLIKOAK

Foru bideen mailarekin bat datozenak, honako hauek dira:

- A-636 Autobidea, Beasainetik Durangora, Kanpanzarretik
- GI-2632 Errepidea, Beasainetik (N-I) Elorriora
- GI-3801 Errepidea, Antiguako Baselizara (Zumarraga)
- GI-3802 Errepidea, San Cristobaleko Baselizara (Zumarraga)
- GI-3803 Errepidea, Aginaga auzora (Zumarraga)
- GI-63 Errepidea, Zumaiaetik Zumarragara

A.2. HIRI-MAILAKO BIDE PUBLIKOAK

Sistema orokor hauek bereizten dira: hiriko irisgarritasuna eta barne-mugikortasuna bermatzea eginkizun nagusizat dutenak, trafiko-fluxu nagusiei euskarria emanda eta hiribilduko hiri-antolamenduaren egiturak sektoreetan eta auzoetan artikulatuta.

Honako hauek dira:

- Artiz kalea
- Urdaneta kalea
- Islas Filipinas kalea
- Secundino Esnaola kalea – Iparragirre
- Bidezar kalea
- Kalebarren kalea
- Beloki kalea
- Eitzaga Berri kalea – San Gregorio
- Ipar-Haizea kalea Etxetaldea – Izazpi Auzoa Etxetaldea
- Argixao kalea Etxetaldea – Angen Cruz – Sakabanatuak
- Zumarraga Industrialdea kalea– Altzairutegia 2.

B. TRENBIDE-SISTEMA




Zumarragako trenbide-sistema Madril-Irun lerro konbentzionalak, Irun-Brinkola aldiriko trenak, eta Zumarragako geltokiak (proposamenean finkatu nahi denak) osatzen dute zentraltasun- eta intermodalitate-espazioa sendotzeko.

Gaur egun, zerbitzu hauek daude herrian:




- a) Aldirikoak: tren-geltokiaren trafikorik handiena Irun eta Brinkola (Legazpi), Donostiatik, lotzen dituen C-1 lerroko aldiriko trenak osatzen dute.
- b) Distantzia ertaina: Renferen Distantzia Ertaineko zerbitzuen 25. lerroa, Irun eta Miranda de Ebroren artekoa, egunean 3 aldiz dago, bi noranzkoetan. Tren batzuk helmugatzat dute, eta beste batzuk ordea, bere bidea jarraitzen dute Madrileraino.


Lurraldeko bide-sarea / Red viaria territorial

Bide-hierarkia/ Jerarquía viaria

-  Hiriarteko bideak / Viario interurbano
-  Lurrazpiko hiriarteko bideak / Viario interurbano soterrado
-  Landa-herriguneetako tokiko sarbide-sarea / Red local de acceso a núcleos rurales

Zehaztapen grafikoak / Determinaciones gráficas





-  Hiri-lurzorua / Suelo urbano
-  Lurzoru urbanizagarria / Suelo urbanizable
-  Udalerria / Término Municipal






Lurralde-mailako bide-sarearen eskema.


Hiriko bideak / Viario urbano

Bide-hierarkia/ Jerarquía viaria

-  Hiriararteko bideak / Viario interurbano
-  Lurrazpiko hiriararteko bideak / Viario interurbano soterrado
-  Landa-herriguneetako tokiko sarbide-sarea / Red local de acceso a núcleos rurales
-  Hiriko bide nagusiak / Viario urbano principal

Zehaztapen grafikoak / Determinaciones gráficas

-  Hiri-lurzorua / Suelo urbano
-  Lurzoru urbanizagarria / Suelo urbanizable
-  Udalerria / Término Municipal



Hiri-mailako bide-sarearen eskema.

- c) Distantzia luzea: egunero bi Alvia tren daude, Madrilekin lotzen direnak, eta bat Bartzelonarekin. Gainera, Galiziara zeharkako ibilbidea egin daiteke Intercity trenari esker.

Zumarragako geltokia eta haren ingurua, 2011. urteaz geroztik, eskualdeko intermodala eratu da, eta bertan hainbat garraio-bide konbinatuko dira, hala nola: trena, autobusa, autoa eta bizikleta. Horretarako, erabakigarria izan da bi solairuko lurrazpiko aparkalekua eraikitzea, bata 128 plaza birakariarekin eta bestea 90 garaje itxirekin. Halaber, lurrazaleko aparkalekua ere jarri da, bost autobusentzat, lau hiriartekoak eta bat hirikoa. Halaber, geltokiko eraikinaren aurrean zazpi plaza banatu dira, taxi eta geraleku laburretarako. Eremu osoa zeharkatzen duen bidearekiko paralelo, bidegorriaren trazadura ere igarotzen da.

Eremu osoa berrantolatuenez, oztoporik gabeko azalera handia sortu da, plaza bat, erabilera anitzeko jarduerak egiteko egokia.

C. LURRALDE IZAERAKO MOTORRIK GABEKO GARRAIOBIDEEN OINARRIZKO SAREA

HAPOn Aurrerakinean jaso dira, komunikazio-azpiegiturako ereduaren osagaien artean, egungo landa-bide publiko nagusien sarea. Izan ere, Zumarragan komunikaziorako egitura-elementua da, landa-ingurunearen gaur egungo eta etorkizuneko garapenerako funtsezkoa, beraz, turismo-sektoreari laguntzeko oinarri izan daiteke, eta, aldi berean, herritarrek naturarekin harreman hobea izan dezakete.

Izan ere, nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera modernizatzeko ahaleginak ekoizpen-, eraldaketa- eta merkaturatze-faseetan komunikazio-sarea egokia behar du, prozesuaren erritmoaren arabera, pertsonen eta salgaien joan-etorrira egokitua. Era berean, ezinbestekoa da landa-ingurunean sortzen hasi diren jarduera ekonomiko berriak garatzeko bereziki diseinatutako bide-egitura izatea, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren ohiko jardueren osagarri. Jarduera horien artean, aipatzekoa da landa-turismoa eta kalitatezko produktu endogenoak balorizatzen dituzten enpresa txikiak etorkizun oparoan garatzen ari direla.

Planak helburu hauek ditu landa-bide publikoen sareari dagokionez:

- Bere araubidea garraioaren egungo beharretara egokitzea, erabiltzaileen segurtasuna eta erosotasuna hobetuta.
- Ondare publikoa eta haren elementu funtzionalak komunitatearen zerbitzurako ondaretzat defendatzea.
- Bide-sarearen hobekuntzak eta erabilerak landa-ingurune ingurumenera egokitzea.


Bestalde, landa-ibilbideen, nagusien eta bigarren mailako sare horrek motordun garraio-bideen ordezkoen sustapena bermatu nahi du, eta aukera ematen du natura- edo aisia-paseoen sarea artikulatzeko, Hiria-Natura jarraipen-erlazioa ezarrita. Lotura hori inguruko beste udalerrietara ere zabal daiteke, udalaz gaindiko lurraldea benetako erakunde funtzionala izanda.

BNBidepublikoNagusiak/Caminospúblicosprincipales		
Código identificación Identifikazio kodea	Nombre Izena	Barrio o Paraje Auzoa edo Ingurua
016001BN	Olaarte	Leturia
016002BN	Leturiabarrena	Leturia
016003BN	Izuzkitza	Leturia
016004BN	Urruzti	Agiñaga
016005BN	Txerren	Agiñaga
016006BN	Zumakorta	Agiñaga
016007BN	Martiamuno	Agiñaga
016008BN	Urdanbieta	Agiñaga
016009BN	Aizkibel	Leturia
016010BN	Atxibita	San kristobal
016011BN	Oraagoikoa	San kristobal
016013BN	Areitzagabaso	San kristobal
016014BN	Aranburualdekoa	Aranburu
016015BN	Aizpuru	Antio
016016BN	Osinalde	Elorriaga
016017BN	Arizti	Antio
016018BN	Soraizbazterra	Soraiz
016019BN	Izagirre Enea	Soraiz
016020BN	Aldasbarren	Elgarresta
016021BN	Egibide	Elgarresta
016022BN	Korta	Elgarresta
016023BN	Urezandi	Elgarresta
016024BN	Goiburu	Antio
016025BN	Elorriagaazpikoa eta Elorriagarakoa	Elorriaga
016026BN	Anduezu	Etxeberri
016027BN	Abeletxe	Aranburu
016028BN	Gerraerrot	Etxeberri
016030BN	Ugarte	Soraiz

BMB Bigarren Mailako Bide Publikoak / Caminos públicos red secundaria			
Código identificación Identifikazio kodea	Nombre Izena	Nombre antiguo Antzinako izena	Barrio o Paraje Auzoa edo Ingurua
016001BMB	Ondarra-San Kristobal- Pagotxeta bidea	Camino vecinal de Ondarra a Azpeitia	San Kristobal
016002BMB	Udaga-Pagotxeta bidea		Elorriaga / Pagotxeta
016003BMB	Eitzaga-Argisao bidea	Camino vecinal Eizaga a Arguisano	Elgarresta
016004BMB	Argisaoerreka bidea	Cam. casería Aguirre echeverri -campos de Arguisano	Argisaoerreka
016005BMB	Kortagaña eta Kurutzezar bidea	Cam. De Aldasbarren al paraje de Cortaburu y otros	Elgarresta
016006BMB	Matxain-Argisao bidea	Camino vecinal Machain a Arguisano	Elgarresta
016007BMB	Olaarte-San Kristobal bidea		San Kristobal
016008BMB	Agiñaga-Pagozurieta-Oleta-Pagobakarra-Pagotxeta bidea		Agiñaga
016009BMB	Antioko bidea	Cam. Basílica a Gurruchaga de abajo y otro a Curuzondo	Antio
016010BMB	Izuzkitza - Azkoitia bidea	Camino vecinal de Leturiondo a Azcoitia	Agiñaga
016011BMB	Urruzti-Errepelde bidea		Agiñaga

Bide publikoen sarea / Red de caminos públicos

- | | |
|--|--|
|  Bide publiko Nagusiak /
Caminos públicos principales | Zehaztapen grafikoak / Determinaciones gráficas |
|  Bigarren Mailako Bide publikoak /
Caminos públicos red secundaria |  Hiri-lurzorua / Suelo urbano |
| |  Lurzoru urbanizagarria / Suelo urbanizable |
| |  Udalerria / Término Municipal |



Bide-sarearen eskema.

016012BMB	Agiñaga - Azkoitia bidea		Agiñaga
016013BMB	Izuzkitza - Agiñaga bidea		Agiñaga
016014BMB	Izuzkitza - Urdanbideta eta Muxika bidea		Agiñaga
016016BMB	Aizpuru - Areazuloeta bidea	Cam. De la Basílica a las casas de Ibarreta	Antio
016017BMB	Beloki bidea		Elorriaga
016018BMB	Amezti baso bidea (Ibilbidea / Recorrido paisajístico)		Elorriaga
016019BMB	Oraagoikoa - Aranburu	Cam. De Iburreta a las de Altzola y otros parajes	San kristobal
016020BMB	Kortaberri - Pagobakarra bidea		Leturia
016021BMB	Ibarguren-Antio bidea	Cam. Vecinal Ibarguren a La Antigua	Antio

BMB Bigarren Mailako Bide Publikoak / Caminos públicos red secundaria			
Código identificación Identifikazio kodea	Nombre Izena	Nombre antiguo Antzinako izena	Barrio o Paraje Auzoa edo Ingurua
016022BMB	Etxeberri-Kortaberri bidea	Cam. Vecinal de Echeverri a Cortaberria	Leturia
016023BMB	Saltsamendi-Sagaspe-Elorriagarakoa bidea	Cam. De la Basílica a Salsamendi	Soraiz
016024BMB	Soraiz- Ugarte bidea	Cam. De Urrutia hacia la regata de Ugarte	Soraiz
016025BMB	Saltsamendi-Ugarte bidea		Soraiz
016026BMB	Ibarguren - Antio bidea Ariztitik joanda	Cam. Ibargurenecheverri a La Antigua por Arizti	Soraiz
016027BMB	Antio - Egi bidea	Cam. De la Basílica a la casa de Echeverri Lizarazu	Antio

D. KOMUNIKAZIO-SISTEMAREN ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ARTEKO ERLAZIOA.

Mugikortasun jasangarriko ereduak “mugikortasunaren piramidetik” eratorritako printzipioak izan behar ditu oinarri.

Mugikortasunari buruzko proposamenak bat datoz mugikortasun jasangarriaren aldeko apustuarekin, hau da, udalerriko bizigarritasun-baldintzak hobetzearekin, bai bizilagunentzat, bai bisitarientzat.

Esan bezala, hiri-mailako sare nagusia hiriko sektore edo auzo bakoitzaren barne-egitura antolatzen duen sarearekin osatzen da. Sare honek, hedapen handiena duenak, bere ertzetako jarduera guztiei sostengua eta sarbidea ematen die, bai ibilgailuentzat, bai oinezkoentzat. Espazio pribatua utzi ondoren, publikoarekin lehen topaketa sare horrek egiten duenez, mugikortasun jasangarrirako duen protagonismoa ukazina da, eta horrek herritar askoren bizi-kalitatea hobetzea dakar.

Lortu nahi diren helburuak lortzeko, HAPOn izaera desberdineko neurriak proposatu behar dira, 2015eko Hiri Mugikortasun Jasangarriko Planaren proposamenekin zerikusia dutenak. Proposamen horiek oraindik ere indarrean daudela esan daiteke, eta jarduketa berrien proposamenarekin osatzen dira.



D.1. OINEZKOEN MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA SUSTATZEA, HONAKO HAUETARAKO:

- Oinezkoen mugikortasuna hiriko joan-etorrietarako bide nagusi finkatzeko.
- Udalerriko goiko eta beheko aldeen arteko oinezkoentzako lotura hobetzeko.
- Oinezko ibilbideen erosotasuna eta erakargarritasuna handitzeko.
- Espazio publikoan egoteko kalitatea hobetzeko.
- Egungo oinezko ibilbide nagusietarako alternatiba zuzenagoak ezartzeko.

Neurri nagusi hauek proposatzen dira:

- Maldaren inpaktua murrizteko hobekuntzak, **mugikortasun bertikaleko sistema mekanikoak ezarrita**. Hiri-konektore berriak proposatzen dira Beloki, Eizaga Berri, Mendizabal eta Udal-frontoian.
- Oinezkoen iragazkortasuna hobetzea**, batez ere, **Euskal Herria Hiribidean** (trenbide-pasaguneen edota pasabide goratuen bidez) eta **trenbide-lerroan** (azpiko pasaguneen edo pasabide goratuen bidez)
- Bidegurutzeetan eta tarteetan diseinua hobetzea**, bereziki hurrengoetan.
 - Bidegurutzeak:** Elizkale, Ospitalerako sarbidea, San Gregorio–kiroldegia, Sekundino Esnaola – Legazpi, Bidezar-Piedad, Euskal Herria Hiribideko biribilgunea- Arcelor, eta Sekundino Esnaola -Iparragirre
 - Tarteak:** Islas Filipinas, Artiz auzoa-Arcelor, Plaza de los Leturia-Argixao kiroldegia, La Salle-Legazpi sarbidea, Urola kalea eta Euskal Herria Etorbidea
- Bide-sisteman **oinetzkoentzako espazioa pixkanaka handitzea**, bai hiribide nagusian, bai tokikoenean. **“Isuri gutxiko guneak” ezartzea.**
- “Ttipi Etapa” programa bezalako ekimenak indartzea**, nagusiek ohitura osasuntsuak har ditzaten hiriko kaleetan ibilita eta sozializatuta.

6. **Super etxe-uharte kontzeptua** honakoek osatzen duten eremuan aplikatzea: Bidezar, Iparagirre eta Legazpi kaleek; Udalaren inguruan; Orbegozo, Lorategi Hiria eta Jauregi auzoek osatutakoa eta Mendizabal auzoan.
7. **Eskola-bide seguruak.** Azkenik, Eskola Bide Seguruaren Programa proposatzen da oinezko mugikortasuna sustatzeko eta hiri-kalitatea zein herritarren bizikidetzaren berreskuratzeko neurritzat. Programa horren bidez, gurasoen/irakasleen tutoretzapeko ibilbideak sortzen dira, ikastetxeetatik hurbilen dauden bizitokiak horiekin lotuko dituztenak, ibilbidean zehar dauden segurtasun-baldintzak berrikusita eta haurtzarotik mugikortasun jasangarriaren kontzientzia sortzen lagunduta.

D.2. BIZIKLETA BIDEZKO MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA SUSTATZEA, HONAKOA LORTZEKO:

- a. Bizikletaren erabilera areagotzea. Izan ere, herritarren ustez, bizikletaren erabilera ez da segurua, beraz, bide-segurtasuna bermatu behar da, eta, aldi berean, herritarren kontzientziatu behar dira bizikleta ohiko garraiobide erabil dezaten.
- b. Bizikleta-sarea finkatzea, batez ere udalerraren beheko aldean mugitzeko baliabidetzat.

Neurriak:

1. **Gipuzkoako Bidegorrien Planeko IT06 bizikleta-ibilbidea garatzea** Foru Aldundiak, gutxienez Ezkio-Itsasorekiko lotura.
2. Gipuzkoako Bidegorrien Planeko IT05 eta IT06 osatuko dituzten **oinarrizko hiri-ardatzak garatzea.**
3. **Bizikletentzako aparkalekua** herriko ikastetxe, ekipamendu eta espazio nagusietan.
4. **Herritarrak kontzientziatzeko neurriak.** Ikastetxeetan bizikleta garraiobide modu seguruan erabiltzeko kanpaina egitea. Epe laburrean ez da kontuan hartuko bizikleten mailegatzeko sistema ezartzea, aurreikusitako erabilera-maila txikia delako. Epe luzera, bizikletaren erabilerari buruzko kontzientziazio-neurriak finkatu ondoren, hura instalatzea planteatu liteke.
5. **Hiriarteko bizikleta-ibilbideak sortzea, Urretxurekin lotzeko eta bizitegi-eremuak industriakoekin artikulatzeko.**

Motorizatu gabeko sareak / Redes no motorizadas

Bidegorria-sarea / Red de carriles bici


- Dagoen bidegorria / Carril bici existente
- - - Proposatutako bidegorria / Carril bici propuesto

Oinezkoentzako sareak / Redes peatonales

- Lehendik dagoen igogailu publikoa / Ascensor público existente
- Proposatutako igogailu publikoa / Ascensor público propuesto
- - - Oinezkoen ibilbide / Recorrido peatonal

Zehaztapen grafikoak / Determinaciones gráficas

- Bide publiko Nagusiak / Caminos públicos principales
- - - Bigarren Mailako Bide publikoak / Caminos públicos red secundaria
- Bide / Sendero
- Hiri-lurzorua / Suelo urbano
- - - Lurzoru urbanizagarria / Suelo urbanizable
- ✚ Udalerria / Término Municipal



Oinezko- eta bizikleta-sare nagusiaren eskema

D.3. ZIRKULAZIO-ESKEMA ALDATZEA, HONETARAKO:

- a. Gehiegi erabiltzen den autoa ez sustatzeko
- b. Bide-sarearen erabilera optimizatzeko.

Neurri nagusiak:

1. **Kale askotako zirkulazioa norabide bakarrean aldatzea**, horrela: beste garraio bide batzuetarako lekua irabaztea, udalerrian ibilbide laburrak egiteko autoa ez sustatzea, bidegurutzeen erregulazioa eta diseinua sinplifikatzea, eta ardatz asetuen trafikoaren intentsitatea murriztea.
2. **Zamalanetako ibilgailu astunen zirkulazioa kentzea Euskal Herria Hiribidean**, honela:
 - Arcelorrera sarbide berria.
 - Zamalanetako ibilgailu astunen zirkulazioa murriztea San Gregorio eta Artiz auzoen artean.
 - Euskal Herria Hiribidea- Arcelorreko biribilgunea birmoldatzea.
3. **Urretzurako zirkulazioa murriztea** Zumarragatik, horretarako, igarotzen den trafikorako sarbide alternatiboa eta zuzenagoa eskaintzea Okendo biribilgunetik.

D.4 APARKALEKUA, HONETARAKO

- a. Aparkalekua antolatzeko eta optimizatzeko
- b. Lurpeko udal-aparkalekuen erabilera hobetzeko

Neurriak:

Lurrazaleko aparkalekua murriztea eta oinezkoentzako espazioa pixkanaka handitzea. Beloki kalearen hasieran, aparkaleku publikoa egitea proposatzen da, hiri-konektorearekin, hilerriko eta UGLerako irisgarritasuna hobetzeko, baita bertan bizi direnentzako Jauregin eta Secundino Esnaola parkean aparkaleku berriak ere egitea.


D.5. GARRAIO PUBLIKOA, HIRI BARRUKO JOAN-ETORRIETARAKO GARRAIO PUBLIKOAREN ESKAINTZA ETA LOTURA HOBETZEKO.

Neurriak:


1. **Honakoen lotura hobetzea: Etxeberri, Argixao, Gerontologikoa, Ipar Haizea, Kalebarrengo azken zatia eta Industrialdeko zein Acería 2. ekoizpen-eremuak.**
2. **Eskaripeko taxi kolektiboaren sistema** abian jartzea, udalerriko aldiriko eremuetara iristeko, tokiko garraio publiko erregularraren orde.
3. **Garraio publikoaren geltokiak hobetzeko** plana.

**Mugikortasun iraunkorrerako aparkalekuak /
Aparcamientos para la movilidad sostenible**

- | | |
|---|--|
|  Lehendik dagoen aparkalekua /
Aparcamiento existente | Zehaztapen grafikoak / Determinaciones gráficas |
|  Proposatutako aparkalekua /
Aparcamiento propuesto |  Hiri-lurzorua / Suelo urbano |
| |  Lurzoru urbanizagarria / Suelo urbanizable |
| |  Udalerria / Término Municipal |



Aparkaleku-sistemaren eskema.



Garraio publikoko sarearen lotura-eskema

- D.6. SALGAIEN MUGIKORTASUNA**, salgaien banaketa arina eta ordenatua bermatzeko, ahalik eta eragin txikiena izan dezan mugikortasun sisteman, baina herriko jarduera ekonomikoen garapen osoa bermatuta.

Neurriak:

1. Salgaien hiri-banaketako baldintza operatiboak antolatzea, **araututako zamalanetarako eremu nahikoaren erreserba ezartzea** (banaketa-ordutegian eta -denboran) eta haien diseinu funtzionala eta kokapena optimizatzea, eragiketen iraupena eta salgaien jatorriko edo amaierako gunerainoko distantzia murrizteko.
2. **Establezimenduen artean salgaien banaketa partekatua sustatzea**, banaketa-eragiketen kopurua murriztuta eta tamaina txikiko zein gutxiago kutsatzen duten ibilgailuekin antolatutako banaketa sustatuta. Horretarako, saltokien kokapena zehaztu beharko da merkataritza-erabileren eta hirugarren sektoreko erabileren banaketaren arabera, merkatarien ordezkari-elkarteekin adostuta. Horrela, eragindako sektore guztiak inplikaturako dira, eta erregulazioak betetzeak duen garrantziaz eta merkatariei zein bezeroei eragiten dien onuraz jabetzen lagunduko da.

3.3.2. JABARI ETA ERABILERA PUBLIKOKO ESPAZIO LIBREEN ETA BERDEGUNEEN SARE OROKORRA

Ondorengo espazio libreak eta berdeguneak jasotzen dira: hiri-bilbean duten eskalagatik eta esanahiagatik, mantendu beharreko natura-balioen integrazioagatik, espazio libreen sistemari artikulazioa eta jarraipena emateko duten gaitasunagatik, hiriaren morfologia- eta egitura-definizioan eragin nabarmeneko piezen multzoa osatzen dutenak.

HAPOn Aurrerakinean, espazio libreen eta berdeguneen sistema orokorraren antolaketara hurbiltzea oinarritzko hiru printzipiotan oinarritzen da:

- 1º. Espazio libreek eta berdeguneek behar funtzional kuantifikagarriari erantzun behar diete, eta, gutxienez, zorrotz bete behar dute Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 78. artikuluan aurreikusitakoa (5 m²/biztanle). Hala ere, HAPOn nahia Munduko Osasun Erakundeak gomendatutako estandarretara hurbiltzea da (10 m² lurzoru/biztanle).
- 2º. Bestalde, espazio libreen sistema orokorra hiri-lurralde sistemako pieza bereziek osatzen dute, eta Planaren Aurrerakinak eginkizun garrantzitsua ematen die hiri-ereduaren egiturazko antolamenduan. Beraz, pieza horiek jartzeko antolamendu-jarraibideek oinarritzko aukera-irizpidetik haratago joan behar dute –lurzoru hutsekin bat eginda-proposatutako hiri- eta lurralde-ereduaren paisaia-erreferentetzat jardutean.
- 3º. Sistema ekologia-sarea da, hirigunearen eta landa-eremuaren artean lotura jarriak sortuta eta udalerriko Azpiegitura Berdea osatuta. Laburbilduz, hiri-baldintza naturalagoaren, berdeagoaren, ekologikoagoaren eta konektiboagoaren alde egin behar da, eta proiektu horretan- azpiegitura berdea deskribatu den atalean islatu bezala-, lerro-egiturek protagonismoa izango dute, lurraldeko ekologia-matrizearen sistemei jarraipena emateko, hiri-ingurunearekin lotuta. Ekologia-sare hori, gainera, funtsezkoa da giza ongizaterako, tradizioz etxebizitzaren osagarri diren ekipamendutzat hartu izan diren berdeguneen onuretatik haratago doana (aisialdia, atsedea), hala nola: aire- eta ur-kalitatea hobetzen dute, biztanleen osasun fisikoan nahiz mentalean laguntzen dute, CO₂ isuriak murrizten dituzte eta pantaila akustikoa izan daitezke, hiri-mikroklima erregulatzen laguntzen dute, uholde-arriskua murrizten dute eta energia-beharrak asetzen dituzte.

**Espazio libreen sistema orokorra /
Sistema General de Espacios Libres**

■ Izatedun / Existente

■ Proposatu / Propuesto

Zehaztapen grafikoak / Determinaciones gráficas

⋯ Hiri-lurzoria / Suelo urbano

⋯ Lurzoru urbanizagarria /
Suelo urbanizable

⊕ Udalerria / Término Municipal



Espazio libreen sistema orokorraren eskema

Beraz, HAPOren Aurrerakinean jasotako izaera orokorreko jabari eta erabilera publikoko espazio libreen eta berdeguneen sarearen diseinuaren arrazoi nagusia sare berde jarraia lortzea da, hiri- eta landa-ingurunearen arteko harremanak bideratzeko eta, aldi berean, ekologia-loturak eraikitzen laguntzeko.

Zumarragako Plan Orokorren Aurrerakineko espazio libreen sistema orokorrak elementu hauek ditu:

Kode / Código	Izen / Nombre Eus	Izen / Nombre	Azalera / Superficie (m2)	Egoera / Situación
01	ORRAZIEN ERAIKINA	EDIFICIO PEINES	3.076	Egungoa
02	EUSKADI ENPARANTZA	EUSKADI ENPARANTZA	2.315	Egungoa
03	LUBAKI	TRINCHERA	5.764	Egungoa
04	MERCEDARIASEKIN BATERA (A)	JUNTO A MERCEDARIAS (A)	7.814	Egungoa
05	MERCEDARIASEKIN BATERA (B)	JUNTO A MERCEDARIAS (B)	1.651	Egungoa
06	MERCEDARIASEKIN BATERA (C)	JUNTO A MERCEDARIAS (C)	1.866	Proposamena
07	ORAA (A)	ORAA (A)	2.425	Egungoa
08	ORAA (B)	ORAA (B)	3.487	Egungoa
09	URTUBI PARKEA (A)	URTUBI PARKEA (A)	19.250	Egungoa
10	ZAGUERA BIDEZAR	ZAGUERA BIDEZAR	4.087	Egungoa
11	ARGIXAO ZERRENDA	FRANJA ARGIXAO	3.655	Egungoa
12	BIDAURRETA	BIDAURRETA	5.149	Egungoa
13	KALEBARREN (A)	KALEBARREN (A)	447	Egungoa
14	KALEBARREN (B)	KALEBARREN (B)	646	Egungoa
15	BELOKI PILOTALEKUA	FRONTON BELOKI	1.609	Egungoa
16	CLARA LARRAÑAGA	CLARA LARRAÑAGA	1.110	Egungoa
17	BIRIBILGUNE	ROTONDA	1.285	Egungoa
18	SAN GREGORIO PARKEA (A)	PARQUE SAN GREGORIO (A)	2.811	Egungoa
19	SAN GREGORIO PARKEA (B)	PARQUE SAN GREGORIO (B)	2.789	Egungoa
20	ZELAI ARIZTI PARKEA (A)	ZELAI ARIZTI PARKEA (A)	4.247	Egungoa
21	SANITARIO-GERONTOLOGIKOA	SANITARIO-GERONTOLÓGICO	5.500	Egungoa
22	LEGAZPI DORRETXE INGURUA	LEGAZPI DORRETXE INGURUA	2.857	Egungoa
23	ALTZAIRUTEGI	ACERIA	20.541	Proposamena
24	MENDIZABAL	MENDIZABAL	18.329	Egungoa
25	UROLA (A)	UROLA (A)	2.114	Egungoa
26	UROLA (B)	UROLA (B)	2.677	Proposamena

Espazio libreen sistema orokorraren azalera osoa 127.501 m²-koa da, eta horietatik % 20 (25.084 m²) proposatutako sistema orokorrak dira. Sistema orokor berrien proposamenak parke publikoa osatzen du, Belokiko konektore berriaren ondoan. Horrek Urola ibaiaren ertza berriz urbanizatzea proposatzen du, hirirako ibai-pasealekua eratzeko, eta Industrialdearen inguruko baso-masa barneratzen du, hirirako espazio publiko berria izan dadin.

3.3.3. TITULARTASUN PUBLIKOKO EKIPAMENDU KOLEKTIBOEN SAREA


Gaur egun, hiriaren talde-mailan pentsatzeko, beharrezkoa da ekipamenduak bizi-kalitatearen kontzeptuarekin lotzeko berrazterketa sakona egitea; hau da, ongizate fisiko, sozialez, mentalez eta zoriontasunez, asebetetzez eta sariez osatutako neurria kontuan izan behar du.


Bizi-kalitatearen kontzeptuak inguruabar asko biltzen ditu: beharizan zaharrak asebetetzeaz gain, norbanakoaren gizarte-harremanen eremua, kultura-ondasunen eskuragarritasunaren aukera edo ekologia-ingurumeneko ingurunea eskaintzea, herritarren eta erabiltzaileen osasun fisikoa eta psikikoa errazteko. Ekipamendu kolektiboek, beraz, kohesiorako oinarrizko sistema osatzen dute, eta funtsezko bi funtzio betetzen dituzte komunitatea egituratzeko prozesuan: zeharkako gizarte-soldata eta kontsumo kolektiboko espazioa. Horrez gain, ekipamenduek, edo gutxienez ekipamendu-kategoria jakin batzuek, funtzio adierazgarria izan behar dute hiri-espazio publikoen sistemaren konfigurazioan.

Ekipamendu-sistemaren egiturazko antolamendua jarraibide hauen arabera antolatu behar da:


- 1^a. Ekipamenduak antolatzean eta artikulatzean, eremu guztiei zerbitzu ematea, guztiek gainerako herritarrentzat interesgarriak diren zerbitzuak izan ditzaten.
- 2^a. Ekipamenduek, tokiko beharrak asetzeaz gain, gutxien baloratutako hiri-espazioak kualifikatu behar dituzte, gainerako hiri-eremuko pribilegiatuenekin parekatzeko.
- 3^a. Zuzkidura-piezen kokapena bide publikoen eta espazio libreen sareekin lotzea, hiriaren singularitasuna adierazteko eta hiri-espazioaren irakurketa bermatzeko zeinu-sistema berria jasota. Oro har, proposatutako espazio libreen eta berdeguneen sarearekiko bateragarritasun funtzionala sustatu behar da, eta zuzkidura-jarduera osagarriak egitea ahalbidetu. Ekipamenduen eta formalki esanguratsuak diren espazio publikoen posizio-loturak haien gaitasun sinbolikoa indartuko du.
- 4^a. Zuzkidura-eskaintza aurreikusi daitezkeen eskaera berrietara egokitzea. Oinarrizko lau zutabeak honako hauek izango dira: aisia, kirola, kultura-jarduerak eta laguntza-, osasun- eta administrazio-zerbitzuak.
- 5^a. Ekipamendu-banaketa eskala ezberdinetakoa izan dadila saiatzea, hainbat hirigunetatik irisgarritasuna bermatuta, eta funtsezkoa da maila handieneko ekipamendu-sarea garraio publikoaren eta bidegorrien sarearekin artikulatzea.


Ekipamenduen sistema orokorra /
Sistema General de Equipamientos


 Izatedun / Existente


 Proposatu / Propuesto

Zehaztapen grafikoak / Determinaciones gráficas

 Hiri-lurzorua / Suelo urbano

 Lurzoru urbanizagarria /
Suelo urbanizable

 Udalerria / Término Municipal



Ekipamenduen Sistema Orokorren eskema

Zumarragako Plan Orokorren Aurrerakinako ekipamenduen sistema orokorrak elementu hauek ditu:

Kode / Código	Izen / Nombre Eus	Izen / Nombre	Azalera / Superficie (m2)	Egoera / Situación
01	ANBULATORIO	AMBULATORIO	688	Egungoa
02	UDALETXEA	AYUNTAMIENTO	684	Egungoa
03	KULTUR ETXEA	CASA DE LA CULTURA	751	Egungoa
04	KANPOSANTUA	CEMENTERIO	3.062	Egungoa
05	ADINGABEEN ZENTROA	CENTRO DE MENORES	22.617	Egungoa
06	OSASUN MENTALEKO ZENTROA	CENTRO DE SALUD MENTAL	1.238	Egungoa
07	LA SALLE-LEGAZPI IKASTETXEA	COLEGIO LA SALLE-LEGAZPI	7.033	Egungoa
08	ERTZAIN ETXEA	COMISARÍA	2.090	Egungoa
09	ANTIGUAKO SANTUTEGIA	SANTUARIO DE LA ANTIGUA	27.498	Egungoa
10	ZELAI-ARISTI	ZELAI-ARISTI	825	Egungoa
11	TELEFONICA	TELEFONICA	743	Egungoa
12	UROLA GARAIKO LANBIDE ESKOLA (B)	ESCUELA PROFESIONAL DE ALTO UROLA (B)	1995	Proposamena
13	UROLA GARAIKO LANBIDE ESKOLA (A)	ESCUELA PROFESIONAL UROLA GARAIA (A)	11.980	Egungoa
14	BELOKI PILOTALEKUA	FRONTÓN BELOKI	1.534	Egungoa
15	EITZA PILOTALEKUA	FRONTÓN EITZA	593	Egungoa
16	JOKU LEKU PILOTALEKUA	FRONTÓN JOKU LEKU	360	Egungoa
17	ZELAI ARITZI PILOTALEKUA	FRONTÓN ZELAI ARITZI	1.099	Egungoa
18	ESTEBAN ORBEGOZO GALDATEGIA	FUNDICIÓN ESTEBAN ORBEGOZO	4.256	Egungoa
19	ZAHARREN ETXEA	HOGAR DEL JUBILADO	315	Egungoa
20	SAN MARTIN BASELIZA	ERMITA SAN MARTIN	424	Egungoa
21	LEGAZPI DORRETXEA (A)	LEGAZPI DORRETXEA (A)	202	Egungoa
22	LEGAZPI DORRETXEA (B)	LEGAZPI DORRETXEA (B)	460	Egungoa
23	MERCEDARIAS	MERCEDARIAS	12.684	Egungoa
24	ORAA	ORAA	184	Egungoa
25	JASOKUNDEKO ANDRE MARIAREN PARROKIA	PARROQUIA ASUNCIÓN DE NUESTRA SEÑORA	2.317	Egungoa
26	EL SALVADOR PARROKIA	PARROQUIA DE EL SALVADOR	1.500	Egungoa
27	ARGIXAO KIROLDEGIA	POLIDEPORTIVO ARGIXAO	32.641	Egungoa
28	ISPILLA POLIKIROLDEGIA	POLIDEPORTIVO ISPILLA	1.750	Egungoa
29	SANITARIO-GERONTOLOGIKOA (A)	SANITARIO-GERONTOLÓGICO (A)	6.289	Egungoa
30	SANITARIO-GERONTOLOGIKOA (B)	SANITARIO-GERONTOLÓGICO (B)	31.088	Existente
31	SANITARIO-GERONTOLOGIKOA (C)	SANITARIO-GERONTOLÓGICO (C)	4526	Proposamena

Ekipamenduen sistema orokorraren azalera osoa 183.425 m²-koa da, eta horietatik % 4 (6.521 m²) proposatutako sistema orokorrak dira. Sistema orokor berrien proposamenak hiri-lurzoruan garrantzi handieneko bi ekipamendu handituko ditu: Osasun – Gerontologia Zentroa eta UGLE.

3.3.4. OINARRIZKO HIRI-AZPIEGITUREN SARE ETA ESPAZIO TEKNIKOAK

Oinarrizko azpiegiturak osatzen dituzten sare eta espazio teknikoak, prestazioaren araubidea edozein dela ere, plangintza-prozesuan barneratu behar dira, horien baldintzatzaileak kontuan hartuta eta parte hartzen duten eskumen-maila desberdinen erabaki-prozesua koordinatuta. Horretarako, baliabide eskuragarriak koordinatu eta optimizatu behar dira, horien erreserbak eta zortasunak bateratzen saiatuta eta oinarrizko azpiegituren arteko koordinazioa sustatuta, baita lurralde- zein hirigintza-plangintzaren artekoa ere.

Lurraldearen eta ingurumenaren sostengu-ahalmenarekin koherentea den planifikazio bateratua egiteko, beharrezkoa da egungo hiriaren funtzionamendurako eta etorkizuneko hazkunde berrietarako ezinbestekoak diren zerbitzu osagarriak kontuan hartzea.

Ondoren, Zumarragako sareetarako, gune teknikoetarako eta oinarrizko zerbitzuetarako jarduketa-proposamenen aurrerakina aurkeztu da, horretarako, honako alderdi hauek aztertu dira: ur-hornidura eta saneamendua, energia elektrikoa, gas naturala, telekomunikazioak, argiztapen publikoa eta hiri-hondakinak.

1. UR-ZIKLO OSOA

Azvimarratu behar da, lehenik eta behin, **Urola Garaiko hornidura-sistema Urola Erdialdeko eta Urola Beheko sistemekin lotuta dagoela, lehorteei edo bestelakoei aurre egin ahal izateko.**

Zumarragan giza-kontsumorako eskuragarri dagoen edateko urak bi jatorri ditu:

- **Barrendiolako urtegia.** Aizkorri mendilerroaren magalean dago eta Artzaluburu errekaen urarekin betetzen da. Gaur egungo urtegia 1982an amaitu zen, nahiz eta 1960tik aurrera akuiferoa zen eta presa txikia zuen. Gaur egun, **1.482.000 m³-ko ur-edukiera du. Ur hori Barrendiolako Ur Edangarrien Araztegian tratatzen da (135 litro/segundoko ahalmena duena), eta Zumarragako udal-biltegiatara eramaten da (Urzabaleta eta Urzabaleta Goikoa), hala, 1.365 m³/egun kontsumitzen dituen biztanleriari ematen dio zerbitzu.** Araztegi horretatik Urretxu, Legazpi eta Ezkio-Itxaso ere hornitzen dira, guztira 30.000 biztanle inguru. Estazioan ur-tratamenduak prozesu hauek ditu: aurreozonizazioa, erreaktiboekin nahasteko ganbera, dekantazioa, bitarteko ozonizazioa, iragazketa eta desinfekzioa.
- **Izaspiko bilketa.** Barrendiolatik aparte beste ur-hornidura eremu bat dago. Antiguako, Sagazpeko eta Adingabeen Zentroko eremuak Izaspiko bilketako emariekin hornitzen dira. Emari horiek Elorriagako eta Antiguako biltegiatan gordetzen dira.


Zumarragan etxeko ur-hornidura Aquarbe SAU enpresak kudeatzen du. Enpresa hori Udalaren enpresa kontzesioduna da, eta sare zabal eta osoa kudeatzen du, sei sektoretan banatua eta horiek bere aldetik bereizteko gaitasuna duena.

Hasierako hornidura-sarea ia erabat berritu da azken hamarkadetan. Bestalde, kontrol gabeko ur-bolumena murrizteko egiten den esfortzu etengabea aipatu behar da, eta bolumen horren zati bat sareko ihesetan dago; beraz, funtsezkoa da jario horiek lehenbailehen aurkitzea eta konpontzea. Aipagarria da, halaber, azken urteetan kontagailu-parkea berritu izana, gaur egun ez baitago 10 urte baino gehiago duen kontagailurik.

2001etik gaur egun arte nabarmen hobetu da sarearen errendimendua, % 73tik % 90,2ra pasa baita, Udalak emandako datuen arabera.

Saneamenduari eta arazketari dagokienez, esan behar da sarea, funtsean, bakarra dela, eta euri-urak nahiz ur beltzak garraiatzen dituela.

Zerbitzatutako urak **Zuringoingo araztegian** tratatzen dira, ondoren, Urola ibaira itzultzen dira, goiko alderaino ponpatuta, agorraldian gutxieneko emaria ziurtatzeko. Araztegiak Urretxuko eta Legazpiko ur zikinak ere jasotzen ditu. Tratamendu primarioa eta sekundarioa eskaintzen ditu, baita nitrogenoa eta oxigenoa kentzea ere.



Hirian integratutako "SUDS"-ak. Iturria: Hattum et al.-etik egokitua. (2016).

2. ENERGIA-HORNIDURAKO SAREAK

Zumarraga Ormaiztegi-Bergara goi-tentsioko lerrotik hornitzen da. Lerro nagusi horretatik, 30 kV-eko lerroen bidez, Mundo Mejor auzoko eta Ezkio-Itsasoko (Igartza) igerilekuen ondoko Banaketa Transformazio Azpiestazioetara iristen da. Azpiestazio horietan, tentsioa 13 kV-era murrizten da, eta, hortik, udalerrietako transformadoreetara eramaten da; transformadoreek 380 edo 220 voltioetara murrizten dute tentsioa, ondoren, etxebizitzetara iristeko. Mundo Mejor auzoko azpiestazioak ia Zumarraga osoa hornitzen du, gainerakoa Igartzako azpiestaziotik egiten da.

Zumarragak Gipuzkoako lehen Tokiko Energia Komunitatea (TEK Zumarraga) du. Zumarragako Udalak sustatu du, Edinor enpresaren laguntzarekin. Herriko bizilagun guztien artean energia autokontsumorako ereduia sustatzeko ekimen aitzindaria da. Hala, 1.100 m²-ko instalazio fotovoltaikoa du (350 eguzki-plaka), bost eraikin publikoren estalkien gainean jarrita. Horiek 160 kW eguzki-energia sortzen dute, 260 etxeren eta dendaren autokontsumoa asetzeko.

Gas naturalari dagokionez, Bergara-Irun gasbideak egungo gas naturala banatzeko sarera jotzen du. Gasbide horretatik, presio ertaineko industria-erabilerarako banaketa-sarea sortzen da. Sare hori zuzenean zerbitzu ematen dio industria-erabiltzaileari, eta handik abiatzen dira etxe- eta merkataritza-erabileretarako banaketa-sareak.

3. TELEKOMUNIKAZIO-SAREAK

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien 2021-2024 Plan Estrategikoaren (IKTPE) helburua da informazio- eta komunikazio-teknologiaren kudeaketa eraginkorra, jasangarria, koordinatua eta Euskadiko premiekin koherentea izatea. Hori, gastuaren gardentasuna, lankidetzeta eta arrazionalizazioa sustatuta eta jarduera publiko orotan nagusi izan behar duten printzipioak errespetatuta egingo da.

Epe ertainera, “smart city” aplikazioetarako 5G teknologia adimenduna garatzea aurreikustenda, eta horrek bide publikoan antenak gehitzea ekarriko du, eta horren eskaera nagusia argiztapen publikoaren euskarriek izango dituzte. Horri dagokionez, beharrezkoa da argiztapen publikoaren elikadura elektrikoaren koadroetan instalatutako potentzia 5G estrategian jasotzea, eta instalazio berrietara konexio elektrikoaren izatea, aginte-koadroetatik, erraz. Horretarako, beharrezkoa da udal-ordenantza moldatzea egoera eta eskumen berri horiek arautzeko, aginte zentro bateratuen aldeko apustua eginda eta koadro independenteak integratuta. Nolanahi ere, sareen eta azpiegituren erabilera bateratua, koordinatua eta bateragarria sustatu beharko da, operadoreek arlo horretan indarrean dagoen legedian (2014ko Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorra) ezarritakoaren arabera.

4. ARGIZTAPEN ELEKTRIKOAREN SAREAK

Informazio-memorian aurreratu bezala, udalerrian Urola Garaiko Eskualdeko Energia Plana abian jartzearen ondorioz, argiztapena ordezkatzeko programa garatzen ari da. Horretarako, Led motako luminarien bidezko deskarga-teknologia erabiliko da, puntutik punturako telekudeaketa-sistemak instalatuko dira, argiztapen-balioak aztertuko dituztenak, horiek espazio publikoetan behar diren mailetara egokitzeko. Hala, sarea energia-eraginkortasun handiagoz hornitu arte garatuko da, eta, modu horretan CO₂-aren isuriak murriztuko dira hirian, besteak beste, klima-aldaketaren aurkako borrokan eragin zuzena izango duena.

5. HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK

Zumarragako ekologia- eta ingurumen-trantsizioak zero-hondakinen estrategian oinarritutako ereduaren alde egitea suposatzen du. Hala, sortutako hondakinak osorik aprobetxatzeko, **ekonomia zirkularra garatzeko** eta hondakinak kudeatzeko oinarritzko hiru neurriak abian jarriko dira: murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea.

Horretarako, hondakinen aprobetxamendu osorako estrategiak bultzatu beharko dira, gaikako bilketa osoaren estrategia mantenduta, ontziak uzteko eta itzultzeko sistemak barne. Horrela, ahal den neurrian, hiririk trinkoenean behintzat, bilketa-sistema familia-unitate bakoitzeko banakako poltsetan eskuz jasotzera bideratuta.

Euskadiko Ekonomia Zirkularren 2030eko Estrategian ezarritakoaren arabera, ekonomia zirkularrerantz aurrera egiteko, lurraldeek 7 elementu nagusi dituzte euren estrategia eraikitzeko:

- a) Baliabide berriztagarriak lehenestea.
- b) Eredu ekonomikoa birpentsatzea.
- c) Etorkizunean pentsatuta diseinatzea.
- d) Elkarlanean aritzea balio bateratua sortzeko.
- e) Eraikita dagoena zaintzea eta berrerabiltzea.
- f) Hondakinak baliabidetzat erabiltzea.
- g) Teknologia digitala barneratzea.

Elementu horietan oinarrituta, ekonomia zirkularreko estrategia eraginkorrak baliabideak optimizatzen lagundu behar du ekoizpen-prozesu osoan zehar, hala nola: diseinuan eta fabrikazioan, kontsumoan eta berrerabiltze-/birmanufaktura-/birziklatze-prozesuetan, aprobetxatu ezin diren hondakinak ezabatzean. Horrela, baliabideen sarrera eta hondakinen sorrera murrizten ditu.

AM. 4/

ONDAREAREN BABESA ARAUTZEKO BALDINTZAK ETA IRIZPIDEAK

4.1. XEDEA ETA ERREFERENTZIAZKO ESPARRU-ARAUDIA

Ondare historiko eraikiari dagokionez, behartuta dagoen eta, aldi berean, helburu hori betetzeko behar diren neurriak hartu nahi dituen Tokiko Administrazioa da. Horrela jasota dago Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 3. artikuluko 4. zenbakian, eta honela dio:

“Hauek dira udalek beren udal-eremuan garatu beharreko eginkizunak:

- a) Babestu beharreko ondasunen hirigintza-katalogoak idaztea eta kudeatzea.*
- b) Baimena ematea monumentu-multzoetan egin beharreko esku-hartzeei, lege honek horretarako bidea ematen duen kasuetan.*
- c) Udal-mugartean dauden kultura-ondasunen hur-hurreko aurri-egoeretan kalteak ekiditeko beharrezkoak diren neurriak hartzea, lege honetan xedatutakoarekin bat.*
- d) Udal-mugartean dagoen kultura-ondarea sustatzea eta haren zabalkundea egitea.*
- e) Lege honetan berariaz aitortutako gainerako eskumenak.”*

Hirigintza-dokumentuak natura- eta kultura-ondarea babesteko mekanismo nagusiak dira. Bere tresnetako batek, katalogoak, azkar eboluzionatu du, higiezin zerrenda soila izatetik tresna arautzaile izatera pasatu da, ondasun bakoitzari buruzko informazio banakatu zabalarekin. Informazio hori fitxetan ageri da. Katalogoaren metodologia-hepaden hori ondare kontzeptuaren mugak zabaltzearekin batera gertatu da. Horrela, katalogoa —legeak hirigintza-antolamenduaren tresna osagarritzat jotzen duena— plangintza-espeditenteen dokumentu-multzoaren barruan nabarmentzen ari da, malgua delako, eta hiri- eta lurralde-antolamendua dinamizatzeko, ondarea babesteko eta udal-kudeaketak eska ditzakeen beharrei erantzuteko aukera ematen duelako. Batez ere kontuan hartuta, administrazioa zelan egituratuta dagoen, ondare-masa handia udalen babespean geratzen da, ondare-elementu handiak izan ezik.

Ondasun Babestuen Katalogoa, beraz, Administrazioaren tresna da, bertan inskribatzen diren ondasunak edo lekuak babesteko funtzio publikoa betetzeko. Hirigintza izaera dute, bai Planarekiko duten menpekotasunaren datuagatik, bai arte- edo kultura-balioa duten ondasun higiezinak direlako.

Katalogoak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 76. eta 100. artikuluetan araututa daude. Legezko erregulazio horren arabera, katalogoak planen tresna osagarriak dira, eta haiengatik dira hain eraginkorrak, eta horiek antolatze baliorekin dute. Haren zehaztapenak ez dira ageri egiturazko antolamenduaren eraketa-zerrendan, 2/2006 Legearen 53. artikuluan definitutakoaren arabera, beraz, katalogoak antolamendu xehatuaren berezko dokumentuak direla ulertzen da. Hala ere, kontuan hartuta kultura-ondasun jakin batzuen babesa horretarako eskumena duen organoaren babes-adierazpen bereziaren edo partzialaren

ondorio izan daitekeela, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearekin bat etorrira, Katalogoan jasotako eta hortik datozen zehaztapenek egiturazko antolamenduaren berezko maila dutela jo behar da.

Bestalde, adierazi behar da ondasun eta leku katalogatuak babesteko neurrien irismena HAPOko Hirigintza Arauetan zehazten dena izango dela. Dokumentu horretan ezarriko dira Ondasun Babestuen Katalogoan jasotako ondasun eta leku kategoria bakoitzean aplikatu beharreko babes-eduki arau-emaileak. Aurretik esan bezala, araubideen aniztasuna babestu beharreko balioen haztapenaren arabera izango da, ez lurzoru-sailkapenaren arabera, sailkapen hori ez baita garrantzizkoa ondasunak Katalogoan jasotzeko orduan. Beraz: **Zumarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Ondasun Babestuen Katalogoaren helburua udalerrian honako balioak dituzten ondasunak inbentariatzea eta babestea izango da: arte, historia, arkeologia, paleontologia, etnologia, antropologia, linguistikoa, zientzia, industria, paisaia, arkitektura edo belaunaldien arteko transmisiorako interesgarritzat jotzen diren guztiak. Halaber, ziurtatu behar da HAPOk proposatzen dituen antolamendu-aurreikuspenak historia- eta kultura-ondarearen babes-balioekin bat etorrira gauzatuko direla, eta, aldi berean, ondare hori kontserbatzeko eta birgaitzeko jarduketak sustatuko direla, paisaiarekiko errespetuarekin eta garapen jasangarriarekin bat eginda.**

Ondasun Babestuen Katalogoak HAPOren araudia osatu behar du, eta, era berean, araudi hori izan behar du kontuan, katalogoan jasotako higiezin bakoitzean eragina duten irizpideak eta arauak zehazteko.

Babestutako Ondasunen Katalogoaren Aurrerakin honi dagokionez, bertan jasota daude **Eusko Jaurjaritzan kultura-ondarearen arloko eskumeneko sailak babes berezi eta babes ertain izendatutakoak edo horretarako espedientea hasita dutenak. Horiei ondorengo intereseko beste elementu batzuk gehitzen zaizkie: historia, arte, arkitektura, tipologia, industria, etnologia, paleontologia edota arkeologia. Elementu horiek katalogoan jasotzea erabakitzeko funtsezko irizpide da haien kultura-garrantzia egiaztatzea, honako hauen bidez:**

- a. **Bere esanahi historiko kolektiboaren balioa**, banaka zenbatetsitako efektu estetikoaren gaineratik. Balorazio horren ondorioz, estetikoki erakargarriak ez izan arren (tipologia-, arkitektura-balioak edo apaindurazko elementu nabarmenak), bizitzen edo ordezkatzeko duen komunitatearekiko paper nabarmeneko higiezinak edo elementuak dira.
- b. **Gizarte-balioa lehenestea** jabetza-zentzuaren gaineratik, beraz, helburua da haren babesa jabeen egungo erabilerekin edo etorkizunean izango dituztenekin uztartzea, erabilera horiek pribatuak izanez gero.
- c. Ahalik eta biztanle gehienek **hura aztertzeko eta gozatzeko aukerak**, ondarea hurrengo belaunaldientzako pizgarri izan dadin.
- d. **Ondasunaren tratamendu publikoa** betetzen duen gizarte-funtzioaren arabera justifikatuta, hau da, identitate kolektiboa, beraz, kohesioa eta herritartasuna, indartzea eta kultura-kontsumoan oinarritutako sektore ekonomikoak sustatzea.

Katalogoaren Aurrerakin honetan jasotako elementuak honakoen bilduma dira: aurretiazko inbentarioena, azterketa eta analisi historikoena, landa-lanena eta, nola ez, herri-jakinduriatik lortutako ekarpenena. Hori guztia honako hauekin kontrastatuta:

- a. Babeserako lege-araubidea.

- b. HAPOn Aurrerakinean adierazitako antolamendu-diagnostikoa, -helburuak eta -proposamenak egitea, honako hauek kontuan hartuta: hirigintza-antolamenduaren eta elementu katalogatuen balio eta gozamen kolektiboaren arteko bateragarritasuna; arkeologia-ondareari kalterik ez egiteko arkeologia-kautelak kontuan hartzea; ezusteko aurkikuntzen erregulazioa; eta elementu katalogatuen kutsadura bisualaren edo pertzepziozkoaren aurkako babesa.

Horrela, **edozein elementu Ondasun Babestuen Katalogoaren Aurrerakinean jasotzeak esan nahi du -lehenengo fasean- ondasun-higiezin identifikatu dela eta horri aitortzen zaion historia-ondareari lotutako balioak dituela, hura babestea merezi dezaketenak (gutxienez udal-eskumeneko mailan) eta Katalogoko dokumentu osoaren idazketa-prozesuan berretsi beharko direnak.** Era berean, aukera ematen du bere balioak babesteko kautelazko araubidea berehala ezartzeko, bai Aurrerakina onartzen denetik (bere balioak arriskuan jar ditzaketen esku-hartzeak kautelaz eteteko neurria hartzen bada), bai hasierako onespena egitean.

Katalogoaren idazketa-prozesuak hainbat lege-erreferentzia ditu, bai Estatukoak bai autonomikoak, baita nazioartean kultura-ondarea babesteaz arduratzen diren erakundeek emandako gomendioak ere: UNESCO, ICOMOS, TICCIH, eta kultura-ondarea identifikatzeko, esku hartzeko, babesteko eta sustatzeko irizpideak ezartzen dituzten dokumentuak sortu dituzten beste erakunde batzuk.

4.1.1. NAZIOARTEKO ARAUDIA

Erreferentzia unibertsalekoak dira 1972ko Kultura eta Natura Ondarea Babesteko Konbentzioan ezarritako irizpideak; izan ere, Ondarea ulertzeko modu garaikidearen oinarriak ezarri zituzten, monumentuaren egoera historikoan aurrera eginda, denboran zehar kultura-agerpen dibertsoagoak eta denboran hurbilagoak jasotzeko. Halaber, kultura-ondarearen arloan UNESCOk emandako gomendioen jarraipena egin beharra azpimarratzen da: bereziki, 1976ko Nairobiaren gomendioak, multzo historiko eta tradizionalen babesari eta horiek gaur egungo bizimoduan duten funtzioari buruzkoak, eta 2011ko gomendia, hiri-paisaia historikoari buruzkoa, gaur egun egokitzat jotzen diren hiri historikoa modu konplexuan ulertzeko ematen dituzten giltzarriengatik.

Nazioarteko erakundeen interes orokorreko beste dokumentu batzuk erreferentzia dira katalogoa idazteko, babes-neurriak bideratzeko eta babes-irizpideak diseinatzeko. Hona hemen horietako batzuk:

- Atenasko Gutuna. Monumentu Historikoak Zaharberritzeko Gutuna. (Atenasko Nazioarteko Konferentzia, Grezia, 1931)
- Veneziako Gutuna. Monumentuak eta Gune Historiko Artistikoak Kontserbatzeari eta Zaharberritzeari buruzko Nazioarteko Gutuna (CIAM, Venecia, 1964).
- Amsterdamgo Gutuna. Europako Gomendia. Europako arkitektura-ondareak duen garrantzia eta kultura-aberastasuna. 1975.
- Multzo Historikoak edo Tradizionalak babesteari buruzko gomendia eta horiek gaur egungo bizimoduan duten funtzioa. Hezkuntzarako, Zientziarako eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen Konferentzia Nagusiaren 19. bilera. Nairobi 1976.
- Machu Picchuren gutuna. Hiri historikoak. (CIAM, Cusco, 1977).
- Kultura-politikei buruzko Mexikoko adierazpena. Kultura-politikei buruzko munduko biltzarra. 1982.
- Washingtongo edo Toledoko Gutuna. Herri eta Hirigune Historikoen Kontserbaziorako Nazioarteko Gutuna (ICOMOS, Washington, 1987)
- Arkeologia Ondarea Kudeatzeko Nazioarteko Gutuna. ICOMOS, Lausana, Suiza, 1990).
- Burrako Karta Esanahi Kulturalerako Guneetarako. (ICOMOS, Australia, 1999).

- Eraikitako Ondare Bermikuluaren gutuna. (ICOMOS, México, 1999).
- Turismo kulturalari buruzko nazioarteko gutuna. Turismoaren kudeaketa kultura-esanahia duten guneetan. (ICOMOS, México, 1999).
- Krakoviako Gutuna 2000. Ondare eraikia zaintzeko eta zaharberritzeko printzipioak. (Kontserbazioari buruzko Nazioarteko Konferentzia, Krakovia, 2000).
- Nizhny Tagor-en gutuna industria-ondarea kontserbatzeko, TICCIH, Mosku, 2003.
- ICOMOSen gutuna, arkitektura-ondarearen egiturak aztertzeko, zaintzeko eta zaharberritzeko printzipioei buruzkoa. (ICOMOS, Zimbabwe, 2003).
- Paisaiaren Europako Hitzarmena. (Florentzia, 2000)
- Europako Kontseiluaren esparru-hitzarmena, kultura-ondareak gizartearentzat duen balioari buruzkoa. (2005)

4.1.2. ESTATUKO LEGERIA

Espainiako Ondare Historikoari buruzko 16/1985 Legearen aplikazio osoa Euskadiko legeriarekin lehian dago, estatuaren eskumenekoak diren Ondare Historikoko gaiei dagokienez, batez ere legez kanpoko desjabetzearen aurkako defentsari eta espolioazioaren aurkako babesari dagokienez. Ondareari buruzko Legearen arabera, Espainiako Ondare Historikoko ondasun garrantzitsuenak interes kulturalako ondasun inbentariatu edo deklaratu beharko dira, aipatutako 16/1985 Legean aurreikusitako moduan.

4.1.3. AUTONOMIAKO LEGERIA

Ekainaren 30eko 2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa

2/2006 Legearen 50. artikuluan zehazten da hirigintza-antolamenduaren xede izan behar duela udalerrien ondare urbanizatua eta eraikia babesteko arauak zehaztea. **Lege horren arabera, ondasun babestuen katalogoak dira hirigintza-antolamenduak babestu beharreko ondasunak inbentariatzeko eta identifikatzeko tresnak, horien ezaugarriak jasota, eta, hala badagokio, dagokien kategoria edo kalifikazioa zehaztuta**, aplikatu beharreko legeria jarraituta, eta haien babesa arautzen duten zehaztapenen plana zehaztuta.

6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) aitzindaria izan zen bere kultura-ondarea defendatzeko, aberasteko, zabaltzeko eta sustatzeko ordenamendu juridikoa sortu zuenean, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu ondoren. Iragandako denborak, ordea, euskal kultura-ondareari buruzko lege berria idaztea eskatzen zuen, **azken urteotan kultura-ondareak izan duen bilakaera kontzeptuala ordenamendu juridikoan txertatzeko beharrari erantzuteko, izan ere, nabarmen handitu da haren azterketa- eta jarduera-eremua.**

Euskal kultura-ondareari buruzko lege berri horrek zehazten ditu euskal herriko administrazioen hiru mailetako bakoitzari kultura-ondarearen arloan dagozkion jarduketak, eta horiek koordinatzeko arduradun organoa sortzen du.

Hemen interesa duena, nabarmendu beharrekoa da **hiru babes-maila bereizten direla**, ondasunak dituen kultura-balioen garrantziaren arabera:

- **Babes berezia duten kultura-ondasunak:** lege honen 2.1 artikuluko kultura-balioetako bat duten EAEko kultura-ondasun higiezin, higigarri eta immaterial nabarmenenek. Hau da, honako ondasun hauek osatzen dute euskal kultura-ondarea: arte, historia, arkeologia, paleontologia, etnologia, antropologia, hizkuntza, zientzia, industria edo paisaia edo arkitektura aldetik, edo kulturaren beste edozein alderdiren aldetik, balioa duten Euskadiko

kultura-ondasun guztiek (higiezinak direla, higigarriak edo immaterialak), aintzat hartuak izateko eta belaunaldi arteko transmisiorako interesa badute. Legeak ezartzen du babes bereziko kultura-ondasuntzat hartuko direla Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea indarrean jarri aurretik interes kulturalako ondasun deklaratu diren guztiak.

- **Babes ertaina duten kultura-ondasunak:** lege honen 2.1 artikuluko kultura-balioetako bat duten EAEko kultura-ondasun higiezin eta higigarri garrantzitsuek. Halaber, Legearen lehenengo xedapen gehigarriak ezartzen du babes ertaineko kultura-ondasunak izango direla Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen babesean aldi berean kultura-ondasun izendatutako ondasun guztiak, Sailkatutako Kultura Ondasunen Erregistroan eta Euskal Kultura Ondarearen EAEko Inbentario Orokorrean jasotakoak.
- **Oinarrizko babesa duten kultura-ondasunak:** indarrean dauden udal hirigintza-plangintzako dokumentuetako katalogoetan jasota dauden ondasunetatik abiatuta arauz zehazten diren eta lege honen 2.1 artikuluan aipaturiko kultura-balioren bat duten kultura-intereseko higiezinak dira.

Bestalde, ondasun higiezinaren inguruaren erregulazioa azpimarratzen da. Babestutako ondasunak behar bezala babesteko eta balioa emateko beharrezkoa denean soilik mugatuko dira. Hala, ingurua kontzeptuaren definizio orohartzaile berria ere ezarri da, haren izaera instrumentala islatuta, ondasunaren paisaia-, hiri- eta arkitektura-testuingurua mantentzeko. Gainera, egungo joera eta sentsibilitate berriekin bat, kutsadura bisuala eta akustikoa arautzen dira.

Era berean, hemeretzi babes kategoria bereizten dira, lehen zeuden hiru kategorien ordeztu sei ondasun higiezinentzat, bi ondasun higigarrientzat eta hamaika ondasun ez-materialentzat.

Azpimarratzekoa da Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan inskribatutako kultura-ondasunetan esku hartzeko eta kontserbatzeko irizpide komun batzuk jaso direla, baita berariazko proiektu teknikoak egin beharra ere, esku-hartzearen memoriarekin batera. Gainera, babes bereziko eta ertaineko kultura-ondasunetan baimendutako esku-hartze moten araudi-xehatua ezarri da. Bestalde, ondasun higiezinaren inguruaren erregulazioa azpimarratzen da. Horiek ondasun babestuak behar bezala babesteko eta balioa emateko beharrezkoa denean soilik mugatuko dira.

Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 9. artikuluan “kultura-ondare higiezinak babesteko kategoriak” ezarri dira, honako hau jasota: EAEn interesaren izenean babes bereziko eta ertaineko kultura-ondare deklaratu diren ondasun higiezinak kategoria hauek batean sailkatu beharko dira:

- a) **Monumentua:** giza jarduerak sortutako eraikina edo obra materiala, unitate berezia osatzen duena.
- b) **Monumentu-multzoa:** lege honetan babesten diren balioetako batzuk dituztelako kultura-unitate bat osatzen duten ondasun higiezinaren multzoa, modu jarraituan zein ez-jarraituan; ez da nahitaezkoa izango osagai diren elementuek banaka garrantzirik edo kultura-baliorik izatea.
- c) **Eremu arkeologikoa edo paleontologikoa:** interesa duten aztarna arkeologiko edo paleontologiko egiaztatuak dituen gunea.
- d) **Lorategi historikoa:** gizakiak diseinatutako eta zedarritutako gunea, kultura- eta natura-balioak eta -berezitasunak dituena.

- e) **Kultura-ibilbidea:** biztanlegune, eskualde eta herrialde ezberdinen arteko truke eta elkarrizketarekin lotutako kultura-esanahia duen komunikazio-bidea.
- f) **Kultura-espazioa:** esanahi desberdinak, ukigarri zein ukiezinak, identifikatzen diren esparru naturala, lurreakoa, itsasertzekoa, ibaietakoa, landagunekoa, hirigunekoa edo hiri-ingurukoa.

Arkeologia- eta paleontologia-jarduerei buruzko araubide berezia ezarri da, ondorengo definizioen arabera:

- a) Prospekzio arkeologikoa: lur-eremu baten esplorazioa da, era guztietako aztarna historikoak, arkeologikoak edo paleontologikoak bilatzera zuzentzen dena; erabiltzen den teknikaen arabera, honako era hauetako batekoak izan daitezke:
- Ikusizko prospekzioa: gainazalaren esplorazioa da, lur-eremu baten miaketa ere egiten duena eta interes arkeologikoa edo paleontologikoa duten materialak biltzea ekar dezakeena.
 - Prospekzio geofisikoa: lurpearen azterketa da, zientzia fisikoen aplikazioaren bitartez egiten dena.
 - Lagin bidezko prospekzioa: espazio mugatu batetik lurra erazte da, leku horretan aztarnategi arkeologiko bat dagoen edo ez egiaztatzeko egindakoa. Prospekzio hori amaitutzat emango da lehen ebidentzia arkeologiko kontestualizatuak agertzen direnean.
- b) Zundaketa arkeologikoa: eremuaren osotasunarekiko proportzioan, neurri txikikoa den indusketa da, eta aztarnategi arkeologiko baten sekuentzia estratigrafikoa ezagutzeko egindakoa.
- c) Indusketa arkeologikoa: aztarna arkeologikoak eta paleontologikoak ikertzeko, dokumentatzeko eta lurpetik ateratzeko edo erazteko jardura da, sedimentuen estratigrafiari jarraituz.
- d) Kontrol arkeologikoa: interes arkeologikoa izan dezakeen espazio bati eragiten dioten edo eragin diezaioketen obra-prozesu batean esku hartzea da, hau da, obra horiek gainbegiratzea, behar izanez gero, obra horiek egiten diren bitartean agertzen diren interes arkeologikoko ebidentzia edo elementuen kontserbazioa edo dokumentazioa ahalbidetzen duten neurri egokiak ezarrita.
- e) Labar-artearen ikerketa: metodo arkeologikoaren bidez ikertuak izan daitezkeen labar-adierazpenak eta haien testuinguruak ikertzera, haien dokumentazio grafikoa egitera eta erreproduzitzera zuzendutako landa-lanen multzoa da.
- f) Altxaeren azterketa estratigrafikoa: eraikinen eraikuntza-bilakaera aztertze eta ezagutzeko metodologia arkeologikoa aplikatzea da. Ez da jardura arkeologikotzat joko altxaeren azterketa estratigrafikoa, baldin eta haren xedea hezkuntza-metodoa edo prestakuntza ezagutzea edo ikastea bada eta ez badakar berekin ondasunaren gaineko loturarik.
- g) Jardura paleontologikoa: jardura paleontologikotzat joko dira zona paleontologikoa ikasgai duten landa-lanak (prospekzioak, zundaketak, indusketak edo kontrolak izanik

ere), zonak ez badu metodologia arkeologikoa aplikatzea eskatzen, horrela denean zona arkeologikotzat joko baita.

Era berean, legearen 65. artikuluan **“Ustezko eremu arkeologikoak”** definitzen dira, aztarna arkeologikoak egon daitezkeela uste den eremuetan, jabeak edo egin nahi diren obren sustatzaileak **azterketa bat aurkeztu behar du, hirigintzako lizentzia eman baino lehenago, orubearen edo eraikinaren balio arkeologikoari eta obra-proiektuan izan dezakeen eraginari buruz**. Foru-aldundiek arautu egingo dute zein kasutan ez den beharrezkoa izango azterketa hori aurkeztea proiektu arkeologikoa egiteko. Hala, lortutako informazioan oinarrituta erabakiko da beharrezkoa den ala ez babes ematea babes berezia edo ertaina duen kultura-intereseko ondasun deklaraturata, edo adieraziko da lege honen arabera babes merezi izateko moduko kultura-baliorik ez duela.

6/2022 DEKRETUA, urtarrilaren 11koa, Euskal Kultura Ondarearen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroari buruzkoa.

6/2019 Legearen 23. artikulua adierazi bezala **Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroa** sortzen da, kultura-ondasun higiezinak, higigarriak eta immaterialak babesteko eta kudeatzeko tresna gisa. Bertan, **deklarazioa jaso duten babes bereziko eta ertaineko ondasunak inskribatuko dira**. Eusko Jaurlaritzan kultura-ondarearen eskumena duen sailak kudeatuko du Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroa. Dekretu horren arabera, erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua ezarriko dira.

Erregistroak babesaren esparruan duen funtsezko eginkizunak **eskatzen du idazkunak modu erraz eta eraginkorrean kudeatzea, inskripzio-sistema bizi baten bidez, baina, aldi berean, erregistro publiko baten berezko bermeez hornituta, erregistratutako datuen zorrotzasunari, formalismoari eta egiazkotasun frogagarriari dagokienez**. Era berean, titularren eta ukitutako eskubideak (haien irudi-eskubidea, intimitatea, datu pertsonalak...) **kontuan hartuta, orekatu egin behar da artxiboetara eta erregistro publikoetara jotzeko eskubide unibertsala, eta soilik jaso behar dira Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroaren babes-helburuak betetzeko ezinbestekoak diren datuak**.

4.2. BABESTUTAKO ONDASUNAK KATALOGATZEKO IRIZPIDEAK ETA EGITURA

Ondasun Babestuen Katalogoak, hirigintza-plangintza orokor berriaren testuinguruan hiri-ondarea babesteko berriazko tresna da. Horregatik, bere helburu orokorra izan behar da hiribilduari kultura-ondare izateak ematen dizkion ondasunen eta espazioen kontserbazioa, modernizazioa eta berrikuntza modu koherentean artikulatzea, honako garrantzizko balioak identifikatuta eta birformulatuta: ondare, morfologia, arkitektura, historia, hiri, paisaia eta kultura. Hori guztia, beti ere hiribilduaren hiri-ondarea erreferentzi eta irudi izanda, hau da, memoria kolektiboaren gordetzailerik.

Babes berezi eta ertain izendatutako higiezinak Zumarragako arkitekturaren bikaintasunaren adierazgarriak izan arren, ezin dira bakarka ulertu, inguruko testuinguru sozialetik, funtzionaltatik eta historikotik aparte. Izan ere, hiribildu osoa aintzat hartuta soilik hautematen da kulturaren duen eginkizuna, hala, tokiko nortasuna, historian zehar egindako eraikuntzen, materialen eta kulturalen, emaitza da.

Eraikin eta hiri-espazio bakoitzak hiriko historiaren zati bat erakusten du eta bere nortasuna eraikitzen dute: bide-egitura, herri-arkitektura, espazio libreak, lurraldea... Monumentu-elementuak ezin dira substratu horretatik banandu, ezta herrian dauden alderdi ez-materialetatik ere, horiek osagai guztiak modu koherentean eta ordenatuan lotzeko gai baitira. Horiek guztiak Zumarraga definitzen dute: hiri-forma, esanahi historikoa eta balio historikoak zein artistikoak.

Testuinguru horretan oinarrituta dago proposatzen den Ondasun Babestuen Katalogoaren Aurrerakina. Hiribildua beraren ikuspegian oinarritutako testuinguruan hori ondare-egitatzat hartu da, hiria eta kultura batzen dituen kontzeptutzat, hori izan da Katalogoaren Aurrerakina egiteko abiapuntua. Hala, babestu beharreko elementuetan, hiribilduaren eraikuntzan izan duten edo zuten ekarpenaren ondoriozko balioak identifikatu nahi izan dira, bai ikuspegi morfologikotik, bai historikotik eta kulturaletik, berezko ezaugarri materialei eta formalei dagozkien balioen neurri berean edo handiagoan. Balio horiek pisu espezifiko erabakigarria izan behar dute kasu batzuetan eta besteetan, aldiz, pisu hori elementuaren bokazioan nabarmen oinarrituko da, hiribildua eraikitzen laguntzen duelako.

Beraz, multzoari dagokionez, elementu bakoitzaren ondorengo balioak identifikatuko dira: historia, artea, morfologia eta lekukotasuna. Hau da, zatiek osotasunari -hiribilduari -erreferentzia egitea, horrek ematen baitio zentzua horietako bakoitza babesteari. Hori kontuan izanda honakoa lortu da:

- a) Egiazkotasuna. Izan ere, hiri-balioen kontserbazioa ondasun osoaren balioa transmititzeko beharrezkoak diren elementuen proportzio handia mantentzearen menpe dago. Horrez gain, egungo eta etorkizuneko harreman eta funtzio dinamikoak mantentzearen menpe ere badago, horiek funtsezkoak baitira ondasunaren izaera bereizgarria eusteko.
- b) Osotasuna. Faktore horrek, hiri-biziaren kasuan, kontuan hartu behar du historian zehar etengabe izan duen bilakaera eta egokitzapena, bere balioetako eta ezaugarrietako bat baita.
- c) Irakurgarritasuna, kultura-baliiodun elementuek behatzaileari bere esanahia eta identitatea inplizituki transmititzeko (esplizitu egiteko) duten gaitasunari dagokio.
- d) Jasangarritasuna, ondarearen babes eta bere etorkizuneko belaunaldiekin bateragarri egiteko beharri egiten dio erreferentzia, egungo erabilerarekin eta aprobetxamendurekin, kultura-ondarearen papela balio eta baliabide izanda.

Ondarea mantentzea ez da berez helburua, baizik eta gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldiei honakoen multzoa transmititzeko bidea: esanahia, ezagutza, identitatea eta abar eta gizartea haren mantentze-lanetan inplikatzea. Hala, egiazkotasuna, osotasuna, irakurgarritasuna eta jasangarritasuna dira ondare balioak transmititzea bermatuko duten faktoreak.

Katalogoziorako ezarritako irizpideak zehaztu ondoren, batez ere babes berezirik gabeko ondasunetarako, **Zumarragako Ondasun Babestuen Katalogoaren dokumenturako lortu nahi den egiturari buruz, printzipioz, honako hiru sistema izango ditu:**

4.2.1. ARKEOLOGIA-ONDAREA BABESTEKO SISTEMA

Udal-eremuetan ezarriko da, ondasun higiezin historikoak azalean zein lur azpian edo urpean egonda ere, erauziak izan edo ez, eta arkeologia-metodologiaren bidez aztertze modukoak badira. Horiei administrazio eskudunak ezarritakoa aplikatuko zaie, interes publikoa babesten duen kautelazko araubidea behar dutelako. Halaber, beharrezkoa izango da Arkeologia Ondare Emergenterako babes araubidea ezartzea, lurrazalean dauden eta arkeologia-metodologiaren bidez azter daitezkeen ondasun higiezinek osatua, haien kontserbazio-egoera edozein dela ere.

Arkeologia Ondarea Babesteko Sistemak helburu hauek ditu abiapuntu:

- Inguruko kokaguneak, horien kontserbazio-egoera eta hondatzeko arriskua ezagutzeko behar diren baliabideak ezartzea.

- Babes-eremuak definitzea, aurreko puntuan ezarritako irizpideen arabera.
- Aztarnategi horiek babesteko eta balioa emateko eredia sortzea.

Arkeologia Ondarea, Azpikoa eta Emergentea, babesteko tresnatzat, Zumarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean babes-maila hauek ezarri dira:

- a) **A Maila. EAEko Kultura Ondasunei buruzko Erregistroan inskribatutako arkeologia-guneak, Kultura Ondasun sailkatuak, Monumentu Maltzo eta Babes Berezi kategoriarekin.** Honako hauek dira:

IZENA	AITORPEN-DATA
IRUARRIETAKO ESTAZIO MEGALITIKOA (14^a)	
28.- AANTZETAKO GAÑAKO TUMULUA	
29.- ELORRIETAKO TUMULUA	137/2003 Dekretua, ekainaren 24koa
30.- IRUARRIETA IIKO TRIKUHARRIA	<u>EHA 133.zk, 2003-07-08</u>
31.- OLETAKO TUMULUA	
32.- PAGOBAKARRAKO TUMULUA	

A Mailak esan nahi du arkeologiako monumentu-maltzo horiei Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen VI. tituluko I. kapituluko 2. atalean (babes bereziko kultura-ondasunen araubide berariazkoan) jasotako zehaztapenak aplikatuko zaizkiela. Bereziki, esku-hartze arkeologikoetan errespetatu beharreko irizpideei dagozkienak, 6/2019 Lege honen 38. artikulua 2. zenbakian garatzen direnak. Nolanahi ere, euren Dekretuetan ezartzen diren zehaztapenak nagusituko dira.




Iruarrietako Estazio Megalitikoak

Ondare arkeologikoa / Patrimonio arqueológico

- ◆ Babes-maila A / Nivel de protección A
- ◆ Babes-maila B / Nivel de protección B
- ◆ Babes-maila C / Nivel de protección C

Zehaztapen grafikoak / Determinaciones gráficas

- Hiri-lurzorua / Suelo urbano
- ▭ Lurzoru urbanizagarria / Suelo urbanizable
- ⊕ Udalerria / Término Municipal





Iruarrieta II Trikuharria

b) **B Maila. Ustezko eremu arkeologikoak.** 1997ko irailaren 17koa, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen erabakiaren bidez, 1997ko irailaren 11ko erabakiak iragartzen dira, hau da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko hainbat udalerrri Balizko Arkeologia Gune aitortzen dituztenak (EHAA, 208 zk.1997/10/30). Aitorpen horretan, higiezin bakoitzean ustezko arkeologia-elementuen mugaketa-mota alfabetikoak aipatzen dira, honako hauek:

- A MOTAKOAK: eraikinaren hormez barruko esparrua.
- B MOTAKOAK: eraikinaren hormez barruko esparrua + 15 metro inguruan, kanpoen dauden ertzetatik hasita.
- C MOTAKOAK: elementuak hartzen duen esparrua + 5 metro inguruan, kanpoen dauden ertzetatik hasita.
- D MOTAKOAK: eraikinak eta berari atxikitako instalakuntzek hartzen duten esparrua.
- E MOTAKOAK: planoan zehaztutako esparrua.

Fitxa zenbakia	IZENA	AUZOA	MUGAKETA-MOTA
1	LEGAZPI DORRETXEA		A
2	SAN GREGORIO BASELIZA	Eizaga	A
3	ANDRE MARIAREN JASOKUNDEA ELIZA		A
4	LEGAZPI EDO JAUREGUIKO BURDINOLA (eraitsita)		E
5	ZUFIAURREKO AMA BASELIZA (eraitsita)		E
7	ABENDAÑO BASERRIA		A
8	KORTABERRIA BASERRIA		A
9	LETURIA BARRENA BASERRIA		A
10	AIZKIBEL BASERRIA		A
11	ANDUEZU BASERRIA		A
12	SAN KRISTOBAL BASELIZA	San Kristobal Auzoa	B
13	ORAA GOIKOA BASERRIA	San Kristobal Auzoa	A
14	ALZOLA BASERRIA		A
15	AMOTXEBERRI BASERRIA	San Kristobal Auzoa	A
16	AMBUALDE BASERRIA	San Kristobal Auzoa	A


Ondare arkitektonikoa / Patrimonio arquitectónico

- ◆ 1. maila. Babes Berezia / Nivel 1. Protección Especial
- ◆ 2. maila. Babes ertaina / Nivel 2. Protección Media
- ◆ 3. maila. Oinarrizko babesa / Nivel 3. Protección básica

- ▭ Lurzoru urbanizagarria / Suelo urbanizable
- ▭ Udalerria / Término Municipal

Zehaztapen grafikoak / Determinaciones gráficas

- Hiri-lurzorua / Suelo urbano



17	IBURRETA BASERRIA (eraitsita)		A
18	AITZABASO DORRETXEA	Aramburu	A
19	AIZPURU BASERRIA	Aramburu	A
20	LANDABURU BASERRIA	Soraiz	A
21	SANTA ISABEL TENPLUA (La Antigua)	Eizaga	B
22	GURRUTXAGA GOIKOA BASERRIA	Aramburu	A
23	AGERRE BASERRIA	Soraiz	A
24	SORAIZ ERDIKOA BASERRIA		A
25	BIDAURRETA BASERRIA (eraitsia)		A
26	URUEZABALETA BASERRIA (eraitsia)	Elgarresta	A
27	MATXAIN BASERRIA (gaur egun gorta)		A

B Mailaren arabera, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 65. artikulua beteta, eremu horietan, orubeetan edo eraikinetan, jabeak edo egin nahi diren obren sustatzaileak azterketa bat aurkeztu behar du, hirigintzako lizentzia eman baino lehenago, orubearen edo eraikinaren balio arkeologikoari eta obra-proiektuan izan dezakeen eraginari buruz. Foru-aldundiek arautu egingo dute zein kasutan ez den beharrezkoa izango azterketa hori aurkeztea proiektu arkeologikoa egiteko. Behin azterketa egin eta gero, foru-aldundiak zehaztuko du ea proiektu arkeologikoa beharrezkoa den edo ez, eta, hori guztia ikusirik, obra-lizentziaren aurreko baimena emango du.

- c) **C Maila. Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legeak babesteko proposatutako beste arkeologia-gune batzuk**, Gipuzkoako arkeologia-ikuspegi orokorrean interes nabarmena dutelako. Eremu hauek dira:

Fitza ZK.	IZENA	AUZOA
34	BELOKI	

C Mailaren arabera, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 65. artikulua beteta, eremu horietan, orubeetan edo eraikinetan, jabeak edo egin nahi diren obren sustatzaileak azterketa bat aurkeztu behar du, hirigintzako lizentzia eman baino lehenago, orubearen edo eraikinaren balio arkeologikoari eta obra-proiektuan izan dezakeen eraginari buruz. Foru-aldundiek arautu egingo dute zein kasutan ez den beharrezkoa izango azterketa hori aurkeztea proiektu arkeologikoa egiteko. Behin azterketa egin eta gero, foru-aldundiak zehaztuko du ea proiektu arkeologikoa beharrezkoa den edo ez, eta, hori guztia ikusirik, obra-lizentziaren aurreko baimena emango du.

Lortutako informazioan oinarrituta erabakiko da beharrezkoa den ala ez babes ematea babes berezia edo ertaina duen kultura-intereseko ondasun deklaraturata, edo adieraziko da lege horren arabera babes merezi izateko moduko kultura-baliorik ez duela, eta, horrenbestez, eremuari ez zaio inolako babesik emango.

Babes berezi Kalifikatutako Ondasun Higiezin izendatzen bada, A Mailako ondasunentzat xedatutakoa jarraituko da. Babes ertain Kalifikatutako Ondasun Higiezin deklarazioa aukeratzen bada, 6/2019 Legearen VI. tituluko I. kapituluko 3. atalean xedatutakoa jarraituko da.

ARKEOLOGIA-ONDARE EMERGENTEAREN BABESA

Honako arkitektura-babes maila hauetan jasotako higiezin osatzen duten arkeologia-ondare emergentea babestea proposatzen da:

- 1. Maila, Babes Berezia.
- 2. Maila, Babes Ertaina.

Hasiera batean, egin beharreko jarduera arkeologikoa altxaeren azterketa estratigrafikoa da, eraikinen eraikuntza-bilakaera aztertzeko eta ezagutzeko. Hala ere, monumentu izendatutako bi ondasunetarako (Andre Maria Antioko basiliza eta Legazpi Dorretxea), arkeologia-babeseko kultura-ondasuneko araubideari buruz xedatutakoa jarraituko da, Monumentu kategoriarekin.

USTEKABEKO AURKIKUNTZEN BABESA

Edozein arrazoiengatik eta udaleko edozein tokitan aztarna arkeologikoen ustezko aurkikuntzak Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean edo horien ordeko lege-xedapenetan ezarritakoa aplikatuko da. Beraz, lege horren 74. artikuluan ezarritakoarekin bat, jabari publikokoak izango dira.

Ezusteko aurkikuntzat joko da euskal kultura-ondareari dagozkion balioen jabe diren objektuak eta aztarna materialak aurkitzea, baldin eta aurkikuntza horiek zoriz edo edonolako lur-mugimenduren eta eraispenen baten edo edozein motatako lanen ondorioz gertatzen badira. Inoiz ere ez dira ustekabeko aurkikuntzat hartuko Kultura Ondasun izendatutako edo ustezko arkeologia-eremuetan aurkitutako arkeologia-elementuak.

Ezusteko aurkikuntzak berehala jakinarazi beharko zaizkio kasuan kasuko foru-aldundiari edo udalari. Udalak, edonola ere, foru-aldundiari eman beharko dio horren berri, berrogeita zortzi orduko epean.

Aurkikuntza hori lur-mugimenduengatik edo edozein motatako obrarengatik lortu bada, kasuan kasuko foru-aldundiak –edo, urgentziatzeko kasuetan, udal bakoitzeko alkateek– lan horiek berehala geldiarazteko agindu ahal izango dute gehienez ere hamabost egunetako eperako, foru-aldundi horri berrogeita zortzi orduko epean lanen geldiaraztea jakinaraziz. Geldiarazte horrek ez du ekarriko inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik. Beharrezko gertatzen bada, foru-aldundiak luzatu ahal izango du etenaldia, kasuan kasuko jarduera arkeologikoa izan dadin.

Foru-aldundiak beren gain hartuko du proiektu arkeologikoa idazteko eta betearazteko kostua, proiektu hori beharrezko gertatzen bada, salbu eta Eusko Jaurlaritzak eragindako ondasuna deklaratzeko espediente bat abiarazten badu. Kasu horietan aplika daitekeen jarduera arkeologikoa agertzen diren hondarren izaeraren eta balio zientifikoaren arabera izango da.

4.2.2. ARKITEKTURA-ONDAREA BABESTEKO SISTEMA

Banakako ondare balioa dutenei dagokie. Higiezin bakoitzari dagokion babes-maila esleitu zaio. Babes-maila hori oraindik kontserbatzen diren eta babes osoa edo higiezinaren oinarritzko ezaugarriak mantentzea bermatzen duten balioen arabera izango da. Hala, babes-maila bakoitzerako baldintza orokor batzuk daude eta espezifikokoak, aldiz, higiezin bakoitzerako.

Plan Orokorraren Antolamendu-aurrerakin honetan, katalogatutako higiezin bakoitzerako babes-maila ezarri da, babes osoa edo higiezinaren oinarritzko ezaugarriak mantentzea bermatzeko. Higiezinari babes-maila esleitzeko, kontuan hartuko dira oraindik kontserbatu eta babestu beharreko balioak (elementuak, eremuak edo eraikinaren osotasuna). Horretarako honako hiru maila ezarri dira:

- a) 1. Maila Babes Berezia
- b) 2. Maila. Babes Ertaina
- c) 3. Maila Oinarritzko Babesa

- a) **1. Maila, Babes Berezia.** Babes bereziko 1. maila honetan bi higiezin daude, EAEko Kultura Ondarearen Erregistroan inskribatuta. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren uztailaren 17ko 265/1984 Dekretuak (1984/08/04ko EHAA) monumentu izendatu zituen biak.

- SANTA MARIA ANTIGUAKO BASELIZA. Bere kokalekutik, Beloki mendiaren magaletik, Goierriko begiratoki ederrenetakoa den inguruko paisaia zoragarria da nagusi. Eraikin erlijioso da, luzitu gabeko harlanduxkoa, hiru nabeko oinplano angeluzuzena eta abside angeluzuzena dituena. Bere sendotasunagatik nabarmentzen da, nahiz eta eraikin honetako elementurik ikusgarriena zurezko barne-egitura den. Sarrera epistolaren aldetik egiten da. Bertan, gotikorako trantsizioko portada dago, txaranbeldua, eta bertan arkuen segidak pixkat apuntatzeko joera du. Hara XVI. mendeko eskalinata xume batetik iristen da. Sarbidearen gainean sei modiloiko ilara dago, gaur egun desagertuta dagoen ataripe zahar bati eutsiko liokeena. Barrualdea argizatuta



geratzen da hainbat formatako eta garai desberdinetako baoen bidez. Horien artean, burualdekoak eta epistolaren aldekoak nabarmentzen dira, leiho biki trilobulatua eta gezileihoak. Deigarria da eraikinaren hermetikotasuna; izan ere, nahiz eta gaur egungo landa-elizetako arkitektura-tipologia erlijiosoarekin bat etorri, defentsa izaera eta militarra du. 1976an zaharberritu zuten, kupula eta gurutzadurako ertz-gangak desmuntatu zirenean – itxuraz XVI. mendeko arotz-lana –, habe-armazioa eta kanpoko teilatuko gapirioak agerian uzteko. Antiguako ermitak inguru osoan duen ospea ziur aski armatzeko arotzariaren kalitateagatik eta berezitasunagatik izango da. Zalantzarik gabe, Euskal Herriko XVI. mendearen lehen erdiko zurezko egitura exentuen eraikin adierazgarriena da. Bai habeen diseinu konplexuari esker, bai apaindura-neurrien aberastasunari esker, garai hartako aurkikuntza adierazgarri onenak sintetizatzen ditu.

- LEGAZPI DORRETXEA. Eraikin exentua da, oinplano angeluzuzenekoa, beheko solairua, bi solairu eta bi isurialdedun estalkia ditu, eta gailurra fatxada nagusiarekiko perpendikularra da. XVI. mendeko tipologia bereizgarriari erantzuten dio: dorreei, haien defentsa-funtzioa etxebizitzarekin osatzen baitzen. Ondo berezitatiko bi



zati bereizten dira: arma-patioa eta jatorrizko etxe-dorrea, harlangaitzezkoak. Harlandua leku nobleentzat gordetzen da, eta XVI. mendeko eranskinak, dorrea moztutakoan eraiki zutenak, adreiluzko aparailua eta egurrezko bilbadura ditu. Fatxada nagusia patioaren aurrealdeari dagokio, eta sarbide zorrotza du; horren gainean dago Arriarandarren armarrria. Bigarren altuera pixkat irtenda eraikitzen da, txarrantxen gainean, eta benetako gezileihoak diren hutsuneak ditu. Goiko aldeko kadahalsoa oso interesgarria da, jatorrizko egitura gordetzen baitu eta argi eta garbi adierazten du eraikinaren jatorrizko funtzioa. Bolumen nagusitik, atzeko erdia jatorrizko dorreari dagokio, eta aurrekoa, berriz, garai bateko arma-patioaren hormaren gaineko handitzea da, dorreari (etxebizitza) leku gehiago emateko itxi zena. Eraikinak lursail batzuk ditu inguruan; bertan lorategi-eremu ederra dago, Orbegozo fabrikak eta trenbideak mugatua.

Ondasun horiei nahitaez aplikatu beharko zaie Dekretuan jasotako izendapenaren araubide partikularra, eta, betiere, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen VI. tituluko I. kapituluko 2. atalean aurreikusitako babes komuneko eta espezifikoko araubideak.

- b) **2. Maila, Babes Ertaina.** Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen Lehenengo Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera, babes-maila honetan jasotzen dira, aurreko Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen araberrako babes-adierazpenen ondasunak. Ondasun horiei nahitaez aplikatu beharko zaie dagokien aitortzen araubide partikularra, halakorik bada, eta, betiere, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen VI. tituluko I. kapituluko 3. atalean aurreikusitako babes araubide komuna eta berariazkoa.

Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan inskribatzeko proposatzen diren higiezinak honako hauek dira:

- **ANDRE MARIAREN JASOKUNDEA ELIZA.** (Fitxa 5. zk). 1576an hasi zen tenplua eraikitzen, baina hainbat fasetan egin behar izan zen. Hasieran, tenpluaren zatirik handiena euskal gotikoan eraiki zen. Areto-oinplanoa du, altuera bereko hiru nabe, fuste zilindrikoa eta doriar kapitelak dituzten zutabeetan oinarritutako gurutze-ganga batez estaliak. Portada nagusia, ordea, garai barrokoa da, eta erdi-puntuko arkuak dituen



arkupe zabaletik sartzen da bertara. Portadaren bertikalean dorrea dago, oinplano karratukoa eta erremate barrokoa. Barruko dekorazioari dagokionez, Mauricio Valdivielsok egindako kristo barrokoa eta XVIII. mendeko erretaula nagusia nabarmentzen dira, elementu barrokoekin eta neoklasikoekin.

- UDALETXEA (1.zk Fitxa). Eraikinak oinplano angeluzuzena du eta lau isurialdedun estalkia. Ganbararen parean, fatxadan zentratuta, herriko armariaren erreprodukzioa du. Gainera, bi eranskin berdin ditu, alde banatan Domingo de Aguirrebengoak 1925-1926an eraikiak; gorputz baxua ere badu, erdikoaren altuera berekoa, arku karpanel zabalaz osatua, eta goiko gorputza, elkarren ondoan dauden hiru bao dintelduk osatua.



Erdi-puntuko bost arkuz osatutako arkuteria nabarmentzen da behegainean. Horien gainean, baoak daude, batzuk zuzenak, eta balkoi jarraiari dagozkionak, berriz, erdi-puntuko arkuez errematatuta daude. Bao horietako batean herriko armaria nabarmentzen da.

Eraikin modernoa, herritarrari zerbitzu emateko, garai historikoa bateratuta (fatxada nagusia mantenduta, XIX. mendeko 60ko hamarkadan sortu zen bezala) berreraiki zuen arkitektoak egin zuen, gaur egungo etaparekin, administrazio-zerbitzuari funtzionaltasun-zentzua ematen saiatuta, eta, aldi berean, bere leku garrantzitsuenetakoan (areto nagusia) etorkizuneko irudia bilatzen saiatu da.

- EUSKADI PLAZA (10.zk Fitxa). Espazio karratuak osatzen du, zalantzarik gabe, Zumarragako arkitektura zibileko lekurik bikainenetakoa. Plaza inguratzen duten lau eraikinetatik hiru XIX. mendearen bigarren herenekoak dira, eta 1954an itxi zen behin betiko plazaren azken aldea. Plaza inguratzen duten etxeek multzo harmoniatsua osatzen dute portikoekin, eta bi solairuko altuera dute. Plazaren erdian Miguel López de Legazpiri eskainitako estatua dago.



- **LEGAZPIKO MONUMENTUA** (11.zk fitxa). Miguel López de Legazpi Gurruchateguiren estatua (1500-1572), espainiar almirantea eta gobernadorea. Filipinetako Kapitaintza Nagusiko lehen gobernadorea, Aniceto Marinos (1866-1953) eskultoreak egindako brontzezko idulkiaren gainean eginda dago eta 1897ko urriaren 2an inauguratu zen. Idulkian brontzezko bi behe-erliebe daude, Filipinetako eszenekin. Estilo figuratiboa du, eta gizaki katoliko eta kolonizatzailea irudikatzen du bere goraldian, idoloa garaituta (maskara bere oinarekin zapaltzen du).



- **ITARTE ETXEA** (Euskadi plaza, 9.zk) (12. zk Fitxa). Aurrekoaren anaiak eta Zumarragako indianoak, Ignacio María de Alberdik, antolatutako eraikuntza da. Eraikinak Uzcanga etxearen antzeko ezaugarriak ditu, eraikinen ilara bukatzen du, eta lau isurialdeko estalkia du, izkinetan harlandua duena eta balkoi-ilarak. Kapera izan zuen barruan.



- SAN MARTIN ERMITA AGINAGAN (13.zk Fitxa). 1540an eraiki zen, eta harlangaitzezko hormak ditu. Mendebaldeko fatxadako izkinak harlanduzkoak eta iparraldeko fatxadan erdi-puntuko arkudun atea dauka. Ekialdeko aurpegian bi handitze jasan ditu. Kanpandorre txikia ere badu.



- AITZAGABASO BASERRIA (19. zk Fitxa). "Areizaga Torrea" bezala ere ezaguna, eta Aramburu auzoan dago. Etxe blasoiduna, elkarrri atxikitako bi eraikuntzek osatua. Horietako batek besteak baino askoz altuera handiagoa du. Altuenak lau isurialdeko estalkia du, txikienak, aldiz, bi isurialdekoa. Fatxada nagusiak zirkuluerdiko bi arku ditu, ezkaratzera ematen duten ateez itxitakoa. Fatxada nagusian zentratuta, teilatu-hegalaren azpian, Areizagatarren armarriz zaharra dago, nobleen familia.



- SORAIZ ERDIKOA BASERRIA (20. zk Fitxa). Oinplano angeluzuzena eta hiru isurialdeko estalkidun eraikina. Bistako harlangaitzezko hormak ditu, harlanduzko eskantzuekin. Fatxada nagusian harlanduzko erdi-puntuko hiru arkuko portalada du. Horietatik, ezkaratzera iristen da, eta, handik, etxebizitzara eta ukuilura. Arkuen gainean zentratutako egurrezko hiru bao daude. Horma pikoa, zati batean zurezko bilbaduraz estalita dago. Alboetako fatxada batean balkoi luzea dago, egurrezko oinarria eta burdinazko baranda dituena.



- GURRUTXAGAGOIKOA BASERRIA (22.zk Fitxa). Soraitz auzoko etxe blasonatua. Oinplano angeluzuzena eta bi isurialdeko estalkiko eraikina. Fatxada nagusian, zirkuluerdiko bi arkuko arkupea du, eta horien gainean, armarrria. Baoak harriz eta zurez markatuta daude, eta antolamendu simetrikoa dute. Honako testua du: “Tomás Aguirrebengoa jaunak agindu zuen obra hau eraikitzea, 1768. urtean. “ Lehen solairuan bi balkoi kareel daude, eta horien gainean balkoi luzea.



Baserri honetako zurezko egitura nagusiko piezen artean, XVI. mendeko eraikin primitiboaren baten bat dago oraindik, gainera, horren berri dago dokumentalki.



1580ko abuztuaren 10eko agiriaren arabera (Oñatiko A.H.P.G. Vila-real Leg. 3969. F. 208 Juan Ochoa de Irigoien), egun horretan, Tomás de Gurruchagak Urretxu Lázaro de Iturbeko zurginari bere jabetzako baserría handitzeko eta berritzeko lanak egiteko eskatu zion.

Hurrengo mendeetan garrantzi handiagoko edo txikiagoko beste erreforma asko egin ziren, baina, agian, garrantzitsuena eta baserriaren egungo irudian arrastoa utzi duena 1768an egindakoa da, fatxada nagusiko armarrriaren azpian ageri den inskripzioak ziurtatzen duena. Bertan haxe irakur daiteke hitzez hitz: “ Tomás Aguirrebengoa jaunak agindu zuen obra hau eraikitzea, 1768. urtean”. Garai horretakoa da solairu bateko altuera egitea eta fatxada nagusiari atxikitako horma-arte berria handitzea.

Esku-hartze hori, garai barrokoaren ezaugarria, alde batetik fatxada nagusia nabarmentzera bideratuta zegoen, elementu landuak eta adierazgarriak erantsita, hala nola, portaleko bi arkuak edo armarrria. Bestetik, bizigarritasun-baldintzak hobetzera, ordura arte beheko solairuan bakarrik garatu zen etxebizitza-erabilera lehen solairura zabalduta, bertan logelak zeuden gune zentralaren inguruan antolatuta. Espazio zentral hori, handik aurrera, eta oraindik baserri askotan gertatzen den bezala, familia-jantokia edo biltokia zen ospakizun handietarako, festak, bataioak eta abar ospatzeko.

- AMBUALDE BASERRIA (24. zk Fitxa). Lastaola Errekaren gaineko malda handiko hegalean dago, Zumarragako hirigunetik ipar-ekialdera. 22,50 m x 20,50 m-ko oinplano angeluzuzeneko




eraikina da, bi isurialdeko estalkiarekin, kanal-teiladuna. Bi solairu ditu, ganbara eta sotoa; bestalde, hego-ekialdeko fatxada nagusian harlangaitzeko hormak, harlanduzko eskantzuak eta egurrezko bilbadurak ditu. Eraikinaren barruko egitura pieza bakarreko hamabi zutoinetan bermatuta dago, eta karga-horma du, sotoaren gainean, hego-mendebaldeko etxebizitza-zatia bereizten duena. XVI. mendeko baserria da. Estalkia eta fatxadak 1995ean zaharberritu ziren. Egurrezko egitura nabarmentzekoa da, XVI. mendeko enara-isatsak dituelako. Baserri honen berri dokumentalak XVIII. mendearen erdialdetik aurrera izan ziren, Areizagako baroia eta Narrosko markesa izan ziren horren jabeak. Hala ere, eraikinaren ezaugarriak ikusita, antzinatasun handiagoa eman dakioko.

- UROLA TREN-GELTOKIA (29.zk Fitxa). Arkitektura-elementuen estiloa XX. mendearen hasierako arkitektura neoeuskaldun eta eklektiko adierazgarrienari dagokio, Hipólito Olozola arkitektoak proiektatua. Jatorrian lau eraikin ziren: geltokia bera, biltegia, kotxetegiak, nasa eta komunak. Gaur egun, geltokia, nasa eta komunak baino ez dira gelditzen. Bereziki nabarmentzen dira geltokiko komunak (29-3 eta 29-4).




- ESTEBÁN ORBEGOZO GALDATEGIA (34.zk Fitxa). Zarautzen zuen jatorria eta bertan honakoak egiten ziren: sukalde ekonomikoak, zurak entxufatzeko prentsak, labe eramangarriak eta abar. 1930ean Zumarragan jarri zen, Iparreko Trenaren alboko lurzoruetan. Honakoek osatzen dute: xurgatze-iragazkia, ijezketa-trenak, tximinia, txatar-parkea eta biltegia. Ijezketako trenak eta tximiniak ondare-balio handia dute, gainerako elementuak ez dira aipagarriak. Hori guztia multzo homoginoa da estetikoki, nahiz eta aldaketak izan diren. Eraikin horiek ekoizpen-sektorerara egokitutako lerro funtzionalaren barruan daude.



Esan bezala, hauek nabarmentzen dira bereziki:

Ijezketa-trenak (34-2).

Ijezketa-trenak -biltegiak, lantegi mekanikoa eta bulego orokorrak barne-altzairutegi osoaren eraikin garrantzitsuena osatzen dute. Hasiera batean, gaur egun garajea denak eta trenak osatzen zuten, eta luzatu egiten zen fabrikaren eremu osoa okupatu arte, baita gaur egun aparkalekurako libre geratu dena ere. 80ko hamarkadaren amaierako erreformak, ordea, jatorrizko nabe batzuk bota, eta gaur egungoak eraiki zituen, oso ezaugarri desberdinetakoak. Hala, altxaeran, oso erraz bereizten dira hormigoi armatuzko jatorrizko eraikuntzak (gaur egun garajerako erabiltzen den etxebizitza-eraikina eta ganga-formako bi ijezketa-trenak) eta berrienak (egitura metaliko aurrefabrikatua eta xafla galvanizatuzko itxiturak). Batuketa bidezko hazkunderari dagokion bezala, multzoaren oinplanoa irregularra da, nahiz eta gehienbat laukizuzen itxura hartu, horren alderik luzeenak trenbidearen trazadurarekiko eta GI-632 errepidearekiko paralelo daude.





Tximinia (34-3).

Tximinia ijezketa-trenaren eta garajearen arteko angeluan dago. Bistako adreiluzkoa da eta konoenbor forma du, uzki-errefortzu metalikoekin. Oinarrian, adreiluzko moldura moduko apaingarria du, perimetro osoa inguratzen duten arkutxo zorrotzetan antolatua.



- LIZARATZU ERROTA (38.zk Fitxa). Bi altuerako harrizko eraikina da, bi isurialdeko estalkia duena. Burdinazko hiru errodetek mugitutako hiru harri-parerekin lan egiten zuen. Ehotzetik, gainera, lau irin mota lortzen zituen.





- **AZPIESTAZIO ELEKTRIKOA (45.zk Fitxa).** Azpiestazioa Zumarragaren irteera errepidearen eta lantegiaren artean dago. Oinplano angeluzuzeneko eraikina da, behe solairua eta garaiera handiko solairua ditu. Fatxadan altuera txikiagoko gorputza dauka, beheko solairua eta solairu bat ditu. Egitura hormigoi armatuzkoa da, igeltserotzako itxiturak zarpeatuak eta bi aldeetan pintatuak ditu, okre kolorekoak, adreiluz estalitako gorputz atxikia izan ezik. Eraikin sinplea da, inolako asmorik gabea, eta bere funtzionaltasunari egokitzen zaio.



- LORATEGI HIRIA (55.zk Fitxa)



- LA SALLE IKASTETXEA (87.zk Fitxa). 1914an inauguratu zen.





- LEGAZPIKO ETXEBIZITZA-TALDEA (89.zk Fitxa). Gerraosteko aldirian hasitako langile-etxebizitzaren lehen proiektuetako bat da, Domingo Unanuek 1940an marraztu eta 1946an EIneren onarpena lortu zuen. Ondorengo aldaketak Ramón Martiarena jaunak sinatu zituen.



- UROLAKO TRENAREN ZUBIAK:
BAT ZENBAKIA (105.zk Fitxa),
HIRU ZENBAKIA (107.zk Fitxa),
LAU ZENBAKIA (108.zk Fitxa),
BOST ZENBAKIA (110.zk Fitxa)
SEI ZENBAKIA (111zk. Fitxa).



- AIZKIBELEKO UROLAKO TRENBIDEKO TUNELAK (112.zk Fitxa), IZUZKITZA (113.zk Fitxa), AIETSUBASO (114.zk Fitxa), LARREGI (115.zk Fitxa), eta MUGARRIETA (116.zk Fitxa).
- TRENBIDE AZPIKO PASABIDEA (117.zk Fitxa)
- TRENBIDEAREN TRAZADURA (118.zk Fitxa)
- AGUIÑETAKO EDO AGINAGAKO ESTALPEA (30.zk Fitxa). Urolako trenbideari lotutako eraikina da.
- IGARABERRI ERROTA (40.zk Fitxa).

1685 ean Zumarragako Kontzejuak igara berri bat egitea erabaki zuen; Igaraberri izena hortik dator. 1740 urtera arte Igara baserria nahiz errota Udalarenak izan ziren eta herritar guztiek zuten han bihia ehotzeko eskubidea. 1738an, konponketan garestiak egin ondoren, Kontzejuak errota saltzea erabaki zuen. XX. mendearan atarian argindarra sortzeko erabiltzen hasi zen.



- ZUMARRAGAKO ITURRIA (46.zk Fitxa)

José María eta María Jesús Aguirrebengoa anaiei eskainitako iturri monumentala, baita José Javier Uribarreni ere. Haren filantropiari esker, 1860an ura ekarri zuten.



- ESTEBAN ORBEGOZO EKONOMATOAREN ERAIKINA (59.zk Fitxa).

Ekonomatua desagertu egin zen, Ramon Mendia Etxea izeneko eraikinaren behe solairuan zegoen. Etxean Ramon Mendia bizi zen. Zumarragako bizilagunaren semea zen, Kubara emigratu eta aberastu zuena. Mendiak hainbat burdineri izan zituen eta horietako bat etxe honetako behe solairuan zegoen. Teilatu laua, ibilgarria eta solariuma dauka.



- LEGAZPI ETXEA 8-10 (79.zk Fitxa). Bost solairuko eraikina da, erlaitz batekin errematatua dagoena, eta horren gainean seigarren solairua eraiki da. Erabilera komertzialeko behe solairua du, bao dintelduak dituena eta sarrerako atea bi pilastra atxikiz inguratuta dago. Fatxada nagusiko balkoiak hegalean daude eta harrizko mentsula apainduen gainean bermatzen dira. Harlanduzko platabandek fatxada apaintzen dute.



- SECUNDINO ESNAOLA ETXEA 36. zk. (84.zk Fitxa).



- c) **3. Maila, Oinarrizko Babesa.** Maila honetan jasoko dira tokiko interesdun higiezinak. HAPOk, babestu beharreko elementuak izateagatik, banakako balioa ematen die, gutxienez kanpo itxituren; eta horien irudian balio babesgarriak dituztenean, euren ingurunearekiko, eta hiri-ingurune edo -paisaia jakin baten konfigurazioa osatzen dutenean. Aurrerakin honetan higiezin hauek proposatu dira:

- **SAN GREGORIO BASELIZA** (4.zk Fitxa). 1540an eraikita zegoen. Lehen mendeetan Santa Engrazia ermita izenez ezaguna zen, eta izen hori XVIII. mendean San Gregoriorekin batera erabiltzen hasi ziren. Gero, azken izen horrekin bakarrik ezagutu zen. Formari dagokionez, oinplano angeluzuzena eta bi isurialdeko estalkia ditu. Bistako harlangaitzezko hormak ditu, tenpluaren oinaldean dagoena izan ezik, harlangaitzezkoa eta adreiluzkoa baita. Albo batean egurrezko egiturako arkupea du, eta pilastrek eusten dute. Pilastrek sarrera babesten dute ate dobelatuaren bidez. Barrualdeak hiru nabe ditu, alde bakoitzean hiru pilastrako bi ilarek banatuak. Epistolan bost bao dauzka.



- **ZUMARRAGAKO UDAL-HILERRIA** (6.zk Fitxa). GOYA KAPERA (6-1), UGALDE FAMILIAKOA (6-2), ALBERDI ETA LARRAÑAGA FAMILIAKOA (6-4), PANTEOI LARRAÑAGA ETA URKIOLA (6-5).



- **SAN KRISTOBAL ERMITA** (7.zk Fitxa). 1540an eraikita zegoen, eta Aranburu auzoko baserrietako bizilagunentzako oinarri zen. Formalki, oinplano angeluzuzena eta bi isurialdeko estalkidun eraikina da. Harlangaitzezko hormak ditu, harlanduzko eskantzuekin. Eraikin sinplea da, apaindura gutxikoa eta ekialdera begira dagoena. Barrualdean, presbiterioaren gainean, XVII. mendeko zurezko ganga trapezoidala nabarmentzen da. Urdinez margotuta zegoen eta zero deitzen zitzaion bere koloreagatik. Gainera, guadamecí (aldarearen estaldura) ederra du.



- **KARITATEKO MERTZEDARIEN KOMENTUKO KAPERA** (16.zk Fitxa). 1930ean eraiki zen eta garai hartarako estilo modernoa du. Fatxada nagusiak ojiba-arku handia eta hiru arku beheratu dituen sarrera-arkupea ditu. Arkuak pinakulu neogotikoz bereizita daude. Atxikita oinplano karratuko dorrea dauka eta hori ere pinakulu neogotikoz errematatua dago. Akabera-materialak xalotasun aparta ematen dio, barrualdera ere hedatzen dena, eta lerro zuzenekin efektu artistiko handia lortzen du.



- **IZAGIRRE HANDI BASERRIA** (17. zk Fitxa). Oinplano angeluzuzena eta bi isurialdeko estalkidun eraikina. Harlangaitzezko hormak eta harlanduzko ertzak ditu. Atzeko fatxadan, bigarren solairuak eta ganbarak zurezko oholtza dute, hormapikoa libre utzita. Ezkaratzean harlanduzko ate dinteldua dago, etxebizitzarako sarbide dena. Gaur egun gorpuzkinak baino ez dira geratzen.



- **AIZPURU BASERRIA** (23.zk Fitxa). Etxe-dorrea, oinplano angeluzuzenekoa eta lau isurialdeko estalkia duena. Harlangaitzezko hormak, eskantzuak eta harlanduzko baoen inguruak ditu. Fatxada nagusian, hiru arku karpanel beheratuko portalada dauka. Horietako bi itsututa daude eta batean bao bat ireki da. Gainean bi balkoi daude, harrizko oinarria eta burdinazko baranda dutenak. Arkuen bidez, ezkaratzera iristen da. Ezkaratz horretan, ate dinteldu ederra etxebizitzaren sarbide da.



- MATXAIN BASERRIA** (26.zk Fitxa). Oinplano angeluzuzena eta bi isurialdeko estalkidun eraikina da. Hormak harlangaitzezkoak dira eta ertzak harlanduzkoak. Urolaren beste aldean dagoen baserria da, Legazpiko Agirrebengoa orubearen parekoa. Ezin izan da barrura sartu. Jakina da eraikin honek zurezko egitura osoa zuela, aldaketarik gabe. Egurrezkoak ere izaten ziren barrualdeko banaketak eta azienda (ganbelak). 2018an barrutik kanporatu zuten eta berriro egin zuten, nahiz eta ez jakin jatorrizko materialak berrerabili zituzten ala ez. Baserritik gertu, ipar-ekialdean, Matxaingo burdinola zaharraren hondakinak daude, Iparraldeko Trenbidearen ondoan. Hala ere, sasiak direla eta, gaur egun aurriak ez dira ikusten. Ikerketa arkeologikoa beharrezkoa da.



- FUNDICIONES ORBEGOZOKO LANGILE-ETXEAK** (48.zk Fitxa). Dentsitate txikiko auzoa, 1960ko hamarkadan eraikia, Esteban Orbegozo enpresak espazio publikoei bereziki garrantzia emanda. Esteban Orbegozo Galdategiaren inguruan eraikitako etxebizitza-multzoa da, hain zuzen ere, enpresa horren fundatzailearen izena hartzen duen pasealekuan egina. Bloke isolatuak edo



exentuak dira, kanpotik itxitura zeramikoengatik bereziak. Bloke bakoitzak oinplano angeluzuzena du, fatxada nagusia alde handienetakoan dutelarik. Altxaeran, lau altuera dituzte (beheko solairua eta hiru solairu) eta bi isurialdeko estalkia eta gailurra fatxada nagusiarekiko paralelo dute. Argiztapena hormakoa da, hiru leiho-erregistroren bidez lortua, eta fatxada nagusian ardatz horizontaleko laukizuzenak dira nagusi; alboetan, berriz, haizebide txikiak daude. Solairuetako barne banaketa fatxadetan agertzen da, hain zuzen ere leihoen erregistro horien bidez, baita bi inposta-lerroren bitartez ere, irtengune mailakatutzat, goiko solairua inguratuta. Beheko solairuan barneko etxebizitzetara nahiz beheko lonjetarako sarbideak daude. Tamaina handiko laukizuzenak eta ardatz bertikalekoak konbinatzen dira jendea sartzeko.

- EITZA FRONTOIA (49.zk Fitxa).



- ZUMARRAGAKO PROBALEKUA (51.zk fitxa).

Harria arrastatzeko probaleku homologatua. Euskadi plazan dago.



- SORALUZE ETXEA 11 (67.zk Fitxa).



- SORALUZE ETXEA10 (68. zk Fitxa).



- SORALUZE ETXEA 9 (69. zk Fitxa).



- SORALUZE ETXEA 7 (70. zk Fitxa).
- SORALUZE ETXEA 8 (71.zk Fitxa).
- SORALUZE ETXEA 6 (72.zk Fitxa).
- SORALUZE ETXEA 4 (73.zk Fitxa).
- SORALUZE ETXEA 2 (74. zk Fitxa).
- SORALUZE ETXEA 5 (75.zk Fitxa).
- SORALUZE ETXEA 3 (76.zk Fitxa).



SORALUZE ETXEA 7



SORALUZE ETXEA 3



SORALUZE ETXEA 8



SORALUZE ETXEA 6



SORALUZE ETXEA 4



SORALUZE ETXEA 2



SORALUZE ETXEA 5

- SORALUZE ETXEA 1 (77.zk Fitxa).



- LEGAZPI ETXEA 12 (80.zk Fitxa).



- LEGAZPI ETXEA 14 (81.zk Fitxa).

Harlanduz egindako eraikina, lau solairukoa. Horiek Isabeldar estilokoak dira eta 1860an eraiki zuten.



- SECUNDINO ESNAOLA ETXEA 30 (82.zk Fitxa).
- SECUNDINO ESNAOLA ETXEA 28 (83.zk Fitxa).
- UROLA ETXEA 10-12 (86.zk Fitxa).
- URDANETA ETXEA 20 (90.zk Fitxa).
- URDANETA ETXEA 17 (91.zk Fitxa).
- SAN GREGORIO ETXEA (94. Zk Fitxa).



SECUNDINO ESNAOLA ETXEA 30



SECUNDINO ESNAOLA ETXEA 28



UROLA ETXEA 10-12



URDANETA ETXEA 20



URDANETA ETXEA 17



SAN GREGORIO ETXEA

- LOIOLAKO ÍÑIGO ETXEA1-3 (96. zk Fitxa).



- ECHEBERRI AUZOA1 (98. zk Fitxa)



- KALEBARREN 8 (43.zk Fitxa).



- UZCANGA ETXEA (Euskadi plaza, 2). Zumarragako José Antonio de Alberdi indianoak 1867 inguruan eraikitako eraikina da. Egungo atzealdeko lorategiko sekuoia ere landatu zuen. Etxea udaletxearen ondoan dago eta arkupedun gorputza du. Solairu nagusian lau bao eta balkoia daude. Atzeko fatxadan solana dago hirugarren solairuaren parean, mainel batez zatitutako erdi-puntuko bi arkurekin. Kapera izan zuen barruan.



- KALBARIOAREN GURUTZEAK ANTIGUAN. Santa Maria kalbarioa. Hiru bidegurutzek osatzen dute, Antiguako igoeran, herriko lehen parrokiaren zegoen gurutze-bideko estazioetako bat da. 1747ko martxoaren 13an zurezkoak ziren gurutzeak aldatzea erabaki zen, eta haien ordez harrizkoak jartzea.



- "ITZIAR" ESKULTURA. Jorge Oteizaren eskultura da, poliedroz osatua. Lau metro garai eta bost metro luze da, sei tonako pisua du eta hiru milimetroko lodiera duen xaflaz egin dago. Itziar Carreño eskultorearen emaztearen izena darama, dagoeneko hilda dagoena, eta 1959ko proiektuari erantzuten dio. Oteizaren beraren hitzetan, eskulturaren aurpegiek eta hutsuneek eragiten dituzten argien eta itzalen joko nabarmenak da; gailurretan eta sakonuneetan Gipuzkoako paisaia, bertako herriak, haranak eta ibaiak ikusten dira. Monumentala den arren, arintasun- eta lebitazio-sentsazioa ematen du.



- **HERRIKO ARMARRIA.** 1764an egitea agindutako armarría, garaiko udalbatzak Gorteko Arma Erregeetako bati Udalarí aplika dakiokéen heraldikari buruzko txostena eskatu eta zentzu bereko marrazkia jaso ondoren. Bi gurutzez koroatutako zumar-zuhaitzak osatzen du. Zuhaitzaren azpian hiru urrezko barra daude eremu urdinean. Jatorrizkoa, Nafarroa plazako 1. zenbakian dagoen idulki handian dago, udaletxe zaharra eraitsi ondoren sortutako plazan.



- **AIZKIBEL BASERRIA.** XX. mendearen hasieran hiru baserri zeuden Aizkibel izenarekin, eta gaur egun bi daude: Aizkibelerdikoa eta Aizkibelaldekoa. Oinplano angeluzuzena eta bi isurialdeko estalkia duten bi eraikin dira. Hormak harlangaitzezkoak dira. Bertan behera utzita dago eta estalkiaren zati bat erori da (2019).



- **ALTZOLA BASERRIA.** Oinplano angeluzuzena eta bi isurialdeko estalkidun eraikina. Bistako harlangaitzezko hormak dauzka, harlanduzko eskantzuekin. Fatxada nagusiko ateeak eta leihoak ateburu aizunak dituzte. Atzeko fatxada harlangaitzez eta zurezko oholez egina dago.



- **ANDUEZU BASERRIA.** 2014. urtean erre zen eta berreraiki egin dute. Bi isurialdeko estalkidun eraikina da. Hormak harrizkoak dira. Ekialdeko fatxadan arkua zegoen.



- **GOIBURU BASERRIA.** Oinplano angeluzuzena eta bi isurialdeko estalkidun eraikina da. Harlangaitzezko hormak ditu, adreiluzko guneekin, eraberritze ugarien ondorioz. Azpimarratzekoa da etxebizitzara sartzeko fatxadarekiko perpendikularra den harrizko eskailera.



- **BIDEZAINEN ETXEA** (Zumarraga - Azkoitia errepidea). Bost peoi ibiltariren etxea eta erreminten zein materialen biltegi izateko zen. 1931n eraiki zuten. 1938an, Estatura pasatu zen, eta 1980an, berriz ere, Aldundira, garraio-eskumenen bidez. Bidezainen etxe hau probintziako komunikabide ezberdinetan hain ohikoa den bidezainen etxearen tipologiari dagokio.



Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimenez eraiki ziren XX. mendearen hasieran, eta Ramón Cortazar arkitekto probintzialak garai hartako eklektizismoaren eta erregionalismoaren jarraibide estilistikoekin egin zuen. Kasu honetan, lerro neoeuskaldunak dira nagusi. Oinplano angeluzuzeneko etxea da, bi altuera eta ganbaraduna, 12 x 8 m-ko dimentsiokoa. Harlangaitzezko karga-hormak ditu eta bi isurialdeko estalkia, fatxadarekiko perpendikularra den gailurrarekin. Teilatua ez da simetrikoa eta alde batetik baino gehiagotik erortzen dago. Hego-ekialdean ezkaratza dauka, hortik ate nagusia dago, harlanduz dinteldua. Ate lerragarria du. Argia hormakoa da, bigarren solairuko hiru leihoen bidez eta fatxada nagusiko lehenengo solairuko bi leihoen bidez, dintelduak. Fatxada kareztatuta dago, eskantzuak eta mehelinak harlanduxkazko boluta bikoitzean dituelarik. Igeltsu-zerrenda marroiak ditu, egurrezko bilbadura imitatuta, pinoiaren aldean okertuta. Ateek harlanduzko azpadurak dituzte eta nagusiak dintel dobelatua du. Lehen solairuko leihoek harlanduxko azpadurak dituzte katean eta dobelazko dintelak.

- **LANDABURUBASERRIA.** Oinplano angeluzuzena eta bi isurialdeko estalkidun eraikina da. Bistako harlangaitzezko hormak dauzka, harlanduzko eskantzuekin. Hartz inguratutako baoak ditu, simetrikoki antolatuta. Gailurraren gainean harrizko gurutzea du eta horren gainean burdinazko haize-orratza.



- OIANGUREN BASERRIA. Eraikin bitxia da, antzeko ezaugarriak dituzten bi etxebizitza atxikiz osatua. Oinplano angeluzuzena eta bi isurialdeko estalkia du. Antolamendu simetrikoko baoak dauzka. Hormapiko estali gabea da. Erdi lurperatutako horma bat zurezko oholtzoz estali dute, eta horrek itxura berezia ematen dio.



- AMOTXEBERRI BASERRIA. Oinplano angeluzuzena eta bi isurialdeko estalkidun eraikina da. Hormak harlangaitzezkoak dira eta ertzak harlanduzkoak. Lurraren malda naturala aprobetxatuta erdisotoan upeltegia egin zuten. Fatxadetan zurezko bao ugari eta gezileiho pare bat daude.



- LETURIONDO/LETURIAGA ZUBIA (109. zk fitxa).
- ITZALON IKUSKIZUN-ARETOA (53.zk fitxa). 1957ko eraikina da. Gaur egun, banku-sukurtsal batek okupatzen du.



4.2.3. ETNOLOGIA-BABES SISTEMA

Zumarragako Etnologia Ondareko ondasuntzat hartuko dira tokiko kultura tradizionalaren adierazpen garrantzitsuak diren edo izan diren erabilerak eta jarduerak, euren alderdi materialetan, sozialetan eta espiritualetan, eta, horrez gain, hondakin fisiko identifikagarriak utzi dituztenak ere, ondasun higiezinak edo higigarriak izan. Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerekin zerikusia dutenak dira: **baserriak, burdinolak eta errotak**, haien babes maila edozein dela ere.

Aurreko babes-sistemak babesteko araudiaren ondoriozko tutoretza-neurrien bateraketa da. Bereziki, arkitektura-ondareari dagozkionak, edozein mailatan.

FITXA ZK.	IZENA
4	LEGAZPIKO EDO JAUREGIKO BURDINOLA
10	AIZKIBEL BASERRIA
11	ANDUEZU BASERRIA
14	ALTZOLA BASERRIA
15	ARANBURUETXEBERRI BASERRIA
17	IZAGIRRE HANDI BASERRIA.
18	KORTABERRI BASERRIA
19	AITZABASO BASERRIA
20	SORAIZ ERDIKOA BASERRIA
22	GURRUTXAGAGOIKOA BASERRIA
23	AIZPURU BASERRIA
26	MATXAIN BASERRIA
38	LIZARATZU BASERRIA
40	IGARABERRI ERROTA
	AGINAGA BARRENA BASERRIA
	AMBUALDE BASERRIA
	GOIBURU BASERRIA
	LANDABURU BASERRIA
	OIANGUREN BASERRIA





AM.5/

HIRIGINTZA-ARAUAK. KARAKTERIZAZIOAREN AURRERAPENA

5.1. HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN XEDEARI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK ETA EGITURAZKO ANTOLAMENDUARI ETA ANTOLAMENDU XEHATUARI DAGOZKIEN ZEHAZTAPENAK IDENTIFIKATZEA.

HAPOn araudia egitea ez dagokio aurrerapen-fase honi, baizik eta hasierako onespeneren dokumentua idazteari. Hala eta guztiz ere, komeni da horrekin zerikusia duten zenbait gai gogoraraztea, Aurrerapenaren proposamenen antolamendua, erregulazioa eta bideragarritasuna ezartzen laguntzeko.

Zumarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra xedapen orokorreko izaera du, eta haren nahitaezko xedapenak Hirigintzako Arauetan eta antolamenduko planoetan adierazten dira; behin argitaratu eta gero izango dituzte ondorioak, eta indarraldi mugagabea izango dute, hargatik horiek aldatzea edo berrikustea eragotzi gabe.

Zumarragako izaera orokorreko hirigintza-plangintza berriak, arau juridikoa den aldetik, udalerrriaren gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-garapenean berebiziko eragina duena, kalitate juridikoa izan behar du, plana onartzea eta gauzatzea zailtzen duten akatsak saihesteko, eta, azken batean, udalerriko plangintza-tresna nagusiari segurtasun juridikoa emateko.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (APAPEL) 129. eta 130. artikuluek ezartzen dutenez, erregelamenduak egiteko ahalmena gauzatzeak, Konstituzioari, Autonomia Estatutuari eta legeriari egokitzeaz gain, **erregulazio onaren printzipioei erantzuten die: beharrari, eraginkortasunari, proportzionaltasunari, segurtasun juridikoari, gardentasunari eta efizientziari.**

Laburbilduz, edozein xedapen orokorrek justifikatu behar du beharrezkoa, eraginkorra, neurrikoa, irisgarria (gardena) eta eragingarria dela, eta hartzaileei segurtasun juridikoa ematen diela. Plangintza-tresnetan hartutako erabakiak justifikatzeko eskakizuna Antolamendu Justifikazioko Memorian adierazi behar da. Memoria horrek, alderdi sozialekin, teknikoekin edota ekonomikoekin zerikusia duten beste alderdi batzuei erantzuteaz gainera, Planaren araudiari dagokionez, APAPELek zerrendatutako printzipio horiek betetzen direla adierazi behar du.

Hiri Antolamenduko Plan Orokor oren xedea udalerrriaren egiturazko hirigintza-antolamendua eta nahitaezko antolamendu xehatua (hiri-lurzoru finkatuarena) ezartzea da.

HAPOn edukia lurralde-antolamenduan eta ingurumenaren babesean eragina duen ordenamendu autonomikora egokituko da, baita aplikatzekoa den Estatuko oinarritzko legeriara ere.

HAPOk udalerriko plangintza orokorreko aurreko tresnaren berrikuspen osoa ekarriko du. Orain arte indarrean egon den plangintza orokor hori oso-osorik ordeztuko eta indargabetuko da plan berria indarrean sartzen denean, plan berriaren arauetan berariaz aurreikusiko diren iragankortasun-ondorioak izan ezik. **HAPOk Plangintzako Arau Subsidiarioen garapen-plangintza eta haren aldaketak ondoriorik gabe uzteko gaitasuna ere badu, baina, oro har, plangintza berriak gaur egun indarrean dagoen garapen-plangintza mantendu eta errespetatuko du, eta, oro har, Plangintza Integratuko Eremu (PIE) gisa identifikatuko dira.**

Plan Orokorraren indarraldia. Zumarragako HAPNak indarraldi mugagabea izango du hura ordeztzen duen berrikuspen osoa onartzen ez den bitartean, eta aldaketak edo berrikuspen partzialak alde batera utzi gabe. **Programatutako aurreikuspenen gutxieneko epemuga 16 urtekoa izango da,** eta Udalak, epe hori igarotakoan, berrikuspena egiteko aukera egiaztatu beharko du.

Bestetik, **HAPOren hirigintza-arauetan HAPOren berrikuntza-araubide bat ezarriko da, EAELHLren 102.103., 104. eta 105. artikuluekin bat etorriz, bereziki, HAPO alde aurretik berrikustea eskatzen duten arrazoiak adierazita.**

Beraz, higiezinak eraikita eta okupatuta dauden fasean, diru-sarrera garrantzitsuenak “diru-sarrera iraunkorrak” deiturikoak dira, honako hauek:

- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ).
- Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zerga (JEZ).
- Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ).
- Udal-zerbitzu publikoak emateagatiko Tasak eta Prezio Publikoak
- Pasabide-tasen zerga
- Transferentzia Arruntak (Estatuaren Tributuetan Parte Hartzea, biztanleria gehitzeagatik).
- Ondare-Sarrerak.

Pisu espezifiko handieneko sarrera korrante iraunkorra OHZri dagokiona da.

Jasangarritasun Txostenean **ez dira kontuan hartzen transferentzia arruntetatik datozen diru-sarrerak, Udalaren Aurrekontu Egonkortze Planaren eraginpean daudela uste baita.** Era berean, **ez dira kontuan hartzen hirigintza-garapenak eragiten dituen ondare-sarrerak, Udalaren Lurzoru Ondarearen helburuei lotuta daudela uste baita.**

AM. 7 /

ZUMARRAGAKO HAPOREN AURRERAKINA ETA HIRI-AGENDAK EBALUATZEN: ESPAINIAKOA (EHA) ETA EUSKADIKOA (BULTZATU).

Hiri-agenden estrategia-esparruak, bai Espainiako (EHA), bai Euskadiko Hiri Agendarenak (Bultzatu), beharrezkoa egiten du, gutxienez, eztabaida zabaltzea herritarrei eta eragile sozioekonomiko guztiei, hirirako hiri-planteamendu berriak egin beharri eta, gaur egun indarrean dauden plangintza orokorraren strategiak eta oinarriak aztertzeari, birpentsatzeari eta eguneratzeari buruz.

Agenda horien elementu nagusia nahi den hiri-ereduari buruzko atalak dira. Horretarako, estrategia-helburuak eta horiek lortzea ahalbidetuko luketen jarduketa-lerroak definitzen dira. EHAREN estrategia-esparrua helburuen dekalogoaren bidez definituta dago. Dekalogo hori 30 helburu zehatzen eta dagozkien jarduketa-lerroen bidez garatuko da. Bultzatu-ren kasuan, EHAN ezarritakoekin bat datozen zortzi estrategia-helbururen bidez definituta dago.

	1. Estrategia-helburua Lurraldea antolatzea eta lurzorua zentzuz erabiltzea, zaintzea eta babestea.		6. Estrategia-helburua Gizarte-kohesio sustatzea eta ekitatea bilatzea.
	2. Estrategia-helburua Hiri-sakabanaketa saihestea eta hiri-auspertzea.		7. Estrategia-helburua Hiri-ekonomia bultzatzea eta sustatzea.
	3. Estrategia-helburua Klima-aldaketaren eraginei aurrea hartzea eta murriztea, eta erresilientzia hobetzea.		8. Estrategia-helburua Etxebizitza eskuragarritasuna bermatzea.
	4. Estrategia-helburua Baliabideen kudeaketa jasangarria egitea eta ekonomia zirkularra bultzatzea.		9. Estrategia-helburua Berrikuntza digitala gidatzea eta sustatzea.
	5. Estrategia-helburua Hurbiltasuna eta mugikortasun jasangarria bultzatzea.		10. Estrategia-helburua Esku hartzeko tresnak eta gobernantza hobetzea.

Espainiako Hiri Agendaren estrategia-helburuen dekalogoak. Iturria: Espainiako Hiri Agenda

Bereziki interesgarria da EHAK duen hiri- eta landa-errealitatearen diagnostikoa. Gure lurraldeen gaur egungo egoeraren dimentsio analitiko objektiboa ematen du, diziplina anitzeko eta holistiko ikuspegiarekin (demografia-erronkak, landa-eremuen hustuketa, mugikortasuna, hiri-metabolismoa, gobernantza...), eta, horri esker, Espainiako hirigintza-ereduaren jasangarritasuna arriskuan jartzen duten arazo nagusiak hautematen dira.

Diagnostikoa osatzeko, Espainiako hiri guztien datu deskribatzaileen multzoa aztertu da, hainbat biztanleria-mailatan oinarrituta. Kasu honetan, 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerrien artean dago. Aztertutako datu deskribatzaileak zenbatu al dira, datu-baseetan eta beste iturri ofizial batzuetan jasota daudenak, udalerraren egungo egoerara hurbiltzeko balio dutenak, hala nola: biztanleria, lurzoru-estaldurak, etxebizitza-parkea eta bizitegi-azalera eraikia, etxebizitza-parkea, etxebizitza hutsak, garapen-eremuak, mendekotasun-tasak, enplegu-tasak, establezimenduak eta langileak, langabezia-tasak, indarreko plangintza, etab.

Prioridad Estratégica	Línea de Actuación	Indicadores seleccionados	Fuente/Referencia
Vivienda y equipamientos básicos	Acceso a la vivienda para todos y todas Regeneración y rehabilitación de edificios y de viviendas Equipamientos básicos Entorno y espacios públicos accesibles y de alta calidad	Parque de vivienda protegida. Asistencia a personas sin hogar	Agenda 2030 Local Agenda 2030 Local
Movilidad y Transporte	Movilidad sostenible Movilidad intraurbana Movilidad interurbana Movilidad multimodal	Parque de vehículos eléctricos. Superficie de uso peatonal. % de trayectos en vehículos privados a motor.	Agenda 2030 Local Agenda 2030 Local Encuesta Movilidad Gobierno Vasco
Planificación urbana sostenible	Protección del patrimonio cultural y natural Resiliencia del territorio y patrimonio natural Uso sostenible del suelo Equidad espacial	Suelos potencialmente contaminados. Suelo Artificializado	Agenda 2030 Local Agenda 2030 Local
Ciudades Innovadoras	Investigación, innovación y tecnología Conectividad Smart cities Innovación no tecnológica	Grado de implantación de instrumentos de gestión medio-ambiental (en empresas privadas, administración pública y otras organizaciones y entidades no municipales). % de Población con cobertura de banda de alta capacidad (fibra y 5G). Número de ciudades con plan de Smart city.	Agenda 2030 Local Datos de Gobierno Vasco Datos municipales

Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agendaren oinarritzko adierazleen sistema.

Prioridad Estratégica	Línea de Actuación	Indicadores seleccionados	Fuente/Referencia
Desarrollo Económico y empleo	Producción y consumo sostenibles Empleo de calidad Economía local resiliente Economía circular	PIB per cápita. Tasa de paro. Grado de implantación de instrumentos de gestión medio-ambiental Porcentaje de residuos reciclados o reutilizados	Agenda 2030 Local Agenda 2030 Local Agenda 2030 Local Agenda 2030 Local
Ciudades sostenibles y resilientes	Control de la contaminación y calidad ambiental Acción por el clima Gestión de recursos naturales y residuos Biodiversidad y ecosistemas	Superficie ocupada por parques, jardines y zonas verdes urbanas. Emisiones de gases de efecto invernadero	Agenda 2030 Local Agenda 2030 Local
Salud y bienestar	Cobertura universal y accesibilidad al sistema sanitario Atención sanitaria equitativa y de calidad Promoción de hábitos de vida y ocio saludables. Innovación e investigación sanitaria	Esperanza de vida de las mujeres. Esperanza de vida de los hombres. Red de bidegorris o de carril-bici	Agenda 2030 Local Agenda 2030 Local
Ciudades diversas e inclusivas	Cohesión social Igualdad intergeneracional, por diversidad funcional y por origen Educación y formación equitativas e inclusiva Oportunidades de cultura y ocio para todas las personas	Personas que han superado al menos los estudios secundarios. Número de víctimas de violencia contra las mujeres Conocimiento del Euskera	Agenda 2030 Local Agenda 2030 Local Agenda 2030 Local

Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agendaren oinarritzko adierazleen sistema.

Guztira hogeita hamar bat adierazle (D) aztertu dira, hirigintza-eraldaketaren menpeko lurzorurekin zerikusia dutenak barne (D.ST). Halaber, adierazle horietako bakoitzak zuzeneko eragina du agendan zehaztutako estrategia-helburu batekin, batzuekin edo guztiekin, eta, horri esker, helburu horiek lortzeko lurraldeak, neurri handiagoan edo txikiagoan, egokituko edo hurbilduko dira.

Espainiako Hiri Agendak Zumarragaren datu eta adierazle deskribatzaile hauek aztertu ditu:

Superficie total Km ²	Viviendas total 2011	Hogares en 2011	Población en 2020	Código INE
18,42	4.570	4.295	9.781	20080

DATOS E INDICADORES DESCRIPTIVOS (I)

INDICADOR	VALOR	RANGOS Municipios entre 5.000 y 20.000 habitantes			RANGOS Municipios de más de 5.000 habitantes			OBJETIVOS ESTRATÉGICOS									
		Valor 1 ^{er} cuartil	Valor medio	Valor 3 ^{er} cuartil	Valor 1 ^{er} cuartil	Valor medio	Valor 3 ^{er} cuartil	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
D.01. VARIACIÓN DE LA POBLACIÓN 2007-2017 (%)	-2,6	-4,5	0,5	7,4	-3,6	9,0	21,9	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
D.02. TERRITORIO Y DIVERSIDAD DE HABITATS																	
D.02.a. Superficie de cobertura artificial (%)	9,0	2,7	6,7	15,4	3,5	9,0	21,9	✓		✓							
D.02.b. Superficie de cultivos (%)	5,6	15,9	37,4	61,6	14,2	34,7	58,1	✓		✓							
D.02.d. Superficie de zona forestal y dehesas (%)	71,6	17,7	41,9	64,0	16,2	38,4	60,0	✓		✓							
D.03. SUPERFICIE DE EXPLOTACIONES AGRARIAS Y FORESTAL																	
D.03.a. Superficie municipal destinada a explotaciones agrarias y forestales (%)	0,00	0,08	0,18	0,37	0,08	0,17	0,38	✓		✓							
D.03.b. Superficie municipal destinada a explotaciones agrarias y forestales respecto al suelo urbano y urbanizable delimitado de la ciudad (%)	0,00	1,17	3,11	7,21	0,81	2,30	6,01	✓		✓							
D.04. SUPERFICIE DE SUELO NO URBANIZABLE (%)	89,6	80,4	91,7	96,9	73,9	88,9	96,1	✓									✓
D.05. SUPERFICIE VERDE (ha cada 1.000 hab)	2,7	1,7	3,2	6,8	1,66	2,92	5,78	✓		✓							
D.06. DENSIDAD DE POBLACIÓN EN SUELO URBANO (hab./ha)	164,6	27,9	43,0	62,8	33,1	49,8	73,5	✓	✓		✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
D.07. SUELO URBANO DISCONTINUO (%)	3,2	8,5	26,0	52,6	9,0	25,9	52,4	✓	✓				✓				
D.08. DENSIDAD DE VIVIENDA (viv./ha)	76,9	14,8	22,4	33,1	16,9	25,6	37,5	✓	✓		✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
D.09. COMPACIDAD URBANA (m²/m²s)	0,40	0,56	0,76		0,44	0,62	0,83		✓			✓	✓				
D.10. COMPACIDAD RESIDENCIAL																	
D.10.a. Sup. construida uso residencial (m ² /m ² s)		0,24	0,36	0,49	0,27	0,38	0,51		✓			✓	✓				
D.10.b. Sup. construida uso residencial (%)		58,3	66,8	73,4	56,7	64,5	71,7		✓			✓	✓				
D.11. COMPLEJIDAD URBANA	-	-	-	-	-	-	-		✓			✓	✓				
D.12. PARQUES Y EQUIPAMIENTOS DE ZONAS VERDES	-	-	-	-	-	-	-		✓	✓			✓				
D.13. ESPACIO PÚBLICO⁽¹⁾	-	-	-	-	-	-	-		✓			✓					
D.ST.01. DENSIDAD DE VIVIENDA PREVISTA EN LAS ÁREAS DE SUELO DE DESARROLLO (viv./ha)	94,8	23,8	34,0	46,4	24,2	34,6	47,0		✓			✓	✓				✓
D.ST.02. ÁREAS DE SUELO DE DESARROLLO (%)	66,1	16,2	35,2	65,0	17,1	35,0	64,4	✓	✓								✓
D.ST.03. SUELO URBANIZABLE DELIMITADO (%)	63,4	11,6	28,5	55,2	12,2	28,3	53,6	✓	✓								✓
D.ST.04. SUPERFICIE DE SUELO PREVISTO PARA USO RESIDENCIAL (%)	11,7	8,8	20,1	36,1	8,6	20,0	36,0	✓	✓								
D.ST.05. SUPERFICIE DE SUELO PREVISTO PARA ACTIVIDADES ECONÓMICAS (%)	54,4	6,2	16,1	31,7	5,9	14,3	30,7	✓	✓				✓	✓			
D.14. ANTIGÜEDAD DEL PARQUE EDIFICATORIO. Parque edificatorio anterior al año 2000 (%)	48,5	58,6	65,6		50,1	59,8	67,4		✓	✓	✓						
D.15. CONSUMO DE AGUA	-	-	-	-	-	-	-					✓					
D.16. CALIDAD DEL SILENCIO	-	-	-	-	-	-	-		✓								
D.17. SUPERFICIE DE INFRAESTRUCTURAS DE TRANSPORTE Y MOVILIDAD																	
D.17.a. Superficie infraestructuras de transporte (ha)	45,1	27,0	53,3	107,3	32,8	71,9	155,8	✓				✓					
D.17.b. Superficie infraestructuras de transporte (%)	2,4	0,5	1,1	2,2	0,66	1,39	2,67	✓				✓					
D.18. ÍNDICE DE MOTORIZACIÓN																	
D.18.a. Vehículos domiciliados cada 1.000 habitantes.	503,1	558,7	607,2	662,6	549,8	592,4	646,9		✓			✓					
D.18.b. Porcentaje de turismos (%)	77,9	67,0	70,6	74,0	67,7	71,3	74,6		✓			✓					
D.18.c. Porcentaje de motocicletas (%)	5,8	6,9	8,5	10,8	7,2	8,9	11,5		✓			✓					
D.18.d. Antigüedad del parque de vehículos	-	-	-	-	-	-	-		✓			✓					
D.19. DENSIDAD DE LÍNEAS DE AUTOBÚS Y MODOS FERROVIARIOS	-	-	-	-	-	-	-					✓					✓
D.20. ACCESIBILIDAD A LOS SERVICIOS DE TRANSPORTE PÚBLICO	-	-	-	-	-	-	-					✓	✓				
D.21. DOTACIÓN DE VÍAS CICLISTAS	-	-	-	-	-	-	-		✓			✓					


Zumarragako Espainiako Hiri Agendaren datu eta adierazle deskribatzaileak.

Superficie total Km ²	Viviendas total 2011	Hogares en 2011	Población en 2020	Código INE
18,42	4.570	4.295	9.781	20080

DATOS E INDICADORES DESCRIPTIVOS (II)

VALOR	RANGOS Municipios entre 5.000 y 20.000 habitantes			RANGOS Municipios de más de 5.000 habitantes			OBJETIVOS ESTRATÉGICOS									
	Valor 1 ^{er} cuartil	Valor medio	Valor 3 ^{er} cuartil	Valor 1 ^{er} cuartil	Valor medio	Valor 3 ^{er} cuartil	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
D.22. ENVEJECIMIENTO DE LA POBLACIÓN																
D.22.a. Índice de envejecimiento de la población (%)	22,9	14,8	17,3	20,1	14,6	17,1	19,6	✓			✓	✓	✓	✓	✓	✓
D.22.b. Índice de senectud de la población (%)	13,4	9,6	11,4	13,2	9,2	11,0	12,7	✓			✓	✓	✓	✓	✓	✓
D.23. POBLACIÓN EXTRANJERA (%)	7,2	3,5	6,9	12,3	4,2	8,0	13,4	✓				✓	✓			
D.24. ÍNDICE DE DEPENDENCIA																
D.24.a. Índice de dependencia total (%)	58,8	45,6	48,8	52,6	45,5	48,4	51,9	✓				✓	✓			
D.24.b. Índice de dependencia infantil (%)	21,8	20,1	22,5	24,8	20,3	22,5	24,8	✓				✓	✓			
D.24.c. Índice de dependencia de mayores (%)	40,2	23,4	27,9	33,6	22,8	27,5	32,6	✓				✓	✓			
D.25. PORCENTAJE DE PERSONAS CON ACCESO A LOS SERVICIOS SOCIALES	-	-	-	-	-	-	-					✓				
D.26. NÚMERO DE TRABAJADORES/AS																
D.26.a. Trabajadores en sector agricultura (%)	0,4	1,6	4,7	15,6	1,1	3,3	12,9					✓	✓			✓
D.26.b. Trabajadores en sector industria (%)	18,0	7,2	14,1	26,6	6,5	12,7	22,7					✓	✓			✓
D.26.c. Trabajadores en sector construcción (%)	5,0	6,3	8,8	12,2	5,9	8,4	11,6					✓	✓			✓
D.26.d. Trabajadores en sector servicios (%)	76,5	48,5	60,3	72,3	51,8	65,1	76,8					✓	✓			✓
D.27. NÚMERO DE ESTABLECIMIENTOS																
D.27.a. Establecimientos en sector agricultura (%)	0,4	1,6	4,7	13,0	1,1	3,5	10,4						✓			✓
D.27.b. Establecimientos en sector industria (%)	8,7	5,7	8,7	13,0	4,9	7,7	11,8						✓			✓
D.27.c. Establecimientos en sector construcción (%)	5,8	7,1	9,3	11,8	6,7	8,9	11,4						✓			✓
D.27.d. Establecimientos en sector servicios (%)	85,1	62,7	72,4	79,0	66,0	75,1	82,2						✓			✓
D.28. TASA DE PARO																
D.28.a. Porcentaje de parados total (%)	9,4	8,9	11,0	14,1	9,4	11,5	14,5					✓	✓			
D.28.b. Porcentaje de parados entre 25 y 44 años (%)	45,6	38,7	41,5	44,6	39,1	41,6	44,5					✓	✓			
D.28.c. Porcentaje de paro femenino (%)	51,8	54,9	57,7	60,8	55,1	57,6	60,4					✓	✓			
D.29. PARQUE DE VIVIENDA (viv/1000 hab.)	467,2	442,2	506,8	604,0	437,2	494,6	581,6	✓								✓
D.30. TIPOLOGÍA DE VIVIENDA																
D.30. TIPOLOGÍA DE VIVIENDA	-	-	-	-	-	-	-	✓								✓
D.31. VIVIENDA PROTEGIDA	-	-	-	-	-	-	-	✓								✓
D.32. VARIACIÓN DEL NÚMERO DE HOGARES 2001-2011 (%)	15,9	18,0	29,7	47,7	19,9	30,8	47,9	✓	✓							✓
D.33. CRECIMIENTO DEL PARQUE DE VIVIENDA 2001-2011 (%)	7,2	14,9	23,9	36,4	14,8	22,9	35,0	✓	✓		✓					✓
D.34. VIVIENDA SECUNDARIA (%)	0,8	5,4	10,2	18,0	4,9	9,1	16,8			✓						✓
D.35. VIVIENDA VACÍA (%)	5,1	10,4	15,1	19,4	10,0	14,3	18,6	✓								✓
D.36. ACCESIBILIDAD A LA VIVIENDA																
D.36. ACCESIBILIDAD A LA VIVIENDA	-	-	-	-	-	-	-									
D.ST.06. VIVIENDAS PREVISTAS EN ÁREAS DE DESARROLLO RESPECTO AL PARQUE DE VIVIENDA (%)	14,5	13,9	28,6	50,9	11,9	25,9	47,7	✓	✓		✓					✓
D.ST.07. NÚMERO DE VIVIENDAS PREVISTAS EN LAS ÁREAS DE DESARROLLO (viv/1000 hab.)	67,6	74,7	147,8	262,7	61,2	125,8	243,6	✓	✓		✓					✓
D.37. FIGURA DE PLANEAMIENTO URBANÍSTICO VIGENTE EN EL MUNICIPIO.	NNSS	-	-	-	-	-	-	✓	✓							✓
D.38. FECHA DE LA FIGURA DE PLANEAMIENTO URBANÍSTICO VIGENTE.	2008	1994	2002	2008	1994	2002	2008	✓	✓							✓
D.39. AGENDA URBANA, PLANEAMIENTO ESTRATÉGICO Y SMART CITIES.	-	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓

ESQUEMA RELACIÓN DATOS DESCRIPTIVOS Y OBJETIVOS ESTRATÉGICOS DE LA AGENDA URBANA ESPAÑOLA Y DE EUSKADI.



Espainiako eta Euskadiko Hiri Agendaren datu deskribatzaileen eta estrategia-helburuen zerrendaren eskema.

Zumarragako balio edo datu deskribatzaileak EHAK 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerrri guztietan lortutako batez besteko balioekin alderatu dira. Hala, adierazlea estatuko batez bestekoaren gainetik edo azpitik dagoen eta lehenengo kuartilarekiko (datu estatistikoen % 25etik gorako balioa) edo hirugarrenarekiko (datu estatistikoen % 75etik gorako balioa) duen posizioa eta erreferentzia lortzen da.

Lortutako datuetan oinarrituta, Zumarragako datu deskribatzaileen eta EHAREN zein Bultzatu-ren estrategia-helburuen arteko zerrendaren eskema grafikoa egin da. Bertan aztertutako datu bakoitzean 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerrien batez besteko balioekin alderatuta lortzen diren balioak adierazi dira.

Alde horretatik, biztanle-maila bereko udalerrien batez bestekoaren azpitik dauden datuak adierazteko gorrien gama erabili da (batez besteko balioa eta lehen kuartila) eta berdeen gama, aldiz, batez bestekoaren gainetik dauden datuetarako (3. kuartila eta balio maximoak). Aztertutako datu motaren eta batez bestekoarekiko duen posizioaren arabera, udalerrriaren lehenengo hurbilketa egin ahal izango da, eta balio horiek EHaren estrategia-helburuak betetzeko onak diren edo hobetu behar diren zehaztu ahalko da.

Hala, EHAn ezarritako **1. Estrategia-helburuarekin “Lurraldea antolatzea eta lurzoruaz zentzuz erabiltzea, zaintzea eta babestea” eta 2. Estrategia-helburuarekin “Hiri-sakabanaketa saihestea eta hiria suspertzea”** lotutako deskribapen-datuak, eta **Bultzaturen “Hiri Plangintza Jasangarria” eta Osasuna zein Ongizatea estrategia-helburua** osatzen dutenak, biztanleria-maila horretan dauden gainerako udalerrien batez besteko balioekiko diferentziazko adierazleak erakusten dituztenak, Zumarragan dira, hain zuzen ere, udalerriko plangintza-ereduarekin zerikusia dutenak. Izan ere, eredu horren errealitateetako bat da, dagoeneko 15 urte igaro direla Arau Subsidiarioak onartu zirenetik. Zumarragan indarreko plangintza 2008an onartu zen, eta hirugarren kuartilari dagozkion balioekin. Hirugarren kuartil horrek antzeko tamainadun udalerrien plangintzaren antzintasunari dagokionez, antzintasun txikieneko mailan kokatzen du, baina plangintza ez dago Estatuko esparru eguneratuenera egokituta, hala nola, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretura.

Udalerriak 20.000 eta 50.000 biztanle arteko udalerrien batez bestekotik gorako balioak ditu, lurzoruaren estaldura artifizialari dagokionez. Bestalde, dentsitate handiko balioak ditu (76,9 etxebizitza/ha), eta balio oso txikia hiri-lurzoru ez-jarraiari dagokionez. Horrek adierazten du egungo hiri-eredua hiri trinkoarekin bat datorrela eta bizitegi-erabilera nagusi duela. Diagnostikoan hori ez dago kuantifikatuta, baina beste erabilera batzuk ere badaude, batez ere industrialak. EHAn jasotako datuen arabera, biztanle-guneekin jarraian egiteko hazkunde-eskaintza du, hiri-lurzoru finkatuarekiko ehuneko handiarekin (% 63,4), hiri-lurzoru finkatugabeko jarduketa-multzoaren antzeko proportzioan. Horrek dinamismo handia ematen dio, 94,8 etxebizitza/ha-ko batez besteko dentsitateekin, eta balio horiek oso handiak dira aztertutako antzeko biztanleriadun udalerrien batez bestekoarekin alderatuta. EHAk ez ditu kontuan hartzen udalerrri honetako eraikuntza-parkearen antzintasunari buruzko datuak, aztertutako datuen arabera 46,4 urteko batez besteko antzintasuna duena.

Lehenengo bi helburu horiei, eta, oro har, horiei guztiei dagokienez, biztanleria-aldaketaren adierazle kezagarria azpimarratu behar da; izan ere, EHAk 2007tik 2017ra bitartean aztertutako tartean udalerrri horretan negatiboa da (-% 2,6), bere biztanleria-mailako udalerrien batez bestekoaren azpitik dago.

1.000 biztanleko berdeguneen hektareako ehunekoaren adierazlea batez besteko balioak ditu, bere mailako udalerriekin alderatuta. Balio horrek natura-eremuak eta berdeguneak dituzten hiriguneen azalera adierazten du, espazio publikoak eta sistemen kategoria bereizi gabe. Kasu honetan, udalerriko balioek (2,7 ha/1.000 bizt.) hirirako “berdeguneen” eremu handia adierazten dute (27 m²/bizt.). Hala ere, xehetasunez aztertu beharko dira indarreko legeriak ezarritako gutxieneko estandarrak bermatzeko beharrezkoak direnak. Aztertutako natura-eremuei dagokienez, baso-eremuek estatuko batez bestekoa baino askoz balio handiagoak dituzten bitartean, nekazaritza-laborantzek lehen kuartilaren azpitik daude, eta horrek adierazten du hori oso urria dela lurraldean. Bestalde, lurzoru urbanizaezinaren azalera batez besteko balioen adierazgarri da, 20.000 eta 50.000 biztanle arteko udalerriekin alderatuta.

3. Estrategia-helburua “Klima-aldaketaren eraginei aurrea hartzea eta murriztea, eta erresilientzia hobetzea” betetzeari dagokionez, udalerriak hobetu eta berrikusi egin behar du bere eraikuntza-parkea, 46 urte baino gehiagoko antzintasuneko etxebizitzak % 50 baitira,


egindako analisiaren eta diagnostikoaren datuen arabera, horrek birgaitzeko eta hobetzeko esku-hartzearen eskaera adierazi dezake. Bestalde, Zumarragak baso-eremuen azalerari dagokionez, balio handiak ditu, natura- eta ingurumen-balio garrantzitsuak eta babes-maila handikoak. Alde horretatik, klima-aldaketaren aurkako borrokarako funtsezko faktorea da udalerriak dituen berdeguneak (natura-eremuak eta lurzoru iragazkorreko azalerak). Alderdi horiek funtsezkoak izango dira klima-aldaketaren aurkako borrokan eta udalerria klima-aldaketara egokitzeko neurriak ezartzean. Gehitu behar da udalerriak antzeko biztanleria-tamainakoekin alderatuta, balio apaleko motorizazio-indizea duela.

4. Estrategia-helburua “Baliabideen kudeaketa jasangarria egitea eta ekonomia zirkularra bultzatzea” behar bezala betetzeko, baliabideen kontsumoa optimizatzeko, energia eraginkortasunez kudeatzeko eta hondakinak murrizteko balio behar dute. Helburu hori lortzeko eragin zuzena du egungo eraikuntza-parkearen hobekuntzan, baina hiriaren hiri-metabolismoan ere jarri behar du arreta. Hala, baliabideen eraginkortasunerako eta kudeaketarako neurriekin planifikatu edo ulertu beharko da egungo hiri- edo birziklatze-eredua. Halaber, udalerrri honentzat desiragarria den hiri-metabolismo berriaren euskarri eta estaldura izango diren hiri-azpiegituren sustapenean eta sorkuntzan eragin behar da, bereziki energia berriztagarrietan eta biztanleriaren autosufizientzia energetikorako neurrietan. Kontzeptu horiek ez daude kuantifikatuta egindako diagnostikoan.

5. Estrategia-helburua “Hurbiltasuna eta mugikortasun jasangarria bultzatzeari” dagokionez, positiboa da, eta dagoeneko aurreratu da, udalerriak motorizazio-adierazlearen (503 ibilgailu/1000 bizt.) balio txikiak dituela, eta hori garraio-azpiegituretarako azaleraren balio handiekin bat egiten du, udalerrriaren azalarekin alderatuta (% 2,4). Balio horiek adierazten dute udalerrian mugikortasun jasangarria sustatu behar dela, gainera, azpiegitura euskarri nahikoa dago ibilgailu pribatuaren presentzia murrizteko neurriak ezartzeko eta motorrik gabeko eremuen azalera handitzeko. Autoen ehunekoak antzeko balioak ditu bere mailako udalerrietako batez bestekoaren aldean, eta motozikleten kasuan, gutxi daude. Hala, hausnarketa eta erabakia honakoan datza, zer modu izango diren lehentasunezkoak eta zer mugikortasun-mota nahi den udalerriantzat, eskala txikikoa, oinez egin daitezkeen distantziekin, lurraldearen ingurumen-balio handiak kontuan hartuta. Garraio publikora bideratutako sareak, horien eraginkortasuna eta lotura aztertu beharko dira, hiriko eremu guztietara, ekoizpen-eremuak barne, irisgarriak izateko. Era berean, motorrik gabeko garraiobideetara zuzendutako sareak aztertu beharko dira, eta, mugikortasun jasangarria sustatzeko, biztanleek hurbileko zerbitzuetara eta ekipamenduetara duten hurbiltasuna edo irisgarritasuna baloratu beharko da.

Zumarragak langabezia-tasa antzeko tamainako udalerrien batez bestekoaren azpitik dauka. Biztanleriaren zahartzeari, seneszentziari eta mendekotasunari buruzko datuek, batez ere nagusienak, balio handiak dituzte. Beraz, **6. Estrategia-helburua “Gizarte-kohesio sustatzea eta ekitatea bilatzea”** betetzeko, honakoak kontuan hartzen dituen eredua sustatu beharko da: bizitegi-sarea hobetzea eta zaharberitzea, zaurgarritasuna murriztea, erabilerak dibertsifikatzea eta hiri-eremu defizitarioen berrekipamendua sustatzea, desberdintasunak gutxitzea, ehunak suspertzea eta lurralde horietan aukera berriak sortzea.

Udalerriak, maila bereko besteekin alderatuta, 1.000 biztanleko etxebizitza-kopuruari dagokionez, batez besteko balioak ditu (467,2 etxebizitza/1.000 bizt.) Etxebizitza-kopuruaren hazkundeari dagokionez, biztanleria-hazkundera negatiboa izan arren, aztertutako tartean (2001-2011) etxe-kopurua % 15,9 handitu egin da, balio hori batez bestekoaren azpitik dago eta etxebizitza-parkea ere oso gutxi hazi da (% 7,2). Alde horretatik, bigarren mailako etxebizitzaren (% 0,8) eta etxebizitza hutsaren (% 5,1) balioak oso txikiak dira aztertutako batez besteko balioekiko, horrek esan nahi du etxebizitza nagusia eraikuntza-parkearen gehiengo erabilera dela. Hala ere, erroldek 10 urte baino gehiagoko antzinasuneko balioak aztertzen dituzte eta horiek eguneratu beharko dira.



Euskal Autonomia Erkidegorako ateratako sintesi-planoaren irudia. Iturria: Espainiako Hiri Agendaren mapak.

7. Estrategia-helburuari, “Hiri-ekonomia bultzatzea eta sustatzeari” dagokionez, hiri- eta lurralde-eredu orekatua sustatu beharko da, jarduera ekonomikoko sektoreen dibertsifikazioan eragingo duena, erabilerak orekatuko dituen eta hurbileko merkataritza-sarea sustatuko duena.

Jarduera-sektoreen arabera langile-banaketa eta establezimendu-kopuruaren azterketan, zerbitzu-sektorea nagusi da (% 76,5), eta antzeko udalerrien batez bestekoaren gaitetik dago. Azpimarratzekoa da industria-sektoreko langileen balioa eta sektore horretako establezimendu-kopurua, biztanleria-maila bereko udalerriekin alderatuta, batez besteko balioak dituen. Hala ere, nekazaritza- eta eraikuntza-sektorearen ehunekoak oso txikiak dira zerbitzu-sektorearen nagusitasunarekiko. Diagnostikoaren adierazlearen arabera, bizitegi-erabilerarako aurreikusitako lurzoru-azalera hiri-lurzoruaren eta jada garatutako eremuen % 11,7 da; jarduera ekonomikoetarako aurreikusitako lurzoru-azalera, berriz, % 54,4 da.

Hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren garapen-eremuetan, proposatzen da % 14,5eko hazkundera izatea egungo etxebizitza-parkearekiko, 94,8 etxebizitza/ha-ko dentsitatearekin. Horrek hazkunde moderatua adierazten du, baina eredu trinkoaren aldeko apustu argia da, tipologia-nahasketa eta erabilera-aniztasuna bultzatzen dituen. Etxebizitza berriaren eskaintza diseinatu beharko da, oraindik gauzatzeke dauden eremuak kontuan hartuta, benetako eskaeren arabera, **8. Estrategia-helburua “Etxebizitza eskuragarritasuna bermatzea”** betetzeko.

9. Estrategia-helburua “Berrikuntza digitala gidatzea eta sustatzea” eta 10. Estrategia-helburua “Esku hartzeko tresnak eta gobernantza hobetzea” betetzeko, funtsezkoa izango da hiriko administratzaileek baliabideak ondo administratzea eta kudeatzea, baita hiriaren eraldaketa digitalerako inbertsioak egitea ere. Hirigintza-plangintzatik abiatuta, funtsezkoa izango da tresna eguneratua eta hiriaren zein lurraldearen baldintza sozioekonomiko berrietara egokituta izatea, eraginkorra, argia eta irisgarria, egungo arazoei erantzungo diena eta garapen jasangarriko estrategia-helburuetara egokitzeko bidea prestatuko duena.

Bada, Plan Orokor Berriaren Aurrerakinean proposatutako lurralde-antolamenduaren ereduak bere osieran estrategia-helburu hauek betearaztea jaso du, Zumarraga bizikidetzarako hiri atsegina, eroso, osasungarria eta kontzientziatua izan dadin, bidezko garapena, ekitatiboa eta jasangarria bilatzen duen hiria.

Hona hemen Zumarragako Plan Orokor berriaren Aurrerakinean Hiri Agendak ezarritako estrategia-helburuak betetzeko ezarri diren jarduketa-lerroak:

1. LURRALDEA, PAISAIA ETA BIODIBERTSITATEA

LURZORUA BERE LURRALDE-INGURUNEAREKIN BATERAGARRI ANTOLATZEA. NATURA-ETA KULTURA-ONDAREA ZAINZEA ETA HOBETZEA ETA PAISAIA BABESTEIA. AZPIEGITURA BERDEAK ETA URDINAK HOBETZEA ETA TESTUINGURU NATURALAREKIN LOTZEA


Zumarragak natura- eta paisaia-balio garrantzitsuak ditu. Urola ibaiaren presentzia lurralde honen eraketaren parte izan da beti eta baldintzatzailea izan da kokagunearen jatorrian, Urretxurekin partekatua da. Plan Orokorraren Aurrerakinak onartu eta berretsi du lurralde-euskarrian duen berezko izaera, eta baldintza hori bere eredu berriaren konfigurazioan barneratzearen aldeko apustua egiten du.

Aurrerakinean jasotako hazkunde-proposamena berrikusten den plangintzak sailkatutako eremuetan oinarrituta dago, eta, ildo horretatik, proposatzen da urbanizazio berrirako edo hirigunearen hedapenerako lurzoru-azalera murriztea eta dagoeneko hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarri sailkatutakoan esku hartzea. Horretarako, lehentasuna emango zaio honakoei: eraldatutako lurzoruak berritzea, birziklatzea eta birgaitzea; amaitu gabeko bilbeak osatzea, garapen jasangarriagoaren eta eraginkorragoaren ildotik; eta garatu gabeko eremuak berrantolatzea, hiriaren ingurumen-kalitatea eta zuzkidurak hobetzeko

Horrenbestez, Plan Orokorraren Aurrerakinak ez du jaso, indarreko Arau Subsidiarioetako lurzoru urbanizagarriaren sailkapenari dagokionez, azalera handitzeko proposamenik; aitzitik, lurzoru urbanizaezin sailkatu dira ingurumen-eragineko eremuak edo espazio garrantzitsuak osatzen dituztenak, adibidez, ibai-ibilguak, eta lehendik mugatutako eremuak berrantolatu dira, egungo hiri-lurzoruarekin jarraian, gizarte-kohesioa eta hiriaren ingurumen- eta zuzkidura-kalitatearen hobekuntza sustatzen duten printzipioetatik abiatuta.

Plan Orokorraren Aurrerakinean jasotako lurzoru urbanizaezinen antolamenduak 2019ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroekin bat datorren kategorizazioa egiten du, horrela erreferentziako plangintza sektoriala hobetu eta hirigintzako informazio-fasean aztertutako ingurumen-balioak bete egiten dira. Hala ere, nabarmendu behar da ezarpen garrantzitsua eta berria egin dela, Zumarragako lurraldea, bertako ekosistemak eta biodibertsitatea zaintzeko eta balioztatzeko helburuarekin, udalerriko Azpiegitura Berdea definitu delako. Azpiegitura hori ez da indarreko plangintzan lantzen eta lurralde-eredu jasangarriagoa eratzen du.

Idea da zaindu, leheneratu edo suspertu beharreko ingurumen-, natura- eta paisaia-balioak kontuan hartzea, ikuspegi integratzailetik, eskala guztiak hartuko dituen benetako lurralde-matrizea eratuta, eta nekazaritza- eta hiri-bilbea artikulatuko duten ingurumen-sareak eta -konektoreak eraikita. Azpiegitura berde hori udalerriko arkeologia-, arkitektura- eta etnologia-ondarearen aberastasuna baloratuta ezar daiteke. Gai hori Aurrerakin honetan aztertu da, babestutako ondasunak katalogatzeko proposamen oso zehatzarekin.



Zumarragako azpiegitura berdearen eskema. Lurralde-eskala.

2. HIRI-EREDUA

- 2.1. TRINKOTASUNA, HIRI-OREKA ETA OINARRIZKO ZERBITZUEN ZUZKIDURA SUSTATUKO DITUEN HIRI-EREDUA DEFINITZEA.
- 2.2. KONPLEXUTASUN FUNTZIONALA ETA ERABILERA-ANIZTASUNA BERMATZEA.
- 2.3. ESPAZIO PUBLIKOEN KALITATEA ETA IRISGARRITASUNA BERMATZEA.
- 2.4. HIRI-INGURUMENA HOBETZEA ETA KUTSADURA MURRIZTEA.
- 2.5. HIRI-BERRONERATZEA SUSTATZEA.
- 2.6. ERAIKINEN KALITATEA ETA JASANGARRITASUNA HOBETZEA.

Zumarragako Plan Orokorraren Aurrerakinean proposatutako hiri-eredua trinkoa da, egungo hiri-lurzoruarekin jarraian, dentsitate handikoa eta erabilera anitzekoa. Horrenbestez, EHaren 2. Estrategia-helburua betetzen da.


Hiri-lurzoruan aurreikusitako jarduketek udalerriak dagoeneko martxan dituen garapenak onartzen eta jasotzen dituzte. Bestalde, honakoetarako jarduketa-multzoa proposatzen dute: garatu gabeko eremuak, adibidez, Ipintza, zuzkidura aldetik berrantolatze eta hobetzeko; hutsuneak edo garapen berrietarako trantsizio-espazioak osatzeko, hala nola, Industrialdeko zuzkidura-jarduketa; eta gizarte-kohesioa eta irisgarritasuna hobetzeko. Azken horiek honako jarduketetatik abiatuta egingo dira: zuzkidura publiko berriak eginda, espazio publiko estrategikoak berriz urbanizatuta eta hiriko hainbat guneren kota-aldaketak konpontzeko hiri-konektore berriak eraikita.



Ipintzaren antolamendu orientagarria, Kalebarren eta Forjas garatzen ari diren eremuekin.

Berrikusten den plangintzan aurreikusitako hazkunde-proposamenei dagokienez, Plan Orokorraren Aurrerakinak % 40 murrizten du lurzoru urbanizagarriaren hirigintza-erlaldaketan jarduketetarako lurzoru-azalera.

Indarreko Arau Subsidiarioek (Eizaga Berri 2 eta Ipintza) bizitegi-erabilera orokor sailkatutako lurzoru urbanizagarriak 5,25 hektarea zituen. HAPOren Aurrerakinean bi sektore horiek aztertzea proposatzen da, eta -horien ezaugarrien eta garapen-mailaren arabera- lurzorumota eta -kategoria egokienera egokitzea. Alde horretatik, dimentsio txikiko sektorearen, Ipintzaren, hiri-lurzoru finkatugabearen jarduketa onartuko da, Kalearres auzoa indartzeko eta hobetzeko. Horrez gain, Eizaga Berri 2 eremua berrantolatuko da, bizitegi-eskaintza zabaldua eta hobetuta, eremua bideragarriago egiteko, orografia handiko eremuan baitago. Gainera, espazio libreen eta hiri-ekipamenduen zuzkidura publikoak zabalduko dira, baita hiri-konektore (igogailua) berriak proposatu ere, eremuaren irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko.




Eizaga Berri 2ren antolamendu orientagarria

Jarduera ekonomikoetarako sektoreen eskaintzari dagokionez, lurzoru urbanizaezin sailkatu dira kokapen isolatua dutenak eta ingurumen-eraginak dituztenak, Urola ibaiarekin muga egiteagatik (Etxeberri Berri) edo horien barruan beste ibai batzuk izateagatik (Oianguren), hiri-trinkoaren, distantzia laburren eta jarraiaren aldeko apustua eginda.

Ildo horretatik, Acería 2 sektorearen sailkapena mantentzea planteatu da, antolamendu xehatua berrikusita, konektore berde eta zuhaitzi berriak barneratuta, hiriko azpiegitura berdearen funtsezko elementuak izango direnak.

Hurbiltasuna sustatzeko neurriei dagokienez, hiri-lurzoruko jarduketetan aurreikusitako zuzkidura eta zerbitzu berrietarako gordetako lurzorua lurralde-orekaren printzipioaren arabera diseinatu dira, baita zuzkidura gabeko hiri-eremuak eguneratzeko ere. Sistema orokorreko ekipamenduen proposamenak ere hiria eguneratzea planteatzen du, zuzkidura-eremu berriekin, egungo eremu zehatzetan udal-mailako ekipamendu-pilaketaren aurrean.




Egitura orokorra. Sistema orokorrak eta tokiko sistemak.

3. KLIMA-ALDAKETA

LURRALDE- ETA HIRI-EREDUA KLIMA-ALDAKETAREN ONDORIOETARA EGOKITZEA ETA HAREN PREBENTZIOAN AURRERA EGITEA. BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GAS-ISURIAK MURRIZTEA. KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO ERRESILIENTZIA HOBETZEA.

Zumarragan indarreko hirigintza-plangintza orokorrak ez du klima-aldaketara egokitzeko berezko araudirik ezarrita (duela 15 urte baino gehiago formulatu zelako), une honetan indarrean dagoen legeria sektorialaren arabera. Hala, antolamendu-ereduan ere ez da kontuan hartzen udaleko natura-arriskuen azterketa, eraginpeko eremuak identifikatu eta horien gaineko neurriak ezarri ahal izateko.

Zumarragako Plan Orokorraren Aurrerakina honako funtsezko printzipioaren arabera egin da: hazkundera geldiaraztea eta egungo hiri-sarea berroneratzea eta berritzea sustatzea. Ildo horretatik, ondorengoak egiteko jarduketa-multzoa proposatzen du: hiriko espazio publikoen sistema hobetu, hurbileko ekipamendu eta zerbitzuak gehitu eta mugikortasun jasangarriagoa sustatu, lekualdaketak murrizteko. Neurri eta jarduera horiek guztiek hiria klima-aldaketara hobeto egokitzeko balio dute.



Zumarragako azpiegitura berdearen eskema. Hiri-eskala

Halaber, natura-arriskuei eta -hondamendiei buruzko lurraldea identifikatu eta diagnostikatu, eta arlo horretako berariazko legeria jaso da, natura-arriskuei buruzko estrategia nazionalekin eta autonomikoekin, zein Hondamendien Arriskua Murrizteko Sendaiko Markoaren Akordioarekin 2015-2030 bat eginda.

Aire-kalitatearen kontrolari dagokionez, Plan Orokorraren Aurrerakinean, ingurumena babesteko estrategiaren barruan horren babes-araudia betetzea aurreikusi da, baita ingurumenean eragina duten gainerako gaiak ere. Era berean, HAPOren Aurrerakinak espazio libre publikoak urbanizatzeko arauak eta diseinu-irizpideak ezarri ditu. Horrez gain, espezie autoktonoen erabileran eragiteko neurriak eta gomendioak ere jaso ditu, baita lurzoru iragazkorraren gutxieneko azalera eta drainatze iraunkorreko sistemen ezarpena ere, lurzoruaren biologia-garapen egokia bermatzeko eta landaredia mantentzen zein euri-ura eusten laguntzeko.


Udalerriko Azpiegitura Berdearen definizioa honakoa da: korridore ekologikoen lurralde-sarea eta ingurumen-, paisaia- eta ondare-balioko elementu guztiak elkarrekin lotzen dituen lotura funtzionala da, ekosistemak eta, azken batean, horien biodibertsitatea zein mikroaniztasuna zaintzeko funtsezko neurria, eta proposatutako jarduetek klima-aldaketan izan ditzaketen eraginak arintzen ditu.

4. BALIABIDEEN KUDEAKETA JASANGARRIA. EKONOMIA ZIRKULARRA.

ENERGETIKOKI ERAGINKORRAGOAK IZATEA ETA ENERGIA AURREZTEA. UR-KONTSUMOA OPTIMIZATZEA ETA MURRIZTEA. MATERIALEN ZIKLOA SUSTATZEA.

Gure hirietako hiri-metabolismoari dagokionez, agendek bereziki eragiten dute energia jasagarrien erabileran, baliabideen kontsumoaren eraginkortasunean eta ekonomia zirkularreko ereduaren eraikuntza sustatzeko planen, neurrien eta jardueren garapenean.

Zumarragako Plan Orokorraren Aurrerakinak egungo energiak ekoizteko sistema mantentzearen aldeko apustua egin du eta energia berriztagarriko instalazio berrien proposamenak artikulatu ditu. Alde horretatik, aurrerakinaren hirigintza-araudian energia berriztagarria sustatzeko eta energia aurrezteko neurriak jaso dira. Beraz, Plan Orokorraren Aurrerakinaren egokitzapenak, agenden edukiei dagokienez, hiriko energiaren ekoizpena eta kontsumoa, baita energia berriztagarriak ekoizteko jarduketara zehatzak jasotzeko gaitasuna ere hobetzen ditu, energia-kontsumoaren murrizketa eta hiriaren autosufizientzia sustatzeko.



Hirian integratutako "SUDS"-ak. Iturria: Hattum et al.-etik egokitua. (2016).

Plan Orokorraren Aurrerakinean, uraren zikloa eraginkorragoa izateko ekintza eta neurri zehatzak aurreikusi dira. Ekintza eta neurri horiek eragina dute antzintasun handieneko sektoreetako hornidura-sareak hobetzeko eta berritzeko, baita ur-kontsumoa murrizteko eta galerak gutxitzeko neurri espezifikoak ezartzearen aldeko apustua ere egiten da. Horrez gain, HUA handitzea planteatu da, hirugarren sektoreko sistema hartu eta horren ura berrerabili ahal izateko, horrekin berdeguneak eta espazio libreak ureztatu daitezten. Ildo horretatik, beharrezkoa da, agendaren arabera, etxeko kontsumoa murrizteko eta

araztutako zein berrerabilitako uraren bolumena handitzeko instalazioak zabaltzea eta hobetzea, horren aplikazioa dokumentuan dagoen aurrerakinaren araudian jasota dago.

Plan Orokorren Aurrerakinean ekonomia zirkularra sustatzeko jarduketak ere jaso dira, birziklapena eta hiri-hondakin solidoen biltzea eta tratamendu berezia bultzatzen dutenak. Arau-aurrerakina jaso da eta bertan honakoak kontuan hartu dira: ekonomia zirkularra sustatzea, materialen bizi-zikloa, landare-hondakinaren tratamendua eta industria- eta hirugarren sektoreko eremuek sortzen dituzten hondakinak berrerabiltzeko zein birziklatzeko alderdiei eragiten dieten tratamendu bereziari buruzko edukiak.

5. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA.


HURBILEKO HIRIA. GARRAIOBIDE JASANGARRIAK SUSTATZEA.

Zumarragak mugikortasun jasangarriagoa sustatzeko dimentsio egokidun hirigunea du, oinezkoentzat eta bizikletentzat distantzia onargarriak ditu. Hala ere, eremuaren orografiak irisgarritasun unibertsala izatea zaildu egiten du. Udala zentzu horretan aurreratu egin da, pasaguneak eta hiri-konektoreak (igogailuak) egin dituelako, irisgarritasuna errazteko, eta beste proiektu batzuk ere martxan daudelako, hala nola, Eukal Herrikoa Hiribidea berriz urbanizatzea.



Belokiko hiri-konektore berriaren antolamendu orientagarria, Eizaga Berri, Hilerría eta UGLE guneraen irisgarritasuna hobetzen duena.

HAPOren Aurrerakinak udalerrian mugikortasun jasangarria sustatzearen aldeko apustuarekin jarraitzen du. Hala, bide-hierarkia argia eta artikulatua ezarri du, hiriko joan-etorriak optimizatzen dituena eta, aldi berean, bizitegi-auzoetako zirkulazioa murrizten duena. Gainera, oinezkoentzako sare artikulatua eta irisgarria definitu du, hiri-konektore berriak dituena eta bizikleta-sarearekin bat eginda, ekoizpen-lurzoruekin lotzen dena. Horrez gain, aparkaleku berriak bilatzeko proposamena egin da, garraibidez aldatzeko gune intermodalak sustatzeko. Halaber, garraio publikoaren sarea handitzea planteatu da, ekoizpen-lurzoruei eta hiriaren iparraldeko eremuei zerbitzu emateko.



Oinezko- eta bizikleta-sarearen eskema.

6. GIZARTE KOHESIOA ETA AUKERA BERDINTASUNA.

HIRI-INGURUNE ZAURGARRIETAN POBREZIA ETA GIZARTE-BAZTERKETA ARRISKUA MURRIZTEA. AUKERA BERDINTASUNA BILATZEA GENERO-, ADIN- ETA EZGAITASUN-IKUSPEGITIK.

Agendek ezarritako azterketetatik eta adierazleetatik ondorioztatu da lehentasunezko helburua dela, hiri-inguruneen zaugarritasuna gutxitzea eta arazo horiek non gertatzen diren goiz antzematea. Plan Orokorraren edukiak eremu zaugarriari buruzko erreferentziazko dokumentuetan ezarritakora egokituko dira; izan ere, hala badagokio, zaugarriak diren hiri-ehunen gaineko jarduketak ezagutuko eta proposatuko ditu.

Berdintasunaren arloko proposamenei dagokienez, genero-, adin- edo ezgaitasun-ikuspegitik, Plan Orokorraren Aurrerakinako estrategietako bat da genero-ikuspegia hiri-ereduaren oinarri kontzeptualetan jasotzea. Horrela, kontzeptuzko oinarrietan, emakumeek hiria erabiltzeko duten modu zehatzaren garrantzia gehitu da, bereziki honako gaiei dagokienez: mugikortasun jasangarria, hurbileko zerbitzuak eta espazio libreen zuzkidurak, erabilera-nahasketak zein tipologia-aniztasunak eta espazio publiko seguruen diseinua.



Elkano kaleko lurrazpiko pasabidea

Gainera, arlo hori arautzeko arau-aurrerakina ezarri da. Hala, gai horri buruzko guztia antolamendu-memoriaren eranskinean jaso da, eta antolamendu-eredua definitzean genero-ikuspegia txertatzeko estrategia ezartzeko berariazko irizpideak ezarri dira.

7. HIRI-EKONOMIA

TOKIKO EKOIZPENA, ENPLEGUA SORTZEA ETA JARDUERA EKONOMIKOAREN DINAMIZAZIOA ETA DIBERTSIFIKAZIOA BILATZEA. TURISMO ADIMENDUNA, JASANGARRIA ZEIN KALITATEKOA ETA TOKIKO EKONOMIAREN SEKTORE NAGUSIAK SUSTATZEA.

Plan Orokorraren Aurrerakinak hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian hazteko eredu proposatzen du. Eredu horrek bizitegi-jardueraren osagarri diren jarduera ekonomikoko erabileren gutxieneko ehunekoak jasotzen ditu, hiri-ehun konplexuagoak eta askotarikoak eraikitzeko. Era berean, eremu horretako ekoizpen-lurzoruak mantentzea planifikatzen da, hirian hobeto barneratu eta lehiakorragoak izan daitezen.

Alde horretatik, Acería 2 eremuan aurreikusitako lurzoruaren biziberritzea nabarmentzen da, duen tamainagatik, Plan Orokorraren Aurrerakinaren hazkunde berrien proposamenen artean.



Acería 2ren antolamendu orientagarria

8. ETXEBIZITZA.

ETXEBIZITZA-PARKE EGOKIA ETA PREZIO ESKURAGARRIAN SUSTATZEA.

Plan Orokorraren Aurrerakinean proposatzen da babes-araubideko etxebizitza eskaintza garrantzitsua jasotzea, lurraldean banaketa orekatua eta bidezkoa duena. Horrela, proposatutako bizitegi-erabilera orokorreko jarduketa guztiek, Ipintza eta Eizaga Berri 2 eremuen zehaztapenak berrikusten eta hobetzen dituztenak, etxebizitza-babesturako eskaintza garrantzitsurako eraikigarritasun-erreserba dute, indarreko plangintzak jatorrian ezarritako eskaintza gaindituta.



Zumarragako hirugunearen ikuspegia

9. ARO DIGITALA

EZAGUTZAREN GIZARTEA BULTZATZEA ETA HIRI ADIMENDUNEN (SMART CITIES) GARAPENEAN AURRERA EGITEA.

Plan Orokorraren Aurrerakinak hirian telekomunikazioak behar bezala garatzeko beharrezko azpiegiturak jartzeko proposamena egiten du, hiri-eskaerarekin eta indarreko legeria sektorialeko arau-esparruarekin bat eginda.

Izan ere, Plan Orokorrak telekomunikazioen eta teknologia digitalaren arloan jaso behar dituen edukiak askoz zabalagoak dira, eta presentzia handiagoa dute hiriko funtzionamenduaren alderdi guztietan. Hori dela-eta, Aurrerakin-dokumentuak erregulazio estrategiko garrantzitsua jaso du telekomunikazioen arloko aurreikuspenak berriz pentsatzeko eta eguneratzeko, herritarrek teknologia berriak eskuratzeko aukera izan dezaten eta hiri-kudeaketan teknologia berriak ezar daitezten. Teknologia berriak hirian integratzeari buruzko hausnarketa zabaldu behar da, lurzoru-erreserba berriak planteatuta edo berrikuntza teknologikoarekin lotutako ekoizpen-sektoreak sortuta, teknologia garbiak sustatuta, edo espazio publikoak herritarren teknologia berriak doan eskuratzeko gune izanda.

10. TRESNAK.

ARAU- ETA PLANGINTZA-ESPARRU EGUNERATUA, MALGUA ETA SINPLIFIKATUA LORTZEA, KUDEAKETA ERE HOBETUKO DUENA. HERRITARREN PARTE-HARTZEA, GARDENTASUNA ETA MAILA ANITZEKO GOBERNANTZA BULTZATZEA.

Adierazle-multzo horrek Zumarragako Plan Orokorraren Aurrerakinean duen eragina honako hauekin lotuta dago: arau-esparrura egokitzea, garatzeko eta kudeatzeko malgutasuna, hiri-errealitatera egokitze gaitasuna eta informazioaren teknologia berriak erabilia herritarren parte-hartzea eta gardentasuna sustatzeko ahalmena.



Plan Orokorraren Aurrerakina Plan berria eratzeko oinarrizko dokumentua da, eta hirian esku hartzeko eta hura berroneratzeko gaitasun handiko tresna izango da. Beraz, indarrean sartzen denean, udalerriko ekonomia-, ingurumen- eta gizarte-jasangarritasunerako eraldaketari ekiteko aukera emango du.

Aurrerakin-dokumentua, gainera, malgutasun, egokitzapen edo erresilientzia apur bat bermatzeko tresnatzat aurkeztu da, nahi izanez gero. Hori dela eta, integratzen den araudiaren Aurrerakinak arazo jakin batzuk konpontzeko hirigintza-esparrua planteatzen du, gero, garapen-tresnak, planak edo ordenantzak idazteko lagungarri dena, ikuspegi hurbilagotik planteatu beharreko konponbidea bilatu ahal izateko. Alde horretatik, herritarren beharrian berriak barneratzeko dokumentua da, gobernantzari dagokionez.

Gardentasunari eta herritarren parte-hartzeari dagokienez, Aurrerakin-dokumentuaren idazketa bera maila anitzeko komunikazioaren eta diseinu partekatua adibide da, orain arte egindako parte-hartze prozesuen memorian antzeman bezala.



HASIERA
 AURKIZPENA
 ARAZOAK
 ASKATIAK
 NEURBIDEAK
 ERROKAK
 FASAK
 DESKARGAK
 POSTINTZIA
 —
 CASTELLANO

FASEA

FASEEN DESKORRIKAPENA

01

HIRIGINTZA INFORMAZIOA

Fase honetan, lehen informazioa jaso eta horretarako egindako lanaren kontatzea konbinatzen dira. Horien bitartez, proposamenaren aurreko diagnostiko partzial bat sortzea da helburua.

Canera, parte-hartze prozesuak bat dute, orain iritsi ahal diren informazioa eskatzeak.

Hori horien artean, buruzko informazioa ulertuz gero eta hurbilagoa eta lumaketa-egoera-dien informazioa eguneratzen da.

Laburtutako: analisia eta diagnostiko orokorra eguneratua da. Beraz, EAEko Lurralde Antolatuenaren Olatuaren Inerzia-eremuaren bitartez, orain EAEko Olatuaren Inerzia-eremuaren bitartez, lurraldeko Lurralde Plan-eremuaren LUPHaren bitartez, eragileak dituen indararen dauden edo eragileak erdi diren Lurralde Plan sektorearen LUPHaren bitartez eragileak da.

